EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA
Plangintza eta Enplegu Sailburuordetza
*Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES
Viceconsejería de Planificación y Empleo
*Dirección de Servicios y Régimen Jurídico*

# 2010eko LAN MERKATUAREN ERROLDA

# EMAITZA NAGUSIAK

Txostena: 2011ko abuztuaren 24a

EOB Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila (Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza)

# 0. Emaitza nagusien laburpena

Dokumentu honek 2010eko Lan Merkatuaren Erroldaren (LME) emaitzak eskaintzen ditu. Euskadiko lan-merkatua epe ertainean edo luzean eraginpean hartuko duten egitura-joera nagusiak kontuan hartzen baditu ere, dokumentuaren helburu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko jarduerak, okupazioak eta langabeziak 2009tik 2010era bitarte izan duten bilakaeran ikusitako aldaketak zehaztea da, eskualdeko lurralde-dimentsioa bereziki kontuan hartuta. Txostenaren irakurketa errazteko, ikusitako aldaketa nagusien laburpen bat aurreratuko dugu hasierako kapitulu honetan.

**LANGABEZIA GORA ETA OKUPAZIOA BEHERA**

**Langabeziak gora egin du, luzaroko dimentsioan bereziki**

* Igoera-erritmoa moteldu bada ere, langabeen kopuruak % 15,2ko proportzioan egin du gora 2009tik 2010era bitarte EAEn. Horrela, beraz, 13.700 pertsonako igoera garbia izan da. Langabezia-tasa % 10era iritsi da, eta, beraz, 2009koa baino 1,3 puntu handiagoa da (% 8,7ko tasa 2009an). Halaber, langabezia-tasa handia izan zuen 2001-2003 aldikoa baino handiagoa da (% 8-9 aldi horretan).

  2009tik 2011era bitarte, lanerako prest dagoen biztanleria ez-aktiboaren[1]kopuruak ere gora egin du, eta 32.285 pertsona gehiago ziren 2010. urtearen amaieran. Talde horrekin, beraz, langabeziak % 31ko proportzioan egin du gora, eta 136.385 langabe dira guztira. Horrela, beraz, langabezia-tasa potentziala % 12,7ra iritsi da, hau da, 2009koa (% 10,7) baino bi puntu handiagoa da.

* 2007-2009 biurtekoan ez bezala, langabeziak 2009tik 2010era bitarte izan duen igoera iraupenik luzeeneko langabezian oinarritu da nagusiki. Enplegu bila urtebetetik gora dabiltzan iraupen luzeko langabeen proportzioa % 33tik % 51,9ra igo da. Oso iraupen luzeko langabezia (bi urtetik gorakoa), berriz, % 12,7tik % 23,3ra igo da.

  Langabeziaren kronifikazio handiagoa lana lortzeko zailtasun handiagoen emaitza izan da. Azken hamabi hilabeteetan enpleguarekin lotura bat izan duten langabeen proportzioa % 50etik % 46,5-47ra jaitsi zen 2003-2006tik 2007-2009ra bitarte, eta % 40,7ra iritsi da 2010ean.

---

[1] Enplegurako prest dagoen biztanleria ez-aktiboaren barruan, enplegu bila dabiltzan eta lanerako prest dauden, baina azken hilabetean okupazio berria aurkitzeko berariazko kudeaketa edo ekintzarik egin ez duten pertsonak sartzen dira, enplegu-zerbitzu publikoetan eskari formal bat eguneratzerik izan ez dutenak barne. LANEren irizpideei jarraiki biztanleria hori BJAn eta LMEan langabe gisa sailkatu ordez ez-aktibo gisa sailkatzeko arrazoia enplegua bilatzeko berariazko ekintzarik egin ez izana da.

* Bilakaera hori lagungarria da enplegu berria bilatzen duten eta enplegua lortzeko kudeaketak egiten dituzten pertsonen muga pertsonalak hobeto hautemateko. Horien artean, % 92,6k okupazio bat lortzeko zailtasun objektiboren bat ikusi du 2010. urtean, eta, beraz, igoera esanguratsua izan da 2009. urteko eta 2001. eta 2003. urteetako proportzioekin alderatuta (% 86,5 eta % 83,5, hurrenez hurren). Arazo nagusiak kalifikazioari lotutako alderdiei dagozkienak dira (ikasketa-maila, hizkuntzak jakitea eta lan-esperientzia). Zehazki, kolektiboaren % 70,2k aipatu ditu alderdi horiek. Adina ere garrantzitsua da, eta adierazi beharra dago aztertutako pertsonen % 34k aipatu duela faktore hori. Muga horren eraginak gorakada handia izan du 2009tik 2010era bitarte 50-59 urteko pertsonen kasuan eta, batez ere, 20-29 urtekoengan.

  Inguruabar negatibo horietan, langabeek lan-aurreikuspenak mugatu dituzte. Ildo horretan, 2006-2007tik aurrera, eta bizileku-aldaketaren onarpena salbuetsita, enplegu berri bat onartzeko ezarritako baldintzak nabarmen murriztu dira, baita prestakuntza-mailetara eta soldata-aurreikuspen normaletara egokitutako garapen ekonomiko eta profesionalari lotutakoak ere. Biztanleria landunaren kasuan, lanpostuarekiko atxikimendua sendotu egin da. Enplegu berria bilatzen duten landunen proportzioa % 4,5etik % 3,9ra murriztu da 2009tik 2010era bitarte; 2007. urtean soilik izan zen txikiagoa zifra hori (% 3).

**Okupazioaren beherakada, faktore nagusi**

* Jarduera-mailetan izandako aldaketen presioa ez da aurreko urteetakoa bezalakoa izan. Izan ere, biztanleria aktiboaren urteko batez besteko igoera % 1,75etik % 0,4ra murriztu da 2007-2009tik 2009-2010era bitarte. Horrela, beraz, 4.142 aktibo berri garbi izan dira.

  2009tik 2010era bitarte, okupazioaren beherakada izan da faktorerik azpimarragarriena langabeziaren zifrek gora egiteko (16-64 biztanleria landunaren kopuruak 9.558 pertsonatan egin du behera). Okupazioaren jaitsiera-erritmoa egonkor samarra izan da 2009tik 2010era bitarte. Izan ere, urteko % 1,01eko jaitsiera izan da, hau da, 2007-2009 biurtekoko urteko batez besteko % 1,23ko jaitsieraren antzekoa. 2007. urtearekin alderatuta (urte hartan lortu zen zifrarik handiena: 970.957 pertsona), EAEk 33.257 landun galdu ditu 2010. urtean (urte hartako landunen % 3,4).

* EAEko 16-64 urteko biztanleriaren okupazio-koefizienteak okupazioaren beherakadaren neurrian egin du behera (% 68,1 2007an, % 65,2 2009an eta % 64,6 2010ean). Horrela, beraz, 2010eko adierazlea 2003koa (% 63,4) baino handiagoa da (puntu batetik gorako aldearekin), baina 2005ekoa (% 66,1) baino txikiagoa. EAEko okupazio-koefizientearen eta Europako okupazio-mailarik handieneko herrialdeetako koefizienteen arteko aldea areagotu egin da 2010. urtean.

* Era berean, landunen proportzioak etengabe egin du behera azken hamabi hilabeteetan, eta % 60,9tik % 57,5era jaitsi da 2007tik 2010era bitarte. Gainera, beheranzko joera areagotu egin da 2009tik 2010era bitarte (1,9 puntuko beherakada azken urtean, eta 1,6koa 2007-2009 biurteko osoan). 2007tik 2010era bitarte, modu jarraituan jardun duen biztanleriak % 4ko beherakada izan du (868.793 pertsona 2007an, eta 834.283 pertsona 2010ean).

**OKUPAZIOAREN BEHERAKADAREN EREMUAK**

**Lehen sektoreak, industriak eta eraikuntzak okupazioa galtzen jarraitzen dute, baina zerbitzu-sektoreko zenbait adarren bilakaera ere negatiboa da**

* 2009tik 2010era bitarte, zerbitzu-arlokoez bestelako sektoreetako okupazioaren bilakaera negatiboak bere horretan jarraitu du. Lehen sektorean, industria eta eraikuntza oro har hartuta, okupazioaren % 4 galdu da aztergai dugun aldian (EJSN-93ko zenbatespena). Industriaren gainerakoan okupazioak izan dituen beherakada handiak finkatu badira ere (% -8,8 2009tik 2010era bitarte), metal-industrian eta manufaktura-industrian okupazioak izan duen egonkortzeari edo suspertzeari esker, okupazioaren beherakada urteko batez besteko % 9,2tik % 1,3ra murriztu ahal izan da 2007-2009tik 2009-2010era bitarte. Eraikuntzan, ordea, okupazioaren beherakada areagotu egin da (urteko batez besteko % 5,4tik % 10,4ra igo da okupazioaren beherakadaren erritmoa 2007-2009tik 2009-2010era bitarte). Ildo berean, nekazaritzako okupazioa 2007tik 2009ra bitarte egonkortu bazen ere, 2009-2010 aldian % 8,2ko beherakada izan da.

* 2009tik 2010era bitarte zerbitzu-sektorean okupazioak zertxobait gora egin badu ere (% +0,4, EJSN-93 sailkapenaren arabera), emaitza positibo horrek ezkutatu egiten du zenbait adarretan izandako beherakada nabarmena. Kasuren batean (hala nola garraioei eta komunikazioei lotutako adarren multzoan), duela gutxi hasitako dinamika negatiboak finkatu egin ditu okupazioak 2007-2009 aldian izan dituen galerak. Multzo horretan, okupazioak gero eta beherakada handiagoa izan du hamarkadaren erdialdetik aurrera. Gainera, zerbitzu-sektoreko adar multzo horretan baino ez da negatiboa izan okupazioaren bilakaeraren balantze orokorra 2007-2010 aldian. Zehazki, okupazioak % 9ko beherakada izan du.

  Merkataritzari lotutako adarren bilakaera ere negatiboa izan da 2009tik 2010era bitarte. Okupazioak % 0,5eko beherakada baino ez du izan finantza-erakundeetan, eta % 1,6koa gainerako zerbitzuetan, baina merkataritzan eta ostalaritzan % 4 ingurura iritsi da. Adar horiek, oro har, ahultasun-seinaleak agertu zituzten aldez aurretik. Nolanahi ere, 2005-2007 aldian okupazioan izandako beherakadak konpentsatu egin ziren 2007tik 2009ra bitarte izandako igoerarekin. Bilakaera horren ondorioz, zenbait kasutan (hala nola merkataritzan eta zerbitzuen gainerako adarretan) 2010eko okupazioa 2005ekoa baino txikiagoa izan da.

Adar multzo horren barruan, ostalaritzak agertzen du 2009ra arte gertatuarekiko hausturarik handiena. Izan ere, 2001-2009 aldiaren ezaugarri bereizgarria okupazioak izan zuen hazkundearen erritmo bizia izan bazen ere, 2009tik 2010era bitarte % 3,9ko beherakada izan da jarduera-adar horren okupazio-mailetan.

* Okupazioan atzera egin duten sektore eta adar guztien artean (guztira 24.229 enplegu galdu dira 2009tik 2010era bitarte), eraikuntza (% 33,9) eta merkataritza (% 23,3) nabarmentzen dira. Halaber, beherakada garrantzitsuak izan dira metal-industriaz eta manufaktura-industriaz bestelako industria-adarretan (% 13,5), garraioen eta komunikazioen multzoan (% 11,5), ostalaritzan (% 9,1) eta nekazaritzan eta arrantzan (% 5,1).

  Bilakaera horrek ahuldu egin ditu hazi diren sektore eta adarretan lortutako irabazi garbiak (14.671 enplegu berri). Okupazioaren hazkunde nagusia honako hauetan gertatu da: enpresetarako zerbitzuetan (adierazitako hazkundearen % 46), hezkuntzan, osasunean eta gizarte-zerbitzuetan (% 24,8) eta etxeko zerbitzuan (% 18,7). Halaber, Administrazio Publikoan eta manufaktura-industrian hazkundea izan da (% 6,5 eta % 4, hurrenez hurren).

**Okupazioaren beherakadak eragin handia izan du lan-eskalaren goialdean**

* 2005-2010 aldian, okupazioaren bilakaerarik negatiboena teknikariarena baino maila txikiagoko langile kalifikatuen kolektiboak, makineriako operadoreen kolektiboak eta kalifikaziorik gabeko landunek izan dute. 2009tik 2010era bitarte, landunen kopuruaren beherakada moteldu egin da aurreko urteekin alderatuta, makineriako operadoreen kasuan izan ezik (% -5,5). Aldi horretan, okupazioaren beherakadarik esanguratsuena zuzendariena eta teknikariena izan da (% -3,7 eta % -4,7, hurrenez hurren). 2009tik 2010era bitarte, teknikariek eta zuzendariek landun guztien artean duten proportzioa % 34,1etik % 32,9ra jaitsi da.

  Teknikarien okupazioaren bilakaeran, zenbait alderdi bereziki kezkagarriak dira. 2001etik 2005era bitarte, urteko batez besteko hazkunde-erritmoa % 5,2 izan zen, eta zifra hori % 1,9era jaitsi zen 2005-2007 aldian eta % 0,6ra 2007-2009 aldian. 2009tik 2010era bitarte, berriz, teknikarien okupazioak % 4,7ko beherakada izan du.

  Ildo beretik, goi-teknologiako sektoreetako okupazioaren beherakadak jarraitu egin du. Izan ere, 2007-2009 aldian okupazioak izan zuen urteko batez besteko % 0,8ko beherakada areagotu egin da, eta urteko % 1,5era iritsi da 2009-2010 aldian. Horrela, beraz, 2007tik 2010era bitarte, EAEk okupazioaren % 2,9 galdu du goi-teknologia erabiltzen duten sektoreetan.

**Kontratu mugagabea duten soldatapekoen beherakada bereziki nabarmendu da**

* Nolanahi ere, okupazioaren bilakaeraren ezaugarririk azpimarragarriena kontratu mugagabea duten soldatapekoen kopuruaren beherakada handia izan da. Kolektibo horrek 25.640 pertsona galdu ditu 2009tik 2010era bitarte, eta, beraz, % 4ko beherakada izan du. Dena dela, kontratazio mugagabearen % +13,6ko gorakadak (20.180 okupazio berri garbi) neurri handian orekatu du beherakada hori. Kontratu mugagabea duten soldatapekoen kopuruaren beherakada are esanguratsuagoa da azken hamarkadan okupazio mota horrek goranzko joera nabaria izan duela kontuan hartzen bada. Izan ere, 2001-2009 aldiko fase guztiak kontuan hartuta, urteko batez besteko hazkunde-erritmoak % 2,8tik % 3,8ra bitartekoak izan dira.

**Lotutako ondorio bat: landunen diru-sarreren masak behera egin du, lehen aldiz 2005. urtetik**

* Okupazioak 2009tik 2010era bitarte izan duen beherakadak, landunen diru-sarreren mailaren egokitze-prozesuei dagokienez, ondorio garrantzitsu bat izan du. 2005. urtetik lehen aldiz, landunen diru-sarrera arrunt garbien masak behera egin duela ikus daiteke. Diru-sarreren masa horrek % 2,4ko beherakada izan du 2009tik 2010era bitarte.

**IKUSITAKO ALDAKETAK SEXUAREN, ADINAREN ETA NAZIONALITATEAREN ARABERA**

**Okupazioaren beherakada emakumeengana zabaldu da**

* 2005etik 2009ra bitarte emakumeen okupazioak urteko batez besteko % 2,1eko hazkundea izan bazuen ere, 2009-2010 aldian okupazioaren beherakada-prozesua emakumeengana iritsi da, eta emakume landunen kopuruak % 0,4ko beherakada izan du. Emakumeen okupazioak oraindik gora egiten duen testuinguru batean, eta jarduerarен beherakadak gizonen okupazioan izandako galeren jarraipena dakarrela kontuan hartuta (% -1,5 2009tik 2010era bitarte), emakumeen langabeziaren hazkunde-erritmoak handiagoak izan dira azken urtean. Gizonen langabezia-tasa oraindik handiagoa bada ere (% 10,2 gizonena eta % 9,7 emakumeena), 2009-2010 aldiko langabeziaren zifretan izandako igoera garbiaren % 59,1 emakumeei dagokie.

  Hala ere, emakumeen 2010eko okupazioa 2007koa baino % 3,9 handiagoa izan da (aldi horretan, gizonen 2007ko okupazioaren % 8,6 galdu zen). Gainera, emakume landunak EAEko landun guztien % 41,6 ziren 2005ean, eta % 44,9 2010ean.

**Gazteen enpleguak areagotu egin du joera negatiboa, baina langabeziaren gorakadak eragin handiagoa izan du 35 urtetik gorako pertsonengan**

* Okupazioaren dinamikarik negatiboena gazteenak jasaten ari dira. Izan ere, 2009tik 2010era bitarte, okupazioak % 3,3ko beherakada izan du 25-34 urtekoen artean, eta % 15,7koa 25 urtetik beherakoen artean (2007-2010 hirurteko osoan, berriz, % -13,7ko eta % -34,7ko beherakadak izan dira, hurrenez hurren). Beherakada horren ondorioz, 35 urtetik beherakoek % 29,6ko proportzioa dute EAEko guztizko okupazioan, hau da, 2001ean eta 2005ean baino txikiagoa (% 39,5 eta % 36,7, hurrenez hurren). Edonola ere, jaiotza-tasaren jaitsierari lotutako prozesu demografikoek eraginda jarduera-zifretan izandako beherakada handiaren ondorioz (neurri handi batean bederen), 25 urtetik beherako langabeen kopuruak % 0,6ko igoera baino ez du izan. Gainera, langabeen kopuruak % 2,8ko beherakada izan du 25-34 urtekoen kasuan.

* 35-49 urteko biztanleen kasuan okupazioak 2009tik 2010era bitarte izan duen beherakada % 1,3 baino ez da izan, baina datu horrek esanahi berezia du. Izan ere, 2005. urtetik talde horrek izan duen lehen beherakada izan da, eta talde horretako aktiboen kopurua gero eta handiagoa da. Horren ondorioz, langabeziak % 32ko igoera izan du azken urtean. 50 urtetik gorakoen kasuan okupazioak 2009tik 2010era bitarte % 4,8ko igoera izan badu ere, jardueraren goranzko joerak ere adin horretako langabeen kopuruaren gorakada handia eragin du (% +41,4 2009tik 2010era bitarte). Langabezia-tasa % 6,7tik % 8,8ra igo da 35-49 urteko biztanleria aktiboan, eta % 4,8tik % 6,3ra 50 urtetik gorako pertsona aktiboen kasuan. Tasa horiek gazteenak baino askoz txikiagoak badira ere (% 25,9 25 urtetik beherakoen kasuan, eta % 12,2 25-34 urtekoen kasuan), deskribatutako bilakaerak aldaketa handia dakar langabeziaren barne-banaketan, 35 urtetik gorako langabeen ehunekoa % 45,7tik % 54,4ra igo baita 2007tik 2009ra bitarte[2].

**Hala ere, okupazioak gora egin du atzerriko etorkinen kasuan, eta horrek egonkortu egin ditu langabezia-tasak**

* 2010. urtean, immigrazioaren joera oraindik goranzkoa izan denez gero, atzerriko landunen kopurua 2007koa baino % 14,9 handiagoa izan da. 2009tik 2010era bitarte, biztanle talde horren jarduera-tasa murriztu egin da, baina langabezia-tasak ez du gora egin etorkinen artean, nahiz eta okupazioa egonkortu egin den aldi horretan. 2009tik 2010era bitarte, tasak gorantz jarraitu du bertako biztanleen artean (% 7,8tik % 9,2ra igo da); atzerriko biztanleen kasuan, berriz, % 24,4tik % 24ra jaitsi da. Dena dela, EBko gainerako herrialdeetatik iritsitako biztanleen okupazio-koefizientea 2007koa baino handiagoa bada ere (% 66,3 2007an eta % 70,3 2010ean, 2009an % 72,8ra iritsi ondoren), adierazleak behera jarraitu du munduko gainerako herrialdeetatik etorritako biztanleen kasuan (% 64 2007an, % 54,1 2009an eta % 52,8 2010ean).

---

[2] Hala ere, adierazi beharra dago langabezia-egoera gehienak 25-44 urtekoen taldean biltzen direla (kasu guztien % 60,6).

* Atzerritar langabeen barruan, azpimarratu beharra dago gizonak askoz gehiago direla (guztien % 65,4). Horrek adierazten du biztanle talde horren langabezia-tasek gorakada handia izan dutela krisialdian. Langabezia-tasa 2007an % 3,8ra jaitsi ondoren, krisialdiaren ondorioz % 27,9ra igo da talde horretan 2009. urtean, eta % 29,6ra 2010ean. Beraz, talde horren langabezia-tasa Estatuko gizonena baino 20,4 puntu handiagoa izan da (% 9,2ko tasa Estatuko gizonen kasuan). Langabezia-tasaren bilakaera hobea izan da atzerriko emakumeen kasuan. 2005etik 2006ra bitarte % 9,2tik % 7,2ra jaitsi ondoren, langabezia-tasa % 13,8ra igo zen 2007. urtean, eta % 20ra 2009an. 2010ean, berriz, beheranzko bidea hartu du berriz, eta % 17,7ra iritsi da. Hortaz, 2010. urtean, atzerriko emakumeen langabezia-tasa atzerriko gizonena baino 11,8 puntu txikiagoa izan da.

## ESKUALDEEN ARTEKO ALDEAK

### Okupazioak behera egin du hiriburu-eskualdeetan eta Bizkaiko zatirik handienean

* Eskualde-eremuan, okupazioak 2007-2009 aldian izan zuen beherakada orokorraren ondoren, beheranzko joerarekin jarraitu du 2009tik 2010era bitarte Gasteizen, Bizkaiko eskualde gehienetan (Durangaldean izan ezik) eta Donostialdean. Eskualde horietako gehienetan, okupazioaren beherakada-erritmoa areagotu egin da 2009tik 2010era bitarte. Izan ere, urteko % 1,5-3ko beherakada izan da Gasteizen, Bilbon, Bizkaia-Kostan eta Donostialdean (azken horretan, zifrak 2007-2009 aldian baino ez ziren maila horretara iritsi). Ildo negatibo berean, Eskuinaldean urteko batez besteko % 1,3ko beherakada izan du okupazioak 2009tik 2010era bitarte, hau da, 2007-2009 aldian bezala. Beheranzko joera duten eskualdeen artean, Ezkerraldean baino ez da moteldu beherakada-erritmoa (urteko % 0,7 2007-2009 aldian, eta % 0,3 2009tik 2010era bitarte).

  Eskualde horietan, guztira 13.055 enplegu galdu dira 2009tik 2010era bitarte. Horien % 81,2 Bilbon (% 33,7), Donostialdean (% 33,1) eta Gasteizen (% 14,4) galdu da.

### Zenbait industria-eskualdetan, berriz, okupazioa suspertu egin da

* 2009tik 2010era bitarte okupazioak bilakaera positiboa izan duen eskualdeei dagokienez, Debabarrenan izandako % 0,3ko igoerak eskualdeko enpleguaren egonkortzea islatzen du nagusiki. Aiaraldean, Durangaldean, Tolosa-Goierrin eta Debagoienan, berriz, okupazioak suspertze esanguratsua izan duela egiaztatu da (% 1,8-2,9). Lau eskualde horiek batera kontuan hartuta, 3.496 okupazio berri garbi izan dira (horien % 82,5 Durangaldea Debagoienarekin eta Tolosa-Goierrirekin lotzen duen arkuan).

* Azpimarratu beharra dago 2009-2010 aldian zerbitzu-arlokoez bestelako sektoreetan (industrian batez ere) okupazioak izan duen gorakadaren eta okupazioaren gorakada orokorraren arteko lotura estua. Izan ere, erreferentziazko aldian % 2 inguruko edo hortik gorako igoerak izan dituzten lau eskualdeetan (hots, Aiaraldean, Durangaldean, Tolosa-Goierrin eta Debagoienan) baino ez du gora

egin okupazioak zerbitzu-arlokoez bestelako sektoreetan. Aiaraldean eta Durangaldean zerbitzuen sektoreko okupazioak % 2tik gorako igoera izan badu ere, okupazioak eskualde horietan izan duen gorakada gainerako sektoreetan oinarritu da.

Gainerako eskualdeetan, berriz, okupazioak behera egiten jarraitu du 2009-2010 aldian nekazaritzan, industrian eta eraikuntzan. Beherakada-erritmoak % 6tik gorakoak izan dira, hau da, 2007-2009 aldikoen antzekoak, eta beherakada bereziki nabarmena izan da Gasteizen, Eskuinaldean, Bilbon, Ezkerraldean eta Donostialdean. Eskualde horietan guztietan, krisialdiak jarraitu egin du azken urtean industrian eta/edo eraikuntzan. Galera horiekin, okupazioak oro har 2009tik 2010era bitarte izan duen joera negatiboa finkatu egin da eskualde horietan guztietan. Edonola ere, okupazioaren krisialdia areagotu egin da (% 2tik gorako beherakadak izan dira) zerbitzuen sektoreko okupazioa egonkortu den eskualdeetan (Donostialdean), edota okupazio horrek behera egin duen eskualdeetan (Bilbon, adibidez, % 1,9 jaitsi da).

Zerbitzu-arlokoez bestelako sektoreen bilakaeraren eta okupazio-krisialdiaren artean dagoen loturak eta okupazioak Aiaraldean, Durangaldean, Tolosa-Goierrin eta Debagoienan izan duen gorakadak (enpleguak sektore horietan izan duen gorakadari lotuak) argi eta garbi erakusten dute lurralde baten industria-oinarria oso garrantzitsua dela okupazio-mailei eusteko. Ildo horretan, deigarria da 2010ean industria-sektorean lan egin duten 16-64 urteko pertsonen proportzioa 1993koa baino gutxienez 0,5 puntu handiagoa izan den eskualde bakarrak adierazitako lau eskualdeak izatea, Debabarrenarekin batera. Eskualde horiek guztiek EAEko batez besteko okupazio-koefizientea gainditzen dute, eskualde horietako zerbitzu-sektorearen garrantzi erlatiboa EAEko batez bestekoa baino askoz txikiagoa izanik ere. Horrek agerian uzten du hirugarren sektorearen garrantzi txikiagoa ez dela okupazio-dinamismo txikiagoaren baliokide.

* Okupazioan ikusitako suspertzea gorabehera, ezein eskualdek ez du gainditu 2005-2007 aldian lortutako okupazio-maila. 2007ko okupazioaren zifrei dagokienez, galera txikiak –% 1,4tik % 2ra bitartekoak– Arabako eskualdeetan eta Ezkerraldean gertatu dira. Eskuinaldean, Bilbon, Bizkaia-Kostan, Tolosa-Goierrin eta Debagoienan, berriz, galera horiek % 3,3-3,9ra iritsi dira, Durangaldean eta Donostialdean % 4,5-5era, eta Debabarrenan % 6,7ra. 2005-2010 aldia kontuan hartuta, Tolosa-Goierrin okupazioaren % 4,7 galdu da, eta proportzio hori % 7,7ra iritsi da Debagoienan. Beraz, krisialdian, okupazio-beherakadarik handienak Gipuzkoako eskualdeetan eta Durangaldean gertatu dira, eta 2007-2009 biurtekoan okupazioak izan duen beherakadaren industria-dimentsioa islatzen du horrek. Hori guztia dela-eta, EAEn industria-garrantzirik handiena duten eskualdeetan okupazioak izan duen gorakadaren eragina erlatibizatu egin behar da.

**Langabeziaren azken aldiko gorakada Bilbon, Eskuinaldean eta Donostialdean gertatu da batez ere, eta fenomeno horren hiri-dimentsioa areagotu du horrek**

* Langabeziari dagokionez, dinamikarik negatiboenak Eskuinaldekoa, Bilbokoa eta Donostialdekoa izan dira 2009tik 2010era bitarte. Fenomeno hori hazteko joera duten eremuen barruan, hiru hiri-eremu handi horiek langabeziak 2009tik 2010era bitarte izan duen hazkunde osoaren % 87,8 bildu dute.

* Langabeziak Eskuinaldean, Bilbon eta Donostialdean izan duen hazkunde handiaren ondorioz, EAEko hiri-eremu handietako langabezia-tasa handiak antzekoak izan dira. Izan ere, 2010. urtean, hiru eskualde horietako tasak 2007tik 2009ra bitarte langabeziaren eraginik handiena jasan zuten urbanizazio handiko eskualdeetako, hots, Gasteizko eta Ezkerraldeko tasetara hurbildu dira.

  Langabeziak 2010ean izan duen eragin erlatiboari dagokionez, azpimarratu beharreko datuetako bat langabeziaren hiri-profila da. Gasteizko, Bilboko eremuko eskualdeetako eta Donostialdeko langabezia-tasa % 9,8tik % 12,2ra bitartekoa izan da (Donostialdean eta Bilbon, hurrenez hurren). Zifrak % 7,7tik % 8,6ra bitartekoak izan dira Bizkaia-Kostan, Durangaldean eta Debabarrenan, eta ehunekorik txikienak Aiaraldekoak, Tolosa-Goierrikoak eta Debagoienakoak izan dira (% 5,9-6,5), 2007tik 2010era bitarte langabeziaren igoerarik handienak –termino erlatiboetan– eskualde horietan gertatu baziren ere. 2007. urteko langabezia-tasak txikiak izan zirelako lortu dira 2010ean % 5-6 inguruko zifrak eskualde horietan.

  Tolosa-Goierrin izan ezik (bertan gizonen langabezia izan da ezaugarri bereizgarria), langabeen kopuruak 2009tik 2010era bitarte % 10 inguruko edo hortik gorako igoera izan duen eskualdeetan (hau da, Eskuinaldean, Bilbon, Bizkaia-Kostan, Donostialdean eta Debagoienan), emakumeen langabeziaren igoera izan da ezaugarri bereizgarria.

**Euskadiko langabeziaren gune nagusiak**

* Langabezia-tasak eskualdearen, sexuaren eta adinaren arabera aztertuz gero, EAEn langabezia handiko honako gune hauek daudela ikus daiteke:

  - Sexuaren arabera, Gasteizen, Bilbon, Ezkerraldean eta Donostialdean langabezia-tasak % 9,5etik % 12,5era bitartekoak izan dira gizonen zein emakumeen kasuan. Eskuinaldean, berriz, egoera antzekoa da, baina gizonen langabezia-tasa txikixeagoa da (% 8,6).

  - Adinaren arabera, EAEko eskualde gehienetan langabezia-tasa % 20tik gorakoa da 25 urtetik beherakoen artean, Durangaldean eta Tolosa-Goierrin % 17,4tik % 19,4ra bitarteko tasak izan badira ere.

Era berean, EAEko eskualde gehienetan % 10etik gorako langabezia-tasak izan dira 25-34 urteko biztanleen artean. Zifra txikiagoak Aiaraldean, Tolosa-Goierrin eta Debagoienan baino ez dira lortu (% 6,3, % 8 eta % 9,1, hurrenez hurren). Ezkerraldean eta Eskuinaldean, 25-34 urtekoen langabezia-tasa % 15 ingurukoa edo hortik gorakoa izan da.

Gasteizen eta Bilbon bizi diren 35-49 urteko pertsonen langabezia-tasa ere % 10etik gorakoa izan da. EAEko gainerako ia eskualde guztietan (Aiaraldea, Tolosa-Goierri eta Debagoiena salbuetsita), % 7,5etik % 10era bitartekoa izan da langabezia-tasa.

Langabezia-tasa % 7,5etik gorakoa da, halaber, Bilbon eta Donostialdean bizi diren 50 urtetik gorako pertsonen artean (% 8,5 eta % 7,7, hurrenez hurren).

* Iraupen luzeko langabezia % 50etik gorakoa izan da Aiaraldean, Bilbon, Ezkerraldean, Durangaldean, Donostialdean eta Tolosa-Goierrin. Bilbon, gainera, proportzioa % 60tik gorakoa izan da (% 65,2ra ere iritsi da). Oso iraupen luzeko langabeen proportziorik handiena izan duen eskualdea Bilbo da (% 34,1). Atzetik, Aiaraldean eta Donostialdean % 25etik % 30era bitarteko zifrak lortu dira.

# 1. Biztanleria aktiboa

1. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria aktiboak goranzko joerarekin jarraitu du 2009tik 2010era bitarte. Azken urte horretan, 1.041.801 pertsona ziren, hau da, 2005ean baino % 4,5 gehiago (997.280 pertsona 2005ean).

   Urtetik urterako hazkundea % 0,40koa izan da 2009tik 2010era bitarte, eta, beraz, nabarmen moteldu da 2007-2009 aldiko urteko batez bestekoaren aldean (% 1,75). Alde batetik, 16-64 urteko pertsonen guztizko kopurua egonkortu egin da 2009-2010 aldian, atzerriko immigrazioak behera egin duen testuinguru batean. Bestetik, jarduera-tasak 2009tik 2010era bitarte izan duen igoera (% 71,5etik % 71,8ra) 2007-2009 biurtekoan izandakoa baino txikiagoa izan da (% 70,3tik % 71,5era biurteko horretan).

**16-64 urteko guztizko biztanleria aktiboaren bilakaera. 1993-2010 aldia**

(Datu absolutuak, jarduera-tasa (%-tan) eta biztanleria aktiboaren urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa (%-tan)

| Urtea | Biztanleria guztira | Jarduera-tasa | Biztanleria aktiboa: Abs. | Biztanleria aktiboa: Urtetik urterako hazkunde-tasa |
|---|---|---|---|---|
| 1993 | 1.466.028 | 62,9 | 921.556 | |
| 1995 | 1.479.685 | 62,7 | 928.381 | 0,37 |
| 1997 | 1.468.915 | 64,1 | 941.324 | 0,69 |
| 1999 | 1.478.068 | 65,6 | 969.459 | 1,48 |
| 2001 | 1.424.579 | 65,8 | 937.633 | -- |
| 2003 | 1.408.719 | 69,6 | 980.220 | 0,28 |
| 2005 | 1.433.604 | 69,6 | 997.280 | 0,87 |
| 2007 | 1.425.959 | 70,3 | 1.002.357 | 0,25 |
| 2009 | 1.451.941 | 71,5 | 1.037.659 | 1,75 |
| 2010 | 1.451.124 | 71,8 | 1.041.801 | 0,40 |

Oharra: 1999tik 2003ra bitarteko urtetik urterako hazkunde-tasa laurteko osorako ematen da, 2001eko zifra langabeziaren/inaktibitatearen definizioan izandako aldaketa metodologikoen eragina jaso baitu.

2. 2009tik 2010era bitarte biztanleria aktiboaren kopuruaren hazkundean izandako dezelerazioa emakumeengan eta 35-49 urtekoengan agertu da batez ere. Bi talde horietan, aktiboen kopuruak nabarmen egin zuen gora 2007-2009 aldian.

   Sexuari dagokionez, biztanleria aktiboaren hazkunde-tasa murriztu egin da emakumeen kasuan 2007-2009 alditik 2009-2010 aldira bitarte (urteko batez besteko % 4,3tik % 1,4ra). Edonola ere, zifra hori 2005-2007 aldikoa baino handiagoa da, eta 2005etik aurrera gizonezko aktiboen zifrak izan duen etengabeko beherakadarekiko alde handia islatzen du horrek guztiak.

   Beraz, azken joerek berretsi egiten dute azken urteotan emakumeen jardueraren eta gizonen jardueraren artean izan den bilakaera desberdina. Izan ere, emakume aktiboen kopurua % 12,6 hazi

da 2005-2010 aldi osoan, eta gizon aktiboena, berriz, % 1,3 jaitsi da aldi horretan. Hori guztia jarduera-tasek sexuaren arabera izan duten bilakaera desberdinaren ondorioa da: 2005etik 2010era bitarte, gizonen jarduera-tasa % 80,5etik % 78,6ra jaitsi da, eta emakumeena, berriz, % 58,4tik % 64,9ra igo. Horren ondorio nagusia zera da, emakumeek biztanleria aktiboan duten proportzioa % 41,5etik % 44,8ra igo dela 2005etik 2010era bitarte.

Adinari dagokionez, 35-49 urteko biztanleria aktiboaren goranzko erritmoa nabarmen moteldu da. Urteko batez besteko hazkunde-erritmoa % 1,9ra iritsi zen 2005etik 2007ra bitarte, eta % 2,5era 2007tik 2009ra bitarte, baina % 1era jaitsi da 2009-2010 aldian. Hala ere, jarduera-tasak gora egiten jarraitu du adin horietan, eta 2005eko % 83,1eko zifra gainditu du (% 85,6 2009an eta % 86,5 2010ean).

Biztanleria aktiboaren urtetik urterako hazkundea bizkortzeko joerak bere horretan jarraitu du 50 urtetik gorako biztanleen kasuan. Izan ere, horien kopurua % 6,6 igo da 2009tik 2010era bitarte; beraz, 2005-2007 biurtekoko urteko batez besteko hazkundea ez ezik (% 2,8), 2007-2009 biurtekokoa (% 5,7) ere gainditu du. Horrela, beraz, 50 urtetik gorako biztanleria aktiboaren kopuruak % 25,9ko gorakada izan du 2005etik 2009ra bitarte, hau da, 35-49 urteko pertsonen % 10,1eko gorakada baino nabarmen handiagoa. Bestalde, 50 urtetik gorako pertsonen jarduera-tasa % 52,2tik % 59,7ra igo da 2005etik 2010era bitarte.

35 urtetik beherako pertsonen kasuan, berriz, biztanleria aktiboak etengabe egin du behera 2005. urtetik aurrera. Gainera, urtetik urterako zifrek agerian utzi dutenez, joera hori areagotu egin da 2009tik 2010era bitarte, 2007-2009 aldian baretu ondoren. Izan ere, 2009-2010 aldian 25-34 urteko biztanleria aktiboaren kopuruak izan duen % 3,3ko beherakada 2005-2007 aldikoa baino handiagoa izan da (% 2,1eko beherakada aldi horretan). Errealitate hori are nabarmenagoa da 25 urtetik beherako pertsonen kasuan: 2009tik 2010era bitarte, talde horretako biztanleria aktiboak % 12ko beherakada izan du, hau da, 2005-2007 aldikoa baino handiagoa (urteko batez besteko beherakada % 6,6ra iritsi zen aldi horretan). Guztira, biztanleria aktiboaren kopuruak % 9,7ko beherakada izan du 2005etik 2010era bitarte 25-34 urteko pertsonen artean, eta % 29,1ekoa 25 urtetik beherako pertsonen artean.

Adierazitako joerak jarduera-tasen dinamikan islatuta geratu dira. 2005etik 2010era bitarte, 25-34 urtekoen jarduera-tasak beherakada txikia izan du (% 87,5etik % 86,7ra jaitsi da), baina 25 urtetik beherakoena oso handia izan da (% 39,7tik % 31,7ra jaitsi da).

Bestalde, 35 urtetik gorakoen jarduera-tasak izan duen bilakaeraren eta 35 urtetik beherakoen jarduera-tasak izan duenaren arteko aldearen ondorioz, gazteenek biztanleria aktiboan duten proportzioa gero eta txikiagoa da. Izan ere, 35 urtetik beherakoak biztanleria aktibo osoaren % 37,7 ziren 2005. urtean, eta % 31,2 2010ean.

Azken batean, biztanleria aktiboaren hazkundeak 2009tik 2010era bitarte izan duen dezelerazio-prozesua 2007tik 2009ra bitarte neurri handian hazi ziren taldeen (hots, emakumeen eta 35 urtetik gorakoen) bilakaerari lotuta dago. Nolanahi ere, jarduera-adierazleek goranzko joerarekin jarraitu dute, 50 urtetik gorakoen kasuan batez ere. Biztanleria aktiboaren kopuruak 2005etik izan duen beheranzko joera etengabea finkatu egin da 2009-2010 aldian gizonen eta 35 urtetik beherakoen artean.

**16-64 urteko biztanleria aktiboaren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera. 2005-2010 aldia**

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2005-2010 aldian)

| Sexua eta adina | Absolutuak | | | | Urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa | | | Hazkundearen %-a 2005/2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | 2005/ 2007 | 2007/ 2009 | 2009/ 2010 | |
| Gizonak | 583.244 | 579.896 | 577.695 | 575.549 | -0,3 | -0,2 | -0,4 | -1,3 |
| Emakumeak | 414.036 | 422.462 | 459.964 | 466.252 | 1,0 | 4,3 | 1,4 | 12,6 |
| < 25 urte | 77.482 | 67.659 | 62.459 | 54.940 | -6,6 | -3,9 | -12,0 | -29,1 |
| 25-34 urte | 298.791 | 286.114 | 279.003 | 269.897 | -2,1 | -1,3 | -3,3 | -9,7 |
| 35-49 urte | 410.211 | 425.889 | 447.237 | 451.648 | 1,9 | 2,5 | 1,0 | 10,1 |
| >50 urte | 210.796 | 222.695 | 248.960 | 265.315 | 2,8 | 5,7 | 6,6 | 25,9 |
| Guztira | 997.280 | 1.002.357 | 1.037.659 | 1.041.801 | 0,3 | 1,7 | 0,4 | 4,5 |
| Emakume aktiboen %-a | 41,5 | 42,1 | 44,3 | 44,8 | | | | |
| < 35 urteko aktiboen %-a | 37,7 | 35,3 | 32,9 | 31,2 | | | | |

**16-64 urteko biztanleriaren jarduera-tasaren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera**

**1993-2010 aldia**

(%-tan)

| Sexua eta adina | Jarduera-tasa | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1993 | 1997 | 2001 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
| Gizonak | 76,1 | 75,9 | 77,9 | 80,5 | 80,5 | 78,9 | 78,6 |
| Emakumeak | 49,4 | 52,2 | 53,6 | 58,4 | 59,9 | 63,9 | 64,9 |
| < 25 urte | 44,1 | 39,1 | 39,3 | 39,7 | 38,1 | 35,6 | 31,7 |
| 25-34 urte | 87,3 | 88,5 | 85,7 | 87,5 | 87,4 | 86,6 | 86,7 |
| 35-49 urte | 75,0 | 79,0 | 79,1 | 83,1 | 84,2 | 85,6 | 86,5 |
| >50 urte | 41,5 | 44,1 | 47,9 | 52,2 | 53,6 | 57,7 | 59,7 |
| Guztira | 62,9 | 64,1 | 65,8 | 69,6 | 70,3 | 71,5 | 71,8 |

3. Biztanleria aktiboaren kopuruaren hazkundeak 2009-2010 aldian izan duen dezelerazio-joera EAEko eskualde gehienetara zabaldu da.

Testuinguru horretan, bereziki azpimarratu beharra dago dezelerazio-prozesuaren hiri-dimentsioa. Izan ere, adierazitako dinamika Gasteizen, Bilbon, Ezkerraldean eta Donostialdean ikusten da argi eta garbi. Dena dela, Donostialdean % 0,4ko hazkundea izan da 2009tik 2010era bitarte, eta jarduera-tasak oraindik goranzko joera duela adierazten du horrek (tasa % 73,4tik % 74ra igo da bi

urte horietan). Nolanahi ere, eskualde horretan izan ezik, dezelerazioaren ondorioz jarduera-tasak eta biztanleria aktiboaren kopurua egonkortu egin dira (Bilbon eta Ezkerraldean), edota biztanleria aktiboaren kopuruak behera egin du (% - 1,3 Gasteizen). Aldi berean Gasteizen jarduera-tasa murriztu egin bada ere (% 73,4tik % 72,3ra 2009tik 2010era bitarte), kontuan hartu behar da aurreko urteetan jarduerak hazkunde handia izan zuela eskualde horretan (jarduera-tasa % 70,7ra iritsi zen 2007an). Horren guztiaren ondorioz, adierazitako lau eskualdeetan 2010eko jarduera-tasak 2007koak baino askoz handiagoak izan dira oro har, eta Donostialdean bertan finkatu egin da urte horretara arte jarduera hazteko izan den joera.

2009tik 2010era bitarte Eskuinaldeko biztanleria aktiboaren kopuruak % 2,9ko gorakada izan badu eta jarduera-tasa bera ere % 67,6tik % 69,5era igo bada ere, eskualde horren bilakaerak ez du aldatzen EAEko hiri-eskualde handietan jarduera-tasak egonkortzeko hartu duen joera. Izan ere, azken urteko aldaketak jarduerak 2007tik 2009ra bitarte izan duen beherakadari lotuta daude. Nolanahi ere, 2007tik 2010era bitarte, Eskuinaldeak jarduera-tasaren hazkunde absoluturik txikiena izan du hiri-eskualde handien artean (0,8 puntu Eskuinaldean, 1,2-2,2 puntu Gasteizen, Bilbon eta Donostialdean, eta 3,4 puntu Ezkerraldean).

Hiri-eskualde handietatik kanpo, biztanleria aktiboaren zifrek izan duten dezelerazio- edo beherakada-prozesua Bizkaia-Kostan eta Durangaldean ere gertatu dela adierazi beharra dago. Bi eskualde horietan eta Eskuinaldean, 2007tik 2010era bitarteko jarduera-tasek hazkunde txikiak izan dituzte (0,7 puntu Bizkaia-Kostan eta 0,1 puntu Durangaldean).

Arestian adierazitako eskualdeetan ez bezala, Arabako Aiaraldean eta Gipuzkoako Tolosa-Goierrin, Debagoienan eta Debabarrenan jarduera-tasa txikiagoa izan da 2010. urtean 2005ean eta 2007an baino. Debabarrenan 2009tik 2010era bitarte jarduera-tasak beheranzko joerarekin jarraitu badu ere (biztanleria aktiboaren kopurua % 0,9 murriztu da), gainerako eskualdeetan jarduera-tasek gora egin dute aldi horretan, eta biztanleria aktiboaren kopuruak % 3-3,3ko igoera izan du. Kontuan hartu behar da 2007tik 2009ra bitarte jarduera-tasek 2,3-2,7 puntuko beherakadak izan zituztela eskualde horietan.

4. Bestalde, 2009-2010 aldian, jarduera-tasek gora egin dute Tolosa-Goierrin eta Debagoienan, eta % 73tik gorako mailetara iritsi dira eskualde horiek. Adierazi beharra dago horiek baino maila hobeak Donostialdean baino ez direla lortu (% 74). Azken eskualde horrekin batera, Gasteiz zen jarduera-tasarik handiena zuen eskualdea 2009an, baina 2010ean bitarteko leku batean geratu da (% 71-72ko tasa), urbanizazio handiko beste eskualde batzuekin (Bilbo eta Ezkerraldearekin) eta urbanizazio txikiagoko eskualde batzuekin (Aiaraldea eta Durangaldearekin) batera. EAEko jarduera-tasarik txikieneko eskualdeak Eskuinaldea, Bizkaia-Kosta eta Debabarrena izan dira (% 68,5-70). Eskualde horietan guztietan, jarduerak behera egin du 2007-2010 aldiko fase batean gutxienez. Debabarrenan, jarduera-tasen beheranzko joera jarraitua izan da erreferentziazko hirurtekoan.

**16-64 urteko biztanleria aktiboaren bilakaera, eskualdearen arabera. 2005-2010 aldia**

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2005-2010 aldian)

| Eskualdea | Absolutuak | | | | Urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa | | | Hazkundearen %-a 2005/2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | 2005/ 2007 | 2007/ 2009 | 2009/ 2010 | |
| Gasteiz | 126.798 | 127.298 | 139.082 | 137.248 | 0,2 | 4,5 | -1,3 | 8,2 |
| Aiaraldea | 19.590 | 20.271 | 20.426 | 21.031 | 1,7 | 0,4 | 3,0 | 7,4 |
| Eskuinaldea | 76.113 | 75.813 | 75.543 | 77.703 | -0,2 | -0,2 | 2,9 | 2,1 |
| Bilbo | 155.757 | 158.086 | 165.573 | 165.654 | 0,7 | 2,3 | 0,0 | 6,4 |
| Ezkerraldea | 180.138 | 177.597 | 188.730 | 189.010 | -0,7 | 3,1 | 0,1 | 4,9 |
| Bizkaia-Kosta | 53.989 | 56.463 | 58.488 | 57.793 | 2,3 | 1,8 | -1,2 | 7,0 |
| Durangaldea | 53.615 | 56.288 | 56.878 | 57.113 | 2,5 | 0,5 | 0,4 | 6,5 |
| Donostialdea | 222.380 | 223.299 | 227.522 | 228.529 | 0,2 | 0,9 | 0,4 | 2,8 |
| Tolosa-Goierri | 53.887 | 53.006 | 51.863 | 53.439 | -0,8 | -1,1 | 3,0 | -0,8 |
| Debagoiena | 31.155 | 29.674 | 28.999 | 29.951 | -2,4 | -1,1 | 3,3 | -3,9 |
| Debabarrena | 23.859 | 24.563 | 24.555 | 24.329 | 1,5 | 0,0 | -0,9 | 2,0 |
| Guztira | 997.280 | 1.002.357 | 1.037.659 | 1.041.801 | 0,3 | 1,7 | 0,4 | 4,5 |

**16-64 urteko biztanleriaren jarduera-tasaren bilakaera, eskualdeen arabera. 1993-2010 aldia**

(%-tan)

| Eskualdea | Jarduera-tasa | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1993 | 1997 | 2001 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
| Gasteiz | 65,9 | 69,2 | 71,3 | 71,1 | 70,7 | 73,4 | 72,3 |
| Aiaraldea | 65,1 | 66,3 | 66,9 | 68,7 | 72,2 | 69,5 | 71,1 |
| Eskuinaldea | 61,7 | 61,6 | 63,4 | 68,8 | 68,8 | 67,6 | 69,5 |
| Bilbo | 63,3 | 64,1 | 65,9 | 66,7 | 68,8 | 71,1 | 70,9 |
| Ezkerraldea | 60,3 | 59,8 | 60,7 | 66,9 | 67,8 | 71,1 | 71,2 |
| Bizkaia-Kosta | 64,7 | 65,9 | 64,7 | 69,1 | 69,2 | 70,7 | 69,9 |
| Durangaldea | 64,2 | 62,9 | 64,8 | 69,3 | 70,8 | 70,2 | 70,9 |
| Donostialdea | 63,3 | 65,9 | 68,6 | 72,5 | 72,8 | 73,4 | 74,0 |
| Tolosa-Goierri | 60,7 | 64,0 | 64,0 | 74,4 | 73,8 | 71,5 | 73,9 |
| Debagoiena | 64,1 | 63,7 | 67,6 | 73,6 | 73,2 | 70,6 | 73,1 |
| Debabarrena | 60,2 | 63,0 | 65,9 | 65,8 | 69,8 | 69,0 | 68,7 |
| Guztira | 62,9 | 64,1 | 65,8 | 69,6 | 70,3 | 71,5 | 71,8 |

5. Gizonen jarduera-tasak eta emakumeenak izan duten bilakaera kontrajarria (emakumeek gero eta proportzio handiagoa dute biztanleria aktiboan) Euskadiko eskualde guztietan gertatu da 2007-2010 aldian, Aiaraldean izan ezik. Azken eskualde horretan, emakumeen jarduera-tasak beherakada jarraitua izan du azken urteotan (% 60,9tik % 57,9ra 2007tik 2010era bitarte); gizonen tasak, berriz, gora egin du 2009tik 2010era bitarte, eta % 83,4ra iritsi da (% 82,6 2007. urtean). Eskualde horretan baino ez da izan biztanleria aktiboaren proportzioa % 40 baino txikiagoa (% 39,1, hau da, 2009koa –% 41,2– eta 2007koa –% 40,8– baino txikiagoa).

Puntu honetan aipatu beharreko beste alderdi bat jarduera-tasek 2009-2010 aldian Eskuinaldean, Tolosa-Goierrin eta Debagoienan izan duten igoera da, tasa horiek 2007koak baino txikiagoak izan badira ere. Aitzitik, Gasteizen eta Bizkaia-Kostan emakumeen 2010eko jarduera-tasa 2007koa baino askoz handiagoa izan bada ere, bi eskualde horietan, Aiaraldean bezalaxe, jarduera-tasa puntu 1etik gora jaitsi da 2009tik 2010era bitarte.

**16-64 urteko biztanleriaren jarduera-tasaren bilakaera, sexuaren eta eskualdearen arabera**

**2007-2010 aldia**

(%-tan)

| Eskualdea | Gizonak | | | Emakumeak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2007 | 2009 | 2010 | 2007 | 2009 | 2010 |
| Gasteiz | 82,2 | 79,6 | 78,3 | 58,7 | 67,0 | 65,9 |
| Aiaraldea | 82,6 | 78,9 | 83,4 | 60,9 | 59,4 | 57,9 |
| Eskuinaldea | 79,5 | 75,4 | 77,5 | 58,3 | 60,1 | 61,8 |
| Bilbo | 78,7 | 78,3 | 76,1 | 59,1 | 64,2 | 66,0 |
| Ezkerraldea | 79,0 | 79,9 | 79,6 | 56,2 | 62,1 | 62,6 |
| Bizkaia-Kosta | 78,4 | 78,5 | 78,0 | 59,5 | 62,6 | 61,4 |
| Durangaldea | 81,6 | 78,1 | 77,6 | 59,4 | 61,9 | 63,8 |
| Donostialdea | 81,8 | 80,6 | 80,6 | 63,7 | 66,1 | 67,3 |
| Tolosa-Goierri | 83,9 | 79,0 | 79,7 | 62,7 | 63,1 | 67,5 |
| Debagoiena | 78,5 | 73,1 | 75,5 | 67,5 | 67,8 | 70,5 |
| Debabarrena | 82,5 | 75,7 | 74,7 | 56,1 | 61,7 | 62,3 |
| Guztira | 80,5 | 78,9 | 78,6 | 59,9 | 63,9 | 64,9 |

**Emakumeek 16-64 urteko biztanleria aktiboan duten proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera**

**2007-2010 aldia**

(%-tan)

| Eskualdea | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|
| Gasteiz | 40,7 | 44,6 | 44,5 |
| Aiaraldea | 40,8 | 41,2 | 39,1 |
| Eskuinaldea | 43,0 | 45,4 | 45,2 |
| Bilbo | 43,6 | 46,1 | 47,5 |
| Ezkerraldea | 40,9 | 43,3 | 43,6 |
| Bizkaia-Kosta | 41,8 | 43,0 | 42,8 |
| Durangaldea | 40,8 | 43,1 | 44,0 |
| Donostialdea | 43,6 | 44,7 | 45,2 |
| Tolosa-Goierri | 40,6 | 42,0 | 43,2 |
| Debagoiena | 44,4 | 46,4 | 46,4 |
| Debabarrena | 38,7 | 43,0 | 43,5 |
| Guztira | 42,1 | 44,3 | 44,8 |

6. 35 urtetik beherako pertsonek biztanleria aktiboan duten proportzioaren beheranzko joerari dagokionez, 2007-2010 aldian errealitate hori Euskadiko eskualde guztietara zabaldu dela egiazta daiteke, Aiaraldearen salbuespen bakarrarekin[3]. Beheranzko bilakaera horren faktore nagusia 25 urtetik beherako pertsonen jarduera-tasak aztergai dugun aldian oro har izan duen beherakada nabarmena izan da. Adibidez, eta 2009tik 2010era bitarte % 38,3tik % 36,3ra jaitsi bada ere, Bilboko 25 urtetik beherako pertsonen 2010eko jarduera-tasak baino ez du igoerarik izan 2007koarekin alderatuta. Izan ere, 2010. urtean, gazteen jarduera-tasarik handiena Bilbokoa izan da.

   25-34 urteko biztanleen jarduera-tasen bilakaera ez da hain homogeneoa eskualdeak kontuan hartuta. 25-34 urteko biztanleen jarduera-tasen bilakaera ez da hain homogeneoa eskualdeak kontuan hartuta. Egia esan, 2007tik 2010era bitarte, adin horretako biztanleen jarduera-tasaren beherakada hori Bizkaia-Kostan, Durangaldean, Debabarrenan eta, askoz neurri txikiagoan, Donostialdean baino ez da izan jarraitua. Dena dela, 2010eko jarduera-tasa 2007koa baino txikiagoa izan da, halaber, Eskuinaldean, Ezkerraldean eta Tolosa-Goierrin. Gasteizen, Aiaraldean, Bilbon eta Debagoienan, berriz, 25-34 urteko pertsonen 2010eko jarduera-tasa 2007koa baino puntu 1 handiagoa izan da. Nolanahi ere, azpimarratu beharra dago Gasteizen baino ez dela izan jarduera-tasaren goranzko joera jarraitu bat adin horietan.

7. 35 urtetik gorako pertsonen jarduera-tasaren goranzko joerari dagokionez, errealitate hori orokorra izan da 2007-2010 aldian 50 urteko eta hortik gorako pertsonen kasuan, eta 2010eko zifrak 2007koak baino askoz handiagoak dira. Hala ere, jarduera-tasak egonkortu edota murriztu egin dira Gasteizen, Aiaraldean eta Bizkaia-Kostan 2009-2010 aldian. Horren ondorioz, eskualde horietan adin horretako pertsonen jarduera-tasak ez dira % 58ra iritsi 2010. urtean, eta, beraz, EAEko txikienak izan dira adin-tarte horretako biztanleen artean.

   35-49 urteko pertsonen jarduera-tasaren goranzko joera ere nagusi da EAEko eskualdeetan 2009-2010 aldian. Hala ere, kasu gehienetan 2007tik 2009ra bitarte izandako beherakadekiko hazkundea izan da, jarduera-tasak ez baitu gorakada handirik izan 2007tik 2010era bitarte. Aldi horretan, adin horretako pertsonen jarduera-tasaren gorakada jarraitua Donostialdean baino ez da gertatu.

[3] Arabako eskualde horretan, 35 urtetik beherako pertsonek biztanleria aktiboan duten proportzioa % 33-34tik % 36,1era igo da 2007-2009 alditik 2010era bitarte. Ezaugarri bereizgarri horren arrazoia 25-34 urteko pertsonen jarduera-tasaren igoera izan da (% 91,2 2007an, % 83,9 2009an eta % 92,1 2010ean).

**16-64 urteko biztanleriaren jarduera-tasaren bilakaera, adinaren eta eskualdearen arabera 2007-2010 aldia**

(%-tan)

| Eskualdea | < 25 urte | | | 25-34 urte | | | 35-49 urte | | | >50 urte | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2007 | 2009 | 2010 | 2007 | 2009 | 2010 | 2007 | 2009 | 2010 | 2007 | 2009 | 2010 |
| Gasteiz | 37,4 | 39,0 | 29,7 | 85,8 | 87,2 | 88,2 | 85,3 | 89,3 | 88,3 | 55,4 | 57,9 | 57,7 |
| Aiaraldea | 38,4 | 35,9 | 29,2 | 91,2 | 83,9 | 92,1 | 85,6 | 82,2 | 84,3 | 54,3 | 56,1 | 55,0 |
| Eskuinaldea | 39,7 | 32,1 | 28,6 | 86,3 | 81,9 | 86,1 | 83,5 | 82,9 | 83,7 | 52,5 | 55,8 | 60,5 |
| Bilbo | 32,0 | 38,3 | 36,3 | 80,1 | 83,6 | 82,9 | 84,3 | 83,0 | 84,0 | 55,1 | 60,1 | 60,4 |
| Ezkerraldea | 40,9 | 38,2 | 34,6 | 88,4 | 86,9 | 87,4 | 80,6 | 84,9 | 84,8 | 46,8 | 56,1 | 58,1 |
| Bizkaia-Kosta | 24,1 | 21,7 | 22,6 | 91,7 | 88,0 | 84,3 | 82,3 | 87,6 | 87,7 | 53,6 | 56,3 | 55,9 |
| Durangaldea | 33,0 | 31,8 | 28,0 | 88,6 | 87,4 | 85,6 | 85,8 | 83,4 | 86,8 | 53,3 | 56,7 | 58,6 |
| Donostialdea | 43,8 | 37,1 | 32,5 | 89,5 | 89,7 | 87,8 | 85,3 | 87,1 | 88,8 | 56,8 | 58,5 | 62,3 |
| Tolosa-Goierri | 43,0 | 37,4 | 36,2 | 92,7 | 89,0 | 90,9 | 85,7 | 83,5 | 86,2 | 58,2 | 57,8 | 62,9 |
| Debagoiena | 36,9 | 16,6 | 23,3 | 89,9 | 86,2 | 90,7 | 91,4 | 89,8 | 92,9 | 53,7 | 60,9 | 61,3 |
| Debabarrena | 41,5 | 38,7 | 29,9 | 92,2 | 83,0 | 80,9 | 85,7 | 85,7 | 83,9 | 51,8 | 54,4 | 59,9 |
| Guztira | 38,1 | 35,6 | 31,7 | 87,4 | 86,6 | 86,7 | 84,2 | 85,6 | 86,5 | 53,6 | 57,7 | 59,7 |

Gasteizen, Ezkerraldean eta Bizkaia-Kostan 35-49 urteko pertsonen jarduera-tasaren azkenaldiko bilakaerak egonkortasuna edo beherakada txikia adierazten badu ere, 2007-2009 aldiko igoera handien ondorioz eskualde horiek, Donostialdearekin batera, 2010eko jarduera-tasaren eta 2007koaren arteko alde positiborik handiena izan duten eskualdeen artean daude (3 puntu inguru edo gehiago). Durangaldean eta Debagoienan, 1-1,5 puntuko aldea dago, eta Eskuinaldean eta Tolosa-Goierrin, berriz, 0,3-0,5 puntukoa. Azkenik, 2010eko jarduera-tasa 2007koa baino txikiagoa izan da Aiaraldean eta Bilbon, 2009-2010 aldian tasak gora egin badu ere.

EAEko eskualdeen artean, egoerarik bitxiena Debabarrenakoa da. 35-49 urteko pertsonen 2010eko jarduera-tasa 2007koa baino txikiagoa da (% 83,9 eta % 85,7, hurrenez hurren), 2009tik 2010era bitarte jarduera-tasak izandako beherakada handiaren ondorioz, eta eskualde horretan baino ez da hori gertatzen.

**35 urtetik beherakoek 16-64 urteko biztanleria aktiboan duten proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera. 2007-2010 aldia**

(%-tan)

| Eskualdea | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|
| Gasteiz | 35,9 | 34,1 | 32,3 |
| Aiaraldea | 34,2 | 33,0 | 36,1 |
| Eskuinaldea | 36,0 | 32,7 | 32,6 |
| Bilbo | 33,0 | 34,0 | 32,9 |
| Ezkerraldea | 36,3 | 33,6 | 31,4 |
| Bizkaia-Kosta | 35,8 | 30,6 | 29,6 |
| Durangaldea | 35,3 | 30,3 | 27,4 |
| Donostialdea | 34,8 | 32,6 | 30,6 |
| Tolosa-Goierri | 37,3 | 33,0 | 29,2 |
| Debagoiena | 35,7 | 29,3 | 28,6 |
| Debabarrena | 37,2 | 31,7 | 28,2 |
| Guztira | 35,3 | 32,9 | 31,2 |

8. Aurreko datuak eskualdeen ikuspegitik kontuan hartuta, gizonen eta 25-34 urteko pertsonen jarduera-tasan izandako aldaketek 2009tik 2010era bitarteko bilakaeran funtsezko eragina izan dutela egiazta daiteke. Talde horien jarduera-tasak Aiaraldean, Eskuinaldean, Tolosa-Goierrin eta Debagoienan izan duen hazkundea dela-eta, erreferentziazko aldian jarduera-tasak igoera esanguratsua izan du eskualde horietan. Gainera, eskualde horietan emakumeen jarduera-tasak (Aiaraldean izan ezik) eta 35 urteko eta hortik gorako pertsonenak goranzko joera izan dute oro har.

Eskualde horietako gehienetan, 2010eko jarduera-tasa 2005ekoa eta 2007koa baino txikiagoa izan da, eta Debabarrenan, eta bertan baino ez, 2010eko jarduera-tasa 2005-2007 aldikoa baino txikiagoa izan da, jarduerak ez baitu gora egin 2009-2010 aldian. Izan ere, gizonen eta 25-34 urteko pertsonen 2007-2009 aldiko jarduera-tasak beheranzko joera nabarmena izan zuen. Gainera, 35-49 urteko pertsonen jarduera-tasak beherakada esanguratsua izan du 2009tik 2010era bitarte.
Halaber, 2009tik 2010era bitarte Gasteizen, Bilbon, Ezkerraldean eta Bizkaia-Kostan jarduera-tasa orokorrek izan duten egonkortze edo beherakada bereizgarria gizonen jarduera-tasaren beherakadari eta 25-34 urteko edo 35-49 urteko emakumeen jarduera-tasaren egonkortzeari edo beherakadari lotuta dago. Gasteizen eta Bizkaia-Kostan, gainera, jarduera-tasa murriztu edo egonkortu egin da emakumeen eta 50 urtetik gorako pertsonen kasuan.

Bestalde, 2009tik 2010era bitarte Donostialdeak izan duen jarduera-tasaren goranzko joera jarraituak finkatu egin ditu 2007-2009 aldiko hazkundeak, eta, nolanahi ere, aurreko aldietan jardueraren hazkundean nagusi izan diren faktoreei lotuta dago, hau da, emakumeen eta 35 urteko eta hortik gorako pertsonen jarduera-tasaren hazkundeari. Ildo berean, gizonen jarduera-tasak egonkor jarraitu du, eta 35 urtetik beherako pertsonen jarduera-tasak behera egin du. Durangaldean, 2009tik 2010era bitarte, jarduera-tasak gora egin du, 2007-2009 aldian behera egin ondoren. Hazkunde hori ere arestian adierazitako talde demografikoen jarduera-tasaren gorakadari lotuta dago.

Azkenik, adierazi beharra dago eskualde gehienetan 25 urtetik beherako pertsonen jarduera-tasak izan duen beheranzko joerak murriztu egiten dituela jarduera-tasa orokorrak. Salbuespen bakarrak gazteen jarduera-tasa oso txikia izan den eskualde batzuk dira, hala nola Debagoiena eta Bizkaia-Kosta. Eskualde horietan, 25 urtetik beherako pertsonen jarduera-tasak gora egin du 2009tik 2010era bitarte.

## 2. Langabeak

### 2.1. Datu orokorrak

9. Langabeziak goranzko joerarekin jarraitu du 2009tik 2010era bitarte, eta 104.100 langabe izan dira 2010ean. 2009-2010 aldiko hazkunde-erritmoa 2007-2009 aldiko urteko batez bestekoa (% 69,7) baino txikiagoa izan da, baina oraindik handia izan dela esan daiteke (urtetik urterako % 15,2ko hazkundea izan da). 2010. urtean, langabezia-tasa % 10era iritsi da, eta, beraz, 2009. urteko zifra (% 8,7) eta 2001-2003 aldikoa (% 8,1-8,9) gainditu ditu.

**16-64 urteko langabeen bilakaera. 1993-2010 aldia**

(Langabezia-tasa –%–, datu absolutuak eta langabeen urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa –%–)

| | | Langabeak | |
|---|---|---|---|
| Urtea | Langabezia-tasa | Abs. | Urtetik urterako hazkunde-tasa |
| 1993 | 25,9 | 238.477 | |
| 1995 | 23,7 | 220.155 | -3,92 |
| 1997 | 20,3 | 190.885 | -6,88 |
| 1999 | 15,0 | 145.511 | -12,69 |
| 2001 | 8,1 | 75.819 | |
| 2003 | 8,9 | 86.781 | -12,12 |
| 2005 | 4,9 | 49.100 | -24,78 |
| 2007 | 3,1 | 31.400 | -20,03 |
| 2009 | 8,7 | 90.400 | 69,68 |
| 2010 | 10,0 | 104.100 | 15,15 |

Oharra: 1999tik 2003ra bitarteko urtetik urterako hazkunde-tasa laurteko osorako ematen da, 2001eko zifra langabeziaren/inaktibitatearen definizioan izandako aldaketa metodologikoen eragina jaso baitu.

10. Langabeziak 2009-2010 aldian izan duen gorakadak eragin desberdina izan du jarduera-zifretan goranzko joera handia izan duten talde demografikoetan, hau da, emakumeengan eta 35 urteko eta hortik gorako pertsonengan.

2009tik 2010era bitarte, langabeziaren zifrek % 21,7ko igoera izan dute emakumeen kasuan, eta % 10,5ekoa gizonen kasuan. Era berean, langabeziaren hazkunde garbiaren % 59,1 emakumeengan gertatu da. Horrek aldaketa handia dakar 2007-2009 aldiarekin alderatuz gero (langabeziaren hazkundearen % 66,1 gizonengan bildu zen aldi horretan), baina, hala ere, langabeziak gizonengan duen eragin diferentzialak bere horretan jarraitu du. Horrela, beraz, gizonen langabezia-tasa emakumeena baino handiagoa da (% 10,2 eta % 9,7, hurrenez hurren), eta gizonak langabe guztien % 56,4 dira. Langabeen artean, emakumeen kopurua % 162,8 igo da 2007tik 2010era bitarte, eta gizonena, berriz, % 315,6.

2007-2009 aldian, langabeziak antzeko hazkundea izan zuen adina kontuan hartuta; 2009tik 2010era bitarte, berriz, bilakaera oso desberdina izan da aldagai horren arabera. Jarduera-tasak behera egin izanaren ondorioz (neurri batean bederen), 25 urtetik beherako langabeen kopurua %

0,6 baino ez da igo, langabezia-tasa % 22,7tik % 25,9ra igo bada ere. Bilakaerarik positiboena 25-34 urteko pertsonena izan da (adin horretako langabeen kopuruak % 2,8ko beherakada izan du 2009tik 2010era bitarte). Kasu horretan, langabezia-tasa egonkor jarraitu du funtsean (% 12,3 2010ean, eta % 12,2 2009an).

Aitzitik, langabeen kopuruak % 30etik gorako gehikuntza izan du 35 urtetik gorako pertsonen kasuan: % 32 35-49 urtekoen kasuan, eta % 41,4 50 urtetik gorakoen kasuan. Guztira, langabeen kopurua ia hirukoiztu egin da 2007tik 2010era bitarte adin horietan (1,6 aldiz handiagoa 25 urtetik beherakoen kasuan, eta 1,8 aldiz handiagoa 25-34 urtekoen kasuan). Deskribatutako bilakaera hori adin horretako pertsonen langabezia-tasak 2009tik 2010era bitarte izan duen igoerari lotuta dago. Izan ere, langabeziaren adierazlea % 6,7tik % 8,8ra igo da 35-49 urteko biztanleria aktiboan, eta % 4,8tik % 6,3ra 50 urtetik gorako pertsona aktiboen kasuan.

**16-64 urteko langabeen bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera. 2005-2010 aldia**
(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2010 aldian)

| Sexua eta adina | Absolutuak | | | | Urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa | | | Hazkundearen ehunekoa 2007/2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | 2005/ 2007 | 2007/ 2009 | 2009/ 2010 | |
| Gizonak | 23.506 | 14.126 | 53.105 | 58.703 | -22,5 | 93,9 | 10,5 | 315,6 |
| Emakumeak | 25.594 | 17.274 | 37.295 | 45.397 | -17,8 | 46,9 | 21,7 | 162,8 |
| < 25 urte | 8.553 | 5.383 | 14.177 | 14.255 | -20,7 | 62,3 | 0,6 | 164,8 |
| 25-34 urte | 19.334 | 11.672 | 34.146 | 33.173 | -22,3 | 71,0 | -2,8 | 184,2 |
| 35-49 urte | 16.334 | 10.064 | 30.172 | 39.839 | -21,5 | 73,2 | 32,0 | 295,9 |
| >50 urte | 4.879 | 4.282 | 11.906 | 16.833 | -6,3 | 66,8 | 41,4 | 293,1 |
| Guztira | 49.100 | 31.400 | 90.400 | 104.100 | -20,0 | 69,7 | 15,2 | 231,5 |
| Emakume langabeak (%-a) | 52,1 | 55,0 | 41,3 | 43,6 | | | | |
| < 35 urteko langabeak (%-a) | 56,8 | 54,3 | 53,5 | 45,6 | | | | |

**16-64 urteko biztanleriaren langabezia-tasaren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera. 1993-2010 aldia**

(%-tan)

| Sexua eta adina | Langabezia-tasa | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1993 | 1997 | 2001 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
| Gizonak | 19,3 | 13,8 | 5,6 | 4,0 | 2,4 | 9,2 | 10,2 |
| Emakumeak | 36,1 | 29,8 | 11,7 | 6,2 | 4,1 | 8,1 | 9,7 |
| < 25 urte | 56,2 | 42,0 | 17,8 | 11,0 | 8,0 | 22,7 | 25,9 |
| 25-34 urte | 30,2 | 24,6 | 10,2 | 6,5 | 4,1 | 12,2 | 12,3 |
| 35-49 urte | 16,4 | 14,4 | 6,2 | 4,0 | 2,4 | 6,7 | 8,8 |
| >50 urte | 9,3 | 8,8 | 3,5 | 2,3 | 1,9 | 4,8 | 6,3 |
| Guztira | 25,9 | 20,3 | 8,1 | 4,9 | 3,1 | 8,7 | 10,0 |

35 urtetik gorako pertsonen langabezia-tasa oraindik gazteagoena baino nabarmen txikiagoak bada ere, deskribatutako egoerak aldaketa garrantzitsua ekarri du langabeziaren barne-banaketan. 2009. urtera bitarte langabeziaren fenomenoaren proportziorik handiena 35 urtetik beherako pertsonengan bildu bazen ere, talde horren proportzioa txikiena izan da 2010ean. Izan ere, 35 urtetik beherako pertsonek langabezian duten proportzioa % 54,3tik % 45,6ra murriztu da 2007tik 2010era bitarte; 35-44 urteko pertsonen proportzioa, berriz, % 23,2tik % 28,7ra igo da, eta 45 urtetik gorakoena % 22,5etik % 25,7ra.

Hala ere, adierazi beharra dago langabezia-egoera gehienak 25-44 urteko pertsonengan biltzen direla (guztien % 60,6). Erreferentziazko proportzioa % 81,5 da 20-49 urtekoen taldea kontuan hartzen bada. 16-19 urteko langabeak, berriz, % 2,3 dira, eta 50 urtetik gorakoak % 16,2. Edonola ere, azken talde horren proportzioak nabarmen egin du gora 2007ko eta 2009ko zifrekin alderatuta (% 13,2 eta % 13,6, hurrenez hurren).

**16-64 urteko langabeen bilakaera, adinaren arabera (bost urteko taldeak). 2001-2010 aldia**

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

| Adina | 2001 | | 2003 | | 2005 | | 2007 | | 2009 | | 2010 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Abs. | % ber. | Abs. | % ber. | Abs. | % ber. | Abs. | % ber. | Abs. | % ber. | Abs. | % ber. |
| 16-19 | 2.616 | 3,4 | 2.483 | 2,9 | 1.342 | 2,7 | 589 | 1,9 | 1.238 | 1,4 | 2.378 | 2,3 |
| 20-24 | 13.955 | 18,4 | 17.440 | 20,1 | 7.210 | 14,7 | 4.794 | 15,3 | 12.938 | 14,3 | 11.877 | 11,4 |
| 25-29 | 17.598 | 23,2 | 20.578 | 23,7 | 11.259 | 22,9 | 6.358 | 20,2 | 15.773 | 17,4 | 17.641 | 16,9 |
| 30-34 | 12.216 | 16,1 | 12.212 | 14,1 | 8.075 | 16,4 | 5.314 | 16,9 | 18.373 | 20,3 | 15.532 | 14,9 |
| 35-39 | 9.801 | 12,9 | 10.283 | 11,8 | 7.305 | 14,9 | 3.683 | 11,7 | 13.668 | 15,1 | 16.098 | 15,5 |
| 40-44 | 8.148 | 10,7 | 9.961 | 11,5 | 5.113 | 10,4 | 3.592 | 11,4 | 8.551 | 9,5 | 13.821 | 13,3 |
| 45-49 | 5.115 | 6,7 | 5.422 | 6,2 | 3.915 | 8,0 | 2.788 | 8,9 | 7.953 | 8,8 | 9.920 | 9,5 |
| 50-54 | 3.583 | 4,7 | 4.856 | 5,6 | 2.317 | 4,7 | 2.458 | 7,8 | 6.327 | 7,0 | 8.569 | 8,2 |
| 55-59 | 2.506 | 3,3 | 2.477 | 2,9 | 2.022 | 4,1 | 1.240 | 3,9 | 4.217 | 4,7 | 6.113 | 5,9 |
| 60-64 | 282 | ,4 | 1.068 | 1,2 | 541 | 1,1 | 584 | 1,9 | 1.362 | 1,5 | 2.151 | 2,1 |
| Guztira | 75.819 | 100 | 86.781 | 100 | 49.100 | 100 | 31.400 | 100 | 90.400 | 100 | 104.100 | 100 |

11. 2009tik 2010era bitarte, langabeziaren zifrek oso bilakaera desberdina izan dute eskualdearen arabera. Dinamikarik negatiboena Eskuinaldekoa, Bilbokoa eta Donostialdekoa izan da. Eskualde horietan, langabeen kopuruak % 25etik gorako igoera izan du, eta Eskuinaldean, gainera, igoera hori 2007tik 2009ra bitartekoa baino handiagoa izan da. Eskualde horretan eta Donostialdean, langabezia-tasak % 6,4-7,5etik % 10 ingurura igo dira 2009tik 2010era bitarte. Bilbon, berriz, langabezia-tasa % 9,5etik % 12,2ra igo da, eta, beraz, EAEko langabezia-tasarik handieneko eskualdea izan da Bilbo 2010. urtean. Garrantzi bereziko beste datu bat ere emango dugu: langabeziak hazteko joera hartu duen eskualdeen barruan, 2009-2010 aldiko langabeziaren guztizko igoeraren % 87,8 hiru hiri-eremu handi horietan bildu da.

Era berean, langabeen kopuruaren gehikuntza, batez bestekoaren azpitik bada ere (% 8,4-13,2), garrantzitsua izan da Bizkaia-Kostan, Tolosa-Goierrin eta Debagoienan. Bizkaia-Kostan, bilakaera horren ondorioz langabezia-tasa % 7,8tik % 8,6ra igo da 2009tik 2010era bitarte. Gipuzkoako bi eskualdeetan, berriz, langabezia-tasak txiki samar jarraitzen du (% 5,9-6,2 2010. urtean eta % 5,5 inguru 2009an).

Langabezia-tasaren igoera askoz txikiagoa izan da Aiaraldean eta Ezkerraldean (urteko % 4 inguruko igoera). Aiaraldean, zehazki, langabezia-tasak egonkor jarraitu du (% 6,5), eta Ezkerraldean % 10,6tik % 11ra igo da.

Aurreko eskualdeetan ez bezala, langabezia egonkortu egin da Gasteizen. Zehazki, % 0,3ko igoera izan da eskualde horretan, eta, beraz, langabezia-tasa % 11 inguru da oraindik. Durangaldean eta Debabarrenan, berriz, langabeziak behera egin du (zenbait kasutan, urtetik urterako tasa % 10 baino gehiago jaitsi da). Horrela, beraz, kasu horietan, langabezia-tasak % 9 ingurutik % 7,7-8,2ra jaitsi dira 2009tik 2010era bitarte.

Hala ere, ikusi diren joerak ikuspegi zabalago batetik aztertu behar dira. Krisialdi osoa kontuan hartuta –2007tik 2010era bitarte, alegia–, langabeziaren gorakada gehienak (% 250etik gorakoak 2007ko langabeziarekin alderatuta) Arabako eta Gipuzkoako eskualdeetan gertatu dira, Debabarrenan eta Durangaldean izan ezik. Arabako eskualdeetan eta Durangaldean, igoerarik handiena 2007-2009 aldian gertatu da, eta zifrak egonkortu edo murriztu egin dira 2009tik 2010era bitarte. Debagoienan, Tolosa-Goierrin eta, bereziki, Donostialdean, langabeziak erritmo bizkor samarrean gora egiten jarraitu du azken aldi horretan.

Eskuinaldean eta Bilbon, 2009-2010 aldian langabeziak gorakada handia izan badu ere (Donostialdean bezala), 2007tik 2009ra bitarteko portaera onari esker 2010eko langabeziaren zifrak 2007koak baino 2 aldiz txikiagoak izan dira. Gauza bera gertatzen da Bizkaia-Kostan, 2007-2009 aldiko gehikuntzaren eragin erlatiboa handiagoa izan bada ere. Eta Ezkerraldean ere antzekoa gertatu da, baina, kasu horretan, 2010eko langabezia 2007koa baino 2,1 aldiz handiagoa izan da.

Kasurik bitxiena Debabarrenakoa da. Langabeziak behera egin du eskualde horretan 2009tik 2010era bitarte, jarduera-tasen beherakadaren testuinguru batean. Hori dela-eta, Bizkaiko eskualde gehienen adierazleetara hurbildu da Debabarrena. Horrela, beraz, 2010eko langabeziaren zifra 2007koa baino 2,3 aldiz handiagoa izan da, eskualde hori langabeen kopuruak 2007tik 2009ra bitarte izan duen igoerak gehien kaltetu duenetako bat izan bada ere.
Langabeziak Eskuinaldean, Bilbon eta Donostialdean izan duen gorakada handiaren ondorioz, EAEko hiri-eremu handietako langabezia-tasa handiak antzekoak izan dira. Izan ere, 2010. urtean, hiru eskualde horietako tasak 2007tik 2009ra bitarte langabeziaren eraginik handiena jasan zuten urbanizazio handiko eskualdeetako, hots, Gasteizko eta Ezkerraldeko tasetara hurbildu dira.

Langabeziak 2010ean izan duen eragin erlatiboari dagokionez, azpimarratu beharreko datuetako bat langabeziaren hiri-profila da. Gasteizko, Bilboko eremuko eskualdeetako eta Donostialdeko langabezia-tasa % 9,8tik % 12,2ra bitartekoa izan da Donostialdean eta Bilbon, hurrenez hurren. Zifrak % 7,7tik % 8,6ra bitartekoak izan dira Bizkaia-Kostan, Durangaldean eta Debabarrenan, eta ehunekorik txikienak Aiaraldekoak, Tolosa-Goierrikoak eta Debagoienakoak izan dira (% 5,9-6,5), 2007tik 2010era bitarte langabeziaren igoerarik handienak –termino erlatiboetan– eskualde horietan gertatu baziren ere. 2007. urteko langabezia-tasak txikiak izan zirelako lortu dira 2010ean % 5-6 inguruko zifrak eskualde horietan.

**16-64 urteko langabeen bilakaera, eskualdearen arabera. 2005-2010 aldia**

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2010 aldian)

| Eskualdea | Absolutuak | | | | Urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa | | | Hazkundearen %-a |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | 2005/ 2007 | 2007/ 2009 | 2009/ 2010 | 2007/2010 |
| Gasteiz | 3.033 | 2.673 | 15.084 | 15.128 | -6,1 | 137,5 | 0,3 | 465,9 |
| Aiaraldea | 667 | 327 | 1.316 | 1.372 | -30,0 | 100,7 | 4,2 | 320,0 |
| Eskuinaldea | 4.825 | 3.186 | 4.822 | 7.874 | -18,7 | 23,0 | 63,3 | 147,1 |
| Bilbo | 11.217 | 7.687 | 15.686 | 20.169 | -17,2 | 42,8 | 28,6 | 162,4 |
| Ezkerraldea | 13.088 | 6.666 | 20.051 | 20.810 | -28,6 | 73,4 | 3,8 | 212,2 |
| Bizkaia-Kosta | 3.197 | 1.685 | 4.567 | 4.948 | -27,4 | 64,6 | 8,4 | 193,7 |
| Durangaldea | 2.374 | 1.075 | 5.074 | 4.398 | -32,7 | 117,2 | -13,3 | 309,1 |
| Donostialdea | 8.137 | 6.225 | 17.002 | 22.336 | -12,5 | 65,3 | 31,4 | 258,8 |
| Tolosa-Goierri | 1.275 | 856 | 2.921 | 3.306 | -18,1 | 84,8 | 13,2 | 286,4 |
| Debagoiena | 637 | 415 | 1.601 | 1.771 | -19,3 | 96,5 | 10,6 | 327,0 |
| Debabarrena | 651 | 605 | 2.275 | 1.986 | -3,6 | 94,0 | -12,7 | 228,5 |
| Guztira | 49.100 | 31.400 | 90.400 | 104.100 | -20,0 | 69,7 | 15,2 | 231,5 |

**16-64 urteko biztanleriaren langabezia-tasaren bilakaera, eskualdearen arabera. 1993-2010 aldia**

(%-tan)

| Eskualdea | Langabezia-tasa | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1993 | 1997 | 2001 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
| Gasteiz | 21,2 | 15,3 | 5,8 | 2,4 | 2,1 | 10,8 | 11,0 |
| Aiaraldea | 26,2 | 17,7 | 5,7 | 3,4 | 1,6 | 6,4 | 6,5 |
| Eskuinaldea | 25,6 | 21,5 | 8,9 | 6,3 | 4,2 | 6,4 | 10,1 |
| Bilbo | 28,9 | 25,6 | 13,1 | 7,2 | 4,9 | 9,5 | 12,2 |
| Ezkerraldea | 32,0 | 25,9 | 9,0 | 7,3 | 3,8 | 10,6 | 11,0 |
| Bizkaia-Kosta | 22,0 | 17,0 | 6,5 | 5,9 | 3,0 | 7,8 | 8,6 |
| Durangaldea | 24,8 | 18,3 | 7,6 | 4,4 | 1,9 | 8,9 | 7,7 |
| Donostialdea | 23,2 | 18,5 | 7,1 | 3,7 | 2,8 | 7,5 | 9,8 |
| Tolosa-Goierri | 23,4 | 14,8 | 5,8 | 2,4 | 1,6 | 5,6 | 6,2 |
| Debagoiena | 22,7 | 9,7 | 3,7 | 2,0 | 1,4 | 5,5 | 5,9 |
| Debabarrena | 23,2 | 17,7 | 4,5 | 2,7 | 2,5 | 9,3 | 8,2 |
| Guztira | 25,9 | 20,3 | 8,1 | 4,9 | 3,1 | 8,7 | 10,0 |

12. Langabeziak 2009tik 2010era bitarte izan duen bilakaera hertsiki lotuta dago emakumeen langabeziaren dinamikarekin. Izan ere, Tolosa-Goierrin izan ezik, 2009-2010 aldian langabeen kopuruaren igoera %10ekoa edo hortik gorakoa izan den eskualdeetan (Eskuinaldean, Bilbon, Bizkaia-Kostan, Donostialdean eta Debagoienan) puntu 1etik gorako igoerak izan dira emakumeen langabezia-tasetan, eta aldi horretan langabeziaren hazkunderik handiena izan duten hiru eskualdeetan (Eskuinaldean, Bilbon eta Donostialdean) hiru puntu inguruko edo hortik gorako igoerak izan dira. Eskualde horietan gizonen langabezia-tasak ere gora egin du, baina igoera txikiagoa izan da. Gainera, emakumeek langabe guztien artean duten garrantzi erlatiboa igo egin da 2009tik 2010era bitarte.

Aitzitik, langabeziaren zifra absolutuek izan duten hazkunde txikiagoarekin, egonkortzearekin edota beherakadarekin batera, emakumeen langabezia-tasek gutxienez puntu 1eko beherakada izan dute Aiaraldean, Ezkerraldean eta Debabarrenan. Debabarrenan, gainera, beherakada hori gizonen langabezia-tasarena baino handiagoa izan da, eta Aiaraldean eta Ezkerraldean, berriz, gizonen tasaren igoera konpentsatu du. Hiru eskualde horietan, emakumeek langabe guztien kopuruan duten indar erlatiboari dagokionez 2007-2009 aldian izan zen beherakada-prozesua finkatu egin da.

Zenbait kasutan, ordea, gizonen langabeziaren bilakaerak neurri handiagoan baldintzatu du langabezia-tasek 2009tik 2010era bitarte izan duten bilakaera. Langabeen kopuruak igoera esanguratsua izan duen eskualdeen testuinguruan, Tolosa-Goierrin zuzeneko lotura bat ikus daiteke langabeziak 2009-2010 aldian izan duen gorakadaren eta gizonen langabezia-tasaren igoeraren artean. Eskualde horretan, emakumeen langabezia-tasak behera egin du azken urtean, eta 2007-2009 aldiko dinamikatik oso hurbil ibili da. Aldi horretan, langabeziak gora egin zuen, baina igoera hori gizonen langabeziaren hazkundeari lotuta egon zen. Horren guztiaren ondorioz, gizonek gero eta indar erlatibo handiagoa dute eskualde horretako langabeen artean.

Langabeziaren zifrak egonkortu edo jaitsi diren eskualdeei dagokienez, Durangaldeko dinamika Tolosa-Goierrikoaren guztiz bestelakoa izan da. Izan ere, emakumeen langabezia-tasak gora egin du, eta gizonena, berriz, % 9tik % 6,9ra jaitsi da. Gasteizen ere antzeko zerbait gertatu da, gizonen langabezia-tasa % 12,7tik % 11,6ra jaitsi baita. Nolanahi ere, emakumeen langabeziak gora egin du nabarmen Gasteizen (% 8,5etik % 10,3ra). Bilakaera horren ondorioz, oso urbanizatuta dauden eta 2009tik 2010era bitarte emakumeen langabezia-tasan igoera handia izan duten eskualdeetan (hau da, Eskuinaldean, Bilbon eta Donostialdean) izandako bilakaerara hurbildu da eskualde hori. Dena dela, adierazitako eskualde horietan ez bezala, Gasteizen gizonen langabezia-tasan izandako beherakadak konpentsatu egin ditu emakumeek enplegua lortzeko zituzten baldintza txarrak.

**16-64 urteko biztanleriaren langabezia-tasaren bilakaera, sexuaren eta eskualdeen arabera. 2007-2010 aldia**
(%)

| Eskualdea | Gizonak | | | Emakumeak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2007 | 2009 | 2010 | 2007 | 2009 | 2010 |
| Gasteiz | 2,0 | 12,7 | 11,6 | 2,2 | 8,5 | 10,3 |
| Aiaraldea | 1,2 | 5,7 | 6,8 | 2,2 | 7,5 | 6,2 |
| Eskuinaldea | 3,2 | 7,3 | 8,6 | 5,5 | 5,3 | 12,0 |
| Bilbo | 3,5 | 10,1 | 12,4 | 6,7 | 8,8 | 11,9 |
| Ezkerraldea | 3,0 | 10,6 | 12,1 | 4,9 | 10,7 | 9,7 |
| Bizkaia-Kosta | 2,3 | 8,2 | 8,7 | 3,9 | 7,2 | 8,3 |
| Durangaldea | 1,0 | 9,0 | 6,9 | 3,2 | 8,8 | 8,8 |
| Donostialdea | 2,5 | 8,1 | 10,1 | 3,2 | 6,7 | 9,4 |
| Tolosa-Goierri | 1,3 | 4,9 | 6,7 | 2,1 | 6,7 | 5,5 |
| Debagoiena | ,7 | 4,8 | 4,6 | 2,3 | 6,4 | 7,5 |
| Debabarrena | 1,1 | 9,1 | 8,5 | 4,6 | 9,5 | 7,8 |
| Guztira | 2,4 | 9,2 | 10,2 | 4,1 | 8,1 | 9,7 |

**Emakumeek 16-64 urteko langabeen artean duten proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera. 2007-2010 aldia**
(%-tan)

| Eskualdea | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|
| Gasteiz | 42,5 | 35,1 | 41,6 |
| Aiaraldea | 56,8 | 48,0 | 36,9 |
| Eskuinaldea | 56,6 | 37,8 | 53,3 |
| Bilbo | 60,0 | 42,6 | 46,4 |
| Ezkerraldea | 53,5 | 43,5 | 38,3 |
| Bizkaia-Kosta | 55,1 | 39,9 | 41,7 |
| Durangaldea | 69,2 | 42,4 | 50,0 |
| Donostialdea | 49,9 | 40,2 | 43,3 |
| Tolosa-Goierri | 53,9 | 49,7 | 38,2 |
| Debagoiena | 73,1 | 53,8 | 58,5 |
| Debabarrena | 71,6 | 44,1 | 41,4 |
| Guztira | 55,0 | 41,3 | 43,6 |

13. Langabezia-tasaren bilakaera, halaber, 35 urtetik gorako biztanleriaren langabeziaren dinamikari lotuta dago. Egiaztatu denez, langabeziak % 10eko edo hortik gorako igoera izan duen eskualde guztietan puntu 1eko edo hortik gorako igoerak izan dira 35 urteko edo gehiagoko pertsonen langabezia-tasan. Langabeen kopurua neurri txikian igo, egonkortu edo murriztu den eskualdeetan, berriz, langabezia-tasek behera egin dute kontuan hartutako bi taldeetako batean gutxienez (35-49 urtekoen taldean edo 50 urtetik gorakoen taldean). Salbuespen bakarra Gasteiz izan da. Eskualde horrek Eskuinaldeak, Bilbok edo Donostialdeak izan dutenaren antzeko portaera izan du alderdi askotan. Hala ere, bada desberdintasun bat: 35 urtetik beherako pertsonen langabezia-tasak goranzko bilakaera izan du, oro har, adierazitako eskualde horietan, baina beheranzkoa Gasteizen, 25-34 urteko pertsonen kasuan batez ere (% 15,9ko tasa 2009an, eta % 12,1ekoa 2010ean).

**16-64 urteko biztanleriaren langabezia-tasaren bilakaera, adinaren eta eskualdearen arabera. 2007-2010 aldia**

(%-tan)

| Eskualdea | < 25 urte | | | 25-34 urte | | | 35-49 urte | | | >50 urte | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2007 | 2009 | 2010 | 2007 | 2009 | 2010 | 2007 | 2009 | 2010 | 2007 | 2009 | 2010 |
| Gasteiz | 6,6 | 26,8 | 25,0 | 1,8 | 15,9 | 12,1 | 1,8 | 8,7 | 11,5 | 1,6 | 4,1 | 6,0 |
| Aiaraldea | 3,1 | 25,8 | 29,5 | 1,8 | 8,1 | 6,3 | 1,8 | 5,1 | 6,8 | ,4 | 2,0 | 1,5 |
| Eskuinaldea | 12,4 | 15,7 | 25,1 | 6,4 | 7,7 | 15,3 | 2,9 | 5,6 | 8,5 | 1,1 | 4,0 | 4,7 |
| Bilbo | 8,1 | 20,7 | 37,0 | 6,7 | 13,9 | 11,9 | 4,1 | 7,4 | 11,0 | 3,3 | 5,1 | 8,5 |
| Ezkerraldea | 9,0 | 27,9 | 24,4 | 4,6 | 12,0 | 14,8 | 2,5 | 8,9 | 9,5 | 3,2 | 7,5 | 6,8 |
| Bizkaia-Kosta | 13,3 | 23,3 | 25,4 | 4,8 | 12,8 | 10,0 | 1,8 | 5,9 | 8,1 | ,7 | 3,2 | 5,1 |
| Durangaldea | 4,0 | 14,1 | 17,4 | 1,9 | 15,5 | 10,6 | 1,7 | 6,5 | 7,6 | 1,8 | 5,5 | 3,4 |
| Donostialdea | 6,2 | 20,1 | 22,0 | 3,9 | 10,5 | 12,6 | 2,1 | 5,6 | 7,9 | 1,5 | 4,4 | 7,7 |
| Tolosa-Goierri | 10,9 | 23,6 | 19,4 | 1,1 | 8,8 | 8,0 | ,7 | 2,5 | 4,8 | ,9 | 2,9 | 3,9 |
| Debagoiena | 5,8 | 24,5 | 24,3 | 2,3 | 11,6 | 9,1 | ,8 | 1,9 | 2,5 | ,0 | 3,4 | 5,7 |
| Debabarrena | 8,1 | 26,0 | 29,7 | 4,2 | 14,2 | 10,9 | ,7 | 8,4 | 7,7 | 1,4 | 1,8 | 3,0 |
| Guztira | 8,0 | 22,7 | 25,9 | 4,1 | 12,2 | 12,3 | 2,4 | 6,7 | 8,8 | 1,9 | 4,8 | 6,3 |

Eskualde-eremuan, aurreko joerak, oro har, bat datoz 2009tik 2010era bitarte 35 urtetik beherako biztanleriak langabeen guztizko kopuruan duen proportzioaren beherakada handiarekin. Salbuespen bakarrak Eskuinaldea eta Ezkerraldea izan dira. Dena dela, azken kasu horretan adierazleak ez du Eskuinaldeko adierazlearen goranzko joera garbia erakusten, egonkor jarraitu baitu kontuan hartutako aldian. Nolanahi ere, bi eskualde horietan nabarmen igo da 25-34 urteko pertsonen langabezia-tasa (% 12tik % 14,8ra Ezkerraldean eta % 7,7tik % 15,3ra Eskuinaldean). EAEko gainerako eskualdeen artean, Donostialdeak baino ez du joera bera erakutsi (% 10,5etik % 12,6ra igo da eskualde horretan).

**35 urtetik beherakoek 16-64 urteko langabeen kopuruan duten proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera. 2007-2010 aldia**

(%-tan)

| Eskualdea | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|
| Gasteiz | 46,9 | 56,8 | 41,2 |
| Aiaraldea | 44,5 | 58,3 | 52,1 |
| Eskuinaldea | 65,9 | 47,2 | 54,2 |
| Bilbo | 47,1 | 54,4 | 44,8 |
| Ezkerraldea | 53,1 | 47,6 | 47,1 |
| Bizkaia-Kosta | 69,9 | 55,3 | 41,6 |
| Durangaldea | 41,5 | 51,7 | 41,8 |
| Donostialdea | 54,8 | 53,5 | 44,5 |
| Tolosa-Goierri | 69,7 | 68,3 | 48,7 |
| Debagoiena | 75,4 | 68,3 | 54,3 |
| Debabarrena | 74,5 | 56,9 | 49,4 |
| Guztira | 54,3 | 53,5 | 45,6 |

14. Bestalde, langabezia-tasak eskualdearen, sexuaren eta adinaren arabera zehatz-mehatz aztertuz gero, EAEn langabezia handiko oso gune esanguratsuak daudela ikus daiteke.

Sexua kontuan hartuta, gizonen zein emakumeen langabezia-tasak % 9,5-12,5era iritsi dira Gasteizen, Bilbon, Ezkerraldean eta Donostialdean. Eskuinaldean ere antzekoak dira zifrak, baina kasu horretan gizonen langabezia-tasa txikixeagoa izan da (% 8,6).

Adina kontuan hartuta, 25 urtetik beherako pertsonek % 20tik gorako langabezia-tasak izan dituzte Euskadiko eskualde gehienetan (% 17,4 eta % 19,4 Durangaldean eta Tolosa-Goierrin, hurrenez hurren).

Hori bezain kezkagarria da, jarduerarekin askoz lotura handiagoa duen talde batean gertatu delako, Euskadiko eskualde gehienetan 25-34 urteko pertsonek % 10etik gorako langabezia-tasak izan dituztela egiaztatzea. Horiek baino zifra txikiagoak Aiaraldean (% 6,3), Tolosa-Goierrin (% 8) eta Debagoienan (% 9,1) baino ez dira lortu (eta, azken bi kasuetan, % 10etik hurbil geratu dira).

Gainera, Ezkerraldean zein Eskuinaldean, 25-34 urteko pertsonek % 15 inguruko edo hortik gorako langabezia-tasa izan dute.

Bestalde, 35-49 urteko pertsonen langabezia-tasak % 10eko proportzioa gainditu du Gasteizen eta Bilbon (% 11,5 eta % 11, hurrenez hurren). EAEko gainerako eskualdeetan (Aiaraldean, Tolosa-Goierrin eta Debagoienan izan ezik), % 7,5etik % 10era bitarteko tasak lortu dira.

Halaber, % 7,5etik gorako langabezia-tasak izan dira Bilbon eta Donostialdean bizi diren 50 urtetik gorako pertsonen artean (% 8,5 eta % 7,7, hurrenez hurren).

## 2.2. Langabezian emandako denbora eta enpleguan izandako esperientzia

15. 2007-2009 aldian ez bezala, langabeziak 2009-2010 aldian izan duen gorakada iraupenik luzeeneko langabezian oinarritu da nagusiki, eta hori oso garrantzitsua da. Iraupen laburreko, hots, urtebetetik beherako langabeziak % 15,7ko beherakada izan du, eta iraupen luzeko langabeziak, berriz, % 80,9ko gorakada. Gainera, igoerarik handiena bi urtetik gorako langabezian gertatu da (% 110,3 kasu horretan, eta % 62,5 urtebetetik bi urtera bitarteko langabeziaren kasuan).

Bilakaera horren ondorioz, iraupen luzeko langabeziak EAEn duen garrantzi erlatiboa handiagotu egin da nabarmen, eta langabezia osoaren zatirik handiena hartu du 2010ean. Langabeen % 51,9k urtebete edo gehiago darama langabezian (% 33k 2009. urtean). Oso iraupen luzeko, hots, bi urtetik gorako langabezia ere nabarmen igo da (% 12,7tik % 23,3ra 2009tik 2010era bitarte).

**16-64 urteko langabeen bilakaera, langabezian emandako denboraren arabera. 2005-2010 aldia**

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2005-2010 aldian)

| Langabezian emandako denbora | Absolutuak | | | | Urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa | | | Hazkundearen %-a |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | 2005/ 2007 | 2007/ 2009 | 2009/ 2010 | 2007/2010 |
| < urte 1 | 32.392 | 19.776 | 59.179 | 49.875 | -21,9 | 73,0 | -15,7 | 152,2 |
| > urte 1 | 16.708 | 11.554 | 29.852 | 54.013 | -16,8 | 60,7 | 80,9 | 367,5 |
| 1-2 urte | 9.114 | 6.264 | 18.335 | 29.795 | -17,1 | 71,1 | 62,5 | 375,6 |
| >2 urte | 7.594 | 5.290 | 11.516 | 24.217 | -16,5 | 47,6 | 110,3 | 357,8 |
| Guztira | 49.100 | 31.400 | 90.400 | 104.100 | -20,0 | 69,7 | 15,2 | 231,5 |
| ILL (< 1 urte), %-a | 34,0 | 36,8 | 33,0 | 51,9 | | | | |
| OILL (> 2 urte), %-a | 15,5 | 16,8 | 12,7 | 23,3 | | | | |

Oharra: ED/EE erantzunak guztizko zifretan baino ez dira agertzen

- Iraupen luzeko langabeen kopuruak izan duen igoera handia (% 50etik gora 2009tik 2010era bitarte) ia eskualde guztietan gertatu da, eta Aiaraldean, Bilbon, Donostialdean eta Tolosa-Goierrin % 100etik gora igo da. Hala ere, bi salbuespen azpimarratu behar ditugu: Durangaldea eta Debagoiena. Eskualde horietan, iraupen luzeko langabeziaren zifrak % 10-15 jaitsi dira aztertutako

2aldian. Debagoienan, berriz, % 26,5eko igoera izan du iraupen laburreko langabeziak. Eskuinaldean ere antzekoa gertatu da, baina gainerako eskualdeetan beheranzko joera agertu du langabezia mota horrek. Iraupen luzeko langabeziaren garrantzi erlatiboa Eskuinaldean, Durangaldean eta Debagoienan baino ez da murriztu. Oso iraupen luzeko langabeziarenak, berriz, goranzko joera nabarmena izan du eskualde guztietan.

Debagoienan, fenomeno horrek langabeen % 30,4 hartu du eraginpean. Gainerako eskualdeetan, berriz, iraupen luzeko langabeziaren garrantzi erlatiboa % 40tik gorakoa izan da (% 50 ingurura edo gehiagora iritsi da Aiaraldean, Bilbon, Ezkerraldean, Durangaldean, Donostialdean eta Tolosa-Goierrin). Bilbok, gainera, % 60tik gorako zifrak izan ditu (% 65,2 izan da zifrarik handiena).

Bilbo, halaber, oso iraupen luzeko langabeen proportziorik handiena izan duen eskualdea da, % 34,1, hain zuzen ere. Aiaraldean eta Donostialdean, proportzio hori % 25-30era iritsi da. Gainerako eskualdeek % 18,5etik % 23,5era bitarteko proportzioak izan dituzte, Gasteizek eta Debagoienak izan ezik. Bi eskualde horietan, % 15 inguruko edo hortik beherako zifrak lortu dira.

**16-64 urteko iraupen laburreko langabeen (langabezian urtebete baino gutxiago daramatenen) bilakaera, eskualdearen arabera. 2005-2010 aldia**

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2010 aldian)

| Eskualdea | Absolutuak | | | | Urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa | | | Hazkundearen %-a 2007/2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | 2005/ 2007 | 2007/ 2009 | 2009/ 2010 | |
| Gasteiz | 2.168 | 1.494 | 10.410 | 8.717 | -17,0 | 164,0 | -16,3 | 483,5 |
| Aiaraldea | 447 | 199 | 916 | 621 | -33,2 | 114,4 | -32,2 | 211,6 |
| Eskuinaldea | 3.072 | 1.874 | 2.762 | 4.445 | -21,9 | 21,4 | 61,0 | 137,2 |
| Bilbo | 7.361 | 4.081 | 10.160 | 7.028 | -25,5 | 57,8 | -30,8 | 72,2 |
| Ezkerraldea | 8.462 | 4.211 | 13.307 | 10.605 | -29,5 | 77,8 | -20,3 | 151,8 |
| Bizkaia-Kosta | 2.707 | 1.327 | 3.202 | 2.841 | -30,0 | 55,4 | -11,3 | 114,2 |
| Durangaldea | 1.550 | 707 | 2.640 | 2.213 | -32,5 | 93,3 | -16,2 | 213,1 |
| Donostialdea | 4.839 | 4.521 | 11.017 | 9.697 | -3,3 | 56,1 | -12,0 | 114,5 |
| Tolosa-Goierri | 863 | 655 | 2.065 | 1.415 | -12,9 | 77,5 | -31,5 | 115,9 |
| Debagoiena | 452 | 307 | 975 | 1.233 | -17,6 | 78,2 | 26,5 | 301,5 |
| Debabarrena | 471 | 400 | 1.725 | 1.060 | -7,8 | 107,7 | -38,6 | 165,0 |
| Guztira | 32.392 | 19.776 | 59.179 | 49.875 | -21,9 | 73,0 | -15,7 | 152,2 |

**16-64 urteko iraupen luzeko langabeen (langabezian urtebete baino gehiago daramatenen) bilakaera, eskualdearen arabera. 2005-2010 aldia**

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2010 aldian)

| Eskualdea | Absolutuak | | | | Urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa | | | Hazkundearen %-a 2007/2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | 2005/ 2007 | 2007/ 2009 | 2009/ 2010 | |
| Gasteiz | 865 | 1.179 | 3.686 | 6.393 | 16,8 | 76,8 | 73,4 | 442,1 |
| Aiaraldea | 219 | 127 | 366 | 751 | -23,8 | 69,5 | 105,2 | 489,7 |
| Eskuinaldea | 1.753 | 1.243 | 2.050 | 3.429 | -15,8 | 28,4 | 67,3 | 175,9 |
| Bilbo | 3.856 | 3.607 | 5.527 | 13.141 | -3,3 | 23,8 | 137,8 | 264,3 |
| Ezkerraldea | 4.626 | 2.455 | 6.744 | 10.205 | -27,2 | 65,7 | 51,3 | 315,7 |
| Bizkaia-Kosta | 490 | 358 | 1.248 | 2.107 | -14,5 | 86,7 | 68,8 | 488,3 |
| Durangaldea | 825 | 368 | 2.434 | 2.185 | -33,2 | 157,0 | -10,2 | 493,1 |
| Donostialdea | 3.298 | 1.704 | 5.891 | 12.446 | -28,1 | 86,0 | 111,3 | 630,5 |
| Tolosa-Goierri | 412 | 200 | 730 | 1.892 | -30,3 | 90,9 | 159,1 | 844,8 |
| Debagoiena | 184 | 108 | 626 | 538 | -23,6 | 141,3 | -14,2 | 399,8 |
| Debabarrena | 180 | 205 | 550 | 927 | 6,8 | 63,9 | 68,5 | 352,3 |
| Guztira | 16.708 | 11.554 | 29.852 | 54.013 | -16,8 | 60,7 | 80,9 | 367,5 |

**16-64 urteko iraupen luzeko (urte bateko edo gehiagoko) langabeen proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera 1993-2010 aldia**

(%-tan)

| Eskualdea | 1993 | 1997 | 2001 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Gasteiz | 60,4 | 54,7 | 39,1 | 28,5 | 44,1 | 24,4 | 42,3 |
| Aiaraldea | 70,9 | 54,5 | 47,0 | 32,9 | 39,0 | 27,8 | 54,7 |
| Eskuinaldea | 65,4 | 61,6 | 37,7 | 36,3 | 39,0 | 42,5 | 43,6 |
| Bilbo | 62,5 | 66,1 | 48,9 | 34,4 | 46,9 | 35,2 | 65,2 |
| Ezkerraldea | 64,6 | 65,7 | 46,6 | 35,3 | 36,8 | 33,6 | 49,0 |
| Bizkaia-Kosta | 58,1 | 61,7 | 53,0 | 15,3 | 21,3 | 27,3 | 42,6 |
| Durangaldea | 67,1 | 66,6 | 41,6 | 34,7 | 34,3 | 48,0 | 49,7 |
| Donostialdea | 58,1 | 62,0 | 45,0 | 40,5 | 27,4 | 34,6 | 55,7 |
| Tolosa-Goierri | 59,4 | 58,6 | 41,6 | 32,3 | 23,4 | 25,0 | 57,2 |
| Debagoiena | 67,2 | 58,2 | 41,7 | 29,0 | 25,9 | 39,1 | 30,4 |
| Debabarrena | 70,3 | 72,5 | 61,3 | 27,6 | 33,9 | 24,2 | 46,6 |
| Guztira | 62,5 | 63,1 | 45,4 | 34,0 | 36,8 | 33,0 | 51,9 |

**16-64 urteko oso iraupen luzeko (bi urteko edo gehiagoko) langabeen proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera. 1993-2010 aldia**

(%-tan)

| Eskualdea | 1993 | 1997 | 2001 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Gasteiz | 36,1 | 36,2 | 21,1 | 12,7 | 20,5 | 7,9 | 15,2 |
| Aiaraldea | 41,0 | 35,0 | 17,6 | 22,7 | 8,2 | 8,8 | 28,6 |
| Eskuinaldea | 36,9 | 39,3 | 19,2 | 19,3 | 7,5 | 17,0 | 23,3 |
| Bilbo | 41,3 | 47,2 | 30,7 | 15,6 | 28,3 | 16,4 | 34,1 |
| Ezkerraldea | 44,2 | 42,3 | 24,7 | 18,3 | 13,8 | 13,0 | 18,6 |
| Bizkaia-Kosta | 37,8 | 37,6 | 28,7 | 2,4 | 4,7 | 7,1 | 20,3 |
| Durangaldea | 47,6 | 50,5 | 23,4 | 15,5 | 21,0 | 17,5 | 21,6 |
| Donostialdea | 33,0 | 41,7 | 27,8 | 15,3 | 13,4 | 14,5 | 25,5 |
| Tolosa-Goierri | 39,6 | 37,4 | 27,7 | 16,0 | 16,1 | 9,7 | 19,0 |
| Debagoiena | 43,1 | 41,4 | 15,5 | 14,1 | 7,1 | 3,3 | 13,6 |
| Debabarrena | 47,4 | 54,0 | 39,1 | ,6 | 12,0 | 9,0 | 21,3 |
| Guztira | 39,9 | 42,5 | 26,3 | 15,5 | 16,8 | 12,7 | 23,3 |

16. Esperientzia dutenen langabezia nagusi da oraindik. Aldez aurreko lan-esperientziarik inoiz izan ez duten langabeak langabe guztien % 6,1 baino ez dira. Dena dela, langabe horien garrantzi kuantitatiboa gero eta handiagoa da (2.400 ziren 2007an, eta 6.401 2010ean).

**16-64 urteko langabeen bilakaera, aldez aurreko lan-esperientziaren arabera. 2005-2010 aldia**

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2010 aldian)

| Aldez aurreko lan-esperientzia | Absolutuak | | | | Urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa | | | Hazkundearen %-a |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | 2005/ 2007 | 2007/ 2009 | 2009/ 2010 | 2007/2010 |
| Aldez aurreko esperientzia dutenak | 45.500 | 28.930 | 85.753 | 97.486 | -20,3 | 72,2 | 13,7 | 237,0 |
| Aldez aurreko esperientziarik ez dutenak | 3.600 | 2.400 | 3.278 | 6.401 | -18,4 | 16,9 | 95,3 | 166,7 |
| Guztira | 49.100 | 31.400 | 90.400 | 104.100 | -20,0 | 69,7 | 15,2 | 231,5 |
| Esperientziarik gabekoak (%-a) | 7,3 | 7,6 | 3,6 | 6,1 | | | | |

Oharra: ED/EE erantzunak guztizko zifretan baino ez dira agertzen

Esperientziarik gabeko langabeen % 78,1 Gasteizen eta Bilbo inguruko hiru eskualdeetan dago. Gainera, 2009tik 2010era bitarte aldez aurreko lan-esperientziarik gabeko langabeen kopuruak gora egin duen eskualdeetan (Araba eta Bizkaiko guztietan) izan den hazkunde garbiaren % 88,3 bildu da adierazitako eskualde horietan. Gipuzkoan, berriz, langabe horien kopuruak behera egin du, lurralde horretan handiagoa izan baita lan-merkatuaren dinamismoa.

Nolanahi ere, esperientziarik gabeko langabeen proportzioa txikia da Euskadiko eskualde guztietan: % 10 inguru Bilbon eta Durangaldean, eta % 8,7-8,8 Gasteizen eta Eskuinaldean. Langabe mota horren garrantzi erlatiboa ez da % 5era iristen EAEko gainerako eskualdeetan.

**Aldez aurreko lan-esperientziarik gabeko 16-64 urteko langabeen bilakaera, eskualdearen arabera. 2005-2010 aldia**

(Datu absolutuak)

| Eskualdea | Absolutuak | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
| Gasteiz | 250 | 176 | 747 | 1.339 |
| Aiaraldea | 50 | 24 | 31 | 43 |
| Eskuinaldea | 510 | 427 | 214 | 688 |
| Bilbo | 922 | 787 | 457 | 2.025 |
| Ezkerraldea | 1.296 | 546 | 574 | 945 |
| Bizkaia-Kosta | 146 | 162 | 65 | 113 |
| Durangaldea | 227 | 78 | 90 | 429 |
| Donostialdea | 121 | 138 | 696 | 625 |
| Tolosa-Goierri | 38 | 14 | 264 | 126 |
| Debagoiena | 16 | 31 | 96 | 31 |
| Debabarrena | 24 | 18 | 44 | 38 |
| Guztira | 3.600 | 2.400 | 3.278 | 6.401 |

**Aldez aurreko lan-esperientziarik gabeko 16-64 urteko langabeen proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera. 1993-2010 aldia**

(%-tan)

| Eskualdea | 1993 | 1997 | 2001 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Gasteiz | 26,5 | 22,5 | 14,7 | 8,2 | 6,6 | 5,0 | 8,8 |
| Aiaraldea | 33,9 | 27,8 | 21,3 | 7,5 | 7,5 | 2,3 | 3,1 |
| Eskuinaldea | 37,8 | 41,9 | 27,6 | 10,6 | 13,4 | 4,4 | 8,7 |
| Bilbo | 32,6 | 28,6 | 20,2 | 8,2 | 10,2 | 2,9 | 10,0 |
| Ezkerraldea | 40,7 | 28,6 | 19,7 | 9,9 | 8,2 | 2,9 | 4,5 |
| Bizkaia-Kosta | 28,9 | 30,4 | 21,3 | 4,6 | 9,6 | 1,4 | 2,3 |
| Durangaldea | 33,3 | 24,8 | 14,5 | 9,6 | 7,3 | 1,8 | 9,8 |
| Donostialdea | 27,1 | 26,2 | 14,1 | 1,5 | 2,2 | 4,1 | 2,8 |
| Tolosa-Goierri | 26,3 | 24,0 | 27,5 | 3,0 | 1,6 | 9,0 | 3,8 |
| Debagoiena | 31,4 | 36,6 | 27,4 | 2,6 | 7,4 | 6,0 | 1,8 |
| Debabarrena | 36,5 | 33,0 | 31,6 | 3,8 | 3,0 | 1,9 | 1,9 |
| Guztira | 32,9 | 28,5 | 19,3 | 7,3 | 7,6 | 3,6 | 6,1 |

# 3. Biztanleria landuna

## 3.1. Datu orokorrak

17. 2009tik 2010era bitarte EAEko langabezia-tasan izan den gorakadaren arrazoi nagusia ez da izan jarduera-tasen goranzko joera. Aitzitik, okupazioaren zifren beherakadak garrantzi erlatibo handiagoa izan du. 16-64 urtekoen taldean, landunen kopurua 947.259 pertsonatik 937.701era jaitsi da 2009tik 2010era bitarte, eta, beraz, 9.558 landun gutxiago izan dira. Okupazioaren beherakada-erritmoa 2007-2009 aldiko % 1,23koa baino txikixeagoa izan bada ere, egonkor samar iraun du 2009tik 2010era bitarte (% 1,01eko beherakada baino ez du izan). 2007. urtearekin alderatuta (urte hartan 970.957 landun zeuden), EAEk 33.257 landun galdu ditu 2010ean, hau da, 2007ko landunen % 3,4.

Adierazitako joerak EAEko 16-64 urteko biztanleriaren okupazio-koefizientearen bilakaeran islatu dira[4]. Koefiziente hori etengabe murriztu da: % 68,1era iritsi zen 2007an, % 65,2ra 2009an eta % 64,6ra 2010ean. Dena dela, 2010eko adierazleak 2003koa (% 63,4) puntu bat baino gehiagotan gainditzen badu ere, 2005ekoa baino txikiagoa izan da (% 66,1 2005ean).

**16-64 urteko landunen bilakaera. 1993-2010 aldia**

(Okupazio-koefizientea %-tan, datu absolutuak
eta urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa %-tan)

| Urtea | Okupazio-koefizientea | Biztanleria landuna | |
|---|---|---|---|
| | | Abs. | Urtetik urterako hazkunde-tasa |
| 1993 | 46,6 | 683.079 | |
| 1995 | 47,9 | 708.225 | 1,82 |
| 1997 | 51,1 | 750.439 | 2,94 |
| 1999 | 55,7 | 823.948 | 4,78 |
| 2001 | 60,5 | 861.814 | 2,27 |
| 2003 | 63,4 | 893.439 | 1,82 |
| 2005 | 66,1 | 948.180 | 3,02 |
| 2007 | 68,1 | 970.957 | 1,19 |
| 2009 | 65,2 | 947.259 | -1,23 |
| 2010 | 64,6 | 937.701 | -1,01 |

[4] Okupazio-koefizientea honako hau da: erreferentziako biztanle guztien artean (kasu honetan, 16-64 urteko biztanleria) landunek osatzen duten proportzioa. Europan enplegu-tasa erabiltzen da okupazio-tasatik bereizteko (pertsona aktibo guztiei dagokienez, biztanleria landunaren kopurua erlazionatzen duen tasa). Nolanahi ere, terminologia hori formaren aldetik ez da oso zuzena. Izan ere, enpleguaren kontzeptua okupazioaren kontzeptuarekin parekatzen da, eta hori ez da egokia. Horregatik, LMErako hobe da *okupazio-koefiziente* kontzeptua erabiltzea.

18. Okupazioak 2009tik 2010era bitarte izan duen bilakaera oso desberdina izan da adinaren arabera, eta dinamika bereziki negatiboa izan du gazteenengan. Ildo horretan, adierazi beharra dago 50 urtetik beherako pertsonen artean okupazioaren beherakada handiagoa izan dela adinean behera egin ahala: 35-49 urteko pertsonen kasuan, % 1,3ko beherakada izan da, baina proportzioa % 3,3ra iritsi da 25-34 urtekoan artean, eta % 15,7ra 25 urtetik beherakoen artean. 50 urtetik gorako landunen proportzioa, berriz, % 4,8ra iritsi da aztertutako aldian.

Aurreko datuak oso deigarriak dira, eta, oro har, aurretik hasitako prozesuen eragin areagotua islatzen dute. 25 urtetik beherako pertsonen kasuan, okupazioaren urteko batez besteko galera areagotu baino ez da egin denborarekin (urteko batez besteko % 4,9ko galera 2005-2007 aldian, % 11,9koa 2007-2009 aldian, eta % 15,7koa 2009-2010 aldian). Adin-talde horretan, okupazio-koefizienteak etengabe egin du behera 2003. urtetik aurrera, eta % 35,8tik % 23,5era jaitsi da urte hartatik gaur egun arte. Adierazi beharra dago zifra horrek 1993koa eta 1997koa baino ez dituela gainditzen.

Hain handia ez bada ere, azken urteotan dinamika negatibo bat ikusi da 25-49 urteko pertsonengan, epe ertainean. 25-34 urtekoen kasuan, okupazioaren beherakada-erritmoa –2005. urtetik aurrera etengabea izan dena– moteldu egin da 2009-2010 aldian, eta % 3,3ra iritsi da (nolanahi ere, 2007-2009 aldiko urteko batez bestekoa –% 5,5– baino txikiagoa izan da). Hala ere, azken beherakada 2005-2007 biurtekoko urteko batez bestekoa –% 0,9– baino handiagoa izan da. 25-49 urteko pertsonei dagokienez, lehenik eta behin urteko batez besteko % 2,7ko beherakada izan du okupazioak 2005-2007 aldian, okupazioaren zifra egonkortu egin da ia 2007-2009 biurtekoan (% 0,1eko hazkundea izan da), eta, 2009-2010 aldian, okupazioaren zifrak % 1,3ko beherakada esanguratsua izan du adin-tarte horretan.

Bitarteko adin-tarte horretan, 2007-2009 aldian hasi zen krisialdia erabakigarria izan da okupazioaren bilakaeran. 2007. urteko okupazio-mailarik handienen ondoren, okupazio-koefizienteen beherakada esanguratsua izan da handik aurrera. 25-34 urteko pertsonen kasuan, adierazle hori % 83,3tik % 76ra murriztu da 2007tik 2010era bitarte, eta zira hori 2001ekoa –% 77– baino txikiagoa da. 35-49 urteko pertsonen kasuan, berriz, % 82,2tik % 78,8ra egin du behera. Zifra hori, nolanahi ere, 2003koa –% 76,8– baino handiagoa da, eta 2005. urtekora –% 79,8– hurbiltzen da.

2007-2010 aldiko krisialdiaren testuinguruan, adierazitako bilakaerak okupazioan izan duen eragina txikia izan da 35-49 urteko pertsonen kasuan (okupazioak % 1eko beherakada garbia izan du), adin-tarte horrek hazteko duen joeragatik, neurri batean. 25-34 urteko pertsonen okupazioak, berriz, % 13,7 egin du behera (% 34,7 25 urtetik beherakoen kasuan). Beherakada handi horren ondorioz, 35 urtetik beherakoek EAEko guztizko okupazioan duten proportzioa % 29,6ra jaitsi da, hau da, 2001eko eta 2005eko mailen azpitik geratu da (% 39,5 eta % 36,7, hurrenez hurren).

Orain arte adierazitakoaren kontrako joera batekin, 50 urteko eta hortik gorako pertsonen okupazioak % 13,8 egin du gora 2007tik 2010era bitarte. EAEko biztanleriaren zahartzearen testuinguruan, adin-tarte horretako landunen kopuruak etengabeko igoera izan du: urteko batez besteko % 3ko igoera 2005etik 2007ra bitarte, % 4,2koa 2007-2009 aldian, eta % 4,8koa 2009-2010 aldian. 50 urtetik gorako pertsonek guztizko landunen kopuruan duten proportzioa % 20,2tik (35 urtetik beherakoen proportzioa baino 19 puntu txikiagoa) % 26,5era igo da 2001etik 2010era bitarte (gazteenen proportzioa baino 3 puntu txikiagoa urte horretan).

Datuak sexua kontuan hartuta balioestean, 2007-2009 aldian gizonen okupazioan hasi zen beherakada-prozesua finkatu egin dela azpimarratu beharra dago. Hala ere, urteko batez besteko beherakada-erritmoa txikiagoa izan da 2009tik 2010era bitarte (% 3,7 2007-2009 aldian eta % 1,5 2009-2010 aldian). Emakumeen kasuan, berriz, okupazioak % 2,1eko igoera izan zuen 2005etik 2009ra bitarte, baina behera egin du 2009-2010 aldian (% 0,4). Hala ere, emakume landunen 2010eko kopurua 2007koa baino % 3,9 handiagoa izan da (gizonen kasuan, berriz, 2010eko kopurua 2007koa baino % 8,6 txikiagoa izan da).

Gainera, emakumeen okupazio-koefizientea % 58,6 izan da, hau da 2009koa (% 58,8) baino bi hamarren txikiagoa eta 2007koa (% 57,4) baino handiagoa. Gizonek, berriz, % 78,6ko koefizientea izan zuten 2007an, eta zortzi puntu txikiagoa izan da 2010ean (% 70,6). Zira horrek 1993koa eta 1997koa baino ez ditu gainditzen (% 61,4 eta % 65,4, hurrenez hurren.

Emakumeen okupazioak izan duen beherakada txikia izan da 2009-2010 aldian, eta, horri esker, emakume landunek Euskadin duten proportzioak goranzko joeran jarraitzen du. Emakumeak, 2005. urtean, EAEko landun guztien % 41,6 ziren; 2010ean, berriz, % 44,9 dira.

**16-64 urteko landunen bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera. 2005-2010 aldia**

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2010 aldian)

| Sexua eta adina | Absolutuak | | | | Urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa | | | Hazkundearen %-a |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | 2005/ 2007 | 2007/ 2009 | 2009/ 2010 | 2007/2010 |
| Gizonak | 559.737 | 565.770 | 524.590 | 516.846 | 0,5 | -3,7 | -1,5 | -8,6 |
| Emakumeak | 388.443 | 405.188 | 422.669 | 420.854 | 2,1 | 2,1 | -0,4 | 3,9 |
| < 25 urte | 68.930 | 62.276 | 48.283 | 40.685 | -4,9 | -11,9 | -15,7 | -34,7 |
| 25-34 urte | 279.457 | 274.442 | 244.857 | 236.723 | -0,9 | -5,5 | -3,3 | -13,7 |
| 35-49 urte | 393.877 | 415.825 | 417.065 | 411.809 | 2,7 | 0,1 | -1,3 | -1,0 |
| >50 urte | 205.917 | 218.414 | 237.055 | 248.482 | 3,0 | 4,2 | 4,8 | 13,8 |
| Guztira | 948.180 | 970.957 | 947.259 | 937.701 | 1,2 | -1,2 | -1,0 | -3,4 |
| Emakume landunen %-a | 41,0 | 41,7 | 44,6 | 44,9 | | | | |
| < 35 urteko landunen %-a | 36,7 | 34,7 | 30,9 | 29,6 | | | | |

**16-64 urteko landunen bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera (bost urteko taldeak). 2001-2010 aldia**

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

| Adina | 2001 | | 2003 | | 2005 | | 2007 | | 2009 | | 2010 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Abs. | % ber. | Abs. | % ber. | Abs. | % ber. | Abs. | % ber. | Abs. | % ber. | Abs. | % ber. |
| 16-19 | 7.606 | ,9 | 7.460 | ,8 | 7.653 | ,8 | 6.441 | ,7 | 3.689 | ,4 | 2.597 | ,3 |
| 20-24 | 68.892 | 8,0 | 68.309 | 7,6 | 61.277 | 6,5 | 55.835 | 5,8 | 44.594 | 4,7 | 38.089 | 4,1 |
| 25-29 | 143.844 | 16,7 | 154.083 | 17,2 | 136.356 | 14,4 | 129.121 | 13,3 | 102.597 | 10,8 | 98.204 | 10,5 |
| 30-34 | 119.977 | 13,9 | 116.717 | 13,1 | 143.101 | 15,1 | 145.322 | 15,0 | 142.259 | 15,0 | 138.519 | 14,8 |
| 35-39 | 126.966 | 14,7 | 121.483 | 13,6 | 132.128 | 13,9 | 135.941 | 14,0 | 147.509 | 15,6 | 149.061 | 15,9 |
| 40-44 | 124.848 | 14,5 | 135.294 | 15,1 | 142.438 | 15,0 | 150.170 | 15,5 | 137.449 | 14,5 | 136.785 | 14,6 |
| 45-49 | 95.541 | 11,1 | 94.091 | 10,5 | 119.311 | 12,6 | 129.714 | 13,4 | 132.106 | 13,9 | 125.964 | 13,4 |
| 50-54 | 90.791 | 10,5 | 102.337 | 11,5 | 102.193 | 10,8 | 108.077 | 11,1 | 116.094 | 12,3 | 124.655 | 13,3 |
| 55-59 | 58.565 | 6,8 | 68.898 | 7,7 | 72.686 | 7,7 | 76.375 | 7,9 | 85.842 | 9,1 | 86.099 | 9,2 |
| 60-64 | 24.783 | 2,9 | 24.766 | 2,8 | 31.038 | 3,3 | 33.961 | 3,5 | 35.119 | 3,7 | 37.728 | 4,0 |
| Guztira | 861.814 | 100 | 893.439 | 100 | 948.180 | 100 | 970.957 | 100 | 947.259 | 100 | 937.701 | 100 |

**16-64 urteko biztanleriaren okupazio-koefizientearen bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera.**

**1993-2010 aldia**

(%-tan)

| Sexua eta adina | Okupazio-koefizientea | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1993 | 1997 | 2001 | 2003 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
| Gizonak | 61,4 | 65,4 | 73,5 | 74,5 | 77,3 | 78,6 | 71,6 | 70,6 |
| Emakumeak | 31,6 | 36,7 | 47,3 | 52,2 | 54,8 | 57,4 | 58,8 | 58,6 |
| < 25 urte | 19,3 | 22,7 | 32,3 | 35,8 | 35,3 | 35,1 | 27,5 | 23,5 |
| 25-34 urte | 60,9 | 66,8 | 77,0 | 79,8 | 81,8 | 83,8 | 76,0 | 76,0 |
| 35-49 urte | 62,7 | 67,7 | 74,2 | 76,8 | 79,8 | 82,2 | 79,8 | 78,8 |
| >50 urte | 37,6 | 40,2 | 46,2 | 48,9 | 51,0 | 52,6 | 54,9 | 55,9 |
| Guztira | 46,6 | 51,1 | 60,5 | 63,4 | 66,1 | 68,1 | 65,2 | 64,6 |

19. Okupazioaren adierazleek behera egin badute ere, 2010. urtearen amaieran EAEko okupazio-koefizientea Europar Batasuneko herrialde guztietakoa baino handixeagoa da (% 64,2 Europar Batasunean). Euskadi Europar Batasuna osatzen duten estatuetako hamabost baino maila hobean geratu da urte horretan. Garai bateko EB-15aren barruan, EAEko okupazio-mailak hegoaldeko estatu gehienetakoak (Espainia, Italia eta Greziakoak) baino handiagoak izan dira, baita Europako erdialdeko eta iparraldeko zenbait herrialdetakoak baino handiagoak ere, hala nola Frantzia, Belgika edo Irlandakoak baino handiagoak; eta Finlandiarekin alderatuz gero, 3 puntu baino gehixeagoko aldea dugu. Europar Batasunean izandako zabalkuntzen ondorioz sartutako herrialde berrien artean, Ziprek, Esloveniak eta Txekiar Errepublikak baino ez dute EAEk baino okupazio-koefiziente handiagoa.

Haatik, 2007ko datuekin alderatuz gero, okupazio-koefizienteak okupazio-maila handienak zituzten herrialdeekin zuen aldea zabaldu egin da, oro har. Izan ere, 5 puntuko aldea izan da Erresuma Batuarekin, eta 7-8,5 puntukoa Austria, Alemania, Danimarka eta Suediarekin. Azkenik, Herbehereekiko aldea 10,3 puntura iritsi da.

EB-27ko batez besteko orokorra erreferentzia gisa hartuta, EAEko okupazio-koefizienteak –emakumeenak zein gizonenak– handiagoak izan dira (2008an agertu zen joera hori lehen aldiz). 2010. urtean, EAEko emakumeen okupazio-koefizientea Europako batez bestekoa baino 0,3 puntu handiagoa izan da (% 58,6 EAEn eta % 58,3 EB-27n). Dena dela, koefiziente hori Herbehereetakoa, Danimarkakoa eta Suediakoa baino 10 puntu txikiagoa eta Austriakoa, Alemaniakoa, Erresuma Batukoa eta Finlandiakoa baino 6-8 puntu txikiagoa izan da.

Emakumeen okupazioak bilakaera positiboa izan badu ere, EAEko gizonen koefizienteak EB-27koen koefizienteari ateratzen zion aldea 5,9 puntutik 0,4 puntura murriztu da 2007tik 2010era bitarte (% 70,6 eta % 70,2, hurrenez hurren). 2010. urtean, EBko hamar estatuk gainditzen dute EAEko gizonen okupazio-koefizientea, eta 2007. urtean hiru baino ez ziren (Zipre, Danimarka eta Herbehereak). Zehazki, 4-6,5 puntuko aldea dago Ziprerekin, Alemaniarekin, Erresuma Batuarekin, Danimarkarekin eta Suediarekin, eta 7,5ekoa Austriarekin. Alderik handiena, 9,5 puntukoa, Herbehereekikoa da.

2006. urtetik aurrera EAEko gizonen koefizientea Erresuma Batukoa baino handiagoa izan zela kontuan hartuta, EAEk 2007tik 2010era bitarte izan duen okupazio-dinamikak aldaketa erabakigarria eragin du EAEko gizonen okupazio-mailetan. Izan ere, 2007. urtean EAEk hiru estatu baino ez zituen gainetik, eta 2010ean, berriz, hamar. Gainera, puntako herrialdeekiko aldea (hala nola Danimarka edo Herbehereekikoa) 2-4 puntutik 5-10 puntura igo da 2007tik 2010era bitarte.

**Adin aktiboan dagoen biztanleriaren okupazio-koefizienteak Europar Batasunean, sexuaren arabera. 2010**

(%-tan)

| Estatua | Gizonak | Emakumeak | Guztira |
|---|---|---|---|
| Alemania | 76,7 | 66,7 | 71,7 |
| Austria | 78,1 | 66,6 | 72,3 |
| Belgika | 68,0 | 57,5 | 62,7 |
| Bulgaria | 61,7 | 56,4 | 59,0 |
| Zipre | 77,1 | 63,4 | 70,1 |
| Danimarka | 76,3 | 69,5 | 72,9 |
| Eslovakia | 65,7 | 52,9 | 59,3 |
| Eslovenia | 69,3 | 62,0 | 65,7 |
| Estonia | 66,5 | 61,0 | 63,6 |
| Finlandia | 68,9 | 66,4 | 67,6 |
| Frantzia | 68,3 | 59,4 | 63,7 |
| Grezia | 69,3 | 47,2 | 58,3 |
| Hungaria | 60,9 | 50,8 | 55,8 |
| Irlanda | 63,1 | 55,7 | 59,4 |
| Italia | 67,6 | 46,5 | 57,0 |
| Letonia | 61,4 | 58,8 | 60,1 |
| Lituania | 59,4 | 59,1 | 59,2 |
| Luxenburgo | 73,2 | 57,2 | 65,3 |
| Malta | 71,9 | 40,0 | 56,3 |
| Herbehereak | 80,1 | 69,7 | 74,9 |
| Polonia | 66,2 | 53,1 | 59,6 |
| Portugal | 69,9 | 60,7 | 65,2 |
| Erresuma Batua | 74,9 | 64,4 | 69,7 |
| Txekiar Errepublika | 74,0 | 56,8 | 65,5 |
| Errumania | 64,7 | 51,0 | 57,9 |
| Suedia | 75,4 | 70,3 | 72,9 |
| **Espainia** | **64,3** | **52,5** | **58,4** |
| **EB-27** | **70,2** | **58,3** | **64,2** |
| **EAE** | **70,6** | **58,6** | **64,6** |

Iturria: 2010eko LIE- 4. hiruhilekoa (15-64 urtekoei aplika daitekeena). Lan Merkatuaren Erroldaren (LME) datuak EAErako.

20. Okupazioari buruzko datuak eskualdearen arabera aztertuz gero, joera kontrajarriak ikus daitezke, eta horixe da, hain zuzen ere, LME-2010eko daturik garrantzitsuenetako bat. Joera negatiboen aldean, okupazioak 2007-2009 aldian izan zuen beherakadaren ondoren, 2009tik 2010era bitarte behera egiten jarraitu du Gasteizen, Bizkaiko eskualde gehienetan (Durangaldean izan ezik) eta Donostialdean. Eskualde horietako gehienetan, okupazioaren beherakada-erritmoa areagotu egin da 2009-2010 aldian. Zehazki, % 1,5-3ko beherakada izan da Gasteizen, Bilbon, Bizkaia-Kostan eta Donostialdean (maila horietan azken hori baino ez zen egon 2007-2009 aldian). Ildo negatibo berean, Eskuinaldean okupazioak 2007-2009 aldian izan zuen urteko batez besteko beherakadarekin jarraitu du 2009-2010 aldian (% 1,3). Beheranzko joera duten eskualdeen artean, Ezkerraldean baino ez du behera egin beherakada-erritmoak (% 0,7tik % 0,3ra 207-2009 alditik 2009-2010 aldira bitarte).

Adierazitako eskualdeek 13.055 okupazio galdu dituzte guztira 2009tik 2010era bitarte. Horietatik, % 81,2 Bilbon, Donostialdean eta Gasteizen galdu da (% 33,7, % 33,1 eta % 14,4, hurrenez hurren).

Okupazioak 2009tik 2010era bitarte izan duen bilakaeraren alde positiboan, Debabarrenako % 0,3ko hazkundeak okupazioaren egonkortzea islatzen du nagusiki. Aiaraldean, Durangaldean, Tolosa-Goierrin eta Debagoienan, berriz, okupazioak nabarmen egin du gora (% 1-8-2,9). Lau eskualde horiek guztiak kontuan hartuta, 3.496 okupazio garbi gehiago izan dira, eta, horietatik, % 82,,5 Durangaldeak, Debagoienak eta Tolosa-Goierrik osatzen duten arkuan bildu da.

Dena dela, okupazioan izandako hazkundearekin ere, ezein eskualdek ez du gainditu 2005-2007 aldian lortutako okupazio-maila. 2007ko okupazioaren zifrekin alderatuta, beherakada txikia izan da Arabako eskualdeetan eta Ezkerraldean (% 1,4-2). Eskuinaldean, Bilbon, Bizkaia-Kostan, Tolosa-Goierrin eta Debagoienan, proportzio hori % 3,3-3,9ra iritsi da, Durangaldean eta Donostialdean % 4,5-5era, eta Debabarrenan, berriz, % 6,7ra. Edonola ere, Tolosa-Goierri eta Debagoiena beherakadarik handiena izan duten eskualdeetakoak dira, okupazioa lehenago hasi baitzen behera egiten, 2005etik aurrera, hain zuzen ere. 2005-2010 aldian, Tolosa-Goierrik okupazioaren % 4,7 galdu zuen, eta Debagoienak % 7,7. Ñabardura hori kontuan hartuta, beraz, okupazioak izan dituen beherakadarik handienak Gipuzkoako eskualdeetan eta Durangaldean gertatu direla egiazta dezakegu.

**16-64 urteko landunen bilakaera, eskualdearen arabera. 2005-2010 aldia**

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2010 aldian)

| Eskualdea | Absolutuak | | | | Urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa | | | Hazkundearen ehunekoa 2007/2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | 2005/ 2007 | 2007/ 2009 | 2009/ 2010 | |
| Gasteiz | 123.764 | 124.625 | 123.998 | 122.121 | 0,3 | -0,3 | -1,5 | -2,0 |
| Aiaraldea | 18.923 | 19.944 | 19.109 | 19.658 | 2,7 | -2,1 | 2,9 | -1,4 |
| Eskuinaldea | 71.288 | 72.626 | 70.721 | 69.829 | 0,9 | -1,3 | -1,3 | -3,9 |
| Bilbo | 144.541 | 150.399 | 149.887 | 145.485 | 2,0 | -0,2 | -2,9 | -3,3 |
| Ezkerraldea | 167.050 | 170.931 | 168.679 | 168.199 | 1,2 | -0,7 | -0,3 | -1,6 |
| Bizkaia-Kosta | 50.792 | 54.778 | 53.921 | 52.845 | 3,8 | -0,8 | -2,0 | -3,5 |
| Durangaldea | 51.241 | 55.213 | 51.804 | 52.715 | 3,8 | -3,1 | 1,8 | -4,5 |
| Donostialdea | 214.242 | 217.074 | 210.520 | 206.193 | 0,7 | -1,5 | -2,1 | -5,0 |
| Tolosa-Goierri | 52.612 | 52.150 | 48.942 | 50.133 | -0,4 | -3,1 | 2,4 | -3,9 |
| Debagoiena | 30.518 | 29.259 | 27.398 | 28.180 | -2,1 | -3,2 | 2,9 | -3,7 |
| Debabarrena | 23.209 | 23.958 | 22.280 | 22.342 | 1,6 | -3,6 | 0,3 | -6,7 |
| Guztira | 948.180 | 970.957 | 947.259 | 937.701 | 1,2 | -1,2 | -1,0 | -3,4 |

Okupazio-koefizienteen bilakaeraren azterketak ñabardura osagarri batzuk dakartza. 2007. urtean Durangaldean, Donostialdean eta Debabarrenan hasitako beherakadaren eragin erlatiboa berretsi bada ere (okupazio-koefizienteak 4-4,9 puntu egin du behera 2007tik 2010era bitarte), krisialdiaren eragina Arabako bi eskualdeetan ere handia izan dela erakusten dute datuek. Gasteizen eta Aiaraldean, koefizienteak 4,5-4,9 puntuko beherakada izan du 2007-2010 hirurtekoan, eta okupazioaren beherakada okupazioaren zifra orokorrek islatzen dutena baino handiagoa izan dela uzten du agerian horrek. Guztiz bestelakoa gertatu da Tolosa-Goierrin eta Debagoienan. Eskualde horietan, okupazio-koefizienteak 3,2-3,4 puntuko beherakada izan du, eta, beraz, zifrak ez dira okupazioaren zifren bilakaera orokorrak erakutsi dituenak bezain negatiboak, Araban gertatu den bezala. Bestalde, Eskuinaldean, Bilbon eta Bizkaia-Kostan, okupazio-koefizienteak 3-3,5 puntu galdu ditu. Okupazio-koefizientearen beherakadarik txikiena Ezkerraldean gertatu da (1,9 puntu 2007tik 2010era bitarte).

Adierazi beharra dago, nolanahi ere, ikusitako joeren ondorioz eskualde guztietako okupazio-koefizienteak parekatu egin direla, beheranzko joeran bada ere. Horrela, beraz, adierazlearen beherakadarik txikienak 2007. urtean okupazio-maila erlatiborik txikiena zuten eremuetan gertatu dira askotan (hala nola Bilbo inguruko hiru eskualdeetan eta Bizkaia-Kostan). Beherakadarik handienak, berriz, urte hartan EAEko maila ertainetan edo maila horien gainetik zeuden eskualdeetan agertu dira (hala nola Gasteizen, Aiaraldean, Durangaldean, Donostialdean eta Debabarrenan).

Egia esan, okupazio-koefizienteen beherakada Debagoienan eta Tolosa-Goierrin baino ez da izan txikiagoa, 2007. urtean abiapuntuko zifrak EAEko batez bestekoak baino nabarmen handiagoak izanik. Hori dela-eta, bi eskualde horiek 2010. urtean Euskadiko okupazio-koefizienterik handienak (% 69 ingurukoak) izan dituztenak dira. Horien atzetik, aldea handia izanik ere, honako hauek ditugu: Aiaraldea eta Donostialdea (% 66,5-66,8), eta Gasteiz, Bizkaia-Kosta eta Durangaldea (% 63,9-65,4). Bilbo inguruko hiru eskualdeak azken tokietan ditugu (Bilboko % 62,3tik Ezkerraldeko % 63,3ra bitarte), Debabarrenarekin batera.

Epe luzeagoko ikuspegi batetik, bereziki deigarria da Gasteizek, Debabarrenak eta, neurri txikiagoan, Bizkaia-Kostak sailkapen horretan atzera egin izana. Alderdi horren inguruan, berariazko iruzkin bat egitea komeni da.

Gasteizi dagokionez, 2001. urtera arte eskualde hori lehena izan zen okupazio-koefizienterik handieneko EAEko eskualdeen sailkapenean (urte hartan % 67,2ko koefizientea izan zuen, hau da, 2010eko % 64,3ko koefizientea baino nabarmen handiagoa). Gasteizek enplegu-arloan izan zuen lidergoaren eraginez, EAEko beste eskualde batzuetan baino immigrazio-prozesu handiagoa izan zuen, eta, horren ondorioz (neurri batean bederen), adierazlearen hazkundea EAEko beste eskualdeetakoa baino txikiagoa izan zen 2001etik 2007ra bitarte. Zehazki, 2003-2007 aldian, Gasteizko koefizientea % 69,1-69,4 izan zen, hau da, aldi hartan Aiaraldeak, Donostialdeak, Tolosa-Goierrik eta Debagoienak izan zutena baino askoz txikiagoa. Durangaldean 2009-2010 aldian okupazioak izan duen hazkundeak eskualde horretako okupazio-koefizientearen goranzko joera finkatu du. Errealitate hori 2007. urtean agertu zen, baina 2007-2009 aldiko krisiak zalantzan jarri zuela zirudien.

Bizkaia-Kostak ere EAEko batez bestekoa baino okupazio-koefiziente handiagoa izan zuen 90eko hamarkadan. Zehazki, okupazio-mailarik handieneko hirugarren eskualdea zen 1997an, Gasteizen eta Debagoienaren atzetik. Okupazioaren adierazleek beste eskualde batzuetakoekin konparatuta izan duen hazkunde txikiagoaren ondorioz, batez besteko zifren inguruan kokatu da eskualde hori 2001etik 2009ra bitarte. Edonola ere, okupazioak 2009-2010 aldian izan duen beherakada batez bestekoa baino handiagoa izan da, eta, horren ondorioz, EAEko okupazio-mailarik txikieneko eskualdeen okupazio-koefizienteetara hurbildu da azken urte horretan.

Debabarrenaren kasuan, bertako okupazio-koefizientea, oro har, EAEko batez bestekora hurbildu zen (edo batez besteko hori zertxobait gainditu zuen) 2007. urtera arte. Okupazioak izan duen beherakadaren eragin diferentzialaren ondorioz, ordea, eskualde hori okupazio-mailarik txikiena dutenen artean kokatu da handik aurrera. Nolanahi ere, Gasteizen bezala, dinamismoaren galeraren sintomak hamarkadaren azken zatiko krisialdiaren aurretik agertu zen. 2003-2005 aldiko okupazio-koefizientean izandako beherakada handiak (% 67,2tik % 64ra) argi eta garbi erakusten du hori. Nolanahi ere, 2005etik 2007ra bitarte goranzko joera izan zen.

Adierazitako hiru eskualdeetan, 2010eko okupazio-koefizienteak 2003koak baino txikiagoak dira. Gasteizen kasuan, gainera, adierazle hori 2001ekoa baino txikiagoa ere bada. Nolanahi ere, okupazioak 2007. urtearen ondoren izan zuen krisialdiaren dimentsio historikoak hiru eskualde horien esparrua gainditu du. Izan ere, Durangaldean, Donostialdean eta Debagoienan ere, 2010eko okupazio-koefizientea 2003koaren antzekoa edo txikiagoa izan da. Donostialdean okupazioak 2009tik 2010era bitarte izan duen krisialdiaren areagotzea dela-eta, Gipuzkoako eskualde horretako egoera bereziki hartu behar da kontuan, 2003tik aurrera zenbait eskualde (Gasteiz, adibidez) eraginpean hartu zituenaren antzeko beherakada-prozesu erlatibo bat islatzen ote duen ikusteko.

**16-64 urteko biztanleriaren okupazio-koefizientearen bilakaera, eskualdearen arabera.**
**1993-2010 aldia**
(%-tan)

| Eskualdea | Okupazio-koefizientea | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1993 | 1997 | 2001 | 2003 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
| Gasteiz | 52,0 | 58,6 | 67,2 | 69,1 | 69,4 | 69,2 | 65,5 | 64,3 |
| Aiaraldea | 48,1 | 54,5 | 63,0 | 62,4 | 66,4 | 71,0 | 65,0 | 66,5 |
| Eskuinaldea | 45,9 | 48,4 | 57,7 | 58,6 | 64,5 | 65,9 | 63,3 | 62,5 |
| Bilbo | 45,1 | 47,7 | 57,3 | 60,3 | 61,9 | 65,4 | 64,4 | 62,3 |
| Ezkerraldea | 41,0 | 44,4 | 55,3 | 58,0 | 62,0 | 65,2 | 63,5 | 63,3 |
| Bizkaia-Kosta | 50,4 | 54,7 | 60,5 | 64,9 | 65,0 | 67,1 | 65,2 | 63,9 |
| Durangaldea | 48,3 | 51,4 | 59,9 | 64,7 | 66,2 | 69,4 | 63,9 | 65,4 |
| Donostialdea | 48,6 | 53,7 | 63,7 | 66,0 | 69,8 | 70,8 | 67,9 | 66,8 |
| Tolosa-Goierri | 46,5 | 54,5 | 60,3 | 67,5 | 72,6 | 72,6 | 67,4 | 69,3 |
| Debagoiena | 49,6 | 57,5 | 65,1 | 70,9 | 72,1 | 72,2 | 66,7 | 68,8 |
| Debabarrena | 46,2 | 51,8 | 62,9 | 67,2 | 64,0 | 68,0 | 62,6 | 63,1 |
| Guztira | 46,6 | 51,1 | 60,5 | 63,4 | 66,1 | 68,1 | 65,2 | 64,6 |

21. Aiaraldean, Durangaldean, Tolosa-Goierrin eta Debagoienan 2009-2010 aldian okupazioak izan duen hazkundearen faktoreak aztertuz gero egiazta daitekeenez, prozesu hori emakumeen okupazio-mailen hazkundeari lotuta dago, Aiaraldean izan ezik (bertan, behera egin du emakumeen okupazio-koefizienteak). Halaber, Tolosa-Goierrin izan ezik, gizonen okupazio-koefizienteak gora egin du. Adina kontuan hartuta, ikusi den joera, oro har, 25-49 urteko eta, bereziki, 25-34 urteko pertsonen okupazio-koefizientearen hazkundeari lotuta dago. Era berean, gora egin du 25 urtetik beherako pertsonen okupazio-koefizienteak Debagoienan eta Tolosa-Goierrin. Azken eskualde horretan eta Durangaldean, gainera, 50 urteko eta hortik gorako biztanleriaren koefizienteak egin du gora. Aiaraldearen salbuespenarekin, aldakuntza horien emaitza garbia, oro har, 35 urtetik beherako pertsonek landunen kopuruan duten proportzioaren beherakada edo egonkortzea izan da. Horrek agerian uzten du okupazioak eskualde horietan izan duen hazkundeak eragin handiagoa izan duela 35 urtetik gorako biztanleengan.

Ezkerraldean eta Debabarrenan, okupazio-mailek funtsean berdintsu jarraitu dute 2009tik 2010era bitarte, eta, arestian adierazitako gainerako eskualdeetan bezala, joera positiboa izan da emakumeen okupazio-koefizienteetan. Dena dela, Tolosa-Goierrin izan ezik, hazkunde horrek ez du behar adina konpentsatu gizonen koefizientean izandako beherakada, eta, beraz, okupazioak ezin izan du era esanguratsuan gora egin. Eskualde horietan okupazioa egonkortu bada ere, barne-elementu batzuk oso kezkagarriak dira. Adibidez, oso deigarria da Ezkerraldeko eta Debabarrenako okupazio-koefizienteen bilakaeraren ezaugarri bereizgarri bat 50 urtetik gorakoen okupazio-koefizienteak izan duen igoera handia izatea, adin horretatik beherako pertsonen kasuan izan diren beherakadak kontuan hartuta batez ere. 50 urtetik beherakoen kasuan, salbuespen bakarra Debabarrenako 25-34 urteko pertsonena izan da. Izan ere, horien okupazio-koefizienteak goranzko joera izan du 2009tik 2010era bitarte.

2009-2010 aldian okupazioaren beherakada-erritmoa egonkortu edo igo egin den eskualdeetan (hots, Gasteizen, Eskuinaldean, Bilbon, Bizkaia-Kostan eta Donostialdean), ezaugarri komunik

azpimarragarriena emakumeen okupazio-koefizienteak izan duen beherakada izan da. Bilbon eta Donostialdean, beherakada hori are handiagoa izan da gizonen okupazio-koefizienteetan, eta, horren ondorioz, paradoxa sortu da: emakumeek landunen kopuruan duten proportzioak gora egin du, eta emakumeen okupazio-koefizienteak, berriz, behera. Adina kontuan hartuta, aztertutako eskualdeetan gazteen eta/edo 35-49 urtekoen okupazio-koefizienteek izandako beherakada handia azpimarratu behar da, oro har. Eragin garbia, edonola ere, negatiboagoa izan da gazteenen kasuan. Oro har, eskualde horietan, murriztu egin da 35 urtetik beherako pertsonek landunen kopuruan duten proportzioa.

**16-64 urteko biztanleriaren okupazio-koefizientearen bilakaera, sexuaren eta eskualdearen arabera. 2007-2010 aldia**

(%-tan)

| Eskualdea | Gizonak | | | Emakumeak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2007 | 2009 | 2010 | 2007 | 2009 | 2010 |
| Gasteiz | 80,6 | 69,5 | 69,2 | 57,4 | 61,3 | 59,1 |
| Aiaraldea | 81,7 | 74,4 | 77,7 | 59,6 | 54,9 | 54,4 |
| Eskuinaldea | 77,0 | 69,9 | 70,8 | 55,1 | 56,9 | 54,4 |
| Bilbo | 76,0 | 70,4 | 66,6 | 55,2 | 58,6 | 58,1 |
| Ezkerraldea | 76,7 | 71,4 | 70,0 | 53,4 | 55,4 | 56,6 |
| Bizkaia-Kosta | 76,6 | 72,0 | 71,1 | 57,1 | 58,0 | 56,3 |
| Durangaldea | 80,8 | 71,0 | 72,3 | 57,4 | 56,5 | 58,2 |
| Donostialdea | 79,8 | 74,1 | 72,5 | 61,6 | 61,7 | 61,0 |
| Tolosa-Goierri | 82,9 | 75,2 | 74,3 | 61,3 | 58,9 | 63,8 |
| Debagoiena | 78,0 | 69,7 | 72,1 | 66,0 | 63,4 | 65,2 |
| Debabarrena | 81,5 | 68,9 | 68,4 | 53,5 | 55,9 | 57,4 |
| Guztira | 78,6 | 71,6 | 70,6 | 57,4 | 58,8 | 58,6 |

**Emakumeek 16-64 urteko landunen artean duten proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera. 2007-2010 aldia**

(%-tan)

| Eskualdea | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|
| Gasteiz | 40,6 | 45,7 | 44,9 |
| Aiaraldea | 40,5 | 40,7 | 39,3 |
| Eskuinaldea | 42,4 | 45,9 | 44,2 |
| Bilbo | 42,8 | 46,5 | 47,6 |
| Ezkerraldea | 40,4 | 43,3 | 44,3 |
| Bizkaia-Kosta | 41,4 | 43,3 | 42,9 |
| Durangaldea | 40,2 | 43,2 | 43,5 |
| Donostialdea | 43,4 | 45,1 | 45,4 |
| Tolosa-Goierri | 40,4 | 41,6 | 43,6 |
| Debagoiena | 44,0 | 45,9 | 45,6 |
| Debabarrena | 37,9 | 42,8 | 43,7 |
| Guztira | 41,7 | 44,6 | 44,9 |

**16-64 urteko biztanleriaren okupazio-koefizientearen bilakaera, adinaren eta eskualdearen arabera. 2007-2010 aldia**

(%-tan)

| Eskualdea | < 25 urte | | | 25-34 urte | | | 35-49 urte | | | >50 urte | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2007 | 2009 | 2010 | 2007 | 2009 | 2010 | 2007 | 2009 | 2010 | 2007 | 2009 | 2010 |
| Gasteiz | 35,0 | 28,5 | 22,3 | 84,2 | 73,3 | 77,5 | 83,8 | 81,5 | 78,1 | 54,5 | 55,5 | 54,2 |
| Aiaraldea | 37,2 | 26,7 | 20,6 | 89,5 | 77,1 | 86,3 | 84,0 | 78,0 | 78,5 | 54,1 | 55,0 | 54,2 |
| Eskuinaldea | 34,8 | 27,1 | 21,4 | 80,7 | 75,6 | 73,0 | 81,1 | 78,3 | 76,6 | 51,9 | 53,5 | 57,7 |
| Bilbo | 29,4 | 30,4 | 22,9 | 74,7 | 72,0 | 73,0 | 80,8 | 76,8 | 74,8 | 53,3 | 57,0 | 55,2 |
| Ezkerraldea | 37,3 | 27,5 | 26,2 | 84,3 | 76,5 | 74,5 | 78,6 | 77,3 | 76,7 | 45,3 | 51,9 | 54,1 |
| Bizkaia-Kosta | 20,9 | 16,6 | 16,9 | 87,2 | 76,7 | 75,9 | 80,8 | 82,4 | 80,6 | 53,2 | 54,5 | 53,0 |
| Durangaldea | 31,7 | 27,3 | 23,1 | 86,9 | 73,8 | 76,6 | 84,3 | 78,0 | 80,2 | 52,3 | 53,6 | 56,6 |
| Donostialdea | 41,1 | 29,6 | 25,3 | 86,0 | 80,3 | 76,7 | 83,5 | 82,2 | 81,8 | 56,0 | 55,9 | 57,5 |
| Tolosa-Goierri | 38,3 | 28,6 | 29,2 | 91,7 | 81,1 | 83,7 | 85,1 | 81,4 | 82,1 | 57,7 | 56,1 | 60,4 |
| Debagoiena | 34,8 | 12,5 | 17,6 | 87,8 | 76,2 | 82,5 | 90,7 | 88,1 | 90,5 | 53,7 | 58,8 | 57,8 |
| Debabarrena | 38,1 | 28,7 | 21,0 | 88,4 | 71,2 | 72,1 | 85,1 | 78,5 | 77,4 | 51,0 | 53,4 | 58,1 |
| Guztira | 35,1 | 27,5 | 23,5 | 83,8 | 76,0 | 76,0 | 82,2 | 79,8 | 78,8 | 52,6 | 54,9 | 55,9 |

**35 urtetik beherakoek 16-64 urteko landunen artean duten proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera. 2007-2010 aldia**

(%-tan)

| Eskualdea | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|
| Gasteiz | 35,7 | 31,4 | 31,2 |
| Aiaraldea | 34,1 | 31,3 | 35,0 |
| Eskuinaldea | 34,7 | 31,7 | 30,2 |
| Bilbo | 32,3 | 31,9 | 31,2 |
| Ezkerraldea | 35,6 | 32,0 | 29,5 |
| Bizkaia-Kosta | 34,8 | 28,5 | 28,5 |
| Durangaldea | 35,2 | 28,2 | 26,2 |
| Donostialdea | 34,2 | 30,9 | 29,1 |
| Tolosa-Goierri | 36,7 | 30,8 | 28,0 |
| Debagoiena | 35,1 | 27,0 | 27,0 |
| Debabarrena | 36,3 | 29,1 | 26,3 |
| Guztira | 34,7 | 30,9 | 29,6 |

## 3.2. Datuak jarduera motaren arabera

22. 2009tik 2010era bitarte, berdin jarraitu du okupazioak zerbitzu-arlokoez bestelako sektoreetan izan duen bilakaera negatiboak. Lehen sektorean (nekazaritzan eta arrantzan) zein industrian eta eraikuntzan, okupazioak behera egin du aldi horretan. EJSN-93 sailkapenerekin alderatuta, guztizko galera % 4ra iritsi da, eta % 4,8ra erreferentzia gisa EJSN-2009 sailkapena hartuz gero. Zerbitzu-sektorean, berriz, okupazioak gora egin du (% 0,4 EJSN-93 sailkapenarekin alderatuta, eta % 0,8 EJSN-2009 sailkapenarekin alderatuta). Horren ondorio nagusia hirugarren sektorearen sendotze-prozesuaren sakontzea izan da. Izan ere, 16-64 urteko biztanleriaren % 68,6 zerbitzu-sektorean aritu da lanean 2010ean (EJSN-2009).

    Datuen azterketa historikoa EJSN-93an oinarrituta (informazioaren koherentziari begira), zerbitzu-arlokoez bestelako sektoreek hobera egin dute, nolabait ere, industriaren zenbait adarretan. 2007tik 2009ra bitarte okupazioak urteko % 9,5eko erritmoan behera egin ondoren, egonkor jarraitu du 2009-2010 aldian industria metalikoan. Manufaktura-industriaren bilakaerak ere goranzko joera erakutsi du. 2007tik 2009ra bitarte urtean batez beste % 10 jaitsi ondoren, 2009-2010 aldian % 1,4ko hazkundea izan du okupazioak[5].

[5] EJSN-2009an oinarritutako hurbilketan, datuak ez dira hain onak, 2009-2010 aldiko okupazioak manufaktura-industrian % 4ko beherakada izan duela baitiote. Beraz, adar horrek azken aldian izan duen bilakaeraren balioespen positiboa tentuz hartu behar da.. Sailkapen berriaren arabera, berriz, industria metalikoak % 0,4ko hazkundea izan du. Beraz, bilakaerak EJSN-2003koaren antzeko joera erakusten du, baina hobea.

Industriaren gainerako adarretan dinamika negatiboa areagotu bada ere (okupazioaren beherakada-erritmoa % 7tik % 8,8ra igo da 2007-2009 alditik 2009-2010 aldira bitarte), okupazioak industria metalikoan eta manufaktura-industrian lortu duen egonkortze orokorrak geldotu egin du okupazioak industria-sektorean izan duen galera-erritmoa. Izan ere, 2007-2009 aldian okupazioak % 9,2ko galera izan zuen urtean batez beste, baina zifra hori % 1,3ra jaitsi da 2009-2010 aldian (% -2,5era, EJSN-2009 sailkapenaren arabera).

Industria metalikoaz eta manufaktura-industriaz bestelako adarretan ikusitakoaren ildotik, azken bilakaerak erakusten du okupazioak gero eta beherakada handiagoa izan duela eraikuntzaren sektorean. Kasu horretan, okupazioaren beherakada-erritmoa % 5,4tik (urtean eta batez beste) % 10,4ra igo da 2007-2009 alditik 2009-2010 aldira bitarte. Era berean, nekazaritza egonkortu egin zen 2007tik 2009ra bitarte, baina % 8,2ko beherakada izan du 2009-2010 aldian.

Okupazioaren beherakada industriaren eta eraikuntzaren adar bakoitzean noiz gertatu den alde batera utzita, okupazioak krisialdian izan dituen galeren eragina antzeko samarra izan da guztietan. 2007-2010 aldian okupazioak izan duen beherakada % 17,9tik (manufaktura-industrian) % 21,1era (industriaren gainerakoan) bitartekoa izan da (% -18,2 industria metalikoan, % -19,8 eraikuntzan eta % -8,2 lehen sektorean). Datu horiek gorabehera, ez da ahaztu behar eraikuntzak aldez aurretik bilakaera hobea izan zuela. 2010eko okupazio-maila eta 2001ekoa konparatzen baditugu, okupazioak % 7,4 egin du behera eraikuntzan, hau da, industrian eta nekazaritza eta arrantzan baino askoz neurri txikiagoan (% 17,1 eta % 32,8, hurrenez hurren). Beraz, ez da egokia okupazioak lehen sektorean eta industrian izan duen bilakaera txarra 2007-2010 aldiko krisialdiarekin soilik lotzea.

Okupazioak industrian izan duen barne-bilakaerak 2009-2010 aldian zerbitzu-arlokoez bestelako sektoreetan elementu positibo batzuk izan direla erakusten duen bezala, zerbitzu-sektoreak izan duen emaitza positiboak barne-bilakaera desberdina ezkutatzen du. Zenbait adarretan, okupazioak goranzko joera izan du, krisialdiaren eraginik jasan gabe. Okupazioak etxeko zerbitzuan izan duen hazkunde handia alde batera utzita (% 11,1eko igoera, 2001etik 2009ra bitarte funtsean egonkor jarraitu ondoren), adibiderik garbiena enpresetarako zerbitzuena da. 2009-2010 aldian, okupazioa % 6,9 hazi da adar talde horretan. Bilakaera horrek 2001etik 2009ra bitarte izan zen joera hautsi du, okupazio berria sortzeko erritmoa moteldu egin baitzen pixkanaka aldi horretan (urteko batez besteko % 5,7 2001-2005 aldian, % 2,7 2005-2007 aldian eta % 1,9 2007-2009 aldian). Bilakaera hori okupazioak EJSN-2009ko zerbitzu profesionalen kategorian izan duen hazkundeari lotuta dago argi eta garbi. Zehazki, % 8,4ko hazkundea izan da zerbitzu horietan 209-2010 aldian, eta % 3,9koa zerbitzu osagarrietan.

Hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen esparruan ere goranzko joera izan du okupazioak. Nolanahi ere, urteko batez besteko hazkunde-erritmoa % 5era iritsi zen 2001-2005 aldian eta % 3,8-4,5era 2005-2009 laurtekoko zenbait alditan, baina % 2,5era murriztu da 2009tik 2010era bitarte.

Azken urtean hazteko joera erakutsi duen beste jarduera-eremu bat Administrazio Publikoa izan da. Okupazioa 2007-2009 aldian egonkortu ondoren, % 1,9ko gorakada izan du jarduera-eremu horretan 2009tik 2010era bitarte.

Aitzitik, okupazioaren bilakaera negatiboa izan da, 2009tik 2010era bitarte, zerbitzu-sektorearen adar askotan. Zenbait kasutan (hala nola garraio eta komunikazioen adar taldean), azken dinamika negatiboak finkatu egin ditu 2007-2009 aldiko galerak. Talde horretan, gainera, okupazioaren beherakada gero eta handiagoa izan da hamarkadaren erdialdetik aurrera (urteko eta batez besteko % 1,6ko galera 2005etik 2007ra bitarte, % 2,3koa 2007tik 2009ra bitarte eta % 4,7koa 2009-2010 aldian). Zerbitzuen adarren artean, 2007tik 2010era bitarte okupazioaren bilakaera orokor negatiboa izan duen adar bakarra izan da hori (beherakada % 9ra iritsi da adar horretan). Adar horiek epe luzera izan duten dinamika negatiboaren erakusgarri, 2010eko okupazioa 2001ekoa baino % 1,8 handiagoa baino ez da izan. Beste datu kezkagarri bat zera da, EJSN-2009 sailkapenaren arabera 2009-2010 aldiak izan duen bilakaera negatiboagoak lotura handiagoa duela informazioaren eta komunikazioen adarrekin garraioen sektorearekin baino.

Merkataritzaren sektoreko adarren bilakaera ere negatiboa izan da 2009tik 2010era bitarte. Finantza-erakundeen okupazioak % 0,5eko beherakada izan du, eta gainerako zerbitzuenak % 1,6koa, baina % 4ra iritsi da merkataritzan eta ostalaritzan. Oro har, aurretik ere ahultasuna erakutsi zuten zerbitzu-sektoreko adarrak dira. Nolanahi ere, adar horiek 2005-2007 aldian izan zituzten beherakadak 2007-2009 aldiko hazkundearekin konpentsatu ziren. Bilakaera horren ondorioz, zenbait kasutan –hala nola merkataritzan eta gainerako zerbitzuetan–, okupazioaren 2010eko zifra 2005ekoa baino txikiagoa izan da.

Adar talde horren barruan, 2009ra arteko bilakaerarekiko hausturarik handiena erakutsi duen adarra ostalaritza izan da. Izan ere, okupazioaren hazkunde-erritmoa areagotu egin zen 2001-2009 aldian (urteko eta batez besteko % 1,1 2001-2005 aldian, % 2,9 2005-2007 aldian, eta % 5 2007-2009 aldian), baina okupazioak % 3,9ko beherakada izan du 2009-2010 aldian ostalaritzan. Joera-aldaketa horren ondorioz, okupazioak 2007-2010 aldian izan duen igoera % 6 baino ez da izan, hau da, finantza-erakundeetan, enpresetarako zerbitzuetan, hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen adarretan eta etxeko zerbitzuan izandako igoerak baino askoz txikiagoa (% 11-13ko igoera adar horietan).

Azkenik, 2009-2010 aldian goranzko edo beheranzko joera izan duten sektoreak eta adarrak bereiz kontuan hartuta egiazta daitekeenez, goranzko joera izan duten adarretan okupazioak izan duen gorakada nagusia (14.671 okupazio berri sortzeko ahalmenarekin) enpresetarako zerbitzuetan,

hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen adarrean eta etxeko zerbitzuan gertatu da (% 46, % 24,8 eta % 18,7, hurrenez hurren). Halaber, Administrazio Publikoan % 6,5eko igoera izan da, eta manufaktura-industrian % 4koa.

Okupazioak beheranzko joera izan duen sektore eta adarren kasuan, 24.229 okupazio galdu dira guztira, eta galera eraikuntzan eta merkataritzan izan da handia bereziki (% 33,9 eta % 23,3, hurrenez hurren). Honako adar hauetan ere handia izan da beherakada: metal-industriaz eta manufaktura-industriaz bestelako adarretan (% 13,5), garraio eta komunikazioetan (% 11,5), ostalaritzan (% 9,1) eta nekazaritza eta arrantzan (% 5,1).

**16-64 urteko landunen bilakaera, sektorearen eta jarduera-adarraren arabera.**
**2009-2010 aldia**

(Datu absolutuak, % bertikalak eta Hazkundearen %-a 2009-2010 aldian)

| Jarduera-adarra | Absolutuak | | | | Hazkundearen ehunekoa 2009-2010 |
|---|---|---|---|---|---|
| | 2009 | | 2010 | | |
| | Abs. | % ber. | Abs. | % ber. | |
| NEKAZARITZA ETA ARRANTZA | 12.923 | 1,4 | 12.080 | 1,3 | -6,5 |
| Manufaktura-industria | 42.633 | 4,5 | 40.923 | 4,4 | -4,0 |
| Industria metalikoa | 129.443 | 13,7 | 129.930 | 13,9 | 0,4 |
| Bestelako industriak | 43.621 | 4,6 | 39.467 | 4,2 | -9,5 |
| INDUSTRIA | 215.697 | 22,8 | 210.321 | 22,4 | -2,5 |
| ERAIKUNTZA | 80.538 | 8,5 | 71.784 | 7,7 | -10,9 |
| Merkataritza | 131.907 | 13,9 | 128.859 | 13,7 | -2,3 |
| Ostalaritza | 56.166 | 5,9 | 53.590 | 5,7 | -4,6 |
| Garraioa | 48.117 | 5,1 | 48.006 | 5,1 | -0,2 |
| Informazioa eta komunikazioak | 28.275 | 3,0 | 27.505 | 2,9 | -2,7 |
| Finantza-erakundeak, aseguruak | 23.341 | 2,5 | 23.065 | 2,5 | -1,2 |
| Zerbitzu profesionalak | 42.378 | 4,5 | 45.956 | 4,9 | 8,4 |
| Zerbitzu osagarriak | 46.307 | 4,9 | 48.122 | 5,1 | 3,9 |
| Administrazio Publikoa | 50.551 | 5,3 | 51.934 | 5,5 | 2,7 |
| Hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak | 148.964 | 15,7 | 150.734 | 16,1 | 1,2 |
| Jolas- eta elkarte-jarduerak | 19.700 | 2,1 | 21.287 | 2,3 | 8,1 |
| Beste zerbitzu batzuk | 17.242 | 1,8 | 16.513 | 1,8 | -4,2 |
| Etxeko zerbitzua | 24.668 | 2,6 | 27.461 | 2,9 | 11,3 |
| ZERBITZUAK | 637.615 | 67,3 | 643.032 | 68,6 | 0,8 |
| Sailkatu gabea | 486 | ,1 | 484 | ,1 | |
| Guztira | 947.259 | 100 | 937.701 | 100 | -1,0 |

Oharra: EJSN-2009an oinarritutako sailkapena

**16-64 urteko landunen bilakaera, sektorearen eta jarduera-adarraren arabera. 2001-2010 aldia**

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2010 aldian)

| Jarduera-adarra | Absolutuak | | | | | Hazkunde-tasa | | | | Hazkundearen %-a 2007/2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2001 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | 2001/ 2005 | 2005/ 2007 | 2007/ 2009 | 2009/ 2010 | |
| NEKAZARITZA/ARRANTZA | 20.652 | 15.082 | 15.004 | 15.131 | 13.883 | -7,6 | -0,3 | 0,4 | -8,2 | -7,5 |
| Manufaktura-industria | 55.278 | 49.279 | 51.963 | 42.092 | 42.673 | -2,8 | 2,7 | -10,0 | 1,4 | -17,9 |
| Industria metalikoa | 157.357 | 159.550 | 163.563 | 133.854 | 133.795 | 0,3 | 1,2 | -9,5 | 0,0 | -18,2 |
| Bestelako industriak | 41.364 | 40.965 | 43.098 | 37.285 | 34.003 | -0,2 | 2,6 | -7,0 | -8,8 | -21,1 |
| INDUSTRIA | 253.999 | 249.794 | 258.625 | 213.230 | 210.470 | -0,4 | 1,8 | -9,2 | -1,3 | -18,6 |
| ERAIKUNTZA | 76.809 | 86.373 | 88.671 | 79.332 | 71.118 | 3,0 | 1,3 | -5,4 | -10,4 | -19,8 |
| Merkataritza | 111.257 | 131.670 | 129.105 | 135.720 | 130.085 | 4,3 | -1,0 | 2,5 | -4,2 | 0,8 |
| Ostalaritza | 45.667 | 47.770 | 50.579 | 55.787 | 53.590 | 1,1 | 2,9 | 5,0 | -3,9 | 6,0 |
| Garraioak eta komunikazioak | 55.320 | 63.889 | 61.923 | 59.114 | 56.327 | 3,7 | -1,6 | -2,3 | -4,7 | -9,0 |
| Finantza-erakundeak | 20.475 | 21.672 | 20.708 | 23.186 | 23.065 | 1,4 | -2,2 | 5,8 | -0,5 | 11,4 |
| Enpresetarako zerbitzuak | 71.811 | 89.596 | 94.455 | 98.159 | 104.909 | 5,7 | 2,7 | 1,9 | 6,9 | 11,1 |
| Administrazio Publikoa | 45.439 | 45.101 | 50.990 | 50.978 | 51.934 | -0,2 | 6,3 | 0,0 | 1,9 | 1,9 |
| Hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak | 103.603 | 126.063 | 135.761 | 148.203 | 151.846 | 5,0 | 3,8 | 4,5 | 2,5 | 11,8 |
| Beste zerbitzu batzuk | 31.702 | 46.190 | 40.855 | 43.214 | 42.527 | 9,9 | -6,0 | 2,8 | -1,6 | 4,1 |
| Etxeko zerbitzua | 25.077 | 24.979 | 24.282 | 24.719 | 27.461 | -0,1 | -1,4 | 0,9 | 11,1 | 13,1 |
| ZERBITZUAK | 510.353 | 596.931 | 608.657 | 639.080 | 641.744 | 4,0 | 1,0 | 2,5 | 0,4 | 5,4 |
| Sailkatu gabea | 0 | 0 | 0 | 486 | 484 | | | | | |
| Guztira | 861.814 | 948.180 | 970.957 | 947.259 | 937.701 | 2,4 | 1,2 | -1,2 | -1,0 | -3,4 |

Oharra: EJSN-93an oinarritutako sailkapena

23. Okupazioaren bilakaera sektoriala eskualdearen arabera aztertuta, zenbait datu interesgarri atera ditugu. Azpimarratu beharreko lehen datua 2009-2010 aldian okupazioak zerbitzu-arlokoez bestelako sektoreetan (industrian batez ere) izandako hazkundearen eta okupazioaren hazkunde orokorraren artean izan den lotura estua da. Erreferentziazko aldian okupazioan % 2ko edo hortik gorako hazkundeak izan dituzten lau eskualdeak (Aiaraldea, Durangaldea, Tolosa-Goierri eta Debagoiena) zerbitzu-arlokoez bestelako sektoreetan gora egin duten bakarrak izan dira. Aiaraldean eta Durangaldean, gainera, okupazioak % 2tik gorako hazkundea izan du zerbitzuetan, baina, oro har, okupazioaren hazkundea gainerako sektoreetan oinarrituta dago eskualde horietan. Hori bereziki nabarmena da Tolosa-Goierrin eta Debagoienan. Bertan, okupazioak hazkunde handia izan du zerbitzu-arlokoez bestelako sektoreetan (% 4,5 eta % 7,4, hurrenez hurren), baina zerbitzuetan hazkunde-erritmo txikiak eta beherakadak izan ditu okupazioak (% -1,6 Debagoienan eta % 0,6 Tolosa-Goierrin).

Nekazaritzan, industrian eta eraikuntzan, berriz, okupazioak behera egiten du jarraitu du gainerako eskualdeetan 2009tik 2010era bitarte. Beherakada bereziki handia izan da Gasteizen, Eskuinaldean, Bilbon, Ezkerraldean eta Donostialdean (% 6tik gorako beherakada-erritmoak, 2007-2009 aldikoen antzekoak). Izan ere, eskualde horiek guztiek industriaren eta/edo eraikuntzaren krisialdiaren iraupenaren eragina jasan dute azken urtean. Galera horiek nahikoak dira eskualde horietan guztietan okupazioak 2009-2010 aldian izan duen joera negatiboa finkatzeko. Nolanahi ere, okupazioaren krisialdia areagotu egin da (% 2tik gorako beherakadekin), zerbitzu-sektorea egonkortu den eskualdeetan (hala nola Donostialdean) edota sektore horrek behera egin duen eskualdeetan (Bilbon, adibidez, % 1,9ko beherakadarekin).

2007-2010 aldiko krisialdian industriak eta eraikuntzak izan duten egoera bereziki garrantzitsua izan da eskualde-eremuan. Kasu gehienetan, 2010eko okupazio-mailak 2007koak baino askoz txikiagoak izan dira zerbitzu-arlokoez bestelako sektoreetan. Beherakada % 10-15era iritsi da Gasteizen, Tolosa-Goierrin eta Debagoienan, eta % 20tik gorakoa izan da Bilbo inguruko hiru eskualdeetan, Durangaldean eta Donostialdean. Ezkerraldean, zerbitzu-sektorearen bestelako joerak ahuldu egin du, neurri batean, bilakaera negatibo hori, baina eskualde bakarra izan da. Eskualde hori, Aiaraldearekin batera, 2007-2010 aldian okupazio orokorrean beherakadarik txikiena izan duena da (% 1,5eko beherakada eskualde horietan, % 2koa Gasteizen eta % 3 baino handiagoa gainerako eskualdeetan).

Gainerako sektoreetan ere okupazioak behera egin du Bizkaia-Kostan (% -1,4). Kasu horretan, okupazioak 2009tik 2010era bitarte izan duen beherakada handia (% -2) zerbitzu-sektorearen bilakaera negatiboari (% -2,4) lotuta dago. Aitzitik, okupazioak Debabarrenan izan duen hazkunde txikia (% 0,3) zerbitzu-sektorearen bilakaerari (% 0,7) lotuta dago.

Gainerako sektoreetan, okupazioak beherakada txikia izan du (% -0,2). Nolanahi ere, azpimarratu beharra dago bi eskualde horietan, eta horietan baino ez, okupazioaren 2007-2010 aldiko krisialdiak okupazioaren beherakada handia eragin duela zerbitzu-sektorean. Bi eskualde horietan bezala, Aiaraldean okupazioaren beherakada % 10 baino txikiagoa izan da industrian, eta zerbitzu-sektoreak bilakaera negatiboa izan du. Hala ere, sektore horrek % 2,7ko hazkundea izan du 2007-2010 aldian. Horrela, beraz, aldi horretan okupazioaren beherakadarik txikiena (% -1,4) izan duen eskualdea izan da Aiaraldea.

24. Zerbitzu-arlokoez bestelako sektoreen bilakaeraren eta okupazioaren krisialdiaren arteko loturak, eta okupazioak Aiaraldean, Durangaldean, Tolosa-Goierrin eta Debagoienan izan duen gorakadaren eta enpleguak sektore horietan izan duen hazkundearen arteko loturak agerian utzi dutenez, lurralde bateko industria-oinarria oso garrantzitsua da okupazio-mailei eusteko. Ildo horretan, deigarria da adierazitako lau eskualdeak, Debabarrenarekin batera, industrian lan egiten duten 16-64 urteko pertsonen proportzioa 2010ean 1993an baino handiagoa duten bakarrak izatea (0,5 puntu handiagoa, hain zuzen ere). Eskualde horiek guztiek EAEko batez besteko okupazio-koefizientea gainditzen dute, zerbitzu-sektorearen garrantzi erlatiboa EAEko batez bestekoa baino askoz txikiagoa izanik ere. Horrek agerian uzten du hirugarren sektorearen indar txikiagoak ez dakarrela okupazioaren dinamismo txikiagoa beti.

Ildo berean, Bilbo inguruko hiru eskualdeetan hirugarren sektoreak maila handiagoak izanik ere, okupazio-koefizienteak ez dira izan gainerako eskualdeetakoak baino handiagoak. Gasteizko eta Donostialdeko okupazio-koefiziente orokorrak Bilbokoak, Eskuinaldekoak eta Ezkerraldekoak baino handiagoak izan dira, eta horrek lotura estua du gainerako sektoreetan (eta, bereziki, industrian) lortutako okupazio-mailekin, maila horiek handiagoak izan baitira bi eskualde horietan.

Gauza bera ikus daiteke, Euskadiko urbanizazio-mailarik txikieneko eremuei dagokienez, Bizkaia-Kosta Aiaraldearekin, Durangaldearekin, Tolosa-Goierrirekin edo Debagoienarekin konparatzean. Bizkaia-Kostan, industria-sektorearen garrantzi erlatibo txikiaren ondorioz, eskualde horrek gainerakoek baino okupazio-koefiziente orokor txikiagoak izan ditu, hirugarren sektoreak maila handiagoa izanik ere.

**16-64 urteko landunen bilakaera, jarduera-sektore handien eta eskualdearen arabera. 2001-2010 aldia**

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2010 aldian)

| Jarduera-sektore handiak eta eskualdea | | Absolutuak | | | | | Hazkunde-tasa | | | | Hazkundearen ehunekoa 2007/2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2001 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | 2001/ 2005 | 2005/ 2007 | 2007/ 2009 | 2009/ 2010 | |
| Zerbitzu-arlokoez bestelakoak | Gasteiz | 52.033 | 50.756 | 50.351 | 45.927 | 43.095 | -0,6 | -0,4 | -4,5 | -6,2 | -14,4 |
| | Aiaraldea | 9.211 | 9.781 | 10.334 | 9.428 | 9.787 | 1,5 | 2,8 | -4,5 | 3,8 | -5,3 |
| | Eskuinaldea | 19.174 | 18.510 | 21.585 | 16.765 | 15.071 | -0,9 | 8,0 | -11,9 | -10,1 | -30,2 |
| | Bilbo | 37.575 | 36.816 | 39.107 | 33.347 | 31.154 | -0,5 | 3,1 | -7,7 | -6,6 | -20,3 |
| | Ezkerraldea | 59.579 | 59.179 | 63.467 | 51.673 | 48.122 | -0,2 | 3,6 | -9,8 | -6,9 | -24,2 |
| | Bizkaia-Kosta | 21.890 | 20.573 | 20.430 | 19.655 | 19.385 | -1,5 | -0,3 | -1,9 | -1,4 | -5,1 |
| | Durangaldea | 24.122 | 27.182 | 28.751 | 21.399 | 21.621 | 3,0 | 2,8 | -13,7 | 1,0 | -24,8 |
| | Donostialdea | 72.625 | 72.307 | 73.081 | 62.513 | 58.231 | -0,1 | 0,5 | -7,5 | -6,8 | -20,3 |
| | Tolosa-Goierri | 25.286 | 26.840 | 27.324 | 22.917 | 23.953 | 1,5 | 0,9 | -8,4 | 4,5 | -12,3 |
| | Debagoiena | 17.347 | 17.158 | 16.516 | 13.640 | 14.649 | -0,3 | -1,9 | -9,1 | 7,4 | -11,3 |
| | Debabarrena | 12.619 | 12.148 | 11.355 | 10.429 | 10.405 | -0,9 | -3,3 | -4,2 | -0,2 | -8,4 |
| | Guztira | 351.460 | 351.249 | 362.300 | 307.693 | 295.472 | 0,0 | 1,6 | -7,8 | -4,0 | -18,4 |
| Zerbitzuak | Gasteiz | 64.391 | 73.008 | 74.274 | 77.949 | 78.822 | 3,2 | 0,9 | 2,4 | 1,1 | 6,1 |
| | Aiaraldea | 8.260 | 9.142 | 9.611 | 9.681 | 9.872 | 2,6 | 2,5 | 0,4 | 2,0 | 2,7 |
| | Eskuinaldea | 44.545 | 52.778 | 51.041 | 53.956 | 54.696 | 4,3 | -1,7 | 2,8 | 1,4 | 7,2 |
| | Bilbo | 95.465 | 107.725 | 111.292 | 116.346 | 114.141 | 3,1 | 1,6 | 2,2 | -1,9 | 2,6 |
| | Ezkerraldea | 88.726 | 107.871 | 107.464 | 116.904 | 120.077 | 5,0 | -0,2 | 4,3 | 2,7 | 11,7 |
| | Bizkaia-Kosta | 25.096 | 30.219 | 34.348 | 34.266 | 33.460 | 4,8 | 6,6 | -0,1 | -2,4 | -2,6 |
| | Durangaldea | 22.096 | 24.059 | 26.462 | 30.405 | 31.094 | 2,2 | 4,9 | 7,2 | 2,3 | 17,5 |
| | Donostialdea | 122.943 | 141.935 | 143.993 | 147.940 | 147.932 | 3,7 | 0,7 | 1,4 | 0,0 | 2,7 |
| | Tolosa-Goierri | 18.505 | 25.772 | 24.826 | 26.025 | 26.180 | 8,6 | -1,9 | 2,4 | 0,6 | 5,5 |
| | Debagoiena | 10.270 | 13.361 | 12.744 | 13.758 | 13.532 | 6,8 | -2,3 | 3,9 | -1,6 | 6,2 |
| | Debabarrena | 10.057 | 11.061 | 12.603 | 11.852 | 11.937 | 2,4 | 6,7 | -3,0 | 0,7 | -5,3 |
| | Guztira | 510.353 | 596.931 | 608.657 | 639.080 | 641.744 | 4,0 | 1,0 | 2,5 | 0,4 | 5,4 |

Oharra: EJSN-93an oinarritutako sailkapena

**14-64 urteko biztanleria: okupazioaren barne-banaketaren bilakaera, jarduera-sektorearen eta eskualdearen arabera. 1993-2010 aldia**

(%-tan)

| Jarduera-sektorea | | Gasteiz | Aiaraldea | Eskuinaldea | Bilbo | Ezkerraldea | Bizkaia-Kosta | Durangaldea | Donosti-aldea | Tolosa-Goierri | Deba-goiena | Deba-barrena | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1993 | Nekazaritza | 3,3 | 6,1 | ,3 | ,1 | ,8 | 13,3 | 3,4 | 3,3 | 3,9 | ,9 | 3,9 | 2,7 |
| | Industria | 33,2 | 42,5 | 26,1 | 21,1 | 29,4 | 30,8 | 44,8 | 26,2 | 44,2 | 59,8 | 50,2 | 31,1 |
| | Eraikuntza | 8,1 | 6,9 | 6,2 | 7,4 | 11,2 | 8,1 | 5,7 | 7,8 | 7,8 | 4,8 | 4,5 | 8,0 |
| | Zerbitzuak | 55,3 | 44,4 | 67,4 | 71,4 | 58,6 | 47,8 | 46,1 | 62,7 | 44,0 | 34,4 | 41,5 | 58,3 |
| 2001 | Nekazaritza | 3,7 | 4,8 | ,4 | ,2 | 2,0 | 7,7 | 1,0 | 2,6 | 3,2 | ,0 | 5,7 | 2,4 |
| | Industria | 33,7 | 41,3 | 21,8 | 18,5 | 26,5 | 30,0 | 45,4 | 24,9 | 45,4 | 56,8 | 45,6 | 29,5 |
| | Eraikuntza | 7,2 | 6,7 | 7,8 | 9,5 | 11,7 | 8,9 | 5,8 | 9,6 | 9,2 | 6,0 | 4,3 | 8,9 |
| | Zerbitzuak | 55,3 | 47,3 | 69,9 | 71,8 | 59,8 | 53,4 | 47,8 | 62,9 | 42,3 | 37,2 | 44,4 | 59,2 |
| 2007 | Nekazaritza | 2,5 | 5,5 | ,8 | ,1 | 1,0 | 3,7 | 1,5 | 1,6 | 1,9 | 1,5 | 2,5 | 1,5 |
| | Industria | 29,6 | 38,7 | 20,9 | 15,8 | 23,4 | 26,5 | 43,6 | 23,4 | 42,2 | 50,6 | 36,5 | 26,6 |
| | Eraikuntza | 8,3 | 7,7 | 8,1 | 10,1 | 12,7 | 7,1 | 7,0 | 8,6 | 8,2 | 4,3 | 8,4 | 9,1 |
| | Zerbitzuak | 59,6 | 48,2 | 70,3 | 74,0 | 62,9 | 62,7 | 47,9 | 66,3 | 47,6 | 43,6 | 52,6 | 62,7 |
| 2010 | Nekazaritza | 2,3 | 3,9 | ,5 | ,1 | ,7 | 5,0 | 1,2 | 1,6 | 3,0 | ,9 | 1,5 | 1,5 |
| | Industria | 27,2 | 39,4 | 15,5 | 12,9 | 17,9 | 22,8 | 33,8 | 19,1 | 38,0 | 45,0 | 40,1 | 22,5 |
| | Eraikuntza | 5,8 | 6,5 | 5,6 | 8,4 | 10,1 | 8,9 | 5,9 | 7,6 | 6,8 | 6,1 | 4,9 | 7,6 |
| | Zerbitzuak | 64,7 | 50,2 | 78,4 | 78,6 | 71,4 | 63,3 | 59,0 | 71,8 | 52,2 | 48,0 | 53,4 | 68,5 |

Oharra: EJSN-93an oinarritutako sailkapena

**14-64 urteko biztanleria: okupazio-koefizienteen bilakaera, jarduera-sektorearen eta eskualdearen arabera 1993-2010 aldia**

(%-tan)

| Jarduera-sektorea | | Gasteiz | Aiaraldea | Eskuinaldea | Bilbo | Ezkerraldea | Bizkaia-Kosta | Durangaldea | Donosti-aldea | Tolosa-Goierri | Deba-goiena | Deba-barrena | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Nekazaritza/Eraik. | 1993 | 5,9 | 6,3 | 3,0 | 3,4 | 4,9 | 10,8 | 4,4 | 5,4 | 5,5 | 2,8 | 3,9 | 5,0 |
| | 2001 | 7,4 | 7,2 | 4,8 | 5,6 | 7,6 | 10,0 | 4,1 | 7,8 | 7,5 | 3,9 | 6,3 | 6,8 |
| | 2007 | 7,4 | 9,3 | 5,8 | 6,7 | 8,9 | 7,2 | 5,9 | 7,2 | 7,4 | 4,2 | 7,4 | 7,3 |
| | 2010 | 5,2 | 6,9 | 3,8 | 5,3 | 6,8 | 8,9 | 4,7 | 6,1 | 6,8 | 4,8 | 4,1 | 5,9 |
| Industria | 1993 | 17,3 | 20,4 | 12,0 | 9,5 | 12,0 | 15,5 | 21,6 | 12,7 | 20,6 | 29,7 | 23,2 | 14,5 |
| | 2001 | 22,7 | 26,0 | 12,6 | 10,6 | 14,6 | 18,2 | 27,2 | 15,9 | 27,4 | 37,0 | 28,7 | 17,8 |
| | 2007 | 20,5 | 27,5 | 13,8 | 10,3 | 15,3 | 17,8 | 30,2 | 16,6 | 30,7 | 36,6 | 24,8 | 18,1 |
| | 2010 | 17,5 | 26,2 | 9,7 | 8,1 | 11,3 | 14,6 | 22,1 | 12,7 | 26,3 | 30,9 | 25,3 | 14,5 |
| Zerbitzuak | 1993 | 28,7 | 21,4 | 31,0 | 32,2 | 24,0 | 24,1 | 22,3 | 30,4 | 20,5 | 17,1 | 19,2 | 27,1 |
| | 2001 | 37,2 | 29,8 | 40,4 | 41,1 | 33,1 | 32,3 | 28,6 | 40,1 | 25,5 | 24,2 | 27,9 | 35,8 |
| | 2007 | 41,3 | 34,2 | 46,3 | 48,4 | 41,0 | 42,1 | 33,3 | 46,9 | 34,6 | 31,4 | 35,8 | 42,7 |
| | 2010 | 41,5 | 33,4 | 49,0 | 48,9 | 45,2 | 40,5 | 38,6 | 47,9 | 36,2 | 33,0 | 33,7 | 44,2 |
| Guztira | 1993 | 52,0 | 48,1 | 45,9 | 45,1 | 41,0 | 50,4 | 48,3 | 48,6 | 46,5 | 49,6 | 46,2 | 46,6 |
| | 2001 | 67,2 | 63,0 | 57,7 | 57,3 | 55,3 | 60,5 | 59,9 | 63,7 | 60,3 | 65,1 | 62,9 | 60,5 |
| | 2007 | 69,2 | 71,0 | 65,9 | 65,4 | 65,2 | 67,1 | 69,4 | 70,8 | 72,6 | 72,2 | 68,0 | 68,1 |
| | 2010 | 64,3 | 66,5 | 62,5 | 62,2 | 63,3 | 63,9 | 65,4 | 66,8 | 69,3 | 68,8 | 63,1 | 64,6 |

Oharra: EJSN-93an oinarritutako sailkapena

25. 2007-2009 aldian bezala, okupazioaren beheranzko joerak bere horretan jarraitu du 2009tik 2010era bitarte, eta okupazioak goi-mailako kalifikaziorik gabeko sektoreetan izan duen bilakaera negatiboari lotuta dago hori. Kasu horretan, okupazioaren beherakada areagotu egin da, hain zuzen ere urteko % 2,9tik % 3,4ra 2007-2009 alditik 2009-2010 aldira bitarte. Goi-mailako kalifikazioko sektoreetan okupazioak izan duen bilakaerak konpentsatu egin du beherakada hori, neurri batean. Izan ere, % 2,4ko hazkundea izan da sektore horietan, hau da, 2007-2009 aldiko % 1,3ko hazkundea baino handiagoa. Horren ondorioz, okupazioak goi-mailako kalifikazioko sektoreetan duen garrantzi erlatiboa % 41,5etik % 42,9ra igo da 2009tik 2010era bitarte.

2007-2009 aldian goi-mailako kalifikazioko sektoreen joeran ikusitako xehetasuna (goi-mailako teknologiako sektoreen bilakaerari lotutakoa) finkatu egin da 2009-2010 aldian. Neurri handian industriari lotuta dauden goi-mailako teknologiako sektoreetan, 2007-2009 aldiko urteko batez besteko beherakada (% 0,8) areagotu egin da 2009tik 2010era bitarte, eta % 1,5era iritsi da. Ezaugarri bereizgarri gisa goi-mailako prestakuntzaren garrantzia edota ezagutza-intentsitatea duten sektoreetan, okupazioak % 10-11ko hazkundea izan du 2007-2010 aldian, baina goi-mailako teknologia behar duten sektoreetan okupazioak % 2,9ko beherakada izan du aldi horretan bertan. Sektore horietan, okupazioaren proportzioa % 12,2ra iritsi da 2010ean, hau da, 2009an (% 12,3) baino hamarren bat txikiagoa izan da.

**16-64 urteko biztanleria landuna goi-mailako kalifikazioko sektoreetan. 2009 eta 2010**

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

| Sektore mota | 2009 | | 2010 | |
|---|---|---|---|---|
| | Abs. | % ber. | Abs. | % ber. |
| Goi-mailako teknologia | 116.495 | 12,3 | 114.804 | 12,2 |
| Goi-mailako prestakuntza | 248.083 | 26,2 | 258.283 | 27,5 |
| Ezagutza-intentsitate handia | 304.600 | 32,2 | 314.433 | 33,5 |
| Goi-mailako kalifikazioa | 393.395 | 41,5 | 402.670 | 42,9 |
| Gainerakoak | 553.864 | 58,5 | 535.030 | 57,1 |
| Guztira | 947.259 | 100 | 937.701 | 100 |

Oharra: EJSN-93an oinarritutako sailkapena

**16-64 urteko landunen bilakaera goi-mailako kalifikazioko sektoreetan, okupazio-sektorearen arabera. 2001-2010 aldia**

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2010 aldian)

| Sektore mota | Absolutuak | | | | | Hazkunde-tasa | | | | Hazkundearen %-a |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2001 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | 2001/ 2005 | 2005/ 2007 | 2007/ 2009 | 2009/ 2010 | 2007/ 2010 |
| Goi-mailako teknologia | 111.185 | 110.827 | 118.277 | 116.495 | 114.804 | -0,1 | 3,3 | -0,8 | -1,5 | -2,9 |
| Goi-mailako prestakuntza | 175.370 | 217.398 | 232.665 | 248.083 | 258.283 | 5,5 | 3,5 | 3,3 | 4,1 | 11,0 |
| Ezagutza-intentsitate handia | 224.943 | 273.326 | 285.861 | 304.600 | 314.433 | 5,0 | 2,3 | 3,2 | 3,2 | 10,0 |
| Goi-mailako kalifikazioa | 314.716 | 364.967 | 383.384 | 393.395 | 402.670 | 3,8 | 2,5 | 1,3 | 2,4 | 5,0 |
| Gainerakoak | 547.098 | 583.213 | 587.573 | 553.864 | 535.030 | 1,6 | 0,4 | -2,9 | -3,4 | -8,9 |
| Guztira | 861.814 | 948.180 | 970.957 | 947.259 | 937.701 | 2,4 | 1,2 | -1,2 | -1,0 | -3,4 |

Oharra: EJSN-93an oinarritutako sailkapena

26. Euskal eskualde gehienetan, okupazioak goranzko bilakaera izan du goi-mailako kalifikazioko sektoreetan, eta jarraitua izan da hamarkada osoan. 2007tik 2010era bitarte, okupazioaren hazkunderik handienak Durangaldean, Debagoienan eta Debabarrenan lortu dira (% 15etik gorako hazkundea aztertutako aldi osoan). Aiaraldean, Bilbon, Ezkerraldean eta Donostialdean, proportzioa % 7-11ra iritsi da. Bilbon eta Donostialdean, goi-mailako kalifikazioko sektoreetan lan egin duten 16-64 urteko pertsonen proportzioa % 29,1-31,1 izan da, eta eskualde horiek izan dira okupazio horren proportziorik handiena lortu dutena; Debagoienak baino ez du gainditu proportzio hori (% 36,4). Azken eskualde horretan lortu den proportzio hori okupazioak goi-mailako teknologiako sektoreetan izan duen koefiziente handiari lotuta dago (% 17,9 Debagoienan, % 6,5-7,6 Bilbon eta Donostialdean). Durangaldean eta Debabarrenan, proportzioa EAEko batez bestekora hurbildu da, goi-mailako teknologiako sektoreetan jardun duten 16-64 pertsonen proportzioa % 10 baino handiagoa izateak lagunduta; Aiaraldean eta Ezkerraldean, berriz, okupazio-maila txikiagoa izan da, % 23tik % 25era bitartekoa, goi-mailako kalifikazioko sektoreetan (goi-mailako teknologiako sektoreetan jardun duten 16-64 urteko pertsonak % 8,3 eta % 5,8 izan dira, hurren).

Hortaz, orain arte aipatu ditugun zazpi eskualdeetan, okupazioak goranzko bilakaera garbia izan du goi-mailako kalifikazioko sektoreetan. Aitzitik, 2007tik 2010era bitarte, okupazioak % 0,7ko hazkundea baino ez du izan Gasteizen sektore horietan. Tolosa-Goierrin eta Eskuinaldean, berriz, % 5,6-9,2ko beherakada izan da, eta Bizkaia-Kostan % 16,4ra iritsi da beherakada. Eskualde horietan, goi-mailako kalifikazioko sektoreetan lortutako okupazio-koefizientea batez bestekora hurbildu da Eskuinaldean (% 27,7), % 26,2-26,4ra iritsi da Gasteizen eta Tolosa-Goierrin, eta % 23,9ra Bizkaia-Kostan (EAEko okupazio-koefizienterik txikienetako bat).

Gasteizen, Eskuinaldean, Bizkaia-Kostan eta Tolosa-Goierrin, okupazioak beherakada handia izan du 2007tik 2010era bitarte goi-mailako teknologiako sektoreetan. Gasteizen % 4,3ra iritsi da hirurteko horretan, Tolosa-Goierrin % 16,4ra, eta Eskuinaldean eta Bizkaia-Kostan % 25 ingurura eta gehiagora. Prozesu horrek eraginpean hartu ditu 2007. urtean okupazioak sektore horietan proportziorik handiena lortu zuen urbanizazio-mailarik handieneko bi eskualdeak, hots, Gasteiz eta Eskuinaldea (16-64 urteko biztanleen % 9 inguruk jardun zuen eskualde horietan goi-mailako teknologiako sektoreetan; Bilbon eta Donostialdean, berriz, % 6,5-7k). Krisialdiaren ondorioz, 2010. urtean proportzioa % 6,5 ingurura iritsi da Eskuinaldean eta Bilbon, eta % 7,6-8,2ra Gasteizen eta Donostialdean. Prozesuak, halaber, okupazio mota horrek garrantzi erlatiborik handiena lortu duen eskualdeetako bat hartu du eraginpean, Tolosa-Goierri, alegia. Eskualde horretan, proportzioa % 12,1era iritsi da 2010. urtean, eta zifra hori Deba ibaiko bi haranetan baino ez da gainditu (dena dela, zifra % 14,5era iritsi zen 2007an, Debagoienako zifratik hurbil –% 16,6–). Eskualde horietan azpimarratu beharreko elementu positibo bakarra okupazioak Bizkaia-Kostan eta Tolosa-Goierrin 2009tik 2010era bitarte goi-mailako teknologiako sektoreetan izan duen hazkundea izan da.

Gainerako eskualdeetan goi-mailako kalifikazioko sektoreei lotutako okupazioak goranzko bilakaera garbia izan badu ere, goi-mailako teknologiako sektoreetan joera negatiboa izan da 2007tik 2010era

bitarte eskualde horietako gehienetan. Bilbon, adibidez, % 6,9ko beherakada izan du okupazioak aldi horretan. Edonola ere, hirurteko horretan, Donostialdean, Debabarrenan eta Debagoienan okupazioak gora egin du goi-mailako teknologiako sektoreetan (% 10eko hazkundea). Debagoienak, gainera, goranzko hazkunde-joera jarraitua erakutsi du 2009-2010 aldian. Izan ere, urteko % 1,7ko hazkunde-erritmoa izan zuen 2007tik 2009ra bitarte, eta % 5,3ra igo da 2009-2010 aldian. Donostialdean, okupazio mota horrek berdin jarraitu du azken urtean, eta Debabarrenan, berriz, % 4,5eko beherakada izan du. Debabarrenako prozesuak (okupazioaren beherakada 2009-2010 aldian, eta hazkundea 2007-2009 aldian) antz handia du Bilboko eta Ezkerraldeko prozesuekin. Bi eskualde horietan, okupazioak % 10etik gorako beherakada izan du goi-mailako teknologiako sektoreetan azken urtean.

**16-64 urteko biztanleria landuna: goi-mailako kalifikazioko sektoreen banaketan duen proportzioa, eskualdearen arabera. 2010**

(%-tan)

| Eskualdea | Goi-mailako teknologia | Goi-mailako prestakuntza | Ezagutza-intentsitate handia | Goi-mailako kalifikazioa |
|---|---|---|---|---|
| Gasteiz | 12,7 | 25,0 | 30,3 | 40,8 |
| Aiaraldea | 12,5 | 20,8 | 23,1 | 34,7 |
| Eskuinaldea | 10,3 | 29,5 | 38,1 | 44,3 |
| Bilbo | 10,5 | 35,6 | 44,5 | 50,0 |
| Ezkerraldea | 9,1 | 26,3 | 32,7 | 39,4 |
| Bizkaia-Kosta | 11,1 | 23,6 | 27,6 | 37,4 |
| Durangaldea | 16,4 | 24,4 | 28,8 | 42,5 |
| Donostialdea | 11,3 | 29,3 | 34,9 | 43,6 |
| Tolosa-Goierri | 17,4 | 20,0 | 23,0 | 38,1 |
| Debagoiena | 26,0 | 23,9 | 29,1 | 53,0 |
| Debabarrena | 22,7 | 20,3 | 23,6 | 44,8 |
| Guztira | 12,2 | 27,5 | 33,5 | 42,9 |

Oharra: EJSN-93an oinarritutako sailkapena

**16-64 urteko biztanleria: okupazio-koefizienteak goi-mailako kalifikazioko sektoreetan, eskualdearen arabera. 2010**

(%-tan)

| Eskualdea | Goi-mailako teknologia | Goi-mailako prestakuntza | Ezagutza-intentsitate handia | Goi-mailako kalifikazioa |
|---|---|---|---|---|
| Gasteiz | 8,2 | 16,1 | 19,5 | 26,2 |
| Aiaraldea | 8,3 | 13,8 | 15,4 | 23,1 |
| Eskuinaldea | 6,4 | 18,4 | 23,8 | 27,7 |
| Bilbo | 6,5 | 22,2 | 27,7 | 31,1 |
| Ezkerraldea | 5,8 | 16,7 | 20,7 | 25,0 |
| Bizkaia-Kosta | 7,1 | 15,1 | 17,7 | 23,9 |
| Durangaldea | 10,7 | 16,0 | 18,9 | 27,8 |
| Donostialdea | 7,6 | 19,6 | 23,3 | 29,1 |
| Tolosa-Goierri | 12,1 | 13,8 | 15,9 | 26,4 |
| Debagoiena | 17,9 | 16,4 | 20,0 | 36,4 |
| Debabarrena | 14,3 | 12,8 | 14,9 | 28,3 |
| Guztira | 7,9 | 17,8 | 21,7 | 27,7 |

Oharra: EJSN-93an oinarritutako sailkapena

**16-64 urteko landunen bilakaera goi-mailako kalifikazioko sektoreetan (goi-mailako teknologia eta goi-mailako kalifikazioa), eskualdearen arabera. 2001-2010 aldia**

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2010 aldian)

| Kalifikazio-sektorea eta eskualdea | | Absolutuak 2001 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | Hazkunde-tasa 2001/2005 | 2005/2007 | 2007/2009 | 2009/2010 | Hazkundearen %-a 2007/2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Goi-mailako teknologia | Gasteiz | 17.563 | 15.149 | 16.252 | 15.730 | 15.546 | -3,6 | 3,6 | -1,6 | -1,2 | -4,3 |
| | Aiaraldea | 2.203 | 2.258 | 2.477 | 2.064 | 2.454 | 0,6 | 4,7 | -8,7 | 18,9 | -0,9 |
| | Eskuinaldea | 7.271 | 7.259 | 10.168 | 7.976 | 7.187 | 0,0 | 18,4 | -11,4 | -9,9 | -29,3 |
| | Bilbo | 14.084 | 15.910 | 16.388 | 17.107 | 15.258 | 3,1 | 1,5 | 2,2 | -10,8 | -6,9 |
| | Ezkerraldea | 19.728 | 15.108 | 15.555 | 17.143 | 15.351 | -6,5 | 1,5 | 5,0 | -10,5 | -1,3 |
| | Bizkaia-Kosta | 4.917 | 5.613 | 7.774 | 5.379 | 5.878 | 3,4 | 17,7 | -16,8 | 9,3 | -24,4 |
| | Durangaldea | 6.994 | 7.460 | 8.937 | 7.121 | 8.623 | 1,6 | 9,5 | -10,7 | 21,1 | -3,5 |
| | Donostialdea | 18.836 | 20.119 | 19.985 | 23.405 | 23.393 | 1,7 | -0,3 | 8,2 | 0,0 | 17,1 |
| | Tolosa-Goierri | 7.296 | 9.887 | 10.450 | 8.316 | 8.734 | 7,9 | 2,8 | -10,8 | 5,0 | -16,4 |
| | Debagoiena | 7.812 | 7.802 | 6.718 | 6.950 | 7.318 | 0,0 | -7,2 | 1,7 | 5,3 | 8,9 |
| | Debabarrena | 4.480 | 4.261 | 3.574 | 5.304 | 5.064 | -1,2 | -8,4 | 21,8 | -4,5 | 41,7 |
| | Guztira | 111.185 | 110.827 | 118.277 | 116.495 | 114.804 | -0,1 | 3,3 | -0,8 | -1,5 | -2,9 |
| Goi-mailako kalifikazioa | Gasteiz | 42.177 | 49.113 | 49.501 | 49.438 | 49.826 | 3,9 | 0,4 | -0,1 | 0,8 | 0,7 |
| | Aiaraldea | 5.116 | 6.015 | 6.324 | 6.380 | 6.826 | 4,1 | 2,5 | 0,4 | 7,0 | 7,9 |
| | Eskuinaldea | 28.287 | 32.883 | 34.079 | 30.938 | 30.936 | 3,8 | 1,8 | -4,7 | 0,0 | -9,2 |
| | Bilbo | 54.288 | 61.684 | 67.778 | 70.953 | 72.697 | 3,2 | 4,8 | 2,3 | 2,5 | 7,3 |
| | Ezkerraldea | 52.178 | 56.236 | 59.652 | 66.057 | 66.272 | 1,9 | 3,0 | 5,2 | 0,3 | 11,1 |
| | Bizkaia-Kosta | 14.781 | 19.892 | 23.671 | 19.088 | 19.781 | 7,7 | 9,1 | -10,2 | 3,6 | -16,4 |
| | Durangaldea | 15.506 | 16.416 | 19.056 | 20.116 | 22.400 | 1,4 | 7,7 | 2,7 | 11,4 | 17,5 |
| | Donostialdea | 65.806 | 78.974 | 82.456 | 87.685 | 89.878 | 4,7 | 2,2 | 3,1 | 2,5 | 9,0 |
| | Tolosa-Goierri | 14.988 | 19.982 | 20.257 | 18.740 | 19.120 | 7,5 | 0,7 | -3,8 | 2,0 | -5,6 |
| | Debagoiena | 13.011 | 14.968 | 11.991 | 13.616 | 14.930 | 3,6 | -10,5 | 6,6 | 9,6 | 24,5 |
| | Debabarrena | 8.578 | 8.805 | 8.618 | 10.383 | 10.004 | 0,7 | -1,1 | 9,8 | -3,6 | 16,1 |
| | Guztira | 314.716 | 364.967 | 383.384 | 393.395 | 402.670 | 3,8 | 2,5 | 1,3 | 2,4 | 5,0 |

Oharra: EJSN-93an oinarritutako sailkapena

**16-64 urteko biztanleria: okupazio-koefizienteen bilakaera goi-mailako teknologiako eta goi-mailako kalifikazioko sektoreetan, eskualdearen arabera. 1993-2010 aldia**

(%-tan)

| Eskualdea | Goi-mailako teknologia | | | | Goi-mailako kalifikazioa | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1993 | 2001 | 2007 | 2010 | 1993 | 2001 | 2007 | 2010 |
| Gasteiz | 5,1 | 10,1 | 9,0 | 8,2 | 17,1 | 24,3 | 27,5 | 26,2 |
| Aiaraldea | 3,1 | 7,9 | 8,8 | 8,3 | 9,5 | 18,5 | 22,5 | 23,1 |
| Eskuinaldea | 4,2 | 6,6 | 9,2 | 6,4 | 18,6 | 25,6 | 30,9 | 27,7 |
| Bilbo | 3,9 | 6,1 | 7,1 | 6,5 | 17,7 | 23,4 | 29,5 | 31,1 |
| Ezkerraldea | 4,1 | 7,4 | 5,9 | 5,8 | 12,1 | 19,4 | 22,8 | 25,0 |
| Bizkaia-Kosta | 5,1 | 6,3 | 9,5 | 7,1 | 16,4 | 19,0 | 29,0 | 23,9 |
| Durangaldea | 5,5 | 9,1 | 11,2 | 10,7 | 13,1 | 20,1 | 24,0 | 27,8 |
| Donostialdea | 3,9 | 6,1 | 6,5 | 7,6 | 15,1 | 21,4 | 26,9 | 29,1 |
| Tolosa-Goierri | 6,1 | 10,0 | 14,5 | 12,1 | 12,7 | 20,6 | 28,2 | 26,4 |
| Debagoiena | 10,8 | 18,4 | 16,6 | 17,9 | 18,5 | 30,7 | 29,6 | 36,4 |
| Debabarrena | 7,5 | 12,4 | 10,2 | 14,3 | 15,1 | 23,8 | 24,5 | 28,3 |
| Guztira | 4,7 | 7,8 | 8,3 | 7,9 | 15,3 | 22,1 | 26,9 | 27,7 |

Oharra: EJSN-93an oinarritutako sailkapena

## 3.3. Datuak lanbidearen eta lanbide-egoeraren arabera

### 3.3.1. Lanbidea

27. Lanbidearen aldagaia kontuan hartuta, daturik garrantzitsuena okupazioak 2009tik 2010era bitarte zuzendarien eta teknikarien artean izan duen beherakada izan da (% 3,7 eta % 4,7, hurrenez hurren). Nolanahi ere, zuzendarien kasuan, beherakada hori 2007tik 2009ra bitarteko hazkundearen ondoren gertatu da (2005-2007 aldian, berriz, nekez eusten zion talde horrek okupazio-mailari). Horren ondorioz, 2010eko landunen kopurua 2005ekoa baino txikiagoa izan da (64.642 eta 65.757, hurrenez hurren).

2005-2010 bosturtekoaren azken emaitza antzekoa izan da teknikarien kasuan. Zehazki, 2010eko landunen kopurua eta 2005ekoa antzekoa izan da (243.935 eta 243.536, hurrenez hurren). Dena dela, prozesua desberdina izan da teknikarien kasuan. Izan ere, 2001etik aurrera, okupazio berria sortzeko ahalmena etengabe galdu da, eta azkenean, 2009tik 2010era bitarte, behera egin du. Horrela, beraz, 2001etik 2005era bitarte, urteko batez besteko hazkunde-erritmoa % 5,2 izan zen teknikarien artean, 2005-2007 aldian % 1,9ra murriztu zen, eta 2007-2009 aldian % 0,6ra. Hazkundearen mugak argi eta garbi geratu dira: 2009tik 2010era bitarte, teknikarien okupazioak % 4,7ko beherakada izan du.

Bilakaera horren egitura-inplikazioak esanguratsuak dira. Teknikariek eta zuzendariek landun guztien artean duten proportzioa % 34,1etik % 32,9ra murriztu da 2009tik 2010era bitarte (% 31,6tik % 28,2ra lanbide-kategoria zorrotz kontuan hartuta).

Okupazioak 2005-2010 aldian izan duen bilakaerarik negatiboena, nolanahi ere, beste langile batzuen kategorian gertatu da. Talde horren barruan, teknikariena baino maila txikiagoko langile kalifikatuak, makineriako operadoreak eta kalifikaziorik gabeko landunak daude. Kasu horretan, okupazioak beherakada handia izan du (552.319 pertsona 2005. urtean eta 510.653 2010ean). Teknikarien eta zuzendarien kasuan, 2010eko okupazioaren zifrak 2001ekoak baino askoz handiagoak izan dira; beste langile batzuen kasuan, berriz, 2010eko zifrak txikiagoak dira (522.238 landun 2001. urtean).

Talde horrek bereziki jasan du okupazioaren 2007-2010 aldiko krisia; okupazioaren % 10,5 galdu da aldi horretan. Beherakadarik handiena kalifikaziorik txikienekoen taldean gertatu da urte horietan. Zehazki, % 17,9ko beherakada izan du talde horrek, hau da, langile kalifikatuek eta makineriako operadoreek baino askoz handiagoa (% 8,3-9,3). Azken talde horretan, krisiaren eragina kalifikaziorik txikienekoen taldean bezain handia izan da, eta kontuan hartu behar da, gainera, joera hori 2005-2007 aldian hasi zela, okupazioak urtean % 3,4ko batez besteko beherakada izan zuenean. Horrez gain, langile kalifikatuen eta kalifikaziorik txikienekoen kasuan ez bezala, okupazioaren beherakada-erritmoa areagotu egin da 2009tik 2010era bitarte (urtean % 5,5eko batez besteko beherakada 2009-2010 aldian eta % 2koa 2007-2009 aldian).

Administrazioko langileen taldeak izan duen bilakaera gainerako lanbide-taldeek izan dutenaren guztiz bestelakoa izan da. Landunen kopurua 2001etik 2005era bitarte egonkortu ondoren, hazi egin zen, eta urtean % 2,4ko batez besteko hazkundea izan zuen 2005-2007 aldian, % 6,6koa 2007-2009 aldian eta % 14,9koa 2009-2010 aldian. 2007tik 2010era bitarte, lanbide talde horren kopuruak % 30,5eko hazkundea izan du. Dena dela, kopuru hori azken urte horretako landun guztien % 12,6 baino ez da.

**16-64 urteko biztanleria landuna, lanbidearen arabera. 2009 eta 2010**

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

| Lanbidea | 2009 | | 2010 | |
|---|---|---|---|---|
| | Abs. | % ber. | Abs. | % ber. |
| Zuzendariak | 67.143 | 7,1 | 64.642 | 6,9 |
| Teknikariak | 256.065 | 27,0 | 243.935 | 26,0 |
| Enplegatu administrariak | 103.102 | 10,9 | 118.470 | 12,6 |
| Langile kalifikatuak | 306.394 | 32,3 | 303.465 | 32,4 |
| Makineriako operadoreak | 113.082 | 11,9 | 106.854 | 11,4 |
| Kalifikaziorik gabeko langileak | 100.886 | 10,7 | 99.376 | 10,6 |
| Sailkatu gabeak eta beste batzuk | 586 | ,1 | 959 | ,1 |
| Guztira | 947.259 | 100 | 937.701 | 100 |

**16-64 urteko biztanleria landuna, lanbide-kategoriaren arabera. 2009 eta 2010**
**(Datu absolutuak eta % bertikalak)**

| Lanbide-kategoria | 2009 Abs. | 2009 % ber. | 2010 Abs. | 2010 % ber. |
|---|---|---|---|---|
| Zuzendariak | 74.859 | 7,9 | 67.087 | 7,2 |
| Teknikariak | 224.744 | 23,7 | 197.310 | 21,0 |
| Arduradunak | 32.221 | 3,4 | 36.598 | 3,9 |
| Kalifikatua | 455.006 | 48,0 | 479.753 | 51,2 |
| Kalifikaziorik gabekoa | 160.140 | 16,9 | 156.497 | 16,7 |
| Sailkatu gabea | 289 | ,0 | 455 | ,0 |
| Guztira | 947.259 | 100 | 937.701 | 100 |

**16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera, lanbidearen arabera. 2001-2010 aldia**

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2010 aldian)

| Lanbidea | Absolutuak 2001 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | Hazkunde-tasa 2001/2005 | 2005/2007 | 2007/2009 | 2009/2010 | Hazkundearen %-a 2007/2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Zuzendariak | 53.780 | 65.757 | 56.567 | 67.143 | 64.642 | 5,2 | -7,3 | 8,9 | -3,7 | 14,3 |
| *Teknikariak* | *198.786* | *243.536* | *253.073* | *256.065* | *243.935* | *5,2* | *1,9* | *0,6* | *-4,7* | *-3,6* |
| *Enplegatu administrariak* | *87.010* | *86.567* | *90.784* | *103.102* | *118.470* | *-0,1* | *2,4* | *6,6* | *14,9* | *30,5* |
| Lanbide teknikoak eta administratiboak | 285.796 | 330.103 | 343.856 | 359.168 | 362.405 | 3,7 | 2,1 | 2,2 | 0,9 | 5,4 |
| *Langile kalifikatuak* | *307.846* | *314.832* | *331.100* | *306.394* | *303.465* | *0,6* | *2,6* | *-3,8* | *-1,0* | *-8,3* |
| *Makineriako operadoreak* | *114.568* | *126.382* | *117.834* | *113.082* | *106.854* | *2,5* | *-3,4* | *-2,0* | *-5,5* | *-9,3* |
| *Kalifikaziorik gabeko langileak* | *99.188* | *110.958* | *121.103* | *100.886* | *99.376* | *2,8* | *4,5* | *-8,7* | *-1,5* | *-17,9* |
| *Sailkatu gabeak eta beste batzuk* | *635* | *147* | *498* | *586* | *959* | *-30,6* | *83,9* | *8,5* | *63,7* | *92,7* |
| Beste langile batzuk | 522.238 | 552.319 | 570.534 | 520.949 | 510.653 | 1,4 | 1,6 | -4,4 | -2,0 | -10,5 |
| Guztira | 861.814 | 948.180 | 970.957 | 947.259 | 937.701 | 2,4 | 1,2 | -1,2 | -1,0 | -3,4 |

28. Zuzendarien kopuruak oro har 2005etik 2010era bitarte izan duen beherakada ez da berdina izan euskal eskualde guztietan. Egia esan, beherakada hori Gasteizen, Aiaraldean, Bilbon, Bizkaia-Kostan, Durangaldean eta Debabarrenan gertatu da. Era berean, denbora historikoa desberdina izan da. 2005etik 2007ra bitarte, okupazioaren beherakada Durangaldean, Bizkaia-Kostan eta Debabarrenan gertatu da batez ere (edo eskualde horietan izan du eragin handiagoa). Beherakadak 2010. urtera arte iraun badu ere, zuzendarien kopuruan izan den beherakadarik handiena 2007-2009 aldian gertatu da Bilbon eta Aiaraldean, eta 2009-2010 aldian Gasteizen. Hiru eskualde horiek izan dira, hain zuzen ere, 2007-2010eko krisialdian okupazioaren beherakadaren eraginik handiena jasan dutenak (zuzendarien % 14,4-18 galdu da aldi horretan).

Zuzendarien kopuruak Bilbon izan duen bilakaera bereziki kezkagarria izan da, eskualde horretan 2001-2005 aldian hasi baitzen okupazioa behera egiten. Eskuinaldean ere antzekoa gertatu zen aldi horretan, baina okupazioa egonkortu egin zen 2005etik 2009ra bitarte, eta hazkunde handia izan

zuen 2009-2010 aldian. Nolanahi ere, Eskuinaldean, Bilbon eta Bizkaia-Kostan, 2010ean lan egin duten zuzendarien kopurua 2011n lan egin dutenena baino txikiagoa izan da. Durangaldean eta Aiaraldean, berriz, kopurua antzekoa izan da bi urteetan. Bizkaian, Ezkerraldean baino ez dira izan zuzendarien 2010eko zifrak 2011koak baino nabarmen handiagoak. Eskualde horretan, gainera, zuzendarien kopuruak gora egin du 2009tik 2010era bitarte. Prozesu hori ia Bizkaia osoan gertatu da aldi horretan. Salbuespena Bilbo izan da, beheranzko joerarekin jarraitu baitu.

Donostialdean, Tolosa-Goierrin eta Debagoienan, hazkunde-zifra positiboak izan dira 2007-2010 aldian zuzendarien kopuruari dagokionez, eta okupazio-maila nabarmen igo da 2001. urtearekin alderatuz gero. Dena dela, Debagoienak 205-2007 aldian zuzendarien okupazio-mailan izandako beherakadaren eragina jaso du. Bestalde, 2007-2009 aldiko hazkunde handien ondoren, Debagoienak zuzendarien okupazio-mailaren suspertze-prozesuarekin jarraitu du 2009tik 2010era bitarte. Tolosa-Goierrin eta Donostialdean, berriz, zuzendarien okupazio-mailak % 10etik gorako beherakada izan du 2009-2010 aldian. Hala ere, bi eskualde horiek eta Debagoienak baino ez dute gainditu % 5eko proportzioa 2010. urtean zuzendari gisa jardun duten 16-64 urteko landunen artean. Zifra hori % 4,6-4,9ra iritsi da Debabarrenan eta Eskuinaldean, eta % 3,4-3,9ra gainerako eskualdeetan.

Teknikarien eta administrarien bilakaera eskualdearen arabera aztertuta ikus daitekeenez, EAEko eskualde guztietan talde horren kopurua nabarmen handiagoa izan da 2010ean 2001ean baino. Oro har, gauza bera gertatzen da 2005. urtearekin alderatuz gero, Aiaraldean, Eskuinaldean eta Debabarrenan izan ezik. Eskualde horietan, zifrak antzekoak edo txikixeagoak izan dira. Puntu horretan, bilakaerarik negatiboena Eskuinaldekoa izan da. Eskualde horretan eta Bizkaia-Kostan, okupazio mota horrek beherakada jarraitua izan du 2007-2010 aldian. Zehazki, Eskuinaldean, teknikarien eta administrarien kopuruak % 7,4ko beherakada izan du 2007-2010 aldian, eta Bizkaia-Kostan, berriz, proportzioa % 9,9ra iritsi da. Termino kualitatiboetan, esanguratsua da beherakada horrek eraginpean hartu izana 2010. urtean 16-64 urteko teknikari eta administrarien proportzio handiena zuen eskualdea. Izan ere, Eskuinaldean adierazlea % 31,5etik % 28,8ra jaitsi da 2007tik 2010era bitarte.

Gainerako eskualdeetan, teknikarien eta administrarien joera positiboa izan da 2007tik 2010era bitarte. Ezkerraldean, Durangaldean, Tolosa-Goierrin eta Debagoienan, % 10etik gorako hazkundea lortu da aldi horretan. Dena dela, Durangaldean eta Ezkerraldean, hazkunde-erritmoak behera egin du nabarmen 2009tik 2010era bitarte. Ezkerraldean, gainera, okupazio mota horrek beherakada txiki bat izan du aldi horretan. Ildo berean, teknikarien eta administrarien kopuruak % 2,1eko beherakada izan du Bilbon 2009tik 2010era bitarte (% 4tik gorako hazkunde-erritmoa izan zuen 2005-2009 aldian). Gasteizen eta Aiaraldean, berriz, landun talde horren proportzioa laurteko horretan egonkortu ondoren, % 6,4-6,9ko hazkunde-tasak lortu dira. Tasa horiek Debagoienan baino ez dira gainditu (% 8,4).

Debagoienan, azpimarragarria da 2009tik 2010era bitarte teknikari edo administrari gisa lan egin duten 16-64 urteko biztanleen proportzioak izan duen igoera handia (% 20 2005. urtean eta % 26,4 2010. urtean). Zifra hori Eskuinaldekoa eta Bilbokoa baino txikiagoa izan da (% 28,8 eta % 30,6, hurrenez hurren), Donostialdekoaren antzekoa (% 26,5) eta Gasteizkoa baino handiagoa (% 24,9).

Azkenik, gainerako langileak, oro har, langile kalifikatuak eta kalifikaziorik gabekoak dira, eta 2007-2010 aldian beheranzko joera garbia izan du landun horien proportzioak. Salbuespen nagusiak Bizkaia-Kosta (biztanleria egonkortu egin da eskualde horretan), Aiaraldea eta Eskuinaldea izan dira. Azken bi horietan, beherakada txikiagoa izan da (% 3 inguru, edo gutxiago). Okupazio mota horrek 2007-2010 aldian izan duen beherakada % 6,2ra iritsi da Gasteizen, % 9,3ra Ezkerraldean eta % 10-15era Bilbon, Durangaldean eta Gipuzkoako eskualde gehienetan. Beherakadarik handiena Debagoienan gertatu da (% 24,3).

Eskualdearen arabera, beherakada handi horiek aldi desberdinetan gertatu dira. Kasu gehienetan (Ezkerraldean, Durangaldean eta Gipuzkoako eskualdeetan), galerak 2007-2009 aldian gertatu dira nagusiki, eta beherakada-erritmoa nabarmen murriztu da 2009tik 2010era bitarte. Gainera, beste langile batzuen okupazio-mailak gorazko joera izan du Durangaldean (% 1) eta, bereziki, Tolosa-Goierrin eta Debabarrenan (% 4,7 bi kasuetan). Gasteizen, berriz, 2007-2009 aldian urteko % 0,7ko beherakada izan ondoren, beheranzko erritmoa areagotu egin da 2009tik 2010era bitarte, eta % 4,8ra iritsi da.

Gasteizen, langile horien okupazio-mailak beheranzko joera ia jarraitua izan du epe luzean, eta eskualde horretan baino ez da gertatu hori. Nolanahi ere, Gasteizen bezalaxe, Gipuzkoako eskualdeetan langile kalifikatuen eta kalifikaziorik gabekoen okupazio-maila txikiagoa izan da 2010ean 2001ean baino. Okupazio-koefizienteei dagokienez, azpimarratu beharrekoak dira ia eskualde horietan guztietan langile kalifikatu eta kalifikaziorik gabeko gisa jardun duten 16-64 urteko biztanleen proportzioan izandako beherakadak. Beherakada 3,5-4,5 puntukoa izan da Donostialdean eta Debabarrenan, eta 7,5 puntu ingurukoa Gasteizen eta Debagoienan. Tolosa-Goierrin, berriz, txikiagoa izan da (% -0,7).

Gasteizen eta Debagoienan (hau da, 2001. urtean, Tolosa-Goierrirekin batera, lanbide mota horretan okupazio-koefizienterik handienak izan zituzten eskualdeetan), okupazio-maila % 43-45etik % 35,5-37ra jaitsi da 2001etik 2010era bitarte. Zifra hori Aiaraldeko, Durangaldeko eta Tolosa-Goierriko zifratik (% 40 inguru) zein Debabarrenako eta Ezkerraldeko zifratik (% 38,5-38,8) urrun geratu da.

**16-64 urteko biztanleria landuna, lanbidearen eta eskualdearen arabera. 2010**

(% horizontalak)

| Eskualdea | Zuzendariak | Teknikariak | Enplegatuak | Gainerako langileak |
|---|---|---|---|---|
| Gasteiz | 6,0 | 26,3 | 12,5 | 55,2 |
| Aiaraldea | 5,9 | 19,4 | 9,5 | 65,2 |
| Eskuinaldea | 7,9 | 34,1 | 12,0 | 46,0 |
| Bilbo | 5,9 | 33,3 | 15,9 | 44,9 |
| Ezkerraldea | 5,3 | 21,2 | 12,1 | 61,3 |
| Bizkaia-Kosta | 5,8 | 26,1 | 9,0 | 59,1 |
| Durangaldea | 5,2 | 19,9 | 12,1 | 62,8 |
| Donostialdea | 8,9 | 26,3 | 13,5 | 51,3 |
| Tolosa-Goierri | 10,3 | 18,7 | 9,6 | 61,4 |
| Debagoiena | 7,6 | 26,8 | 11,5 | 54,1 |
| Debabarrena | 7,3 | 21,3 | 10,3 | 61,0 |
| Guztira | 6,9 | 26,0 | 12,6 | 54,5 |

**16-64 urteko biztanleria: okupazio-koefizienteak, lanbidearen eta eskualdearen arabera. 2010**

(%-tan)

| Eskualdea | Zuzendariak | Teknikariak | Enplegatuak | Gainerako langileak |
|---|---|---|---|---|
| Gasteiz | 3,9 | 16,9 | 8,0 | 35,5 |
| Aiaraldea | 3,9 | 12,9 | 6,3 | 43,4 |
| Eskuinaldea | 4,9 | 21,3 | 7,5 | 28,8 |
| Bilbo | 3,7 | 20,7 | 9,9 | 28,0 |
| Ezkerraldea | 3,4 | 13,4 | 7,7 | 38,8 |
| Bizkaia-Kosta | 3,7 | 16,7 | 5,8 | 37,8 |
| Durangaldea | 3,4 | 13,0 | 7,9 | 41,1 |
| Donostialdea | 5,9 | 17,5 | 9,0 | 34,3 |
| Tolosa-Goierri | 7,2 | 13,0 | 6,7 | 42,6 |
| Debagoiena | 5,2 | 18,4 | 7,9 | 37,2 |
| Debabarrena | 4,6 | 13,5 | 6,5 | 38,5 |
| Guztira | 4,5 | 16,8 | 8,2 | 35,2 |

**16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera, lanbidearen eta eskualdearen arabera. 2001-2010 aldia**
(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2010 aldian)

| Lanbidea eta eskualdea | | Absolutuak | | | | | Hazkunde-tasa | | | | Hazkundearen ehunekoa 2007/2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2001 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | 2001/ 2005 | 2005/ 2007 | 2007/ 2009 | 2009/ 2010 | |
| Zuzendariak | Gasteiz | 6.703 | 8.103 | 8.604 | 8.934 | 7.364 | 4,9 | 3,0 | 1,9 | -17,6 | -14,4 |
| | Aiaraldea | 1.149 | 1.458 | 1.415 | 1.171 | 1.161 | 6,1 | -1,5 | -9,1 | -0,8 | -18,0 |
| | Eskuinaldea | 5.776 | 4.735 | 4.690 | 4.682 | 5.492 | -4,8 | -0,5 | -0,1 | 17,3 | 17,1 |
| | Bilbo | 11.039 | 10.634 | 10.124 | 8.989 | 8.551 | -0,9 | -2,4 | -5,8 | -4,9 | -15,5 |
| | Ezkerraldea | 6.101 | 8.360 | 7.053 | 7.894 | 8.971 | 8,2 | -8,1 | 5,8 | 13,6 | 27,2 |
| | Bizkaia-Kosta | 3.952 | 4.482 | 3.110 | 2.214 | 3.054 | 3,2 | -16,7 | -15,6 | 37,9 | -1,8 |
| | Durangaldea | 2.557 | 3.607 | 2.447 | 2.515 | 2.742 | 9,0 | -17,6 | 1,4 | 9,0 | 12,1 |
| | Donostialdea | 12.890 | 17.711 | 13.514 | 20.572 | 18.347 | 8,3 | -12,6 | 23,4 | -10,8 | 35,8 |
| | Tolosa-Goierri | 1.246 | 2.514 | 3.011 | 5.875 | 5.183 | 19,2 | 9,5 | 39,7 | -11,8 | 72,1 |
| | Debagoiena | 1.453 | 1.770 | 1.233 | 1.999 | 2.138 | 5,1 | -16,5 | 27,3 | 7,0 | 73,3 |
| | Debabarrena | 914 | 2.386 | 1.365 | 2.298 | 1.641 | 27,1 | -24,4 | 29,8 | -28,6 | 20,2 |
| | Guztira | 53.780 | 65.757 | 56.567 | 67.143 | 64.642 | 5,2 | -7,3 | 8,9 | -3,7 | 14,3 |
| Teknikariak edo administrariak | Gasteiz | 35.381 | 43.867 | 44.193 | 44.308 | 47.382 | 5,5 | 0,4 | 0,1 | 6,9 | 7,2 |
| | Aiaraldea | 4.649 | 5.574 | 5.599 | 5.333 | 5.677 | 4,6 | 0,2 | -2,4 | 6,4 | 1,4 |
| | Eskuinaldea | 29.315 | 33.098 | 34.749 | 32.973 | 32.187 | 3,1 | 2,5 | -2,6 | -2,4 | -7,4 |
| | Bilbo | 58.168 | 61.319 | 67.334 | 73.101 | 71.575 | 1,3 | 4,8 | 4,2 | -2,1 | 6,3 |
| | Ezkerraldea | 41.523 | 51.108 | 50.112 | 56.499 | 56.085 | 5,3 | -1,0 | 6,2 | -0,7 | 11,9 |
| | Bizkaia-Kosta | 13.273 | 17.228 | 20.602 | 18.834 | 18.561 | 6,7 | 9,4 | -4,4 | -1,4 | -9,9 |
| | Durangaldea | 11.999 | 14.182 | 13.808 | 16.522 | 16.889 | 4,3 | -1,3 | 9,4 | 2,2 | 22,3 |
| | Donostialdea | 66.779 | 75.213 | 79.891 | 80.982 | 81.979 | 3,0 | 3,1 | 0,7 | 1,2 | 2,6 |
| | Tolosa-Goierri | 11.159 | 12.466 | 12.902 | 13.674 | 14.187 | 2,8 | 1,7 | 2,9 | 3,8 | 10,0 |
| | Debagoiena | 7.195 | 8.746 | 7.887 | 9.967 | 10.802 | 5,0 | -5,0 | 12,4 | 8,4 | 37,0 |
| | Debabarrena | 6.355 | 7.302 | 6.779 | 6.974 | 7.081 | 3,5 | -3,6 | 1,4 | 1,5 | 4,4 |
| | Guztira | 285.796 | 330.103 | 343.856 | 359.168 | 362.405 | 3,7 | 2,1 | 2,2 | 0,9 | 5,4 |
| Beste langile batzuk | Gasteiz | 74.341 | 71.794 | 71.828 | 70.756 | 67.374 | -0,9 | 0,0 | -0,7 | -4,8 | -6,2 |
| | Aiaraldea | 11.673 | 11.892 | 12.930 | 12.605 | 12.821 | 0,5 | 4,3 | -1,3 | 1,7 | -0,8 |
| | Eskuinaldea | 28.628 | 33.455 | 33.187 | 33.065 | 32.150 | 4,0 | -0,4 | -0,2 | -2,8 | -3,1 |
| | Bilbo | 63.833 | 72.588 | 72.941 | 67.796 | 65.360 | 3,3 | 0,2 | -3,6 | -3,6 | -10,4 |
| | Ezkerraldea | 100.680 | 107.582 | 113.765 | 104.286 | 103.143 | 1,7 | 2,8 | -4,3 | -1,1 | -9,3 |
| | Bizkaia-Kosta | 29.760 | 29.082 | 31.066 | 32.873 | 31.230 | -0,6 | 3,4 | 2,9 | -5,0 | 0,5 |
| | Durangaldea | 31.661 | 33.453 | 38.958 | 32.767 | 33.084 | 1,4 | 7,9 | -8,3 | 1,0 | -15,1 |
| | Donostialdea | 115.899 | 121.319 | 123.669 | 108.966 | 105.867 | 1,1 | 1,0 | -6,1 | -2,8 | -14,4 |
| | Tolosa-Goierri | 31.387 | 37.632 | 36.237 | 29.393 | 30.763 | 4,6 | -1,9 | -9,9 | 4,7 | -15,1 |
| | Debagoiena | 18.970 | 20.003 | 20.139 | 15.432 | 15.240 | 1,3 | 0,3 | -12,5 | -1,2 | -24,3 |
| | Debabarrena | 15.406 | 13.520 | 15.814 | 13.008 | 13.621 | -3,2 | 8,1 | -9,3 | 4,7 | -13,9 |
| | Guztira | 522.238 | 552.319 | 570.534 | 520.949 | 510.653 | 1,4 | 1,6 | -4,4 | -2,0 | -10,5 |

**16-64 urteko biztanleria: okupazio-koefizienteen bilakaera, lanbidearen eta eskualdearen arabera. 1993-2010 aldia**

(%-tan)

| Eskualdea | Zuzendariak | | | | | Teknikariak eta administrariak | | | | | Beste langile batzuk | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1993 | 2001 | 2005 | 2007 | 2010 | 1993 | 2001 | 2005 | 2007 | 2010 | 1993 | 2001 | 2005 | 2007 | 2010 |
| Gasteiz | 2,5 | 3,9 | 4,5 | 4,8 | 3,9 | 16,6 | 20,4 | 24,6 | 24,5 | 24,9 | 32,8 | 42,9 | 40,3 | 39,9 | 35,5 |
| Aiaraldea | 2,1 | 4,1 | 5,1 | 5,0 | 3,9 | 9,8 | 16,8 | 19,5 | 19,9 | 19,2 | 36,2 | 42,1 | 41,7 | 46,0 | 43,4 |
| Eskuinaldea | 4,4 | 5,2 | 4,3 | 4,3 | 4,9 | 20,5 | 26,6 | 29,9 | 31,5 | 28,8 | 21,0 | 25,9 | 30,2 | 30,1 | 28,8 |
| Bilbo | 3,3 | 4,8 | 4,6 | 4,4 | 3,7 | 20,5 | 25,1 | 26,3 | 29,3 | 30,6 | 21,2 | 27,5 | 31,1 | 31,7 | 28,0 |
| Ezkerraldea | 2,0 | 2,3 | 3,1 | 2,7 | 3,4 | 10,9 | 15,5 | 19,0 | 19,1 | 21,1 | 28,1 | 37,5 | 39,9 | 43,4 | 38,8 |
| Bizkaia-Kosta | 3,7 | 5,1 | 5,7 | 3,8 | 3,7 | 14,8 | 17,1 | 22,1 | 25,2 | 22,4 | 32,0 | 38,3 | 37,2 | 38,1 | 37,8 |
| Durangaldea | 3,4 | 3,3 | 4,7 | 3,1 | 3,4 | 12,0 | 15,5 | 18,3 | 17,4 | 21,0 | 32,9 | 41,0 | 43,2 | 49,0 | 41,1 |
| Donostialdea | 3,3 | 4,2 | 5,8 | 4,4 | 5,9 | 15,4 | 21,8 | 24,5 | 26,0 | 26,5 | 29,9 | 37,8 | 39,5 | 40,3 | 34,3 |
| Tolosa-Goierri | 3,4 | 1,7 | 3,5 | 4,2 | 7,2 | 10,7 | 15,4 | 17,2 | 18,0 | 19,6 | 32,4 | 43,2 | 51,9 | 50,4 | 42,6 |
| Debagoiena | 4,0 | 3,4 | 4,2 | 3,0 | 5,2 | 12,5 | 17,0 | 20,7 | 19,5 | 26,4 | 33,1 | 44,7 | 47,2 | 49,7 | 37,2 |
| Debabarrena | 4,1 | 2,5 | 6,6 | 3,9 | 4,6 | 13,2 | 17,6 | 20,1 | 19,3 | 20,0 | 28,9 | 42,7 | 37,3 | 44,9 | 38,5 |
| Guztira | 3,1 | 3,8 | 4,6 | 4,0 | 4,5 | 15,2 | 20,1 | 23,0 | 24,1 | 25,0 | 28,3 | 36,7 | 38,5 | 40,0 | 35,2 |

### 3.3.2. Lanbide-egoera

29. 2009-2010 aldia bitxi samarra izan da. Izan ere, 2005-2009 aldian ekintzaileen kopuruaren beheranzko joera izan zen nagusi, baina autonomoen bilakaerak joera aldatu du ondoren, eta okupazioak % 3,1eko hazkundea izan du talde horretan. Hala ere, autonomoen kopuruak % 10,9ko beherakada izan du 2007-2010 aldian. Horrela, beraz, 2010eko okupazioaren zifra (96.374 pertsona) 2005ekoaren eta 2001ekoaren zifra baino txikiagoa izan da (114.415 eta 110.558 pertsona, hurrenez hurren). 2007-2010 hirurteko osoan % 3,3ko hazkundea lortu bada ere, enplegatzaileen bilakaera kezkagarria izan da 2009-2010 aldian, okupazio-mailak % 6,5eko beherakada izan baitu. Kasu horretan ere, 2010eko okupazioa 2005ekoa baino txikiagoa izan da (29.380 landun eta 30.114 landun, hurrenez hurren), baina 2001ekoa baino nabarmen handiagoa oraindik (24.666 landun 2001ean).

    2007-2010 hirurtekoan, okupazioaren bigarren beherakadarik handiena enpresa pribatuko soldatapekoena izan da (% 5,4). 2001etik 2007ra bitarte urteko % 2tik gorako erritmoan hazi ondoren, 2007tik 2009ra bitarte batez beste izan duen urteko % 1,8ko beherakada finkatu egin da 2009-2010 aldian, eta % 1,9ra iritsi da. 2010. urteko okupazioaren zifra (632.429 landun) 2007koaren eta 2005ekoaren zifra baino txikiagoa izan da (668.712 eta 641.434 landun, hurrenez hurren).

    Okupazioaren krisiak eraginpean hartu duen beste talde bat Administrazio Publikoko soldatapekoena izan da. 2009-2010 aldian izandako % 1,8ko beherakadak 2007-2009 biurtekoko egonkortze-joera hautsi du, eta 2005-2007 aldian izan zen urteko batez besteko beherakadara hurbildu da (% 2,6). 2010eko okupazioaren zifra 2005ean lortutakoa baino askoz txikiagoa izan da (97.217 eta 104.394 landun, hurrenez hurren).

    2005etik 2010era bitarte, berriz, soldatapekoen kopurua 25.316 pertsonatik 54.842ra igo da enpresa publikoan, eta hazkunde-erritmoek goranzko joera hartu dute 2009tik 2010era bitarte (urteko batez besteko % 18,9 aldi horretan, eta % 8,3 2007-2009 biurtekoan). Hortaz, okupazio mota horren proportzioak % 39,4ko igoera izan du 2007tik 2010era bitarte, eta bilakaera horrek orekatu egin du Administrazio Publikoan izandako beherakada. Erreferentziazko aldian, okupazioak % 10eko igoera izan du sektore publiko osoan. Epe luzera, okupazioak etengabe egin du gora sektore horretan 2001. urtetik aurrera.

    Kooperatibistek osatzen duten taldea ere indar handiarekin hazi da azken urteotan. 2009tik 2010era bitarte, 2007-2009 aldian % 6 ingurura iritsi ziren hazkunde-tasen goranzko joera finkatu egin da. Horrela, beraz, kooperatibisten proportzioak % 19,1eko igoera izan du 2007-2010 aldian. Dena dela, sektore publikoan ez bezala, hazkunde hori 2005-2007 biurtekoko beherakada handiaren ondoren gertatu da (okupazio-mailetan, urteko % 9,8ko beherakada izan zen batez beste aldi horretan). Hortaz, 2007-2010 aldian izan den hazkundeak ezin du ezkutatu 2010eko okupazio-maila 2001ekoa baino txikixeagoa izan dela (24.279 eta 25.084 landun, hurrenez hurren).

**16-64 urteko biztanleria landuna, lanbide-egoeraren arabera. 2009 eta 2010**

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

| Lanbide-egoera | 2009 Abs. | 2009 % ber. | 2010 Abs. | 2010 % ber. |
|---|---|---|---|---|
| Enplegatzailea | 31.426 | 3,3 | 29.380 | 3,1 |
| Autonomoa | 93.450 | 9,9 | 96.374 | 10,3 |
| Familia-laguntza | 2.395 | ,3 | 2.834 | ,3 |
| Kooperatibista | 22.817 | 2,4 | 24.279 | 2,6 |
| Adm. Publikoko soldatapekoa | 98.992 | 10,5 | 97.217 | 10,4 |
| Enp. publikoko soldatapekoa | 46.117 | 4,9 | 54.842 | 5,8 |
| Enp. pribatuko soldatapekoa | 644.830 | 68,1 | 632.419 | 67,4 |
| Beste egoera bat | 7.232 | ,8 | 355 | ,0 |
| Guztira | 947.259 | 100 | 937.701 | 100 |

**16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera, lanbide-egoeraren arabera. 2001-2010 aldia**

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2010 aldian)

| Lanbide-egoera | Absolutuak 2001 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | Hazkunde-tasa 2001/2005 | 2005/2007 | 2007/2009 | 2009/2010 | Hazkundearen %-a 2007/2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Enplegatzailea | 24.666 | 30.114 | 28.438 | 31.426 | 29.380 | 5,1 | -2,8 | 5,1 | -6,5 | 3,3 |
| Autonomoa | 110.558 | 114.415 | 108.197 | 93.450 | 96.374 | 0,9 | -2,8 | -7,1 | 3,1 | -10,9 |
| Familia-laguntza | 6.899 | 3.123 | 2.589 | 2.395 | 2.834 | -18,0 | -8,9 | -3,8 | 18,3 | 9,4 |
| Kooperatibista | 25.084 | 25.067 | 20.388 | 22.817 | 24.279 | 0,0 | -9,8 | 5,8 | 6,4 | 19,1 |
| Sektore publikoko soldatapekoa | 116.396 | 129.710 | 138.296 | 145.108 | 152.059 | 2,7 | 3,3 | 2,4 | 4,8 | 10,0 |
| *- Adm. Publikoko soldatapekoa* | *91.429* | *104.394* | *98.965* | *98.992* | *97.217* | *3,4* | *-2,6* | *0,0* | *-1,8* | *-1,8* |
| *- Enp. publikoko soldatapekoa* | *24.967* | *25.316* | *39.332* | *46.117* | *54.842* | *0,3* | *24,6* | *8,3* | *18,9* | *39,4* |
| Enpr. pribatuko soldatapekoa | 575.879 | 641.434 | 668.712 | 644.830 | 632.419 | 2,7 | 2,1 | -1,8 | -1,9 | -5,4 |
| Beste egoera bat | 2.331 | 4.318 | 4.337 | 7.232 | 355 | 16,7 | 0,2 | 29,1 | -95,1 | -91,8 |
| Guztira | 861.814 | 948.180 | 970.957 | 947.259 | 937.701 | 2,4 | 1,2 | -1,2 | -1,0 | -3,4 |

30. Soldatapekoak ez direnek (enplegatzaileek, autonomoek, familia-laguntza jasotzen dutenek eta kooperatibistek) 2009tik 2010era bitarte izan duten barne-bilakaera askotarikoa izan da, eta talde horren guztizko kopuruak % 1,9ko igoera izan du azkenean. Horrela, beraz, 2005-2007 eta 2007-2009 aldietan gertatutako urteko % 3-4ko beherakaden joera hautsi egin da. Edonola ere, okupazioaren % 4,2ko beherakada orokorra izan da 2007-2010 hirurtekoan. Galera hori, nolanahi ere, garrantzitsua da (% 5,5-8ra iritsi da Gasteizen, Aiaraldean, Bilbon eta Debabarrenan, % 10,5era Donostialdean eta % 15era Ezkerraldean). Adierazitako beherakada 2007-2009 aldian Aiaraldean, Ezkerraldean, Donostialdean eta Debabarrenan gertatu da batez ere (okupazioa suspertu egin da 2009tik 2010era bitarte). Azken urtean, berriz, Gasteizen izan du eraginik handiena. 2007tik aurrera soldatapekoak ez diren landunen artean beherakada jarraituak izan dituen eskualde bakarra Bilbo izan da. Errealitate hori are okerragoa da kontuan hartzen badugu eskualde horretan landun mota horren okupazio-maila behera egiten hasi zela 2001ean. Azkenean, Aiaraldean izan ezik, 2010eko okupazio-maila 2001ekoa baino txikiagoa izan da.

Eskuinaldean, Bizkaia-Kostan eta Durangaldean, berriz, soldatapekoak ez direnen okupazio-maila suspertu egin da 2009tik 2010era bitarte, eta gorakada hori nahikoa izan da 2007-2009 aldiko galerak konpentsatzeko. Soldatapekoak ez direnen 2010eko kopurua 2007koa baino % 6-11 handiagoa izan da. Bilakaerarik onena Tolosa-Goierrikoa izan da. Izan ere, % 26ko igoera izan du eskualde horrek hirurtekoan, 2007tik 2010era bitarte okupazio mota horrek izan duen hazkunde jarraituari lotua. Gainera, soldatapekoak ez direnen 2010eko okupazio-mailak 2001ekoaren gainetik iraun du Tolosa-Goierrin, eta EAEko eskualde horretan baino ez da hori gertatu. 2010. urtean, soldatapekoak ez diren 16-64 urteko landunak % 16 izan dira Tolosa-Goierrin, eta, beraz, bigarren postua hartu du adierazle horri dagokionez. Zifra hori Debagoienako % 24,1eko proportzioak baino ez du gainditu. Debagoienan, nolanahi ere, soldatapekoak ez diren landunen % 4,7 galdu da 2009tik 2010era bitarte. Bizkaia-Kostan ere, zifra batez bestekoaren gainetik geratu da (% 13).

Sektore pribatuko soldatapekoei dagokienez, 2009tik 2010era bitarte okupazioak oro har behera egin duela ikus daiteke, Tolosa-Goierrin eta Deba ibaiaren haraneko bi eskualdeetan izan ezik. Eskualde horietan, okupazio mota horrek gora egin du. Hazkundea bereziki handia izan da Debagoienan, % 9,3ra iritsi baita. Nolanahi ere, Debagoienan eta Tolosa-Goierrin, okupazio mota horrek beherakada handia izan zuen 2007-2009 aldian, eta, horren ondorioz, 2010eko okupazio-maila 2007koa baino txikiagoa izan da (% -10,7 eta -8,8, hurrenez hurren). Zifra horiek Bilbon, Bizkaia-Kostan eta Durangaldean 2007-2010 hirurtekoan lortutakoen antzekoak dira (% 9,5-12,9). Bost eskualde horietan, sektore pribatuko soldatapekoen okupazio-koefizienteek 5 puntuko edo gehiagoko beherakadak izan dituzte 2007-2010 aldian. Sektore pribatuko soldatapekoek 2007tik 2010era bitarte izan duten beherakada handia izan da, halaber, Eskuinaldean (% 6,1). Donostialdean, berriz, % 4ra iritsi da, eta Gasteizen, Ezkerraldean eta Debabarrenan % 2,2ra. Okupazioak Aiaraldean baino ez du gora egin aldi horretan (% 1,7).

Sektore pribatuko soldatapekoen bilakaera bereziki aipatu beharra dago, okupazio mota horren beherakadaren urteko erritmoa % 3,3tik % 6,8ra igo baita 2007-2009 alditik 2009-2010 aldira bitarte. Dena dela, Bizkaia-Kostan ere antzeko zerbait gertatu da (urteko % 2,1eko beherakada 2007-2009 aldian, eta % 5,5ekoa 2009-2010 aldian). 2010ean sektore pribatuko soldatapeko gisa jardun duten 16-64 urteko landunen proportzioa ez da % 40ra iritsi EAEko hiru eskualdetan, eta Bilbo eta Bizkaia-Kosta ditugu, hain zuzen ere, horietako bi. Zehazki, % 38,5-38-8ra iritsi da landun horien proportzioa, eta, beraz, Debagoienan lortutako % 37,1era hurbildu da. Adierazi beharra dago Debagoienan soldatapekoak ez direnen taldeak garrantzi handia duela, kooperatibismoaren garapen handiaren ondorioz.

Bilakaera negatiboari lotuta, Gasteizko, Ezkerraldeko eta Donostialdeko dinamika aipatu behar da. Zehazki, okupazioak % 2 inguruko beherakada izan du Ezkerraldean eta Gasteizen, eta % 4,5ekoa Donostialdean. Kontuan hartu behar da sektore pribatuko soldatapekoen okupazio-maila egonkortu egin zela eskualde horietan 2007tik 2009ra bitarte.

Sektore publikoko soldatapekoei dagokienez, 2009tik 2010era bitarte okupazio mota horrek % 3ko hazkundea izan du euskal eskualde gehienetan. Dena dela, beherakada txikiak izan dira Bizkaia-Kostan eta Debagoienan, eta % 5 ingurukoak Eskuinaldean eta Debabarrenan.

2007-2010 hirurteko osoa hartuta, sektore publikoko soldatapekoen okupazio-mailak % 8,7ko igoera izan du Bizkaia-Kostan, eta igoera hori % 17-19ra iritsi da Ezkerraldean, Durangaldean eta Debagoienan, eta % 41,4ra Bilbon. Azken eskualde horretan, 2010. urtean lortu da sektore publikoko soldatapeko gisa jardun duten 16-64 urteko landunen proportziorik handiena (% 14,9, hau da, Bizkaia-Kostako % 12,1eko proportzioaren gainetik). Sektore publikoko soldatapekoen zifrak egonkorrak izan dira Gasteizen, Eskuinaldean eta Donostialdean 2007tik 2010era bitarte. Aiaraldean, Tolosa-Goierrin eta Debabarrenan, berriz, % 5etik gorako beherakada izan da.

**16-64 urteko biztanleria landuna, lanbide-egoeraren eta eskualdearen arabera. 2010**

(% horizontalak)

| Eskualdea | Soldatapekoak ez direnak | Sektore publikoko soldatapekoak | Sektore pribatuko soldatapekoak eta beste batzuk |
|---|---|---|---|
| Gasteiz | 15,0 | 17,6 | 67,4 |
| Aiaraldea | 20,2 | 10,3 | 69,5 |
| Eskuinaldea | 13,8 | 16,0 | 70,2 |
| Bilbo | 14,3 | 23,9 | 61,8 |
| Ezkerraldea | 12,4 | 14,5 | 73,2 |
| Bizkaia-Kosta | 20,4 | 18,9 | 60,7 |
| Durangaldea | 15,2 | 14,7 | 70,1 |
| Donostialdea | 17,1 | 14,7 | 68,1 |
| Tolosa-Goierri | 23,1 | 9,0 | 67,9 |
| Debagoiena | 35,1 | 10,9 | 54,0 |
| Debabarrena | 17,2 | 11,1 | 71,7 |
| Guztira | 16,3 | 16,2 | 67,5 |

**16-64 urteko biztanleria: okupazio-koefizienteak, lanbide-egoeraren eta eskualdearen arabera. 2010**

(%-tan)

| Eskualdea | Soldatapekoak ez direnak | Sektore publikoko soldatapekoak | Sektore pribatuko soldatapekoak eta beste batzuk |
|---|---|---|---|
| Gasteiz | 9,6 | 11,3 | 43,3 |
| Aiaraldea | 13,4 | 6,9 | 46,2 |
| Eskuinaldea | 8,6 | 10,0 | 43,9 |
| Bilbo | 8,9 | 14,9 | 38,5 |
| Ezkerraldea | 7,8 | 9,2 | 46,3 |
| Bizkaia-Kosta | 13,0 | 12,1 | 38,8 |
| Durangaldea | 9,9 | 9,6 | 45,9 |
| Donostialdea | 11,4 | 9,8 | 45,5 |
| Tolosa-Goierri | 16,0 | 6,2 | 47,1 |
| Debagoiena | 24,1 | 7,5 | 37,1 |
| Debabarrena | 10,8 | 7,0 | 45,3 |
| Guztira | 10,5 | 10,5 | 43,6 |

**16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera, lanbide-egoeraren eta eskualdearen arabera. 2001-2010 aldia**

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2010 aldian)

| Lanbide-egoera eta eskualdea | | Absolutuak 2001 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | Hazkunde-tasa 2001/2005 | 2007/2005 | 2009/2007 | 2010/2009 | Hazkundearen ehunekoa 2007/2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Soldatapekoak ez direnak | Gasteiz | 21.019 | 20.802 | 19.521 | 19.837 | 18.294 | -0,3 | -3,1 | 0,8 | -7,8 | -6,3 |
| | Aiaraldea | 3.313 | 4.247 | 4.351 | 3.395 | 3.971 | 6,4 | 1,2 | -11,7 | 16,9 | -8,7 |
| | Eskuinaldea | 9.774 | 11.277 | 9.078 | 8.893 | 9.634 | 3,6 | -10,3 | -1,0 | 8,3 | 6,1 |
| | Bilbo | 24.213 | 23.769 | 22.515 | 21.466 | 20.754 | -0,5 | -2,7 | -2,4 | -3,3 | -7,8 |
| | Ezkerraldea | 22.428 | 23.365 | 24.498 | 19.605 | 20.832 | 1,0 | 2,4 | -10,5 | 6,3 | -15,0 |
| | Bizkaia-Kosta | 11.582 | 11.012 | 10.123 | 9.915 | 10.765 | -1,3 | -4,1 | -1,0 | 8,6 | 6,3 |
| | Durangaldea | 8.001 | 9.245 | 7.194 | 7.143 | 7.988 | 3,7 | -11,8 | -0,4 | 11,8 | 11,0 |
| | Donostialdea | 42.573 | 41.693 | 39.490 | 34.688 | 35.332 | -0,5 | -2,7 | -6,3 | 1,9 | -10,5 |
| | Tolosa-Goierri | 8.504 | 11.474 | 9.191 | 11.043 | 11.583 | 7,8 | -10,5 | 9,6 | 4,9 | 26,0 |
| | Debagoiena | 10.747 | 11.698 | 9.598 | 10.373 | 9.882 | 2,1 | -9,4 | 4,0 | -4,7 | 3,0 |
| | Debabarrena | 5.052 | 4.137 | 4.054 | 3.729 | 3.832 | -4,9 | -1,0 | -4,1 | 2,8 | -5,5 |
| | Guztira | 167.208 | 172.718 | 159.612 | 150.088 | 152.867 | 0,8 | -3,9 | -3,0 | 1,9 | -4,2 |
| Sektore publikoko soldatapekoak | Gasteiz | 17.708 | 19.825 | 20.934 | 20.115 | 21.547 | 2,9 | 2,8 | -2,0 | 7,1 | 2,9 |
| | Aiaraldea | 1.921 | 2.211 | 2.168 | 1.814 | 2.033 | 3,6 | -1,0 | -8,5 | 12,1 | -6,2 |
| | Eskuinaldea | 10.398 | 10.803 | 11.307 | 11.811 | 11.143 | 1,0 | 2,3 | 2,2 | -5,7 | -1,5 |
| | Bilbo | 20.972 | 23.420 | 24.622 | 31.948 | 34.823 | 2,8 | 2,5 | 13,9 | 9,0 | 41,4 |
| | Ezkerraldea | 21.870 | 20.870 | 20.584 | 23.480 | 24.320 | -1,2 | -0,7 | 6,8 | 3,6 | 18,1 |
| | Bizkaia-Kosta | 6.089 | 7.668 | 9.179 | 10.028 | 9.979 | 5,9 | 9,4 | 4,5 | -0,5 | 8,7 |
| | Durangaldea | 4.042 | 5.416 | 6.500 | 7.155 | 7.753 | 7,6 | 9,6 | 4,9 | 8,4 | 19,3 |
| | Donostialdea | 25.607 | 29.142 | 31.240 | 28.784 | 30.405 | 3,3 | 3,5 | -4,0 | 5,6 | -2,7 |
| | Tolosa-Goierri | 3.644 | 4.595 | 5.613 | 4.270 | 4.494 | 6,0 | 10,5 | -12,8 | 5,3 | -19,9 |
| | Debagoiena | 2.034 | 3.047 | 2.625 | 3.099 | 3.079 | 10,6 | -7,2 | 8,7 | -0,7 | 17,3 |
| | Debabarrena | 2.112 | 2.713 | 3.525 | 2.604 | 2.484 | 6,5 | 14,0 | -14,1 | -4,6 | -29,5 |
| | Guztira | 116.396 | 129.710 | 138.296 | 145.108 | 152.059 | 2,7 | 3,3 | 2,4 | 4,8 | 10,0 |
| Sektore pribatuko soldatapekoak eta egoera parekatuak | Gasteiz | 77.697 | 83.137 | 84.170 | 84.046 | 82.280 | 1,7 | 0,6 | -0,1 | -2,1 | -2,2 |
| | Aiaraldea | 12.237 | 12.465 | 13.425 | 13.900 | 13.655 | 0,5 | 3,8 | 1,8 | -1,8 | 1,7 |
| | Eskuinaldea | 43.546 | 49.208 | 52.241 | 50.016 | 49.052 | 3,1 | 3,0 | -2,2 | -1,9 | -6,1 |
| | Bilbo | 87.855 | 97.352 | 103.262 | 96.472 | 89.909 | 2,6 | 3,0 | -3,3 | -6,8 | -12,9 |
| | Ezkerraldea | 104.006 | 122.815 | 125.849 | 125.594 | 123.048 | 4,2 | 1,2 | -0,1 | -2,0 | -2,2 |
| | Bizkaia-Kosta | 29.314 | 32.112 | 35.477 | 33.978 | 32.101 | 2,3 | 5,1 | -2,1 | -5,5 | -9,5 |
| | Durangaldea | 34.175 | 36.581 | 41.519 | 37.506 | 36.973 | 1,7 | 6,5 | -5,0 | -1,4 | -10,9 |
| | Donostialdea | 127.387 | 143.407 | 146.344 | 147.048 | 140.456 | 3,0 | 1,0 | 0,2 | -4,5 | -4,0 |
| | Tolosa-Goierri | 31.644 | 36.543 | 37.347 | 33.629 | 34.056 | 3,7 | 1,1 | -5,1 | 1,3 | -8,8 |
| | Debagoiena | 14.836 | 15.774 | 17.036 | 13.926 | 15.220 | 1,5 | 3,9 | -9,6 | 9,3 | -10,7 |
| | Debabarrena | 15.512 | 16.359 | 16.380 | 15.948 | 16.026 | 1,3 | 0,1 | -1,3 | 0,5 | -2,2 |
| | Guztira | 578.211 | 645.752 | 673.049 | 652.063 | 632.775 | 2,8 | 2,1 | -1,6 | -3,0 | -6,0 |

**16-64 urteko biztanleria: okupazio-koefizienteen bilakaera, lanbide-egoeraren eta eskualdearen arabera. 1993-2010 aldia**

(%-tan)

| Eskualdea | Soldatapekoak ez direnak | | | | | Sektore publikoko soldatapekoak | | | | | Sektore pribatuko soldatapekoak eta beste batzuk | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1993 | 2001 | 2005 | 2007 | 2010 | 1993 | 2001 | 2005 | 2007 | 2010 | 1993 | 2001 | 2005 | 2007 | 2010 |
| Gasteiz | 10,5 | 12,1 | 11,7 | 10,8 | 9,6 | 10,0 | 10,2 | 11,1 | 11,6 | 11,3 | 31,4 | 44,9 | 46,6 | 46,7 | 43,3 |
| Aiaraldea | 11,3 | 12,0 | 14,9 | 15,5 | 13,4 | 5,4 | 6,9 | 7,8 | 7,7 | 6,9 | 31,4 | 44,2 | 43,7 | 47,8 | 46,2 |
| Eskuinaldea | 10,0 | 8,9 | 10,2 | 8,2 | 8,6 | 8,3 | 9,4 | 9,8 | 10,3 | 10,0 | 27,6 | 39,5 | 44,5 | 47,4 | 43,9 |
| Bilbo | 8,4 | 10,4 | 10,2 | 9,8 | 8,9 | 8,6 | 9,0 | 10,0 | 10,7 | 14,9 | 28,1 | 37,8 | 41,7 | 44,9 | 38,5 |
| Ezkerraldea | 6,3 | 8,4 | 8,7 | 9,3 | 7,8 | 7,9 | 8,1 | 7,7 | 7,9 | 9,2 | 26,8 | 38,8 | 45,6 | 48,0 | 46,3 |
| Bizkaia-Kosta | 12,1 | 14,9 | 14,1 | 12,4 | 13,0 | 7,2 | 7,8 | 9,8 | 11,2 | 12,1 | 31,1 | 37,8 | 41,1 | 43,5 | 38,8 |
| Durangaldea | 10,7 | 10,4 | 11,9 | 9,0 | 9,9 | 5,7 | 5,2 | 7,0 | 8,2 | 9,6 | 31,8 | 44,3 | 47,3 | 52,2 | 45,9 |
| Donostialdea | 10,8 | 13,9 | 13,6 | 12,9 | 11,4 | 7,6 | 8,3 | 9,5 | 10,2 | 9,8 | 30,2 | 41,5 | 46,7 | 47,7 | 45,5 |
| Tolosa-Goierri | 11,9 | 11,7 | 15,8 | 12,8 | 16,0 | 4,6 | 5,0 | 6,3 | 7,8 | 6,2 | 30,1 | 43,6 | 50,4 | 52,0 | 47,1 |
| Debagoiena | 20,2 | 25,3 | 27,6 | 23,7 | 24,1 | 3,4 | 4,8 | 7,2 | 6,5 | 7,5 | 25,9 | 35,0 | 37,3 | 42,0 | 37,1 |
| Debabarrena | 12,0 | 14,0 | 11,4 | 11,5 | 10,8 | 5,5 | 5,9 | 7,5 | 10,0 | 7,0 | 28,7 | 43,0 | 45,1 | 46,5 | 45,3 |
| Guztira | 9,9 | 11,7 | 12,0 | 11,2 | 10,5 | 7,6 | 8,2 | 9,0 | 9,7 | 10,5 | 29,1 | 40,6 | 45,0 | 47,2 | 43,6 |

### 3.3.2.1. *Soldatapekoen berariazko datuak*

31. 2009tik 2010era bitarte, Gizarte Segurantzan afiliatu gabe diharduten landunen proportzioa % 2,4tik % 2,3ra murriztu bada ere, kontratazio-modalitateei dagokienez azken urteko bilakaeran azpimarratu beharreko ezaugarri nagusia kontratu mugagabea duten soldatapekoen kopuruan izandako beherakada handia izan da. Talde horren barruan, 641.041 pertsona zeuden 2009an, eta 615.401 2010ean. Hortaz, 25.640 landun gutxiago daude, eta % 4ko beherakada izan dela esan nahi du horrek. Murrizketa hori oso esanguratsua da, okupazio mota horrek azken hamarkadan izan duen goranzko joera nabarmena hautsi baitu. Izan ere, 2001-2009 aldiko faseetan, urteko hazkunde-erritmoak % 2,8-3,8ra iritsi ziren. Beherakada gorabehera, kontratu mugagabea duten landunen 2010eko zifra 2007koa baino handiagoa izan da. Izan ere, azken urtean, 602.035 soldatapekok jardun dute kontratu mugagabearekin.

Kontratu mugagabea duten landunen beherakada kontratazio ez-mugagabeak izan duen goranzko joera handiarekin konpentsatu da, neurri batean (% 13,6ko igoera 2009tik 2010era bitarte). Edonola ere, gorakada hori ez da nahikoa izan 2007-2009 aldian urtean batez beste izan den % 14,8ko beherakada konpentsatzeko. Horren guztiaren ondorioz, aldi baterako kontratazioak azken aldian izan duen goranzko joera gorabehera, kontratu mugagaberik gabeko soldatapekoen 2010eko kopurua (169.077 pertsona) 2007koa baino % 17,5 txikiagoa izan da (204.973 pertsona 2007. urtean), eta 2001-2005 aldikoaren antzekoa. 2009tik 2010era bitarte % 18,8tik % 21,6ra igo bada ere, kontratu mugagabea ez dutenen proportzioa 2007ra bitarte lortutako zifren azpitik geratu da argi eta garbi. Nolanahi ere, adierazle hori % 29,1etik % 25,4ra murriztu zen 2001etik 2007ra bitarte.

**16-64 urteko soldatapeko biztanleria landuna, kontratu motaren arabera. 2009 eta 2010**

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

| | 2009 | | 2010 | |
|---|---|---|---|---|
| Kontratu mota | Abs. | % ber. | Abs. | % ber. |
| Mugagabea | 641.041 | 81,2 | 615.401 | 78,4 |
| Aldi baterakoa | 134.957 | 17,1 | 152.511 | 19,4 |
| Kontraturik gabe | 13.941 | 1,8 | 16.566 | 2,1 |
| Guztira | 789.939 | 100 | 784.479 | 100 |

**16-64 urteko soldatapeko bizt. landuna, Gizarte Segurantzarekiko afiliazioaren arabera. 2009 eta 2010**

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

| | 2009 | | 2010 | |
|---|---|---|---|---|
| Afiliazioa | Abs. | % ber. | Abs. | % ber. |
| Bai | 770.976 | 97,6 | 766.705 | 97,7 |
| Ez | 18.962 | 2,4 | 17.774 | 2,3 |
| Guztira | 789.939 | 100 | 784.479 | 100 |

**16-64 urteko soldatapeko biztanleria landunaren bilakaera, kontratu motaren arabera. 2001-2010 aldia**

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2010 aldian)

| | Absolutuak | | | | | Hazkunde-tasa | | | | Hazkundearen ehunekoa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Kontratu mota | 2001 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | 2001/ 2005 | 2005/ 2007 | 2007/ 2009 | 2009/ 2010 | 2007/2010 |
| Mugagabea | 491.052 | 570.040 | 602.035 | 641.041 | 615.401 | 3,8 | 2,8 | 3,2 | -4,0 | 2,2 |
| Ez-mugagabea | 201.223 | 201.104 | 204.973 | 148.898 | 169.077 | 0,0 | 1,0 | -14,8 | 13,6 | -17,5 |
| Guztira | 692.275 | 771.144 | 807.008 | 789.939 | 784.479 | 2,7 | 2,3 | -1,1 | -0,7 | -2,8 |
| Kontratu mugagaberik gabekoak (%-a) | 29,1 | 26,1 | 25,4 | 18,8 | 21,6 | | | | | |

32. Eskualdeak kontuan hartuta, kontratu mugagabea duten soldatapekoen kopurua % 2-3,5 murriztu da 2009tik 2010era bitarte Gasteizen, Bilbon eta Ezkerraldean, eta % 5 Donostialdean. Aiaraldean, beherakada % 7,8ra iritsi da, eta Eskuinaldean eta Bizkaia-Kostan, berriz, % 10,9-12,8ra. Beherakada horiek, oro har, 2007-2009 aldian okupazio mota horrek eskualde horietan izan dituen gorakada handiei lotuta daude. Galera-dinamika berri horren ondorioz, Gasteizen eta Eskuinaldean okupazioak behera egin du 2007-2010 hirurteko osoan (% -2,3 eta % -2,9, hurrenez hurren). Bi eskualde horietan, gainera, kontratu mugagabea duten 16-64 urteko soldatapekoen proportzioak nabarmen egin du behera (% 45etik % 41,5era Gasteizen, eta % 45etik % 43,4ra Eskuinaldean).

Zenbait eskualdetan (hala nola Aiaraldean eta Ezkerraldean), azken urteko joera-aldaketa gorabehera, kontratu mugagabea dutenen okupazio-mailak % 11-12ko hazkundea izan du 2007-2010 hirurtekoan. Kontratu mugagabea duten soldatapekoen okupazio-koefizientea % 37,9tik % 40,2ra igo da Aiaraldean, eta % 39,6tik % 43,5era Ezkerraldean. 2010. urtean, Ezkerraldeko proportzioa Eskuinaldekoa eta Gasteizkoa baino handiagoa izan da. Kontuan hartu behar da 2007. urtean bi eskualde horietako proportzioa Ezkerraldekoa baino 5,4 puntu handiagoa zela 2007. urtean.

2007-2010 aldian kontratu mugagabea duten soldatapekoen proportzioaren igoera % 3,7ra baino ez da iritsi Bilbon, eta % 2,4ra Donostialdean. Bi kasu horietan, kontratu mugagabea duten soldatapekoen okupazio-koefizientea zertxobait igo da 2007tik 2010era bitarte (% 40,8tik % 41,6ra Bilbon –Gasteizek baino proportzio handiagoa izan du eskualde horrek 2010ean–, eta % 43,7tik 44,5era Donostialdean). Bizkaia-Kostan, okupazioak behera egin du 2009-2010 aldian, eta 2007ko okupazio-mailetara itzuli da eskualde hori. Izan ere, kontratu mugagabea duten soldatapekoen okupazio-koefizientea % 38,9ra iritsi zen 2007an, eta % 38,4ra 2010ean.

Durangaldean, kontratu mugagabea dutenen okupazio-maila egonkortu egin da 2009tik 2010era bitarte. Horren ondorioz, okupazio mota horrek % 5eko beherakada izan du 2007-2010 aldian eskualde horretan (Tolosa-Goierrirekin batera, 2007-2009 biurtekoan okupazio mota horrek behera egin duen eskualde bakarra da). Horrela, beraz, kontratu mugagabea duten soldatapekoen

okupazio-koefizientea % 47,6tik % 44,6ra murriztu da 2007-2010 aldian. Hala ere, adierazle horri dagokionez, Durangaldeak lehen postuetan jarraitzen duela azpimarratu beharra dago.
Deba ibaiaren haraneko bi eskualdeetan eta Tolosa-Goierrin, gainerakoetan ez bezala, kontratu mugagabea duten soldatapekoen kopuruak % 1,9-2,5eko igoera izan du 2009-2010 aldian. Tolosa-Goierrin, hazkundearekin % 5,9ra baino ez da murriztu okupazio mota horren beherakada 2007-2010 aldian (kontratu mugagabea duten soldatapekoen okupazio-koefizientea % 44tik % 41,2ra murriztu da). Debabarrenan, berriz, okupazioa % 3 hazi da aldi horretan, eta hazkundea % 5,6ra iritsi da Debagoienan. Horrela, beraz, 2007-2010 aldian, kontratu mugagabea duten soldatapekoen okupazio-koefizientea % 39,4tik % 40,4ra igo da Debabarrenan, eta % 33,7tik % 35,2ra Debagoienan.

EAEko ia eskualde guztietan, kontratu mugagabea ez dutenen kopuruak gora egin du 2009tik 2010era bitarte. Igoerak % 20tik gorakoak izan dira Aiaraldean, Eskuinaldean, Bizkaia-Kostan eta Debagoienan. Kontratazio mota horrek Debagoienan baino ez du behera egin (% 6,2). Gainera, 2009tik 2010era bitarte, eskualde horretan baino ez du jarraitu kontratu mugagaberik gabeko soldatapekoen proportzioak 2009ra arte izan zuen beherakada-prozesuak. Nolanahi ere, kontratu mugagaberik ez duten soldatapekoen kopuruaren igoera txiki samarra izan da Bilbon eta Durangaldean (% 1,9-2,5). Tolosa-Goierrin ere, % 5etik beherako igoera izan da.

2007-2010 hirurteko osoa kontuan hartuta, kontratu mugagaberik ez duten soldatapekoek % 10etik gorako beherakadak izan dituzte EAEko ia eskualde guztietan. Zehazki, % 15-20ko beherakada izan da Bilbon eta Bizkaia-Kostan, eta hori baino handiagoa Aiaraldean, Ezkerraldean eta Gipuzkoako eskualdeetan. Debagoienan, berriz, % 30eko proportzioa gainditu du (% -34,2).

Gasteiz, ordea, salbuespen nabarmena izan da testuinguru horretan. Eskualde horretan, kontratu mugagaberik ez dutenen proportzioak % 6,1eko proportzioan egin du behera 2007-2010 aldian, okupazio mota horrek 2007-2009 biurtekoan izan zituen beherakada txikien (urtean % 1,5 batez beste) eta 2009tik 2010era bitarteko % 9,3ko gorakadaren ondorioz. Horrela, beraz, kontratu mugagaberik ez duten 16-64 urteko soldatapekoen proportziorik handiena duten eskualdeen artean kokatuta jarraitu du Gasteizek. 2009. urtean hurbil egon bazen ere (16-64 urteko pertsonen % 13,2 zegoen egoera horretan), 2010ean lortu du Gasteizek aldi baterako kontratuko edo kontraturik gabeko soldatapekoek garrantzi erlatiborik handiena duten eskualdea izatea. Proportzioa antzekoa izan da Aiaraldean, Ezkerraldean, Bizkaia-Kostan eta Tolosa-Goierrin. EAEko gainerako eskualdeetako gehienetan, berriz, % 10,8-11,8ko proportzioa lortu da. Adierazle hori Eskuinaldean eta Debagoienan baino ez da izan txikiagoa (% 10,5 eta % 9,5, hurrenez hurren).

Arestian adierazi dugunez, Gasteizen 2007-2010 aldian aldi baterako kontratazioak izan duen igoerarekin batera, kontratu mugagabea duten soldatapekoen kopuruak behera egin du hirurteko horretan bertan. Horren ondorioz, kontratu mugagaberik ez duten soldatapekoen 2010eko proportzioa 2007koa baino handiagoa izan da (% 24,1 eta % 22,5, hurrenez hurren), eta adierazi

beharra dago kasu bakarra izan dela EAEn. Gainerako eskualdeetan, kontratu mugagaberik ez dutenen 2010eko proportzioa 2007koa baino txikiagoa izan da, 2009tik 2010era bitarte adierazleak gorantz egin badu ere.

2010. urtean, kontratu mugagaberik ez duten soldatapekoen proportziorik handiena duten eskualdeen artean dago Gasteiz, Aiaraldearekin eta Bizkaia-Kostarekin batera, eremu urbanizatuetako proportzioaren gainetik (% 21,6-22,1 Ezkerraldean eta Bilbon, eta % 19,5 Eskuinaldean eta Donostialdean).

**Kontratu mugagaberik ez duten 16-64 urteko soldatapekoen proportzioa, eskualdearen arabera. 2010**

(%-tan)

| Eskualdea | Kontratu mugagaberik gabekoak |
|---|---|
| Gasteiz | 24,1 |
| Aiaraldea | 24,1 |
| Eskuinaldea | 19,5 |
| Bilbo | 22,1 |
| Ezkerraldea | 21,6 |
| Bizkaia-Kosta | 24,5 |
| Durangaldea | 19,7 |
| Donostialdea | 19,5 |
| Tolosa-Goierri | 22,6 |
| Debagoiena | 21,2 |
| Debabarrena | 22,3 |
| Guztira | 21,6 |

**16-64 urteko soldatapekoak: okupazio-koefizienteak, kontratu motaren eta eskualdearen arabera. 2010**

(%-tan)

| Eskualdea | Mugagabea | Ez-mugagabea |
|---|---|---|
| Gasteiz | 41,5 | 13,2 |
| Aiaraldea | 40,2 | 12,8 |
| Eskuinaldea | 43,4 | 10,5 |
| Bilbo | 41,6 | 11,8 |
| Ezkerraldea | 43,5 | 12,0 |
| Bizkaia-Kosta | 38,4 | 12,5 |
| Durangaldea | 44,6 | 10,9 |
| Donostialdea | 44,5 | 10,8 |
| Tolosa-Goierri | 41,2 | 12,0 |
| Debagoiena | 35,2 | 9,5 |
| Debabarrena | 40,4 | 11,6 |
| Guztira | 42,4 | 11,7 |

**16-64 urteko soldatapeko landunen bilakaera, kontratu motaren eta eskualdearen arabera. 2001-2010 aldia**

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2010 aldian)

| Kontratu mota eta eskualdea | | Absolutuak 2001 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | Hazkunde-tasa 2001/2005 | 2005/2007 | 2007/2009 | 2009/2010 | Hazkundearen ehunekoa 2007/2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Mugagabea | Gasteiz | 71.044 | 78.095 | 81.105 | 81.171 | 78.772 | 2,4 | 1,9 | 0,0 | -3,0 | -2,9 |
| | Aiaraldea | 9.673 | 11.356 | 10.636 | 12.882 | 11.875 | 4,1 | -3,2 | 10,1 | -7,8 | 11,7 |
| | Eskuinaldea | 36.993 | 47.091 | 49.628 | 54.414 | 48.464 | 6,2 | 2,7 | 4,7 | -10,9 | -2,3 |
| | Bilbo | 81.147 | 89.137 | 93.784 | 99.118 | 97.219 | 2,4 | 2,6 | 2,8 | -1,9 | 3,7 |
| | Ezkerraldea | 84.633 | 99.546 | 103.906 | 119.538 | 115.465 | 4,1 | 2,2 | 7,3 | -3,4 | 11,1 |
| | Bizkaia-Kosta | 24.544 | 29.625 | 31.747 | 36.439 | 31.779 | 4,8 | 3,5 | 7,1 | -12,8 | 0,1 |
| | Durangaldea | 26.564 | 33.354 | 37.841 | 35.705 | 35.938 | 5,9 | 6,5 | -2,9 | 0,7 | -5,0 |
| | Donostialdea | 105.888 | 123.337 | 134.205 | 144.627 | 137.387 | 3,9 | 4,3 | 3,8 | -5,0 | 2,4 |
| | Tolosa-Goierri | 25.400 | 30.136 | 31.645 | 29.045 | 29.785 | 4,4 | 2,5 | -4,2 | 2,5 | -5,9 |
| | Debagoiena | 11.472 | 12.332 | 13.657 | 14.149 | 14.417 | 1,8 | 5,2 | 1,8 | 1,9 | 5,6 |
| | Debabarrena | 13.694 | 16.031 | 13.880 | 13.953 | 14.298 | 4,0 | -6,9 | 0,3 | 2,5 | 3,0 |
| | Guztira | 491.052 | 570.040 | 602.035 | 641.041 | 615.401 | 3,8 | 2,8 | 3,2 | -4,0 | 2,2 |
| Ez-mugagabea | Gasteiz | 24.063 | 24.669 | 23.614 | 22.931 | 25.054 | 0,6 | -2,2 | -1,5 | 9,3 | 6,1 |
| | Aiaraldea | 4.389 | 3.233 | 4.879 | 2.752 | 3.772 | -7,4 | 22,8 | -24,9 | 37,0 | -22,7 |
| | Eskuinaldea | 16.764 | 12.677 | 13.299 | 7.240 | 11.730 | -6,7 | 2,4 | -26,2 | 62,0 | -11,8 |
| | Bilbo | 27.268 | 31.150 | 33.050 | 27.009 | 27.512 | 3,4 | 3,0 | -9,6 | 1,9 | -16,8 |
| | Ezkerraldea | 40.473 | 43.785 | 41.587 | 28.505 | 31.902 | 2,0 | -2,5 | -17,2 | 11,9 | -23,3 |
| | Bizkaia-Kosta | 10.614 | 10.108 | 12.822 | 6.959 | 10.300 | -1,2 | 12,6 | -26,3 | 48,0 | -19,7 |
| | Durangaldea | 11.526 | 8.488 | 10.083 | 8.573 | 8.789 | -7,4 | 9,0 | -7,8 | 2,5 | -12,8 |
| | Donostialdea | 46.937 | 47.151 | 42.748 | 29.459 | 33.347 | 0,1 | -4,8 | -17,0 | 13,2 | -22,0 |
| | Tolosa-Goierri | 9.887 | 10.561 | 11.056 | 8.284 | 8.685 | 1,7 | 2,3 | -13,4 | 4,8 | -21,4 |
| | Debagoiena | 5.372 | 6.390 | 5.903 | 2.811 | 3.881 | 4,4 | -3,9 | -31,0 | 38,1 | -34,2 |
| | Debabarrena | 3.930 | 2.892 | 5.932 | 4.373 | 4.104 | -7,4 | 43,2 | -14,1 | -6,2 | -30,8 |
| | Guztira | 201.223 | 201.104 | 204.973 | 148.898 | 169.077 | 0,0 | 1,0 | -14,8 | 13,6 | -17,5 |

**Kontratu mugagaberik ez duten 16-64 urteko soldatapeko landunen proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera**

**1993-2010 aldia**

(%-tan)

| Eskualdea | 1993 | 1997 | 2001 | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Gasteiz | 29,9 | 35,7 | 25,3 | 22,5 | 22,0 | 24,1 |
| Aiaraldea | 29,4 | 33,5 | 31,2 | 31,4 | 17,6 | 24,1 |
| Eskuinaldea | 22,5 | 25,9 | 31,2 | 21,1 | 11,7 | 19,5 |
| Bilbo | 22,8 | 28,8 | 25,2 | 26,1 | 21,4 | 22,1 |
| Ezkerraldea | 25,5 | 37,0 | 32,4 | 28,6 | 19,3 | 21,6 |
| Bizkaia-Kosta | 32,0 | 36,2 | 30,2 | 28,8 | 16,0 | 24,5 |
| Durangaldea | 30,7 | 34,6 | 30,3 | 21,0 | 19,4 | 19,7 |
| Donostialdea | 24,7 | 39,2 | 30,7 | 24,2 | 16,9 | 19,5 |
| Tolosa-Goierri | 32,3 | 40,7 | 28,0 | 25,9 | 22,2 | 22,6 |
| Debagoiena | 28,4 | 42,3 | 31,9 | 30,2 | 16,6 | 21,2 |
| Debabarrena | 23,5 | 36,0 | 22,3 | 29,9 | 23,9 | 22,3 |
| Guztira | 26,3 | 35,3 | 29,1 | 25,4 | 18,8 | 21,6 |

**16-64 urteko soldatapekoak: okupazio-koefizienteen bilakaera, kontratu motaren eta eskualdearen arabera. 1993-2010 aldia**

(%-tan)

| Eskualdea | Mugagabea | | | | | Ez-mugagabea | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1993 | 2001 | 2007 | 2009 | 2010 | 1993 | 2001 | 2007 | 2009 | 2010 |
| Gasteiz | 29,0 | 41,0 | 45,0 | 42,9 | 41,5 | 12,3 | 13,9 | 13,1 | 12,1 | 13,2 |
| Aiaraldea | 25,8 | 34,9 | 37,9 | 43,8 | 40,2 | 10,7 | 15,8 | 17,4 | 9,4 | 12,8 |
| Eskuinaldea | 27,5 | 33,5 | 45,0 | 48,7 | 43,4 | 8,0 | 15,2 | 12,1 | 6,5 | 10,5 |
| Bilbo | 28,1 | 35,0 | 40,8 | 42,6 | 41,6 | 8,3 | 11,7 | 14,4 | 11,6 | 11,8 |
| Ezkerraldea | 25,7 | 31,5 | 39,6 | 45,0 | 43,5 | 8,8 | 15,1 | 15,9 | 10,7 | 12,0 |
| Bizkaia-Kosta | 25,0 | 31,6 | 38,9 | 44,1 | 38,4 | 11,7 | 13,7 | 15,7 | 8,4 | 12,5 |
| Durangaldea | 25,3 | 34,4 | 47,6 | 44,1 | 44,6 | 11,2 | 14,9 | 12,7 | 10,6 | 10,9 |
| Donostialdea | 28,3 | 34,5 | 43,7 | 46,7 | 44,5 | 9,3 | 15,3 | 13,9 | 9,5 | 10,8 |
| Tolosa-Goierri | 23,4 | 35,0 | 44,0 | 40,0 | 41,2 | 11,2 | 13,6 | 15,4 | 11,4 | 12,0 |
| Debagoiena | 21,0 | 27,0 | 33,7 | 34,4 | 35,2 | 8,3 | 12,7 | 14,6 | 6,8 | 9,5 |
| Debabarrena | 26,1 | 38,0 | 39,4 | 39,2 | 40,4 | 8,0 | 10,9 | 16,8 | 12,3 | 11,6 |
| Guztira | 26,9 | 34,5 | 42,2 | 44,2 | 42,4 | 9,6 | 14,1 | 14,4 | 10,3 | 11,7 |

33. Soldatapekoen artean lanaldiak izan duen bilakaerari dagokionez, iraupenik txikieneko lanaldien eta lanaldi partzialeko lanaren garrantzi erlatiboak hazkunde jarraitua izan duela diote adierazleek. Astean normal lan egin duten soldatapeko landunen egoera adierazletzat hartuta, 40 orduko edo hortik gorako lanaldien proportzioa % 70,3tik % 65,8ra murriztu da 2007tik 2010era bitarte. 30-39 orduko lanaldien proportzioak, berriz, gora egin du (% 17,3tik % 19,6ra), baita 30 ordutik beherako lanaldi partzialen proportzioak ere (% 12,4tik % 14,5era).

Enplegu jarraitua (enplegu arruntak) duten soldatapeko landunen lanaldi teorikoa erreferentziatzat hartuta ere, lanaldi partzialeko lanen proportzioak goranzko joera izan du (% 11,3 2007an eta % 12,9 2010ean).

Lanaldi partzialeko lanak 2007tik 2010era bitarte izan duen goranzko joera, lanaldi teorikoaren dimentsioan bederen, EAEko ia eskualde guztietan gertatu da. Hala ere, zenbait eskualdetan (Aiaraldean, Eskuinaldean, Ezkerraldean, Bizkaia-Kostan eta Debagoienan), 2007-2009ko egonkortzearen edo jaitsieraren ondoren 2009tik 2010era bitarte izandako gorakadaren ondorioz gertatu da hori. Goranzko joera horri dagokionez, salbuespen bakarra Bilbo izan da. Eskualde horretan, lanaldi partzialeko lanaren proportzioa % 13,8tik % 11,4ra murriztu da 2009tik 2010era bitarte, eta, beraz, 2007ko % 12,2aren azpitik geratu da. Donostialdean, berriz, adierazleak egonkor iraun du 2007-2010 aldi osoan (zifrak % 13-13,5 ingurukoak izan dira beti).

Lanaldi partzialeko lanaren garrantzi erlatiboak Bilbon izan duen beherakada 2009-2010 aldian ere gertatu da, normal lan egin duten soldatapekoen lanaldia kontuan hartuz gero. Zehazki, adierazlea % 15etik % 13,8ra murriztu da 2009tik 2010era bitarte, eta, beraz, 2007ko % 11,8aren gainetik geratu da. Adierazle horri dagokionez, lanaldi partzialeko lanaren garrantzi erlatiboak beheranzko joera izan du 2007-2010 aldian Gasteizen, Aiaraldean, Bizkaia-Kostan eta Debagoienan. Bilbon, beheranzko bilakaera 2009-2010 aldian gertatu da batez ere. Adierazitako gainerako eskualdeetan, berriz, 2007-2009 aldian nabarmendu zen (2009tik 2010era bitarte, egonkor jarraitu du edo gora egin du lanaldi partzialeko lanaren proportzioak). Donostialdean, bestalde, lanaldi partzialeko lanaren proportzioak hazkunde jarraitua izan du (% 13,7 2007. urtean, % 15 2009. urtean eta % 16,3 2010ean). Eskualde horretan, lanaldi teorikoaren egonkortzearen eta lanaldi partzialaren hazkundearen arteko aldeak agerian uzten du, agian, lan errealeko orduen kopurua behera egiten ari dela, krisialdiak dakartzan premietara egokitzeko, lanaldi teorikoaren murrizketarik gabe.

**16-64 urteko soldatapeko landunen bilakaera, lan egindako ordu kopuruaren arabera. 1993-2010 aldia**

(% bertikalak)

| Lan egindako orduak | 1993 | 1997 | 2001 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| < 30 ordu | 9,7 | 12,6 | 11,8 | 11,8 | 12,4 | 13,6 | 14,5 |
| 30-39 ordu | 8,0 | 9,0 | 12,1 | 16,3 | 17,3 | 19,5 | 19,6 |
| 40 ordu edo gehiago | 82,3 | 78,4 | 76,1 | 72,0 | 70,3 | 66,9 | 65,8 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

Oharra: Astean normal lan egin duten soldatapeko landunak

**Lanaldi partzialean jardun duten 16-64 urteko soldatapekoen proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera. 1993-2010 aldia**

(%-tan)

| Eskualdea | 1993 | 1997 | 2001 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Gasteiz | 10,6 | 12,8 | 12,5 | 12,1 | 16,7 | 14,1 | 14,6 |
| Aiaraldea | 11,1 | 13,3 | 13,0 | 10,5 | 12,3 | 10,8 | 11,7 |
| Eskuinaldea | 11,5 | 11,2 | 10,7 | 14,6 | 9,5 | 10,6 | 14,0 |
| Bilbo | 8,1 | 12,4 | 11,1 | 12,1 | 11,8 | 15,0 | 13,8 |
| Ezkerraldea | 8,8 | 12,8 | 12,2 | 11,6 | 12,2 | 13,1 | 13,8 |
| Bizkaia-Kosta | 12,0 | 12,1 | 14,1 | 7,2 | 12,1 | 11,8 | 11,9 |
| Durangaldea | 9,6 | 9,5 | 9,1 | 8,6 | 10,1 | 11,8 | 14,0 |
| Donostialdea | 10,6 | 14,8 | 12,9 | 13,8 | 13,7 | 15,0 | 16,3 |
| Tolosa-Goierri | 8,6 | 12,1 | 9,2 | 7,1 | 9,8 | 14,1 | 15,9 |
| Debagoiena | 8,5 | 9,9 | 13,0 | 14,1 | 12,1 | 8,8 | 12,1 |
| Debabarrena | 10,0 | 10,3 | 8,6 | 7,2 | 10,9 | 15,7 | 19,4 |
| Guztira | 9,7 | 12,6 | 11,8 | 11,8 | 12,4 | 13,6 | 14,5 |

Oharra: Astean normal lan egin duten soldatapeko landunak

**Lanaldi partzialean jardun duten 16-64 urteko soldatapekoen proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera (lanaldi teorikoa). 1997-2010 aldia**

(%-tan)

| Eskualdea | 1997 | 2001 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Gasteiz | 5,7 | 6,7 | 9,7 | 11,2 | 12,6 | 14,5 |
| Aiaraldea | 7,5 | 9,3 | 8,7 | 9,6 | 8,5 | 11,0 |
| Eskuinaldea | 6,0 | 7,4 | 10,6 | 8,9 | 8,3 | 11,1 |
| Bilbo | 5,0 | 6,7 | 10,0 | 12,2 | 13,8 | 11,4 |
| Ezkerraldea | 6,5 | 7,6 | 10,3 | 11,5 | 11,6 | 12,6 |
| Bizkaia-Kosta | 6,1 | 9,2 | 5,5 | 9,2 | 8,8 | 11,9 |
| Durangaldea | 5,3 | 7,4 | 7,9 | 8,9 | 12,7 | 13,8 |
| Donostialdea | 7,8 | 9,2 | 11,7 | 13,1 | 13,3 | 13,5 |
| Tolosa-Goierri | 5,7 | 6,4 | 7,7 | 11,1 | 12,8 | 15,1 |
| Debagoiena | 6,0 | 8,3 | 10,1 | 9,5 | 9,3 | 10,6 |
| Debabarrena | 5,3 | 7,4 | 5,8 | 11,3 | 14,4 | 16,7 |
| Guztira | 6,2 | 7,7 | 9,9 | 11,3 | 12,1 | 12,9 |

Oharra: Enplegu jarraitua duten soldatapeko landunak

## 3.4. Okupazioaren beste alderdi batzuk

### 3.4.1. Egungo okupazioan emandako denbora eta okupazioa lortzeko bideak

34.Egungo okupazioan emandako denborari dagokionez, eskuragarri dauden datuek erakusten dute azken hamarkada honetan mugikortasun handia izan dela lan-merkatuan, eta landunek lanpostuan emandako denbora igotzen den heinean enpleguen proportzioa txikiagoa dela. Gauzak horrela, okupazio-egoera gehienak duela bost urte baino lehenagotik okupatutako enpleguei dagozkie: % 36,1. Duela 5-9 urte okupatutako enpleguei, aldiz, % 19,6 dagokie, % 14,4 duela 10-14 urte okupatutakoei, eta % 7,5 duela 15-19 urte okupatutakoei. Oro har, okupazio-egoeren % 55,7 duela 10 urte baino lehenagotik okupatutako enpleguei dagokie. % 22,4k, ordea, duela 20 urtetik edo gehiagotik betetzen du bere lana.

2007aren aurreko aldian okupazioaren igoera pixkanaka eten izanak eta ondoren izandako okupazio-krisiak, ordea, azken bost urte hauetan lortutako okupazioen garrantzi erlatiboa pixkanaka jaistea eragin dute. 2007an % 45,7 izatetik (gehienekoa), 2009an(*) % 40,9 eta 2010ean % 36,1 izatera igaro da.

**16-64 urteko landunak, egungo okupazioan emandako denboraren arabera. 2010**

(%-tan)

| Egungo okupazioan emandako denbora | Abs. | % ber. |
|---|---|---|
| < 2 urte | 169.024 | 18,0 |
| 2-4 urte | 169.587 | 18,1 |
| 5-9 urte | 184.056 | 19,6 |
| 10-14 urte | 135.043 | 14,4 |
| 15-19 urte | 69.896 | 7,5 |
| 20 urte edo gehiago | 210.094 | 22,4 |
| Guztira | 937.701 | 100 |

**Egungo okupazioan 5 urte baino gutxiago daramatzaten 16-64 urteko landunen proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera**
**2001-2010 aldia**
**(%-tan)**

| Eskualdea | 2001 | 2003 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Gasteiz | 41,9 | 41,2 | 40,3 | 38,3 | 36,5 | 38,0 |
| Aiaraldea | 43,9 | 44,2 | 37,2 | 38,7 | 37,1 | 36,5 |
| Eskuinaldea | 42,1 | 48,1 | 40,1 | 39,4 | 39,9 | 38,2 |
| Bilbo | 43,2 | 48,3 | 40,2 | 40,7 | 36,8 | 39,5 |
| Ezkerraldea | 47,4 | 52,0 | 45,0 | 43,5 | 38,6 | 36,8 |
| Bizkaia-Kosta | 40,0 | 43,2 | 40,2 | 40,4 | 30,5 | 34,3 |
| Durangaldea | 43,7 | 43,6 | 34,9 | 35,5 | 33,7 | 32,7 |
| Donostialdea | 43,2 | 44,6 | 37,8 | 43,0 | 35,6 | 34,7 |
| Tolosa-Goierri | 43,0 | 45,6 | 37,1 | 39,4 | 35,4 | 34,0 |
| Debagoiena | 36,9 | 39,2 | 34,8 | 37,2 | 27,9 | 26,3 |
| Debabarrena | 36,1 | 34,8 | 33,5 | 44,2 | 33,5 | 34,1 |
| Guztira | 43,1 | 45,7 | 39,7 | 40,9 | 36,1 | 36,1 |

35.Enplegu jarraitua izan duen eta egungo okupazioan 5 urte baino gutxiago daramatzan 16-64 urteko biztanleriaren % 6,8k adierazi du okupazio hori aldi baterako laneko enpresaren (ABLE) baten edo enplegu-bulego publikoen bidez lortu duela. Eskualdeko zifrak % 29tik % 11,1era bitartekoak dira (Donostialdean eta Aiaraldean, hurrenez hurren).

**Egungo okupazioan 5 urte baino gutxiago daramatzan eta enplegu jarraitua duen 16-64 urteko biztanleria, eskualdearen arabera 2010**

(ABLEen edo enplegu-bulego publikoen bidez enplegua lortu dutenak %-tan)

| Eskualdea | ABLEen bidez (%-tan) | Bulego Publikoen bidez (%-tan) | Bata edo bestea (%-tan) |
|---|---|---|---|
| Gasteiz | 5,1 | 3,8 | 8,7 |
| Aiaraldea | 7,3 | 4,1 | 11,1 |
| Eskuinaldea | 1,9 | 3,0 | 4,9 |
| Bilbo | 4,9 | 4,2 | 8,9 |
| Ezkerraldea | 4,0 | 3,7 | 7,5 |
| Bizkaia-Kosta | 4,0 | 3,8 | 7,6 |
| Durangaldea | 4,9 | 3,8 | 8,5 |
| Donostialdea | ,8 | 2,1 | 2,9 |
| Tolosa-Goierri | 3,8 | 4,4 | 8,0 |
| Debagoiena | 3,8 | 3,3 | 6,9 |
| Debabarrena | 2,3 | 3,8 | 6,0 |
| Guztira | 3,5 | 3,4 | 6,8 |

### 3.4.2. Beste enplegu bat bilatzea eta enplegu-aniztasuna

36.Beste enplegu bat bilatzeak landunen artean duen intzidentzia langile horiek egungo lanpostuari dagokionez duten gogobetetze-mailaren edo/eta egonkortasun-mailaren adierazle da. Egoera horretan dauden *landunen proportzioa* % 3tik % 4,5era igo da 2007-2009 aldian, baina 2010ean % 3,9ra jaitsi da, 36.564 landun ari baitira beste enplegu bat bilatzen. Termino erlatibotan nahiz absolututan, aurkeztutako zifrek 2007an lortutako gutxienekoak soilik gainditzen dituzte; izan ere, 2009ko zifrak baino txikiagoak dira, baita 2001ekoak eta 2005ekoak baino txikiagoak ere. Nolanahi ere, okupazioak beheranzko joera duen testuinguruan, gaur egun betetzen duten lanpostuarekiko atxikimendua da 2010eko egoeraren ezaugarri nagusia.

Eskualdeen araberako datuak ikusita, ordea, zehaztu egin behar da aurreko ikuspegia, fenomeno horri dagokionez eskualdeen araberako bereizketa nabarmena baitago EAEn. Izan ere, alde batetik, Durangaldeko errealitatea eta Gipuzkoako eskualdeena nabarmentzen da. Eskualde horietan, beste enplegu baten bila dabiltzan pertsonen proportzioa batez bestekoa baino askoz ere txikiagoa da (% 3tik beherakoa beti), eta, horretaz gain, adierazle hori nabarmen jaitsi da 2009tik 2010era bitarte. 2009ko zifrak, gainera, 2007koen antzekoak edo txikiagoak dira.

Aitzitik, beste enplegu bat bilatzen ari direla adierazi duten pertsonen proportzioak goranzko joera izan du 2009tik 2010era bitarte (2007ko proportzioa gaindituz beti) honako eskualde hauetan: Gasteiz, Aiaraldea, Eskuinaldea, Bilbo eta Bizkaia-Kosta. Nahiz eta azken eskualde horretan eta Eskuinaldean egoera horretan dauden landunen proportzioa EAEko batez besteko mailetatik hurbil dagoen, adierazle hori % 5,4tik % 7,2ra bitarteko zifretara iristen da Arabako bi eskualdeetan eta Bilbon. Zifra horiek hiru eskualde horietan 2001ean eta 2005ean ikusitako zifren antzekoak edo handiagoak dira; bestalde, Bizkaia-Kostan ere gauza bera gertatzen da.

Ezkerraldea tarteko kasua da. Durangaldean eta Gipuzkoako eskualdeetan gertatzen den bezala, Ezkerraldean adierazle horrek beheranzko joera izan du 2009tik 2010era bitarte, baina, era berean, gainerako eskualdeek 2007-2009 aldian izan duten bilakaera negatiboa du eskualde horrek ere. Ezkerraldean, EAEko batez besteko orokorretik hurbil dauden zifrak ikusten dira 2010ean beste enplegu baten bila dabiltzan pertsonei dagokienez: % 4,1. Zifra hori 2007ko % 2,9tik gorakoa bada ere, 2001eko eta 2005eko % 5 baino txikiagoa da argi eta garbi.

**Beste enplegu baten bila dabiltzan 16-64 urteko landunen bilakaera. 2001-2010 aldia**

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2010 aldian)

| Beste enplegu baten bila dabiltza | Absolutuak | | | | | Hazkunde-tasa | | | | Hazkundearen %-a |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2001 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | 2001/ 2005 | 2005/ 2007 | 2007/ 2009 | 2009/ 2010 | 2010/2007 |
| Bai | 38.292 | 42.373 | 28.775 | 42.222 | 36.564 | 2,6 | -17,6 | 21,1 | -13,4 | 27,1 |
| Ez | 823.522 | 905.807 | 942.182 | 905.037 | 901.136 | 2,4 | 2,0 | -2,0 | -0,4 | -4,4 |
| Guztira | 861.814 | 948.180 | 970.957 | 947.259 | 937.701 | 2,4 | 1,2 | -1,2 | -1,0 | -3,4 |
| Enplegu bila dabiltzanak (%-a) | 4,4 | 4,5 | 3,0 | 4,5 | 3,9 | | | | | |

**Beste enplegu baten bila dabiltzan 16-64 urteko landunen proportzioa, eskualdearen arabera. 1993-2010 aldia**

(%-tan)

| Eskualdea | 1993 | 1997 | 2001 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Gasteiz | 7,9 | 7,9 | 5,0 | 4,3 | 3,5 | 5,0 | 5,4 |
| Aiaraldea | 8,0 | 5,8 | 7,5 | 2,1 | 3,0 | 3,9 | 7,2 |
| Eskuinaldea | 4,9 | 4,9 | 5,2 | 5,4 | 1,6 | 3,0 | 3,5 |
| Bilbo | 5,8 | 7,4 | 5,2 | 6,4 | 3,1 | 5,2 | 6,2 |
| Ezkerraldea | 4,9 | 7,8 | 5,0 | 4,7 | 2,9 | 6,7 | 4,1 |
| Bizkaia-Kosta | 5,0 | 4,9 | 3,5 | 2,2 | 3,2 | 3,2 | 3,8 |
| Durangaldea | 6,0 | 5,8 | 3,7 | 2,7 | 2,1 | 4,1 | 2,8 |
| Donostialdea | 5,2 | 7,7 | 4,0 | 4,3 | 3,2 | 3,2 | 2,4 |
| Tolosa-Goierri | 6,9 | 5,5 | 2,7 | 4,7 | 2,6 | 3,3 | 2,0 |
| Debagoiena | 3,2 | 5,0 | 3,7 | 3,3 | 1,6 | 2,5 | 1,8 |
| Debabarrena | 6,3 | 5,6 | ,5 | 2,8 | 5,3 | 5,3 | 1,9 |
| Guztira | 5,7 | 6,9 | 4,4 | 4,5 | 3,0 | 4,5 | 3,9 |

37.2009tik 2010era bitarte beste enplegu baten bila dabiltzan pertsonen proportzioaren jaitsieraren zati bat enplegu-aniztasunerako aukera gutxiago izatearekin lotzen da. Bi enplegu edo gehiago dituzten landunen proportzioa % 0,8tik % 1,4ra igo zen 2007-2009 aldian, baina % 1era jaitsi da 2010ean. Euskadiko eskualde bakar batek ere ez dio eutsi fenomeno horren goranzko joera jarraituari 2009tik 2010era bitarte, nahiz eta eskualde horietako batzuetan (Aiaraldean eta Debagoienan, esaterako) ikusten den adierazlea igo egin dela aldi horretan.

**Enplegu anitz dituzten 16-64 urteko landunen proportzioa, eskualdearen arabera. 2005-2010 aldia**
(%-tan)

| Eskualdea | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|
| Gasteiz | ,8 | 1,2 | 2,4 | 1,9 |
| Aiaraldea | 1,5 | 3,1 | 1,3 | 2,4 |
| Eskuinaldea | 1,5 | ,9 | ,8 | ,7 |
| Bilbo | 1,4 | ,8 | 2,0 | ,7 |
| Ezkerraldea | ,2 | ,7 | ,8 | ,4 |
| Bizkaia-Kosta | ,1 | ,4 | ,0 | ,5 |
| Durangaldea | ,8 | 1,1 | ,6 | ,8 |
| Donostialdea | ,8 | 1,1 | 1,8 | 1,2 |
| Tolosa-Goierri | ,6 | ,8 | 1,5 | 1,1 |
| Debagoiena | 1,4 | 1,2 | 1,1 | 1,6 |
| Debabarrena | ,3 | ,7 | 1,3 | ,8 |
| Guztira | ,8 | 1,0 | 1,4 | 1,0 |

### 3.4.3. Lanak eragindako diru-sarrera garbiak

2005etik aurrera, inkesta egin zen aurreko hilean landunek lortutako diru-sarrera garbiei buruzko informazioa bildu da LMEan. Horri dagokionez, soldatak eragindako diru-sarrerak nahiz soldatarik gabeko jardueretatik datozenak hartuko dira aintzat[6]. LMEaren datuei esker, diru-sarreren aldagai horren gutxi gorabeheherako azterketa egin daiteke, 2005etik aurrera elkarrizketatuen % 80 inguruko batez besteko zifra baterako informazioa baitugu eskuragarri. EAEko landunen lanaren araberako diru-sarrera garbien azterketaren hurbilketari heltzeko nahikoa da ehuneko handi hori, baina inkestatutako zenbait pertsonak ez erantzun izana garrantzitsua denez, zuhurtzia izan behar dugu ezinbestean[7].

[6] Nabarmendu beharrekoa da diru-sarrerei buruzko informazio horrek ez duela biltzen ezohiko diru-sarrerei dagokien zati hainbanatua, ezta ezohiko orduetatik edo jardueretatik datorren ordainketa ere.

[7] Erantzunik ez daukagunez, kalkuluekin lan egitea ezinbestekoa da, kontuan izanik datuak falta zaizkien egoerak doitzeko xedea duen egozte-prozesuaren bitartez lortu direla kalkulu horiek. Txosten honetan aurkezten dugun informazioa, beraz, honako hauetan oinarritzen da: diru-sarrerei buruzko informazioa eman duten pertsona guztietan, eta eskatutako datuak eman ez dituztenen gaineko kalkuluan, kontuan hartuz kalkuluen arabera diru-sarrera positiboak dituzten landunen % 100ean oinarrituta dagoela azterlana. Erantzunik eman ez duen biztanleriaren diru-sarrera garbiak kalkulatzeko, erantzun dutenen diru-sarrera garbien batez bestekoa egotzi dugu kasu bakoitzean, eta horretarako, hainbat estratu hartu ditugu kontuan, honako aldagai hauetatik abiatuta: lanbide-egoera, lanbide-kategoria eta kontratu mota.

38.Esan dezakegu 16-64 urteko landunen batez besteko diru-sarrera garbiak, aparteko ordainsariei dagokien zatia hainbanatu gabe, 1.402,91 € direla 2010eko laugarren hiruhilekoan, 2009ko % 1,4a baino txikiagoa. Adierazle horrek termino arruntetan (KPIari egokitu gabeak) 2005etik aurrera izan duen lehenengo jaitsiera da; izan ere, ordura arte gora egin zuen etengabe (1.237,55 € 2005ean, 1.300,05 € 2007an, eta 1.422,39 € 2009an).

Okupazioak behera egin duen testuinguruan, bilakaera horrek % 2,4ko galera ekarri du EAEko landunen diru-sarrera maila orokorrean. Landunen kolektibo nagusien barruan, jaitsiera garrantzitsuenak enplegatzaileei (% -8,6) eta Administrazio Publikoko soldatapekoen kolektiboari (% -7,6) dagozkio, eta, era berean, ikusi da diru-sarrerak nabarmen jaitsi direla enpresa pribatuko soldatapekoen artean (% -3,7). 2009tik 2010era bitarte diru-sarreren maila goranzkoa izan den arren, esan behar dugu, ordea, krisialdiak eraginpean hartutako kolektibo nagusia, diru-sarrerei dagokienez, autonomoen kolektiboa izan dela. 2009tik 2010era bitarte izandako diru-sarreren murrizketak eta okupazio-bolumenaren beherakadak eraginpean hartutako hiru taldeek 2010ean lortutako diru-sarrerak 2007an lortutakoak baino handiagoak dira, termino arruntetan; autonomoen kolektiboaren diru-sarreren bolumena, aldiz, 2007koa baino % 12,7 txikiagoa izan da 2010ean.

Egoera oso desberdina da kooperatibisten artean, 2009tik 2010era bitarte lortutako diru-sarreren maila % 7,2 igo baita, eta joera positibo hori sendotu egin da 2007-2019 aldian. Era berean, enpresa publikoko soldatapekoek lortutako diru-sarreren kasuan, goranzko joera izan zen 2007-2009 aldian, eta gorakada % 20,9koa izan da 2009-2010 aldian. Bi kolektibo horiek ikusi dute, halaber, batez besteko hileko diru-sarrera pertsonalek gora egin dutela 2009-2010 aldian.

**Aurreko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituzten 16-64 urteko landunak, lanbide-egoeraren arabera. 2005-2010 aldia**

Diru-sarreren batura €-tan

| Lanbide-egoera | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | Bilakaera 2009/2010 |
|---|---|---|---|---|---|
| Enplegatzailea | 48.275.109 | 47.947.345 | 58.356.939 | 53.322.737 | -8,6 |
| Autonomoa | 147.429.405 | 149.143.135 | 125.034.704 | 130.159.378 | 4,1 |
| Familia-laguntza | 481.650 | 1.387.218 | 1.716.126 | 1.785.570 | 4,0 |
| Kooperatibista | 33.374.250 | 29.166.268 | 34.874.684 | 37.377.881 | 7,2 |
| Administrazio Publikoko soldatapeko langilea | 161.414.063 | 162.434.760 | 185.332.220 | 171.289.015 | -7,6 |
| Enpresa Publikoko soldatapeko langilea | 35.248.889 | 59.247.626 | 79.635.434 | 96.299.708 | 20,9 |
| Enpresa pribatuko soldatapeko langilea | 739.625.959 | 804.868.204 | 856.728.134 | 824.769.150 | -3,7 |
| Beste egoera bat | 3.085.060 | 2.650.118 | 5.697.497 | 504.384 | -91,1 |
| Guztira | 1.168.934.384 | 1.256.844.675 | 1.347.375.739 | 1.315.507.824 | -2,4 |

**Aurreko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituzten 16-64 urteko landunak, lanbide-egoeraren arabera. 2005-2010 aldia**

Diru-sarreren batez bestekoa €-tan eta EAEko batez bestekoaren gain (Oinarria: 100)

| | 2005 | | 2007 | | 2009 | | 2010 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Lanbide-egoera | Batez bestekoa | EAEko batez bestekoa %-tan | Batez bestekoa | EAEko batez bestekoa %-tan | Batez bestekoa | EAEko batez bestekoa %-tan | Batez bestekoa | EAEko batez bestekoa %-tan |
| Enplegatzailea | 1.603,08 | 129,5 | 1.694,32 | 130,3 | 1.856,96 | 130,6 | 1.814,93 | 129,4 |
| Autonomoa | 1.289,45 | 104,2 | 1.383,89 | 106,4 | 1.337,99 | 94,1 | 1.350,56 | 96,3 |
| Familia-laguntza | 298,60 | 24,1 | 648,41 | 49,9 | 716,51 | 50,4 | 630,08 | 44,9 |
| Kooperatibista | 1.335,48 | 107,9 | 1.430,59 | 110,0 | 1.528,46 | 107,5 | 1.539,53 | 109,7 |
| Administrazio Publikoko soldatapeko langilea | 1.548,84 | 125,2 | 1.641,98 | 126,3 | 1.872,20 | 131,6 | 1.761,93 | 125,6 |
| Enpresa Publikoko soldatapeko langilea | 1.392,36 | 112,5 | 1.520,20 | 116,9 | 1.726,83 | 121,4 | 1.755,94 | 125,2 |
| Enpresa pribatuko soldatapeko langilea | 1.156,08 | 93,4 | 1.208,34 | 92,9 | 1.328,61 | 93,4 | 1.304,15 | 93,0 |
| Beste egoera bat | 735,08 | 59,4 | 634,15 | 48,8 | 787,76 | 55,4 | 1.420,55 | 101,3 |
| Guztira | 1.237,55 | 100 | 1.300,05 | 100 | 1.422,39 | 100 | 1.402,91 | 100 |

2009-2010 aldian izandako diru-sarreren jaitsierak gehiago eragiten die emakume landunei, batez besteko diru-sarreren maila % 2,1 jaitsi baita; aitzitik, gizonen kasuan % 0,8ko galera izan da. Hortaz, ikus dezakegu emakume landunen batez besteko diru-sarreren proportzioa % 82,4tik % 81,3ra jaitsi dela okupazioa lortzeko aukera duten gizonei dagokienarekin alderatzen badugu. Nolanahi ere, adierazle horrek 2005-2007 aldiko % 78,1-78,4tik hurbil dauden mailak gainditzen ditu orain ere.

**Aurreko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituzten 16-64 urteko landunak, sexuaren arabera 2005-2010 aldia**

Diru-sarreren batez bestekoa €-tan

| Sexua | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | Bilakaera 2009/2010 |
|---|---|---|---|---|---|
| Gizonak | 1.358,99 | 1.428,27 | 1.543,38 | 1.531,51 | -0,8 |
| Emakumeak | 1.061,34 | 1.120,00 | 1.272,23 | 1.244,97 | -2,1 |
| Guztira | 1.237,55 | 1.300,05 | 1.422,39 | 1.402,91 | -1,4 |
| Emakumeen/gizonen diru-sarreren %-a | 78,1 | 78,4 | 82,4 | 81,3 | |

Adinaren arabera, landunen batez besteko diru-sarreren maila % 0,8-1,5 inguru jaitsi da 30-49 urtekoen kasuan, eta galera hori % 3ra igo da 50-54 urtekoetan. Batez besteko diru-sarrera % 0,8 igo da 20-24 urtekoen kasuan, baina gazteenak dira kaltetuenak. Hortaz, jarduera ekonomikoaren araberako batez besteko diru-sarrera % 8,3 jaitsi da 25-29 urtekoen kasuan, eta % 18,6 16-19 urtekoenean. Batez besteko diru-sarrera egonkortu egin da, ordea, 55-59 urtekoen kasuan (% -0,3), eta % 3,4ra igo da 60-64 urtekoen kasuan.

**Aurreko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituzten 16-64 urteko landunak, adinaren arabera 2005-2010 aldia**

Diru-sarreren batez bestekoa €-tan

| Adina | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | Bilakaera 2009/2010 |
|---|---|---|---|---|---|
| 16-19 urte | 805,12 | 799,61 | 825,67 | 671,73 | -18,6 |
| 20-24 urte | 926,92 | 950,47 | 971,53 | 979,55 | 0,8 |
| 25-29 urte | 1.085,81 | 1.121,31 | 1.275,03 | 1.169,72 | -8,3 |
| 30-34 urte | 1.178,08 | 1.202,24 | 1.353,70 | 1.338,00 | -1,2 |
| 35-39 urte | 1.258,93 | 1.303,19 | 1.417,76 | 1.406,80 | -0,8 |
| 40-44 urte | 1.319,82 | 1.369,86 | 1.472,73 | 1.456,47 | -1,1 |
| 45-49 urte | 1.333,30 | 1.411,99 | 1.479,51 | 1.456,84 | -1,5 |
| 50-54 urte | 1.361,60 | 1.456,49 | 1.548,72 | 1.502,79 | -3,0 |
| 55-59 urte | 1.381,21 | 1.482,56 | 1.629,40 | 1.624,82 | -0,3 |
| 60-64 urte | 1.314,08 | 1.403,73 | 1.450,35 | 1.499,88 | 3,4 |
| Guztira | 1.237,55 | 1.300,05 | 1.422,39 | 1.402,91 | -1,4 |

Eskualdeak kontuan hartuta, landunen diru-sarreren batez besteko mailaren beheranzko joera EAEko arlo guztietan ikusten da, Aiaraldean izan ezik.

Jaitsierarik nabarmenenak Donostialdekoa (% -2,3), Debagoiena eta Debabarrenakoa (% -3,3 eta % -3) eta, are nabarmenagoa, Bizkaia-Kostakoa (% -4,7) dira.

**Aurreko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituzten 16-64 urteko landunak, eskualdearen arabera**

**2005-2010 aldia**

Diru-sarreren batez bestekoa €-tan

| Eskualdea | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | Bilakaera 2009/2010 |
|---|---|---|---|---|---|
| Gasteiz | 1.284,50 | 1.333,43 | 1.401,48 | 1.389,20 | -0,9 |
| Aiaraldea | 1.300,32 | 1.294,42 | 1.337,18 | 1.388,50 | 3,8 |
| Eskuinaldea | 1.274,82 | 1.339,75 | 1.502,59 | 1.478,41 | -1,6 |
| Bilbo | 1.263,26 | 1.357,68 | 1.528,68 | 1.519,58 | -0,6 |
| Ezkerraldea | 1.191,18 | 1.228,43 | 1.324,54 | 1.321,23 | -0,3 |
| Bizkaia-Kosta | 1.214,33 | 1.325,11 | 1.429,42 | 1.361,71 | -4,7 |
| Durangaldea | 1.223,06 | 1.273,72 | 1.371,00 | 1.363,52 | -0,5 |
| Donostialdea | 1.231,55 | 1.294,25 | 1.439,81 | 1.406,43 | -2,3 |
| Tolosa-Goierri | 1.201,87 | 1.301,94 | 1.366,35 | 1.358,08 | -0,6 |
| Debagoiena | 1.246,81 | 1.275,07 | 1.500,27 | 1.450,84 | -3,3 |
| Debabarrena | 1.204,47 | 1.244,21 | 1.348,41 | 1.307,77 | -3,0 |
| Guztira | 1.237,55 | 1.300,05 | 1.422,39 | 1.402,91 | -1,4 |

## 4. Biztanleria ez-aktiboari buruzko alderdi batzuk

LMEaren helburua biztanleria aktiboa aztertzea da, baina biztanleria ez-aktiboaren alderdi batzuek berariazko arreta merezi dute, eta, horien artean, talde horrek jarduerarekin duen hurbiltze-mailaren jarraipena egitea edo praktikan langabeziatik hurbil dauden kolektiboen egoera aztertzea ahalbidetzen duten alderdiek bereziki. Etsia hartutako biztanleria ez-aktiboaren eta lanerako prest dagoela dioen biztanleria ez-aktiboaren azterlana bereziki interesgarria da testuinguru horretan.

### 4.1. Etsia hartutako biztanleria ez-aktiboa

39.Azken bilakaeraren datu positibo bat da etsia hartutako biztanleria ez-aktiboaren kopurua jaitsi egin dela. 2009ko 14.649 kasuetatik, zifra 11.046ra jaitsi da 2010ean. Hala eta guztiz ere, kolektiboa 2005eko, hots, krisialdiaren aurreko aldiko 7.001 kasuen gainetik dago argi eta garbi. Erreferentziazko biztanleriaren % 71,8 Bilbon, Ezkerraldean eta Donostialdean biltzen da, baina eskualde horietan ikusten da, halaber, etsia hartutako biztanleria ez-aktiboaren zifrek hobera egin dutela 2009tik 2010era bitarte.

**Etsia hartutako 16-64 urteko biztanleria ez-aktiboaren bilakaera, eskualdearen arabera**
**2001-2010 aldia**
(Datu absolutuak)

| Eskualdea | 2001 | 2003 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Gasteiz | 409 | 481 | 639 | 211 | 928 | 428 |
| Aiaraldea | 143 | 165 | 191 | 47 | 106 | 140 |
| Eskuinaldea | 213 | 345 | 817 | 706 | 695 | 870 |
| Bilbo | 1.322 | 1.295 | 1.080 | 965 | 5.124 | 3.833 |
| Ezkerraldea | 594 | 1.094 | 1.304 | 903 | 4.211 | 2.585 |
| Bizkaia-Kosta | 152 | 89 | 222 | 290 | 92 | 177 |
| Durangaldea | 463 | 39 | 465 | 122 | 581 | 897 |
| Donostialdea | 552 | 607 | 1.909 | 1.017 | 2.129 | 1.508 |
| Tolosa-Goierri | 476 | 35 | 328 | 215 | 117 | 361 |
| Debagoiena | 158 | 0 | 0 | 119 | 493 | 247 |
| Debabarrena | 0 | 118 | 47 | 144 | 173 | 0 |
| Guztira | 4.482 | 4.267 | 7.001 | 4.738 | 14.649 | 11.046 |

### 4.2. Lanerako prest dagoen biztanleria ez-aktiboa

40.Biztanleria ez-aktiboaren barruan, beste talde bereziki garrantzitsu bat osatzen dute enplegua bilatzen ari direla eta lanerako prest daudela diotenek (horietako batzuk duela gutxi jarri dira kontaktuan enplegu-zerbitzuekin, langabezia-txartela berritzeko). Pertsona horiek eta gaur egun

langabezian daudenak ezin dira bereizi, baldin eta azken hilean okupazio berria bilatzeko kudeaketa edo ekintza espezifikoak egin ez izanagatik ez bada, eta horrelako ekintzarik egin ez dutenak ez-aktiboak dira, ez langabeak, Eurostat/BJA metodoa aplikatuta.

2010ean, talde horretan 32.285 pertsona daude, hots, 16-64 urteko biztanleria ez-aktiboaren % 7,9. Talde horrekin, % 31 igoko lirateke langabeziaren zifra potentzialak (136.385 pertsona), eta horrela gertatuz gero, langabezia-tasa potentziala % 12,7raino iritsiko litzateke.

Langabeziaren, zentzu zorrotzean, bilakaerari dagokionez bezalaxe, zifra horiek erakusten dute 2009tik 2010era bitarte igoera handia izan dela lanerako prest egoteari dagokionez, deskribatutako egoeran dauden pertsonen kopurua % 38,9 igo baita 2009ko 23.243 pertsonekin alderatuta. Oro har, langabezia potentzialaren adierazlea, kolektibo hau sartuta, bi puntu igo da 2009ko % 10,7arekin alderatuta.

**Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria ez-aktiboaren bilakaera**
**2001-2010 aldia**
(Datu absolutuak eta biztanleria ez-aktiboan duten proportzioa, %-tan)

| Urtea | Lanerako prest daudenak | Biztanleria ez-aktiboaren %-a |
|---|---|---|
| 2001 | 23.893 | 4,9 |
| 2003 | 13.737 | 3,2 |
| 2005 | 31.433 | 7,2 |
| 2007 | 15.380 | 3,6 |
| 2009 | 23.243 | 5,6 |
| 2010 | 32.285 | 7,9 |

Lanerako prest dagoen biztanleria ez-aktiboaren kopuruak 2009tik 2010era bitarte izandako igoera antzekoa da gizonen eta emakumeen artean, eta errealitate horren eraginik handiena gizonen kasuan ikusten da (% 9,7 batean eta bestean, berriz, % 6,8). Biztanleria ez-aktiboaren artean emakumeak nagusi izateak azaltzen du, ordea, lanerako prest dauden ez-aktiboen kolektibo horren % 53 emakumea izatea.

Adinaren arabera, aintzat hartutako egoeren igoera nagusia 25-39 urteko pertsonei dagokie. Adin horietan, ez-aktiboen taldearen % 21,1-25,6k adierazi du lanerako prest dagoela. Erreferentziazko pertsonak biztanleria ez-aktiboaren % 43,7 dira 2010ean, 40-54 urteko pertsonen % 33,7aren eta 25 urtetik beherako edo 55 urtetik gorako biztanleriaren % 22,6aren gainetik. 2009tik 2010era bitarte nabarmen igo da aintzat hartutako egoeren garrantzia 40 urteko eta gehiagoko pertsonen artean, lanerako prest dauden pertsonen kopurua % 12,5etik % 15,5era bitartekoa baita 40-49 urteko biztanleria ez-aktiboaren kasuan.

Eskualdeak kontuan hartuta, deskribatutako egoerak garrantzi nabarmena izan du Gasteizen eta Donostialdean, biztanleria ez-aktiboaren % 10etik % 10,5era bitarte baitago lanerako prest (2009an baino % 7,2 gehiago Gasteizen, eta % 4,3 gehiago Donostialdean). Lanerako prest dagoen biztanleria ez-aktiboaren % 42,1 bi eskualde horietakoa da, Bilboko eremuko hiru eskualdeetako % 37,7aren gainetik. Lurralde-eremu horretan, biztanleria ez-aktiboan lortutako proportzioa % 5,9-6,4 ingurukoa da Bilbon eta Eskuinaldean, eta % 7,8ra iristen da Ezkerraldean. Urbanizazio handieneko eremu handietatik kanpo, Aiaraldean, Tolosa-Goierrin eta Debagoienan antzeko mailak daude, % 5,8tik % 7,3ra bitartekoak. Adierazle hori, ordea, % 5etik behera jaitsi da Bizkaia-Kostan eta Durangaldean. Hiri-eremu handiei dagokienez, 2009tik 2010era bitarte Eskuinaldean baino ez da murriztu biztanleria ez-aktiboan aztertutako fenomenoaren garrantzia; gainerako eremuetan, aldiz, bilakaera hori izan da aldi horretako ezaugarri Bizkaia-Kostan, Durangaldean eta Tolosa-Goierrin.

Gutxien urbanizatutako eskualdeetan, Debabarrena da kasu berezia; izan ere, adierazlea nabarmen igo da 2009tik 2010era bitarte, eta Gasteizkoa nahiz Donostialdekoa baino handiagoa da. Horren ondorioz lanerako prest dagoen EAEko biztanleria ez-aktiboaren mailarik handiena duen eskualdea da (% 16,9).

**Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria ez-aktiboa, sexuaren eta adinaren arabera 2010**

(Datu absolutuak, % bertikalak eta biztanleria ez-aktiboan duten proportzioa %-tan)

| Sexua eta adina | | Lanerako prest daudenak | | Biztanleria ez-aktiboaren %-a |
|---|---|---|---|---|
| | | Abs. | % ber. | |
| Sexua | Gizonak | 15.160 | 47,0 | 9,7 |
| | Emakumeak | 17.125 | 53,0 | 6,8 |
| Adina | 16-19 | 634 | 2,0 | ,9 |
| | 20-24 | 3.271 | 10,1 | 6,5 |
| | 25-29 | 4.877 | 15,1 | 21,1 |
| | 30-34 | 4.710 | 14,6 | 25,6 |
| | 35-39 | 4.514 | 14,0 | 22,1 |
| | 40-44 | 2.899 | 9,0 | 12,5 |
| | 45-49 | 4.206 | 13,0 | 15,5 |
| | 50-54 | 3.776 | 11,7 | 9,3 |
| | 55-59 | 2.457 | 7,6 | 4,9 |
| | 60-64 | 941 | 2,9 | 1,1 |
| | Guztira | 32.285 | 100 | 7,9 |

**Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria ez-aktiboa, eskualdearen arabera. 2010**

(Datu absolutuak, % bertikalak eta biztanleria ez-aktiboan duten proportzioa %-tan)

| Eskualdea | Lanerako prest daudenak | | Biztanleria ez-aktiboaren %-a |
|---|---|---|---|
| | Abs. | % ber. | |
| Gasteiz | 5.535 | 17,1 | 10,5 |
| Aiaraldea | 603 | 1,9 | 7,1 |
| Eskuinaldea | 2.193 | 6,8 | 6,4 |
| Bilbo | 4.034 | 12,5 | 5,9 |
| Ezkerraldea | 5.931 | 18,4 | 7,8 |
| Bizkaia-Kosta | 1.180 | 3,7 | 4,7 |
| Durangaldea | 972 | 3,0 | 4,1 |
| Donostialdea | 8.068 | 25,0 | 10,1 |
| Tolosa-Goierri | 1.099 | 3,4 | 5,8 |
| Debagoiena | 801 | 2,5 | 7,3 |
| Debabarrena | 1.868 | 5,8 | 16,9 |
| Guztira | 32.285 | 100 | 7,9 |

**Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria ez-aktiboaren bilakaera, sexuaren, adinaren eta eskualdearen arabera**
**2001-2010 aldia**
(Biztanleria ez-aktiboan duten proportzioa %-tan)

| | | 2001 | 2003 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Sexua | Gizonak | 5,5 | 4,8 | 8,7 | 4,5 | 7,4 | 9,7 |
| | Emakumeak | 4,6 | 2,4 | 6,5 | 3,2 | 4,5 | 6,8 |
| Adina | 16-19 | ,8 | ,7 | 2,1 | 1,0 | 1,1 | ,9 |
| | 20-24 | 4,6 | 3,8 | 8,2 | 5,2 | 6,2 | 6,5 |
| | 25-29 | 20,0 | 10,3 | 23,5 | 7,0 | 15,5 | 21,1 |
| | 30-34 | 12,5 | 10,6 | 20,4 | 8,7 | 17,4 | 25,6 |
| | 35-39 | 14,4 | 7,9 | 15,1 | 8,5 | 14,7 | 22,1 |
| | 40-44 | 7,6 | 8,3 | 12,4 | 10,9 | 9,6 | 12,5 |
| | 45-49 | 4,4 | 3,3 | 9,0 | 5,9 | 7,6 | 15,5 |
| | 50-54 | 4,2 | 2,0 | 6,6 | 3,3 | 7,5 | 9,3 |
| | 55-59 | 2,0 | 1,8 | 4,0 | 1,5 | 2,2 | 4,9 |
| | 60-64 | ,5 | ,4 | 1,1 | ,1 | ,7 | 1,1 |
| Eskualdea | Gasteiz | 2,9 | 2,3 | 4,1 | 4,9 | 3,3 | 10,5 |
| | Aiaraldea | 5,8 | 4,5 | 7,2 | 5,0 | 3,8 | 7,1 |
| | Eskuinaldea | 5,6 | 3,0 | 6,9 | 2,7 | 9,3 | 6,4 |
| | Bilbo | 6,3 | 3,1 | 12,1 | 4,8 | 4,9 | 5,9 |
| | Ezkerraldea | 7,0 | 5,2 | 7,2 | 3,9 | 4,8 | 7,8 |
| | Bizkaia-Kosta | 4,0 | ,9 | 3,5 | 3,9 | 5,4 | 4,7 |
| | Durangaldea | 3,6 | 4,7 | 8,0 | 3,8 | 7,2 | 4,1 |
| | Donostialdea | 4,0 | 3,2 | 6,7 | 2,2 | 5,8 | 10,1 |
| | Tolosa-Goierri | 1,9 | ,7 | 5,7 | 1,6 | 7,0 | 5,8 |
| | Debagoiena | 4,3 | ,3 | 5,9 | 5,9 | 5,5 | 7,3 |
| | Debabarrena | 2,1 | ,1 | 3,2 | 1,2 | 8,0 | 16,9 |
| | Guztira | 4,9 | 3,2 | 7,2 | 3,6 | 5,6 | 7,9 |

## 5. Lan-merkatuan lanerako prest dagoen biztanleria

41. Biztanleria landunari eta ez-aktiboari buruzko datuetan ikusi den bezala, EAEko lan-merkatuan lan-indarraren egiazko eskaintza ez da langabeen taldera soilik mugatzen (talde horretako batzuk, gainera, jada ez daude egiaz lanerako prest, jada aurkitu duten lan batean hastear baitaude). 2010. urteko laugarren hiruhilekoan, EAEn beste lan bat lortzeko prest dauden 16-64 urteko pertsonen egiazko kopurua 169.952 da. Talde horren % 61,1 langabeek osatzen dute (103.887 pertsonak), % 19,9 landunek (33.780 pertsonak) eta % 19 Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LNE) eta Eurostaten araudian inspiraturiko BJA metodologia aplikatuta ez-aktibotzat harturikoek (32.285 pertsonak).

Talde hori bilakaera-ikuspegi batetik kontuan hartzean, euskal lan-merkatuaren irudiak ageri-agerian islatzen du 2007-2010 aldian izan duen krisialdia. 2007an eraginpean hartutako 71.146 pertsonekin alderatuta, ia % 138,9 igo da lanerako prest dauden 16-64 urtekoen kopurua. Hazkunderik handiena, % 231,6arekin, langabeei dagokie 2007-2010 aldian, lanerako prest dauden pertsona ez-aktiboei dagokien % 109,9aren gainetik eta 15 eguneko epean beste lanpostu bat onartzeko prest egongo liratekeen landunen % 38,2aren gainetik. Azken talde horren kopurua jaitsi egin da 2009tik 2010era bitarte, 2007-2009 biurtekoan igoera handia izan ondoren.

Bestalde, esan behar da lanerako prest dauden 169.952 pertsonek 2010ean % 27,8an gainditu dutela 2001eko zifra. Hazkunde hori % 0,6 baino ez da izan beste enplegu bat bilatzen ari diren landunei dagokienez, baina % 36,9 lanerako prest dauden langabeen eta ez-aktiboen baturari dagokionez (136.172 kasu 2010ean, eta 99.459 2001ean). Garrantzizkoa da egiaztatzea 2010ean lanerako prest dauden langabeen eta ez-aktiboen kopurua 2001-2010 aldiko zifrarik altuena dela, 2001-2003 aldiko 100.000 pertsona inguruko zifrak eta 2009ko 112.274 ingurukoak gainditzen baititu.

**Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleriaren bilakaera, jarduerarekiko erlazioaren arabera**
**2001-2010 aldia**
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

| Jarduerarekiko erlazioa | Absolutuak | | | | | | Hazkundearen %-a 2007/2010 | % bertikalak | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2001 | 2003 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | | 2001 | 2003 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
| Landuna | 33.575 | 28.027 | 35.242 | 24.435 | 36.079 | 33.780 | 38,2 | 25,2 | 21,9 | 30,4 | 34,3 | 24,3 | 19,9 |
| Langabea | 75.565 | 86.504 | 49.100 | 31.330 | 89.031 | 103.887 | 231,6 | 56,8 | 67,4 | 42,4 | 44,0 | 60,0 | 61,1 |
| Ez-aktiboa | 23.893 | 13.737 | 31.433 | 15.380 | 23.243 | 32.285 | 109,9 | 18,0 | 10,7 | 27,2 | 21,6 | 15,7 | 19,0 |
| Guztira | 133.033 | 128.268 | 115.775 | 71.146 | 148.353 | 169.952 | 138,9 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

Oharra: Landunen kasuan, inkesta egin zenean betetzen zen enplegua ez den beste batean 15 eguneko epean hasteko prest daudenak hartu dira kontuan, ez, ordea, beste lan batean hastear dauden langabeak.

2007-2010 aldian ikusitako bilakaera negatiboaren emaitza lanerako prest dauden pertsonen proportzioaren edo *prestasun-tasaren* hazkunde handia da, EAEko 16-64 urteko biztanleriari

dagokionez. 2007an % 5eko gutxienekoa lortu ondoren, 2007-2010 aldiko krisiaren ondorioz, % 11,7an kokatu da prestasun-tasa 2010. urtearen amaieran, 6,7 puntu 2007an lorturiko gutxienekoaren gainetik. Hamarkada horretako tasarik handiena da, 2009ko % 10,2a nahiz 2001-2003 aldiko % 9,1etik % 9,9ra bitarteko zifrak baino handiagoa.

**Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleriaren bilakaera 2001-2010 aldia**

(Prestasun-tasa, %-tan)

| Urtea | Prestasun-tasa |
|---|---|
| 2001 | 9,3 |
| 2002 | 9,9 |
| 2003 | 9,1 |
| 2005 | 8,1 |
| 2006 | 6,0 |
| 2007 | 5,0 |
| 2009 | 10,2 |
| 2010 | 11,7 |

42.2009an gertatu zen bezala, eta ordura arte ikusitakoa ez bezala, lanerako prest dagoen biztanleriaren zatirik handiena, guztizkoaren % 52, gizonek osatu dute 2010ean. Prestasunaren intzidentzia ia puntu bat handiagoa izan da gizonen artean azken urtean (% 12,1; emakumeen kasuan, berriz, % 11,3). 2007-2010 aldian 7,9 puntu igo da gizonen prestasun-tasa; emakumeen kasuan, berriz, % 5,5. 2009tik 2010era bitarte, ordea, gehiago igo da emakumeen prestasun-tasa (1,7 puntu; gizonen kasuan, berriz, 1,3), eta zirkunstantzia horrek esan nahiko luke hamarkadan ikusitako joera aldatu egin dela eta emakumeen adierazlearen diferentzialak bilakaera hobea izan duela.

**Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria, sexuaren arabera. 2010**

(Datu absolutuak, % bertikalak eta prestasun-tasa %-tan 2001-2010 aldirako)

| Sexua | Prest dago | | Prestasun-tasa | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Abs. | % ber. | 2001 | 2003 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
| Gizonak | 88.436 | 52,0 | 7,3 | 8,0 | 6,9 | 4,2 | 10,7 | 12,1 |
| Emakumeak | 81.515 | 48,0 | 11,4 | 10,2 | 9,2 | 5,8 | 9,7 | 11,3 |
| Guztira | 169.952 | 100 | 9,3 | 9,1 | 8,1 | 5,0 | 10,2 | 11,7 |

Lanerako prest dagoen biztanleriaren % 60,1 20-39 urtekoen adin-tartean bilduta dago, % 29,6 20-29 urtekoen tartean, eta % 30,5 30-39 urtekoen tartean. 40-49 urteko pertsonak beste % 22,2 garrantzitsu bat dira, 50 urtetik gorakoak % 15,8, eta 20 urtetik beherakoak % 1,8 baino ez.

20 urtetik beherako pertsonen kasuan izan ezik (adin-tarte horretan biztanleriaren % 4,3 baino ez dago prest beste enplegu bat lortzeko), prestasun-tasa gehieneko mailetara iritsi da gazteenen artean, eta tasa hori txikiagoa da adinean gora egin ahala. Gehieneko mailak 20-29 urtekoen artean agertzen dira. Adin horietan, biztanleriaren % 20 inguruk adierazi baitu beste enplegu bat lortzeko prest dagoela (% 19,5 20-24 urtekoen artean, % 22 25-29 urtekoen artean). Zifrak % 13,5etik % 15,5era bitartekoak dira 30-39 urtekoen artean (% 15,5 30-34 urtekoen artean eta % 13,6 35-39 urtekoen kasuan). Zertxobait txikiagoak badira ere, tasek oraindik ere gainditu egiten dute % 10eko atalasea 40-49 urtekoen artean (% 12,2 40-44 urtekoen artean eta % 10,2 45-49 urtekoen artean), eta atalase horretara hurbiltzen da 50-54 urteko pertsonen adierazlea (% 8,3). Prestasun-tasak % 6,5era jaisten dira 55-59 urtekoen artean, eta gutxieneko % 2,5ean kokatzen dira 60-64 urtekoen kasuan.

Prestasun-tasaren azkenaldiko bilakaerak adin guztien okerragotze orokorra erakusten du. Nolanahi ere, batez ere 20-29 urtekoen artean ikusten da prestasun-tasek gora egin dutela 2007-2010 aldian. Jaitsiera handiagoa izan da 25-29 urtekoen taldean (13 puntu; aitzitik, 9,7 20-24 urtekoen artean), 2009tik 2010era bitarte ere behera jarraitu duelako, baina adierazlea % 18,1etik % 22ra igo da 20-24 urtekoen taldeak izandako % 20,9tik 19,5era bitarteko jaitsierari kontrajarririk. Era berean, jaitsiera garrantzitsua izan da 30-49 urtekoen artean, prestasun-tasa 6,7 puntutik 8,4 puntura igo baita 2007-2010 hirurtekoan. Igoera hori 5 puntu ingurukoa izan da 50-59 urtekoen artean, eta zifrak 2 puntutik zertxobait beheragokoak izan dira 20 urtetik beherakoen edo 60 urtetik gorakoen kasuan.

20 urtetik beherakoen kasuan izan ezik (zifrak oso antzekoak izan dira bi urte horietan), beste adin-taldeetan 2010eko prestasun-tasak 2001ean ikusitakoak baino handiagoak izan dira, 1,5 puntutik gora handiagoak. Alde handienak (3,5 puntutik 4,5 puntura bitarteko igoerekin), ordea, 20-29 urtekoei eta 40-59 urtekoei dagozkie.

**Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria, adinaren arabera. 2010**

(Datu absolutuak, % bertikalak eta prestasun-tasa %-tan 2001-2010 aldirako)

| Adina | Prest dago | | Prestasun-tasa | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Abs. | % ber. | 2001 | 2003 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
| 16-19 | 3.133 | 1,8 | 4,0 | 4,6 | 4,4 | 2,5 | 3,5 | 4,3 |
| 20-24 | 19.643 | 11,6 | 16,0 | 18,2 | 13,7 | 9,8 | 20,9 | 19,5 |
| 25-29 | 30.595 | 18,0 | 17,8 | 16,9 | 15,3 | 9,0 | 18,1 | 22,0 |
| 30-34 | 26.709 | 15,7 | 13,2 | 12,9 | 11,1 | 7,1 | 16,2 | 15,5 |
| 35-39 | 25.198 | 14,8 | 12,0 | 9,6 | 9,6 | 5,9 | 12,1 | 13,6 |
| 40-44 | 21.191 | 12,5 | 7,9 | 8,4 | 7,3 | 5,1 | 8,2 | 12,2 |
| 45-49 | 16.567 | 9,7 | 5,7 | 5,7 | 6,4 | 3,5 | 8,0 | 10,2 |
| 50-54 | 14.499 | 8,5 | 4,4 | 4,0 | 4,1 | 3,0 | 6,9 | 8,3 |
| 55-59 | 9.196 | 5,4 | 3,2 | 2,9 | 3,5 | 1,7 | 4,4 | 6,5 |
| 60-64 | 3.220 | 1,9 | ,7 | 1,3 | 1,2 | ,6 | 1,6 | 2,5 |
| Guztira | 169.952 | 100 | 9,3 | 9,1 | 8,1 | 5,0 | 10,2 | 11,7 |

Beste enplegu bat lortzeko prest dagoen taldean, azpimarratzekoa da askok nolabaiteko ikasketa-maila dutela. Horri dagokionez, biztanleria horren % 51k lanbide-mailako edo unibertsitate-mailako ikasketak ditu. % 19,7k lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak ditu, eta gainerako % 29,3ak ez du ikasketarik edo lehen mailako ikasketak ditu.

2010ean, prestasun-tasak homogeneo samarrak izan dira ikasketa-mailaren arabera. Salbuespen bakarra unibertsitate-mailako ikasketak dituztenak izan dira. Gehienez ere lehen mailako ikasketak dituztenen artean, prestasun-tasa % 12,1 izan da, % 13 inguru bigarren mailako ikasketak (lanbide-ikasketak edo lanbidekoak ez direnak) dituztenen artean, eta % 9,1 unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen artean.

Nabarmena da unibertsitateko titulazioa duen biztanleriak hobeto erantzuten diola krisialdi ekonomikoari. Alde batetik, prestasun-tasaren hazkundea askoz txikiagoa izan da 2007-2010 aldian (4,3 puntu; gainerako biztanleriaren kasuan, aldiz, 7,5 puntutik 7,9 puntura bitarteko zifrak daude); bestalde, jaitsiera eten egin da 2009an, tasa 0,3 hamarren eskas igo baita 2009tik 2010era bitarte. Lanbide-ikasketak dituzten pertsonen kasuan, 1,5 puntu igo da, lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituen biztanleriaren kasuan 1,7, eta gehienez ere lehen mailako ikasketak egin dituztenen kasuan, berriz, 2,4.

Joera horiek erabat hautsi dute 2001-2003 aldiko bilakaera, ikasketa-maila hobetzearekin batera prestasun-tasak etengabe igotzea ezaugarri duen bilakaera, alegia. Izan ere, unibertsitateko biztanleriaren prestasun-tasa 2001eko tasa baino 3,3 puntu txikiagoa izan da 2010ean, baina lanbide-ikasketak dituztenen kasuan 2,1 puntu handiagoa da, eta 4,5 puntutik gora handiagoa heziketa-maila txikiagoa duten pertsonen kasuan (4,6 gehienez ere lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen kasuan, eta 5,9 lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituztenen kasuan). Beraz, argi dago lanbide- edo unibertsitate-mailako ikasketak izatea lagungarria dela prestakuntza mota hori duten pertsonek lan-merkatuaren krisialdiaren ondorioz sortutako egoerara egokitzeko gaitasun handiagoa izateko.

**Lanerako prest dagoen 16-64 urte urteko biztanleria, ikasketa-mailaren arabera. 2010**

(Datu absolutuak, % bertikalak eta prestasun-tasa %-tan 2001-2010 aldirako)

| Ikasketa-maila | Prest dago | | Prestasun-tasa | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Abs. | % ber. | 2001 | 2003 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
| Lehen mailako ikasketak edo gutxiago | 49.791 | 29,3 | 7,6 | 5,8 | 7,0 | 4,6 | 9,8 | 12,1 |
| Bigarren mailakoak | 33.516 | 19,7 | 7,3 | 8,7 | 7,5 | 5,5 | 11,4 | 13,2 |
| Lanbide-ikasketak | 48.818 | 28,7 | 11,0 | 10,7 | 9,2 | 5,2 | 11,7 | 13,1 |
| Unibertsitate-ikasketak | 37.827 | 22,3 | 12,4 | 12,8 | 9,0 | 4,8 | 8,8 | 9,1 |
| Guztira | 169.952 | 100 | 9,3 | 9,1 | 8,1 | 5,0 | 10,2 | 11,7 |

43.Eskualdeak kontuan hartuta, egiaztatu da EAEn enplegurako prest dagoen biztanleriaren % 45,9 Bilboko eremuko hiru eskualdeetan bizi dela, bereziki Bilbon eta Ezkerraldean (egoera horretan daudenen % 38,6 biltzen dute eskualde horiek). Beste % 20,4 Donostialdean metatzen da, eta Gasteizen, berriz, lanerako prest daudenen % 15,8. Atzetik, Bizkaiko gainerako eskualdeak daude, % 8,7rekin, Gipuzkoako gainerakoak, % 7,3rekin, eta Aiaraldea, % 1,9rekin.

2007-2010 aldiko krisialdiaren ondorioz, prestasun-tasak nabarmen igo dira Euskadiko eskualde guztietan, baina alde handiak daude haien artean. Izan ere, 7,3 puntura igo da diferentziala prestasun-tasetan posiziorik onenean eta okerrenean dauden eskualdeen artean, 2001eko 9,3 puntuetatik behera oraindik, baina 2007ko 3,5 puntuetatik nahiz 2009ko 5,8etatik gora.

Gasteiz da krisialdiaren ondorioa gehien pairatu duen eskualdea, prestasun-tasa 9,1 puntu igo baita 2007-2010 aldian, eta % 198 beste enplegu bat lortzeko prest dauden pertsonen kopuruari dagokionez. Gasteiz da 2010ean prestasun-tasa handiena duen EAEko eskualdea; izan ere, tasa hori 2007an % 5 eskas izatetik 2009an % 11,2 eta 2010ean % 14,2 izatera igaro da. Era horretan, 2009tik 2010era bitarte luzatu egin da jaitsiera nabarmena, eskualde horretako adierazlea 2001ean zuen adierazlea baino 6,3 puntu gorago kokatzen duen jaitsiera, alegia.

Prestasun-tasen igoera ere nabarmena izan da, 2010eko zifrak 2007koak baino handiagoak baitira Arabako Aiaraldean, Bilboko eremuko hiru eskualdeetan, Donostialdean eta Debabarrenan (6,4 puntutik 7,4 puntura bitarte). Ezkerraldean eta Debabarrenan, 2009tik 2010era bitarte, egonkortasuna izan da tasen igotze-prozesuan, eta nolabaiteko jaitsiera Ezkerraldean (% 12,6tik % 12,3ra bitartekoa); aintzat hartutako gainerako eskualdeetan, aldiz, sendotu egin da 2009tik 2010era bitarte Gasteizen ezaugarri izan den prestasun-tasaren hazkundea.

Aintzat hartutako eskualdeei dagokienez, Bilboko prestasun-tasa Gasteizko prestasun-tasaren mailetatik hurbil dago. Tasa hori ez bezala, 2010eko % 14,1ak 2001eko % 13,3ko zifraren ildotik jarraitzen du, hots, urte hartan EAEn izan zen zifrarik altuenaren ildotik. Gainerako eskualdeak, bestalde, % 10,8tik % 12,3ra bitarteko zifretan daude prestasun-mailei dagokienez. Bilbon bezala, aldea oso txikia izan da 2001eko tasarekin alderatuta, 1,5 punturen ingurukoa edo hortik beherakoa Aiaraldearen, Eskuinaldearen eta Ezkerraldearen kasuan; izan ere eskualde horietako prestasun-tasa % 9,9tik % 10,6ra bitartekoa izan zen 2001ean. Igoera, ordea, ia hiru puntukoa izan da Donostialdean (% 11,2 2010ean; aitzitik, % 8,4 2001ean) eta Debabarrenan 8,1eraino iritsi da (12,1; aitzitik, % 4 erreferentziazko bi urteetan). Azken eskualde hori eta Gasteiz EAEko prestasun-tasa txikienak zituzten eskualdeen artean zeuden 2001ean, baina 2010ean(*) kasu gehien biltzen dituzten eskualdeak dira Euskadin. Gasteizen kasuan ez bezala, ordea, badirudi jaitsiera horrek muga bat duela 2009tik 2010era bitarte Debabarrenan, tasaren igoera oso txikia izan baita aldi horretan (% 11,7 eta % 12,1, hurrenez hurren).

2007-2010 aldian prestasun-tasaren igoera txikiena (nolanahi ere, 3,4 puntutik 5 puntura bitartekoa da oraindik ere) izan duten eskualdeak honako hauek dira: Bizkaia-Kosta, Durangaldea, Tolosa-Goierri eta Debagoiena. Egoera hori 2009tik 2010era bitarte tasaren igoerak izan duen gelditze garbiari lotuta dago; izan ere, aipatutako azken hiru eskualde horiei dagokienez, tasa horretan jaitsierak izan dira aldi horretan. Jaitsiera bereziki deigarria da Durangaldean (% 11tik % 8,5era bitartekoa).

Testuinguru positiboago horretan, aipatutako lau eskualdeek EAEko prestasun-tasa txikienak izan dituzte 2010ean. Bizkaia-Kostan eta Durangaldean % 8,5etik % 9,6ra bitartekoak izan dira, eta % 6,8tik % 7,4ra bitartekoak Debagoienan eta Tolosa-Goierrin. Tasa horiek 2001eko tasekin alderatzen baditugu, 1,7 puntutik 2,3 puntura bitarteko igoera izan dute 2010ean Bizkaia-Kostan eta Tolosa-Goierrin, baina igoera hori 0,7 puntukoa baino ez da izan Debagoienan, eta 0,2koa Durangaldean.

Prestasun-tasa eskualdeko lan-merkatuaren egoera neurtzeko adierazle onenetako bat den neurrian, adierazle horri buruzko 2010eko datuek aldaketa garrantzitsu batzuk islatzen dituzte dimentsio horretan gehien edo gutxien faboraturiko eskualdeen sailkapenean. Bizkaia-Kosta, Durangaldea, Tolosa-Goierri eta Debagoiena sendotu egin dira EAEko batez bestekoa baino txikiagoak diren mailetan (2001ean ere ezaugarri hori zuten), Aiaraldea eta Bilboko eremuko hiru eskualdeak, aldiz, hain positiboak ez diren posizioetan daude; Gasteiz eta Debabarrena nabarmentzen dira beren adierazleen beherakada handia izan delako, eskualde horietan 2001ean prestasun-tasak EAEko batez besteko zifretatik beherakoak izatetik gorakoak izatera igaro baitira 2010ean. Joera hain muturrekoa ez bada ere (prestasun-tasa horiei EAEko batez bestekotik behera eutsi zaie bi urte horietan) ikusitako okerragotze-prozesu horrek eragin dio Donostialdeari ere neurri batean. Kasu horretan, 2010eko tasa 2001ekoa baino 2,9 puntu handiagoa izan da (% 11,2 eta % 8,4, hurrenez hurren).

Donostialdearen (bazirudien 2007-2009 aldian eremu horretan EAEko gainerako eskualde gehienetan baino hobeto eusten zitzaiela krisi-garai berriei) okerragotze konparatiboak bere kontrapuntu positiboa du Durangaldean. 2007-2009 aldian eskualde horretan gertatutakoak posizioak galtzen zituzten eskualdeetan (Gasteiz eta Debabarrena) ikusitakora hurbiltzen zuen eskualde hori, prestasun-tasa % 3,5etik % 11ra igo baitzen. Debabarrena egonkortu egin da, eta Gasteizen luzatu egin da krisialdia, baina Durangaldea suspertu egin da 2009tik 2010era bitarte; izan ere, prestasun-tasa % 8,5era jaitsi da 2010ean. Zifra horrek erakusten du eskualde-arloko hazkundea 2001ekoa baino txikiagoa izan dela, 2001ean % 8,3 izan baitzen.

**Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleriaren bilakaera, eskualdearen arabera. 2001-2010 aldia**

(Datu absolutuak)

| Eskualdea | Absolutuak | | | | | | Hazkundearen %-a 2007/2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2001 | 2003 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | |
| Gasteiz | 13.615 | 13.424 | 9.651 | 9.025 | 21.217 | 26.897 | 198,0 |
| Aiaraldea | 2.732 | 2.991 | 1.679 | 1.239 | 2.089 | 3.181 | 156,8 |
| Eskuinaldea | 11.395 | 14.106 | 10.686 | 5.034 | 9.889 | 12.308 | 144,5 |
| Bilbo | 30.849 | 24.376 | 27.874 | 15.350 | 25.408 | 32.898 | 114,3 |
| Ezkerraldea | 28.574 | 29.934 | 26.178 | 13.647 | 33.580 | 32.753 | 140,0 |
| Bizkaia-Kosta | 5.653 | 4.343 | 4.984 | 4.318 | 7.373 | 7.926 | 83,6 |
| Durangaldea | 6.410 | 4.760 | 5.519 | 2.750 | 8.946 | 6.838 | 148,7 |
| Donostialdea | 25.651 | 26.163 | 21.532 | 14.485 | 27.245 | 34.735 | 139,8 |
| Tolosa-Goierri | 4.104 | 4.652 | 4.381 | 2.288 | 5.619 | 5.347 | 133,7 |
| Debagoiena | 2.604 | 1.519 | 1.860 | 1.400 | 2.818 | 2.792 | 99,5 |
| Debabarrena | 1.446 | 2.001 | 1.433 | 1.611 | 4.169 | 4.274 | 165,4 |
| Guztira | 133.033 | 128.268 | 115.775 | 71.146 | 148.353 | 169.952 | 138,9 |

**Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria, eskualdearen arabera 2010**

(Datu absolutuak, % bertikalak eta prestasun-tasa %-tan 2001-2010 aldirako)

| Eskualdea | Prest dago | | Prestasun-tasa | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Abs. | % ber. | 2001 | 2003 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
| Gasteiz | 26.897 | 15,8 | 7,9 | 7,8 | 5,4 | 5,0 | 11,2 | 14,2 |
| Aiaraldea | 3.181 | 1,9 | 9,9 | 10,9 | 5,9 | 4,4 | 7,1 | 10,8 |
| Eskuinaldea | 12.308 | 7,2 | 10,3 | 13,0 | 9,7 | 4,6 | 8,9 | 11,0 |
| Bilbo | 32.898 | 19,4 | 13,3 | 10,6 | 11,9 | 6,7 | 10,9 | 14,1 |
| Ezkerraldea | 32.753 | 19,3 | 10,6 | 11,3 | 9,7 | 5,2 | 12,6 | 12,3 |
| Bizkaia-Kosta | 7.926 | 4,7 | 7,3 | 5,7 | 6,4 | 5,3 | 8,9 | 9,6 |
| Durangaldea | 6.838 | 4,0 | 8,3 | 6,2 | 7,1 | 3,5 | 11,0 | 8,5 |
| Donostialdea | 34.735 | 20,4 | 8,4 | 8,6 | 7,0 | 4,7 | 8,8 | 11,2 |
| Tolosa-Goierri | 5.347 | 3,1 | 5,7 | 6,5 | 6,0 | 3,2 | 7,7 | 7,4 |
| Debagoiena | 2.792 | 1,6 | 6,1 | 3,6 | 4,4 | 3,5 | 6,9 | 6,8 |
| Debabarrena | 4.274 | 2,5 | 4,0 | 5,6 | 3,9 | 4,6 | 11,7 | 12,1 |
| Guztira | 169.952 | 100 | 9,3 | 9,1 | 8,1 | 5,0 | 10,2 | 11,7 |

## 6. Azken urtean enpleguarekin izandako harremana

44. Orain arte aurkeztutako datuak 2010. urtearen azken hiruhilekoan izandako jardueraren egoerari buruzkoak dira. Nolanahi ere, interesgarria da adin potentzialki aktiboan dagoen biztanleriak urte osoan lanarekin duen harremana aztertzea. Mota horretako hurbilketa egiten badugu, egiaztatuko dugu azken urtean Euskal Autonomia Erkidegoko 16-64 urteko biztanleriaren % 70,4k enpleguarekin harremanen bat izan duela. Krisia gorabehera, proportzio hori krisialdiaren aurreko aldietako proportziotik hurbil dago oraindik ere (2005ean % 70,5 zen, 2001eko % 64,3a baino handiagoa). Hala eta guztiz ere, 2009an hasitako jaitsieraren jarraipena dagoela ikusten da, azken urte horretan % 71,1 baitzen, 2007ko % 71,9a (gehienekoa) baino zertxobait txikiagoa.

Inkesta egin aurreko hamabi hilabeteetan, 16-64 urteko biztanleriaren % 5,6 okupatuta egon da 6 hilabete baino gutxiagotan, % 3,4 6-9 hilabetean, % 3,9 9-12 hilabetean, eta % 57,5 modu jarraituan. Azken zifra hori 2001-2003 aldikoa baino handiagoa da (% 52,3 2001ean eta % 53,6tik % 53,7ra bitartekoa 2002an eta 2003an). Hala eta guztiz ere, ikus dezakegu nabarmen murriztu dela 2007ko % 60,9arekin alderatuta, eta murrizketa hori areagotu egin dela 2009tik 2010era bitarteko aldian, urte batean 1,9 puntuko jaitsiera izan baita, 2007-2009 biurtekoan, aldiz, 1,6 puntukoa izan zen. Oro har, landun jarraituen kopurua % 4 jaitsi da azken hirurteko honetan, 2007an 868.793 pertsona izatetik 2010ean 834.283 izatera igaro baitira. 16-64 urteko biztanleriaren hazkunde absolutuaren ondorioz, azken zifra hori 2005ekoa baino zertxobait handiagoa da oraindik (828.459 pertsona urte hartan), nahiz eta landun jarraituen 2010eko proportzioa 2005ekoa baino hamarren batzuk txikiagoa den (% 57,5 urte batean, eta, aldiz, % 57,8 bestean).

2010ean beren enpleguan era jarraituan landun izan diren pertsonen proportzioak 2007ko zifrarekin alderatuta izan duen 3,4ko beherakada konpentsatu egin da, neurri batean, azken hamabi hilabeteen barruan noizbait landun izan diren 16-64 urteko biztanleen gehikuntzarekin (% 12,9 2010ean; aitzitik, % 11,8 2009an eta % 11 2007an). Bilakaera horrek adierazten du urteko uneren batean enplegu bat lortzen duten, baina hamabi hilabeteetan enplegu horri era jarraituan eutsi ezin dioten biztanleen kopuruan gehikuntza handia izan dela. Egoera horretan dauden pertsonen kopurua etengabe handitu da, 2007an 156.760 baitziren eta 2010ean, aldiz, 186.961; beraz, % 19,3ko igoera izan da 2007-2010 hirurtekoan.

**16-64 urteko biztanleria, azken urtean lanean emandako denboraren arabera. 2005-2010 aldia**

(Datu absolutuak, % bertikalak eta hazkundearen % 2007-2010 aldian %-tan)

| Lanean emandako denbora | Absolutuak | | | | Hazkundearen %-a | % bertikalak | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | 2007/2010 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
| 12 hilabete | 828.459 | 868.793 | 862.015 | 834.283 | -4,0 | 57,8 | 60,9 | 59,4 | 57,5 |
| 9-11 hilabete | 49.469 | 42.164 | 41.117 | 56.867 | 34,9 | 3,5 | 3,0 | 2,8 | 3,9 |
| 6-8 hilabete | 51.892 | 39.947 | 46.790 | 49.323 | 23,5 | 3,6 | 2,8 | 3,2 | 3,4 |
| < 6 hilabete | 80.830 | 74.649 | 82.762 | 80.771 | 8,2 | 5,6 | 5,2 | 5,7 | 5,6 |
| Batere ez | 422.954 | 400.407 | 419.256 | 429.881 | 7,4 | 29,5 | 28,1 | 28,9 | 29,6 |
| Guztira | 1.433.604 | 1.425.959 | 1.451.941 | 1.451.124 | 1,8 | 100 | 100 | 100 | 100 |

2010eko azken hiruhilekoan lanean jardun duten pertsonen % 11,2k ez du lortu modu jarraituan jardutea lanean urte osoan. 2009tik 2010era bitarte Euskadin izandako aldi baterako kontratazioaren eta okupazio jarraituaren beherakada garrantzitsuaren gorakadaren isla gisa, datu horrek erakusten du adierazle horren beheranzko joera eten egin zela 2006-2009 aldian, etengabeko jaitsierak izan baitira 2006ko % 13,6tik 2009ko % 9,2ra. Hala eta guztiz ere, 2010eko zifra 2001-2006 aldiaren ezaugarri diren % 12,5etik 15,5era bitarteko zifrak baino txikiagoa da.

Lanik ez duen biztanleriari dagokionez, 2010aren amaieran langabezian zegoen biztanleriaren % 40,77k erlazio motaren bat izan du enpleguarekin azken urtean. Zifra horrek 2001eko % 35,3a gainditzen du eta 2002ko % 40,9aren ildoan dago; bi urte horien ezaugarria izan zen langabezia-kopurua gaur egungoaren antzekoa izan zela. Nolanahi ere, 2007ko % 46,4a eta 2009ko % 47a baino txikiagoa da. Kontuan hartzen badugu adierazle hori % 50etik hurbileko mailetara iristen zela 2003-2006 aldian, egiazta dezakegu 2003tik aurrera igo egin dela langabeak okupazioaren munduan sartzeko zailtasuna. Zirkunstantzia hori 2009ra bitarte enplegu mugagabean izandako hazkundearekin zerikusia duen lanpostuen finkatzearekin lotzen zen, baina enplegu mota hori 2009tik 2010era bitarte jaitsi izanak erakusten du lan-merkatuaren azken dinamika gehiago lotzen dela enplegu-aukerarik ez izatearekin.

Azken urtean enpleguarekin harremanen bat izan duten pertsonen proportzioa % 10,1era iritsi da, bestalde, biztanleria ez-aktiboan. Zifra hori 2009ko 10,5a baino txikiagoa den arren, 2001eko eta 2002ko zifren gainetik dago kasu honetan (% 5,7 eta % 7,5, hurrenez hurren), baita 2003-2007 aldian ikusitakoen gainetik ere, aldi horretan gehieneko zifra % 9,8 izan baitzen 2003an.

**16-64 urteko biztanleria, jarduerarekiko gaur egungo erlazioaren eta azken urtean lanean emandako denboraren arabera 2010**

(% bertikalak)

| Lanean emandako denbora | Jarduerarekiko erlazioa | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Landuna | Langabea | Ez-aktiboa | Guztira |
| 12 hilabete | 88,8 | ,7 | ,1 | 57,5 |
| 9-11 hilabete | 4,2 | 8,4 | 2,1 | 3,9 |
| 6-8 hilabete | 2,5 | 13,0 | 2,9 | 3,4 |
| < 6 hilabete | 4,4 | 18,6 | 4,9 | 5,6 |
| Batere ez | ,0 | 59,3 | 89,9 | 29,6 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 |

45.Landun jarraituen proportzioa 2007-2010 aldian nabarmen jaitsi izanak 16-64 urteko gizonak hartzen ditu eraginpean bereziki. Kasu horretan, adierazlea 8,4 puntu jaitsi da aldi horretan, % 71,9tik % 63,6ra, eta ikus dezakegu argi eta garbi 2010ean txikiagoa izan dela, bai 2007ko zifra baino txikiagoa, baita 2005ekoa baino txikiagoa (% 69,5) ere. 2009tik 2010era bitarte % 52,1etik % 51,3ra jaitsi bada ere, 16-64 urte emakume landun jarraituen proportzioa 2007ko % 49,7aren eta 2005eko % 45,8aren gainetik dago.

**Azken urtean modu jarraituan jardun duen 16-64 urteko biztanleria, sexuaren arabera 2005-2010 aldia**

(erreferentziazko biztanleriaren %-a)

| Sexua | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|
| Gizonak | 69,5 | 71,9 | 66,5 | 63,6 |
| Emakumeak | 45,8 | 49,7 | 52,1 | 51,3 |
| Guztira | 57,8 | 60,9 | 59,4 | 57,5 |

Okupazio jarraituak garrantzia galdu izanak 20-29 urtekoei eragin die bereziki, 2007-2010 aldian 10 puntutik gorako jaitsierak izan baitira (% 32,2tik % 21,9ra 20-24 urtekoen kasuan, eta % 63,9tik % 52,8ra 25-29 urtekoetan). Bi kasuetan, murrizketaren ondorioz adierazlea 2005eko adierazlearen azpitik geratu da (% 31,2 eta % 59,6). Errealitate hori bera ikus daiteke 2007-2010 aldian 30-49 urtekoen artean, baina kasu horretan okupazio jarraituaren adierazlea neurri txikiagoan jaitsi da: 3,2 puntutik 6,6 puntura bitarte. Aitzitik, okupazio jarraituaren zifra egonkor samarra izan da edo igo egin da 50 urteko edo urte gehiagoko pertsonen kasuan; nolanahi ere, 2010eko adierazlea 2005ekoa baino handiagoa da.

**Azken urtean modu jarraituan jardun duen 16-64 urteko biztanleria, adinaren arabera. 2005-2010 aldia**

(erreferentziazko biztanleriaren %-a)

| Adina | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|
| 16-19 | 2,3 | 3,5 | 2,5 | ,9 |
| 20-24 | 31,2 | 32,2 | 29,0 | 21,9 |
| 25-29 | 59,6 | 63,9 | 59,2 | 52,8 |
| 30-34 | 72,0 | 75,3 | 70,8 | 68,7 |
| 35-39 | 73,4 | 76,5 | 73,2 | 73,3 |
| 40-44 | 74,4 | 77,2 | 75,1 | 71,7 |
| 45-49 | 73,9 | 77,4 | 74,3 | 73,2 |
| 50-54 | 65,4 | 69,5 | 69,2 | 68,6 |
| 55-59 | 52,2 | 55,0 | 59,3 | 58,7 |
| 60-64 | 26,2 | 26,0 | 26,9 | 28,8 |
| Guztira | 57,8 | 60,9 | 59,4 | 57,5 |

Lanbide-egoerari dagokionez, garrantzitsua da egiaztatzea 2007-2010 aldian okupazio jarraituaren adierazlearen murrizketa Administrazio Publikoko soldatapekoen eta aldi baterako kontratua duten soldatapekoen artean soilik nabarmendu dela (puntu 1etik gorako beherakada izan da). Lehenengo kasuan, okupazio jarraitua duten pertsonen proportzioa 2007-2009 aldiko % 92,5etik 2010eko % 89,9ra murriztu da; bigarren kasuan, jaitsiera honako hau izan da: 2007ko % 63tik 2009ko % 61era eta 2010eko % 53,9ra. Bi kasu horietan, 2010eko adierazleak 2005eko adierazletara hurbiltzen dira.

**Azken urtean modu jarraituan jardun duen 16-64 urteko biztanleria, egungo lanbide-egoeraren arabera. 2005-2010 aldia**

(Erreferentziazko biztanleriaren %-a)

| Lanbide-egoera | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|
| Enplegatzailea | 97,6 | 97,7 | 98,9 | 97,2 |
| Autonomoa | 95,0 | 94,5 | 97,1 | 93,9 |
| Familia-laguntza | 90,7 | 94,8 | 82,2 | 97,1 |
| Kooperatibista | 97,2 | 98,4 | 96,6 | 98,4 |
| Administrazio Publikoko soldatapeko langilea | 89,8 | 92,4 | 92,3 | 89,9 |
| Enpresa Publikoko soldatapeko langilea | 89,4 | 92,0 | 92,3 | 91,4 |
| Enpresa pribatuko soldatapeko langilea | 84,6 | 87,4 | 89,1 | 86,9 |
| Beste egoera bat | 73,0 | 73,2 | 76,2 | 75,3 |
| Guztira | 87,3 | 89,4 | 90,8 | 88,8 |

**Azken urtean soldatapeko okupazio jarraitua izan duen 16-64 urteko biztanleria, kontratu motaren arabera 2005-2010 aldia**

(Erreferentziazko biztanleriaren %-a)

| Kontratu mota | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|
| Mugagabea | 96,3 | 96,5 | 96,1 | 96,4 |
| Aldi baterakoa | 53,7 | 63,1 | 61,0 | 53,9 |
| Kontraturik gabe | 67,4 | 72,2 | 74,1 | 70,9 |
| Guztira | 85,5 | 88,2 | 89,7 | 87,6 |

2007-2010 aldian, Gasteizen eta Eskuinaldean izan dira okupazio jarraituaren jaitsierarik nabarmenenak, 5 puntutik gorakoak (% 62,6tik % 56,4ra lehenengo kasuan, eta % 60,6tik % 55,4ra bigarrenean). Jaitsiera horiek 3,7 puntutik 4,4 puntura bitartekoak izan dira Bilbon, Durangaldean, Tolosa-Goierrin eta Debabarrenan. Eskualde multzo horretan, okupazio jarraituaren adierazleak Durangaldean eta Bilbon baino ez du jarraitu 2005eko adierazleen mailetatik hurbil edo gainetik.

EAEko beste eskualde batzuetan, 2007-2010 aldiko okupazio jarraituaren adierazlearen jaitsiera txikiagoa izan da (2 puntutik 3 puntura bitartekoa Airaraldean, Ezkerraldean, Bizkaia-Kostan eta Donostialdean). Aiaraldean eta Bizkaia-Kostan, okupazio jarraituaren 2010eko proportzioa 2005eko proportziotik hurbil samar dago, baina Donostialdean, behera egiteaz gain, okupazio jarraituaren maila txikiagoa izan da 2010ean (% 59,9; 2005ean, aldiz, % 61,4). Ezkerraldea da 2005eko adierazlearekin alderatuta 2010ean adierazle handiagoa izan duen kasu bakarra (% 56 eta % 52, hurrenez hurren).

Debagoienako egoera eta Donostialdekoa antzeko samarrak dira. 16-64 urteko biztanleriaren kasuan okupazio jarraituaren proportzioa 0,7 puntu jaitsi da 2007-2010 aldian, baina jaitsiera hori nabarmenagoa izan da 2005eko errealitatea aintzat hartzen badugu (okupazio jarraituaren % 65,1 urte horretan, eta % 62,9 2010ean).

**Azken urtean modu jarraituan jardun duen 16-64 urteko bizt., eskualdearen arabera. 2005-2010 aldia**

(erreferentziazko biztanleriaren %-a)

| Eskualdea | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|
| Gasteiz | 59,8 | 62,6 | 59,1 | 56,4 |
| Aiaraldea | 59,3 | 62,5 | 59,4 | 59,7 |
| Eskuinaldea | 56,8 | 60,6 | 58,6 | 55,4 |
| Bilbo | 53,9 | 58,5 | 59,4 | 54,8 |
| Ezkerraldea | 52,0 | 58,2 | 57,7 | 56,0 |
| Bizkaia-Kosta | 57,3 | 58,7 | 60,1 | 56,7 |
| Durangaldea | 59,7 | 63,8 | 57,5 | 59,7 |
| Donostialdea | 61,4 | 62,4 | 62,0 | 59,9 |
| Tolosa-Goierri | 65,9 | 65,9 | 59,1 | 62,2 |
| Debagoiena | 65,1 | 63,6 | 60,5 | 62,9 |
| Debabarrena | 58,9 | 61,2 | 54,9 | 56,8 |
| Guztira | 57,8 | 60,9 | 59,4 | 57,5 |

## 7. Lana bilatzeko neurriak.

46.Lan berri baten bila dabilen biztanleriaren kopurua (inkesta egin aurreko lau asteetan lana bilatzeko kudeaketa eraginkorrak egin dituena) 132.008 pertsona da, EAEko 16-64 urteko biztanleriaren % 9,1. Zifra horiek kontuan hartuta, ikus dezakegu 2009koak baino txikiagoak direla, urte hartan 135.904 pertsona (16-64 urteko biztanleriaren % 9,4) baitzeuden egoera horretan. Oraindik lana aurkitu ez duten langabeen kopurua 89.031tik 103.887ra igo da aldi honetan, baina lan-ikuspegirik ez izatearen ondorioz enplegu-kudeaketak egin dituzten landunen eta ez-aktiboen kopurua nabarmen jaitsi da: 32.625etik 22.786ra beste lan baten bila dabiltzan landunen kasuan, eta 14.248tik 5.335era lan batean hasteko prest dagoen biztanleria ez-aktiboaren kasuan.

**Lan bila dabilen eta kudeaketak egin dituen 16-64 urteko biztanleria, eskualdearen arabera**
**2001-2010 aldia**
(Datu absolutuak eta % 16-64 urteko biztanleriaren kasuan

| Eskualdea | Datu absolutuak | | | | | | % 16-64 urteko biztanleriaren kasuan | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2001 | 2003 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | 200 1 | 200 3 | 200 5 | 200 7 | 200 9 | 201 0 |
| Gasteiz | 11.348 | 12.454 | 6.687 | 6.740 | 22.019 | 20.372 | 6,6 | 7,3 | 3,7 | 3,7 | 11,6 | 10,7 |
| Aiaraldea | 2.203 | 2.561 | 945 | 639 | 2.912 | 2.330 | 8,0 | 9,3 | 3,3 | 2,3 | 9,9 | 7,9 |
| Eskuinaldea | 10.349 | 14.043 | 7.936 | 4.124 | 6.969 | 9.947 | 9,4 | 12,9 | 7,2 | 3,7 | 6,2 | 8,9 |
| Bilbo | 28.312 | 23.387 | 18.625 | 11.653 | 25.377 | 26.074 | 12,2 | 10,2 | 8,0 | 5,1 | 10,9 | 11,2 |
| Ezkerraldea | 22.533 | 26.066 | 18.495 | 10.029 | 32.445 | 26.253 | 8,4 | 9,8 | 6,9 | 3,8 | 12,2 | 9,9 |
| Bizkaia-Kosta | 5.070 | 5.045 | 4.304 | 3.129 | 6.193 | 7.208 | 6,5 | 6,6 | 5,5 | 3,8 | 7,5 | 8,7 |
| Durangaldea | 5.469 | 3.705 | 3.608 | 2.112 | 6.724 | 5.585 | 7,1 | 4,9 | 4,7 | 2,7 | 8,3 | 6,9 |
| Donostialdea | 22.715 | 25.882 | 15.098 | 12.680 | 23.797 | 26.140 | 7,4 | 8,5 | 4,9 | 4,1 | 7,7 | 8,5 |
| Tolosa-Goierri | 4.000 | 4.630 | 2.646 | 2.137 | 4.058 | 4.021 | 5,5 | 6,4 | 3,7 | 3,0 | 5,6 | 5,6 |
| Debagoiena | 1.952 | 1.662 | 1.429 | 762 | 2.097 | 1.811 | 4,6 | 4,0 | 3,4 | 1,9 | 5,1 | 4,4 |
| Debabarrena | 1.325 | 1.996 | 934 | 1.343 | 3.313 | 2.267 | 3,7 | 5,6 | 2,6 | 3,8 | 9,3 | 6,4 |
| Guztira | 115.277 | 121.431 | 80.710 | 55.349 | 135.904 | 132.008 | 8,1 | 8,6 | 5,6 | 3,9 | 9,4 | 9,1 |

47.Honako ezaugarri nagusi hauek nabarmendu daitezke aztertutako biztanleriak lana bilatzeko erabiltzen duen prozesuan:

a) 2010ean, handitu egin da lana bilatzeko prozesuaren toki-dimentsioa; izan ere, % 68tik % 75,8ra igo da lana bere udalerrian edo gehienez ere lurralde historikoaren esparruan bilatzen duen biztanleriaren proportzioa. Horrekin batera, % 21,2tik % 16,3ra jaitsi da bilaketa hori Euskal Autonomia Erkidego osora edo Nafarroara zabaltzen duen biztanleriaren proportzioa, eta % 10,7tik % 7,9ra bere ikuspegia EAEko lurralde-eremutik kanpo zabaltzen duena. Deskribatutako prozesuaren ondorioz joera ez da nabarmen aldatu, eta, era berean, ez da itzuli 2007aren aurreko aldian nagusi ziren portaeretara; izan ere, 2007-2009 aldian, lana bilatzeko lurralde-eremua hedatzeko prestasun handiagoa zegoen.

Ikusitako bilakaera hainbat kolektiboren ezaugarria izan da, orokorrean, baita langabeena ere. Enplegu-bilaketa lurralde historikotik kanpora zabaltzen duten langabeen proportzioa 2009ko % 29,8tik 2010eko 22,4ra murriztu da.

Aitzitik, eutsi egin zaio lurralde historikotik kanpoko merkatuetara irekiago daudenen kopuruari, enplegu-eskatzailea lan-merkatura eta produkzio-sistemara gehiago hurbiltzen den heinean. Gauzak horrela, 2010ean, egoera horretan dauden pertsonen kopurua ez-aktiboen % 18,7 izatetik langabeen % 22,4 izatera eta gaur egun lanean ari direnen % 33,3ra igaro da.

**Lan bila dabilen eta kudeaketak egin dituen 16-64 urteko biztanleria, jarduerarekiko loturaren arabera, eta lana bilatzeko lurralde-eremuaren arabera 2010**

(% bertikalak)

| Eskualdea | Landuna | Langabea | Ez-aktiboa | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Udalerria | 23,0 | 26,4 | 35,8 | 26,2 |
| Lurralde Historikoa | 43,7 | 51,2 | 45,5 | 49,7 |
| EAE | 19,7 | 13,4 | 17,9 | 14,7 |
| EAE edo Nafarroa | 2,1 | 1,6 | ,0 | 1,6 |
| Estatua | 9,5 | 5,9 | ,9 | 6,3 |
| Atzerria | 2,0 | 1,6 | ,0 | 1,6 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 |

Ikusten da eskualdearen araberako desberdintasun batzuk daudela udalerritik edo lurralde historikotik kanpoko merkatuetara irekitzeari dagokionez. Hortaz, egiaztatu da lan bila dabilen eta Donostialdean, Tolosa-Goierrin eta Debagoienan bizi den biztanleria dela prestasun txikiena duena lurralde historikotik kanpoko lan bat onartzeko, horri buruzko zifrak % 20 ingurukoak edo hortik beherakoak baitira.

Aitzitik, EAEko lan-merkatu osora irekita dagoen biztanleriaren kopuruak gainerako eskualdeetan ikusitakoa gainditzen du Debabarrenan eta Arabako eskualdeetan, ikusten baita lan bila dabiltzan pertsonen kasuan lan-arrazoiak direla medio EAEtik edo Nafarroatik atera behar izanez gero, batez bestekoak baino joera handiagoa duela egoera hori onartzeko Aiaraldean eta Gasteizen. Normalean % 5,5etik % 9ra bitarte kokatzen diren zifrei (Durangaldean eta Deba ibaiaren haraneko bi eskualdeetan % 2,5etik hurbil edo hortik behera daude zifra horiek) kontrajarririk, lan bila dabilen eta Aiaraldean bizi direnen % 13,4 eta Gasteizen bizi direnen % 14,4 dago prest EAEtik edo Nafarroatik kanpo lan egiteko.

Bestalde, Arabako eskualdeetan soilik egiaztatu da beren lurralde historikotik kanpo lanerako prest dagoen proportzioak gora egin duela 2009-2010 aldian, EAEko edo Nafarroako berezko eremua nahiz Espainiako edo nazioarteko merkatura atera behar izatea kontuan hartzen baditugu.

**Lan bila dabilen eta kudeaketak egin dituen 16-64 urteko biztanleria, lana bilatzeko eskualdearen eta lurralde-eremuaren arabera 2001-2010 aldia**

(taldearen %-a)

| Eskualdea | EAE osoan gutxienez | | | | | | EAEtik/Nafarroatik kanpoko eremuak barne | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2001 | 2003 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | 2001 | 2003 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
| Gasteiz | 17,8 | 17,5 | 9,2 | 17,5 | 25,5 | 28,3 | 10,2 | 6,2 | 4,2 | 5,9 | 11,7 | 14,4 |
| Aiaraldea | 59,3 | 62,0 | 70,3 | 43,9 | 16,5 | 40,3 | 9,4 | 9,7 | 2,1 | ,0 | 1,8 | 13,4 |
| Eskuinaldea | 16,9 | 23,2 | 39,5 | 36,8 | 36,1 | 25,7 | 4,8 | 8,2 | 6,3 | 9,0 | 2,1 | 5,3 |
| Bilbo | 12,6 | 20,4 | 20,0 | 19,4 | 31,3 | 26,1 | 8,4 | 12,0 | 9,0 | 3,7 | 16,6 | 8,7 |
| Ezkerraldea | 21,8 | 19,5 | 27,2 | 31,2 | 35,8 | 24,8 | 7,2 | 6,3 | 5,8 | 2,0 | 11,8 | 6,4 |
| Bizkaia-Kosta | 22,8 | 27,4 | 17,2 | 49,8 | 44,9 | 27,5 | 9,3 | 1,0 | 1,9 | ,8 | 8,2 | 9,3 |
| Durangaldea | 21,6 | 10,8 | 25,1 | 25,2 | 43,9 | 25,1 | 6,7 | 4,9 | 5,9 | ,0 | 3,8 | 1,4 |
| Donostialdea | 16,1 | 16,1 | 24,2 | 21,0 | 23,6 | 14,9 | 9,9 | 6,9 | 8,1 | 7,2 | 10,6 | 6,1 |
| Tolosa-Goierri | 13,6 | 19,7 | 28,6 | 19,2 | 25,5 | 20,5 | 7,8 | ,7 | 2,3 | 4,4 | 1,0 | 6,3 |
| Debagoiena | 12,3 | 3,6 | 9,1 | 10,5 | 50,9 | 18,9 | ,5 | 3,6 | 3,6 | ,0 | 9,2 | ,0 |
| Debabarrena | 5,5 | 3,7 | 20,2 | 16,4 | 54,3 | 38,8 | ,0 | ,0 | 2,3 | 6,1 | 7,0 | 2,6 |
| Guztira | 18,0 | 20,0 | 24,2 | 25,0 | 32,0 | 24,2 | 8,0 | 7,1 | 6,4 | 4,5 | 10,7 | 7,9 |

b) Enplegu-bulego publikoetara (Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa, Lanbide, udal-bulegoak eta abar) jotzea da orain ere lana bilatzeko bide nagusietako bat eta, gainera, hamarkadako erregistrorik handiena du 2010ean, lan bila dabiltzanen % 79,7k bide horretara jo baitu, 2009ko % 68,4ko zifraren oso gainetik. Lan bila dabiltzan pertsona guztien % 68,1 (% 52,1 2009an) modu eraginkorrean jarri da harremanetan bulego horiekin azken lau aste hauetan lan-eskaintzei buruzko informazioa lortzeko. Oso handia den arren, proportzio hori zertxobait txikiagoa da, ordea, enplegua bilatzeko beste modu nagusi batzuetan lortutakoa baino. Adierazitako moduak honako hauek dira: ahaide edo lagunei galdetzea (lan bila dabiltzanen % 72,8k baliatu du bide hori) edo enplegu-eskaintzak komunikabideetan, baita Interneten ere kontsultatzea (% 69,9). Era berean, 2009-2010 aldian ikusten da lana lortzeko bide horiek erabiltzeko joera nabarmen igo dela, 2009an zifrak % 57,4tik % 57,8ra bitartekoak baitziren.

Lan bila dabiltzan pertsonen artean eragin zertxobait txikiagoa badu ere, ezin aipatu gabe utzi, halaber, komunikabideetan iragarkiak jarri dituen edo iragarkiei erantzun dien % 52,7a (2009an % 50) eta enpresekin zuzenean harremanetan jarri den % 59,1a (kasu honetan, ikusten da gora egin duela 2009ko % 42,9arekin alderatzen badugu). Lana bilatzeko maiz erabiltzen den beste bide bat enplegu-bulego pribatuetara eta ABLEetara jotzea da, lan bila dabiltzanen % 44,5ek horietara jo baitu (% 38,8 2009an). Maila txikiagora jaitsita, % 19,7k lan-poltsetan izena eman du, eta 14,3k azterketak edo elkarrizketak egin ditu. Autoenplegua kontuan hartzen dutenen kopurua kolektiboaren % 4,2ra murriztu da. Hiru kasu horietan, zifrek 2009an ikusitakoaren ildoari eutsi diete.

Aurkeztutako datuek erakusten dute enplegu-eskatzaileek beren eskura dituzten bilaketa-modalitateetara jotzeko aukera nabarmen igo dela, eta kasu gehienetan hamarkada honetako baliatze-maila handienak ikusi dira. Enplegu-zerbitzu publikoetarako joera handiagoa izateaz gain, dinamika hori bereziki nabarmena izan da hainbat baliabidetan, hala nola lagun eta ahaideekiko harremanetara jotzeari nahiz enpresa-kolektiboarekin zuzeneko harremana izateari dagokionez; era berean, ABLEak eta enplegu-bulego pribatuak baliatzeko joera handiagoa izan da.

Jarduerarekiko erlazioari dagokionez egoeraren arabera dauden aldeak kontuan hartuta, bereziki langabeen eta landunen egoeraren arabera daudenak, ikusten da langabeek orokorrean lana bilatzeko baliabideetara jotzeko aukera handiagoa dutela. Aldeak handiagoak dira (5 puntutik 6 puntura bitartekoak) lagunengana eta ahaideengana jotzeari, komunikabideetan iragarkiak jartzeari eta iragarkiei erantzuteari eta azterketetan edo elkarrizketetan parte hartzeari dagokionez. Alde hori 8,6ra igo baita ABLEetara eta bestelako enplegu-bulego pribatuetara jotzeari dagokionez. Diferentzialik handiena, ordea, enplegu-zerbitzu publikoekiko harremanari dagokio. Langabeen % 85,1ek jo du zerbitzu horietara, eta landunen % 51,8k. Diferentzial hori enplegu-eskaintzei buruzko informazioa kontsultatzearekin (% 74,2 langabeen artean eta % 45,7 landunen artean) eta informazioa eskatzearekin eta/edo ikastaroetara joatearekin (50,5 eta %

22,9, hurrenez hurren) lotzen da. Aitzitik, landunek joera handixeagoa dute lan-eskaintzak komunikabideetan kontsultatzeko (% 73,6k; langabeen kasuan, % 70,5ek).

Biztanleria ez-aktiboak 2010ean izan duen portaerari dagokionez, betiere langabeenarekin alderatuta, esan behar dugu alde nagusiak honako hauek direla: zerbitzu publikoetan enpleguei buruzko informazio-eskaera txikiagoa izan da (% 44,5; langabeen kasuan, berriz, % 74,2), enpresen arduradunekin edo ahaideekin eta lagunekin harreman txikiagoa izan da (% 26,9 eta % 61,1, eta % 39,8 eta % 75,2, hurrenez hurren), eta komunikabideetako enplegu-eskaintzetara neurri txikiagoan jo da (% 42,1 eta % 70,5, hurrenez hurren). ABLEetara eta enplegu-bulego pribatuetara jotzea ere ez da hain ohikoa (% 24,7 eta % 46,9, hurrenez hurren). Kolektibo ez-aktiboaren ezaugarri diferentziala, langabeekin alderatuta, honako hau da: eskaera-ahalegin gehiago egiten dituzte enplegu-zerbitzu publikoetan (eskaeraren % 94,4; langabeen kasuan, aldiz, % 85,1), eta ahalegin horiek gehiago daude bideratuta administrazio-egoeren aldaketa hutsera eta ikastaroei buruzko kontsulta egitera enpleguari buruzko informazioa bilatzera baino, lana bilatzeko beste modu batzuk bilatzeko joera txikiaren testuinguruan, gainera.

**Lan bila dabilen eta kudeaketak egin dituen 16-64 urteko biztanleria, jarduerarekiko loturaren eta lana bilatzeko moduaren arabera. 2010**

(taldearen %-a)

| Lana bilatzeko modua | Landuna | Langabea | Ez-aktiboa | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Enplegu-bulego publikoa | 51,8 | 85,1 | 94,4 | 79,7 |
| *. Txartela berritu edo zigilatzea* | *24,0* | *60,4* | *78,0* | *54,8* |
| *. Ikastaroei buruzko informazioa jasotzea edo ikastaroak egitea* | *22,9* | *50,5* | *52,3* | *45,8* |
| *. Lehenengo aldiz izena ematea* | *3,5* | *12,7* | *10,1* | *11,0* |
| *. Datuak berritzea* | *15,2* | *33,2* | *31,1* | *30,0* |
| *. Lan-eskaintzei buruzko informazioa* | *45,7* | *74,2* | *44,5* | *68,1* |
| *. Lan-eskaintza jasotzea* | *4,3* | *7,3* | *7,2* | *6,8* |
| *. Bestelakoak* | *1,4* | *3,1* | *,0* | *2,6* |
| Enplegu-bulego pribatua edo ABLEa | 38,2 | 46,9 | 24,7 | 44,5 |
| Enpresaburuekin harremanetan jartzea | 57,5 | 61,1 | 26,9 | 59,1 |
| Ahaideei edo lagunei galdetzea | 69,4 | 75,2 | 39,8 | 72,8 |
| Komunikabideetan iragarkiak jartzea edo iragarkiei erantzutea | 48,6 | 54,0 | 43,8 | 52,7 |
| Azterketa edo elkarrizketa egitea | 10,2 | 15,5 | 7,6 | 14,3 |
| Autoenplegua | 3,6 | 4,5 | ,6 | 4,2 |
| Lan-eskaintzak kontsultatzea komunikabideetan | 73,6 | 70,5 | 42,1 | 69,9 |
| Enplegu-bulegoaren deiaren zain | 9,4 | 18,3 | 15,1 | 16,6 |
| Eskaeren edo azterketen zain | 8,9 | 10,4 | 2,2 | 9,8 |
| Iragarki-taula eta dendetan iragarkiak jartzea | 7,9 | 6,2 | 7,5 | 6,6 |
| Lan-poltsetan izena ematea | 17,0 | 20,7 | 11,9 | 19,7 |

**Lan bila dabilen eta kudeaketak egin dituen 16-64 urteko biztanleria: Lana bilatzeko moduen bilakaera. 2001-2010 aldia**

(lana bilatzeko modu bakoitzera jotzen dutenen %-a)

| Lana bilatzeko modua | 2001 | 2003 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Enplegu-bulego publikoa | 70,9 | 71,1 | 62,7 | 69,3 | 68,4 | 79,7 |
| *. Txartela berritu edo zigilatzea* | *53,7* | *54,0* | *47,8* | *55,4* | *53,4* | *54,8* |
| *. Ikastar. buruz. inform. Jasotz. edo ikasta. egitea* | *25,4* | *31,2* | *33,7* | *31,8* | *35,7* | *45,8* |
| *. Lehenengo aldiz izena ematea* | *11,5* | *8,7* | *15,1* | *8,7* | *11,0* | *11,0* |
| *. Datuak berritzea* | *22,5* | *26,2* | *32,5* | *32,5* | *26,6* | *30,0* |
| *. Lan-eskaintzei buruzko informazioa* | *43,0* | *49,6* | *52,0* | *56,1* | *52,1* | *68,1* |
| *. Lan-eskaintza jasotzea* | *5,9* | *6,4* | *10,4* | *7,3* | *7,5* | *6,8* |
| *. Bestelakoak* | *3,6* | *3,0* | *5,8* | *4,1* | *5,5* | *2,6* |
| Enplegu-bulego pribatua edo ABLEa | 28,0 | 32,6 | 36,4 | 42,3 | 38,8 | 44,5 |
| Enpresaburuekin harremanetan jartzea | 29,2 | 38,0 | 47,6 | 44,8 | 42,9 | 59,1 |
| Ahaideei edo lagunei galdetzea | 45,0 | 52,2 | 57,4 | 65,5 | 57,4 | 72,8 |
| Komunik. Irag. Jartz. edo iragar. erantzutea | 38,9 | 48,3 | 48,9 | 52,8 | 50,0 | 52,7 |
| Azterketa edo elkarrizketa egitea | 14,4 | 16,0 | 23,8 | 21,5 | 14,8 | 14,3 |
| Autoenplegua | 3,8 | 2,9 | 5,6 | 5,1 | 4,4 | 4,2 |
| Lan-eskaintzak konts. komunikabideetan | 52,6 | 61,2 | 67,0 | 60,9 | 57,8 | 69,9 |
| Enplegu-bulegoaren deiaren zain | 14,8 | 15,7 | 30,0 | 19,5 | 16,5 | 16,6 |
| Eskaeren edo azterketen zain | 11,4 | 14,0 | 22,5 | 13,7 | 12,6 | 9,8 |
| Iragarki-taula eta dendetan iragarkiak jartzea | 3,7 | 5,4 | 11,0 | 5,8 | 8,2 | 6,6 |
| Lan-poltsetan izena ematea | 14,8 | 18,2 | 24,4 | 23,1 | 19,4 | 19,7 |

c) Bilaketa batez ere lanaldi osoko lanetan egiten da oraindik. Errealitate hori lan bila dabiltzan eta kudeaketak egin dituzten pertsonen kolektiboaren % 92,6aren ezaugarria da (% 93,5 2009an). Hala eta guztiz ere, % 50,2tik % 68ra igo da lanaldi partzialeko lan bat onartzeko prest dagoen pertsonen kopurua; horretaz gain, % 43,2tik % 24,6ra jaitsi da soilik lanaldi osoko lana egiteko prest dauden pertsonen kopurua. Jaitsiera hori % 51,7tik % 29,6ra bitartekoa da landunen kasuan, eta % 40,9tik % 22,8ra bitartekoa langabeei dagokienez.

Aintzat hartutako pertsonen % 7,4k baino ez du bilatu lanaldi partzialeko edo ordukako lana esklusiboki; proportzio hori 2007ko % 9,6tik beherakoa da, baina 2009ko % 6,5a baino zertxobait handiagoa.

**Lan bila dabilen eta kudeaketak egin dituen 16-64 urteko biztanleria, jarduerarekiko erlazioaren eta bilatzen ari den lanaldi motaren arabera. 2010**

(% bertikalak)

| Lanaldi mota | Landuna | Langabea | Ez-aktiboa | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Soilik lanaldi osoa | 29,6 | 22,8 | 37,5 | 24,6 |
| Partziala edo osoa | 62,1 | 70,1 | 53,8 | 68,0 |
| Soilik partziala | 7,6 | 6,7 | 4,9 | 6,8 |
| < 3 ordu egunean | ,6 | ,4 | 3,7 | ,6 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 |

**Lan bila dabilen eta kudeaketak egin dituen 16-64 urteko biztanleria, eskualdearen eta bilatzen ari den lanaldi motaren arabera**

**2001-2010 aldia**

(taldearen %-a)

| | Denbora partziala nahi duena | | | | | | Soilik partziala | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Eskualdea | 2001 | 2003 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | 2001 | 2003 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
| Gasteiz | 68,8 | 60,9 | 34,9 | 52,9 | 49,8 | 78,8 | 15,5 | 8,9 | 2,1 | 11,4 | 7,3 | 6,4 |
| Aiaraldea | 57,7 | 58,2 | 47,5 | 56,0 | 31,8 | 75,1 | 11,3 | 8,1 | 12,2 | 17,0 | 3,6 | 11,9 |
| Eskuinaldea | 63,3 | 85,3 | 55,8 | 57,8 | 66,9 | 69,2 | 8,2 | 7,7 | 10,9 | 7,4 | 10,7 | 6,0 |
| Bilbo | 65,2 | 64,3 | 64,9 | 73,1 | 64,0 | 79,2 | 12,5 | 16,9 | 12,9 | 12,6 | 3,7 | 10,3 |
| Ezkerraldea | 64,3 | 83,2 | 73,0 | 53,1 | 42,3 | 67,2 | 9,6 | 5,9 | 8,2 | 9,4 | 6,7 | 4,9 |
| Bizkaia-Kosta | 69,7 | 87,7 | 82,4 | 36,0 | 73,0 | 74,9 | 18,0 | 7,0 | 6,7 | ,8 | 2,1 | 5,8 |
| Durangaldea | 85,3 | 74,4 | 72,4 | 54,8 | 84,1 | 77,0 | 22,4 | 15,5 | 4,1 | 3,0 | 4,8 | 8,0 |
| Donostialdea | 57,3 | 57,1 | 53,8 | 55,7 | 60,7 | 76,8 | 10,2 | 9,0 | 9,6 | 8,6 | 10,7 | 8,3 |
| Tolosa-Goierri | 66,6 | 75,8 | 58,0 | 76,4 | 50,8 | 86,8 | 10,8 | 11,5 | 2,0 | 7,8 | ,0 | 8,4 |
| Debagoiena | 57,1 | 69,3 | 40,5 | 68,7 | 92,2 | 90,1 | 3,8 | 1,5 | ,0 | 14,0 | 1,7 | 2,5 |
| Debabarrena | 91,1 | 79,2 | 88,4 | 57,0 | 60,6 | 72,7 | 2,3 | 3,9 | ,0 | 19,6 | 8,6 | 6,4 |
| Guztira | 64,9 | 70,8 | 62,0 | 58,6 | 56,8 | 75,4 | 11,7 | 9,7 | 8,7 | 9,6 | 6,5 | 7,4 |

48. Lan bila dabilen eta lana bilatzeko kudeaketak egin dituen 16-64 urteko biztanleriak lanean hasteko hainbat baldintza proposatu ditu. Inkesta egin zen unean beste okupazio bat lortzeko benetan prest dagoela adierazi zuen kolektiboaren zatira mugatuta (guztira 127.608 pertsona benetan langabezian dauden 103.887 pertsonatik), honako baldintza hauek hartzen ditu kontuan LMEak: bizileku-aldaketa, diru-sarrerak edo kategoria espero zirenak baino txikiagoak izatea, eta lanaldi partzialean lanean jarduteko prest egotea.

Adierazitako baldintzak kontuan izanda, 2010ean kontuan hartutako pertsonen % 25,7 prest legoke horiek guztiak onartzeko beste lanpostu bat lortzeko prozesuan. 2009ko % 27,8arekin alderatuta jaitsi bada ere, 2001eko % 25a baino gorago dago. Azken urte horretan, adierazlea jaitsi egin zen, eta 2007an gutxienekora iritsi zen: % 14,5. Onarpen-mailak gora egiten du eraginpeko pertsonak produkzio-sistemara hurbiltzen diren neurrian, eta 2010ean ez-aktiboen arteko % 7,1etik langabeen arteko % 25,3ra eta lan bila dabiltzan landunen % 28,7ra igaro da.

Aipatutako baldintza horiek guztiak onartzeko prest ez dagoen kolektiboaren arrazoiak aintzat hartuz gero, eragozpen nagusia bizilekuz aldatzea da. Baldintza guztiak onartzeko prest ez dagoen biztanleriaren % 89,1ek ez du onartzen baldintza hori, 2009ko % 78,4aren gainetik. Proportzio horrek gehieneko mailak lortu ditu langabeen artean (% 90,5; langabeen kasuan eta ez-aktiboen kasuan, berriz, % 83,2 eta % 74,3, hurrenez hurren).

Azken urtean bizilekuz aldatzeko aukerak jaso duen ezezkoaren proportzio handiagoari kontrajarririk, 2009ko % 41,7tik 2010eko % 25,1era jaitsi da kalifikazioari dagozkionak baino diru-sarrera txikiagoak jasotzeko aukera onartzen ez duten enplegu-eskatzaileen proportzioa. Aukera hori onartzen ez duten pertsonen kopurua % 55,6tik % 33,6ra jaitsi da landunen kasuan, eta % 37,7tik % 23,1era langabeei dagokienez. Beheranzko joera hori bera ikusten da kalifikazioari dagozkionak baino diru-sarrera txikiagoak jasotzea onartzen ez duten pertsonen (2009ko % 34,1etik 2010eko % 21era) edo denbora partzialeko lan bat onartuko ez luketen pertsonen (% 32tik % 21,6ra) proportzioari dagokionez.

Egiaztatu da, beraz, mugikortasun geografikoak areagotu egin duela, 2010ean, gogoko lana lortzeko eragozpen nagusia, beste enplegu bat lortzeko baldintzaren bat jartzen dutenen gehiengoari dagokionez. Aitzitik, krisialdia sendotu izanak ekarri du aintzat hartutako gainerako mugak nabarmen murriztea, baita prestakuntza-mailetara eta soldata-helburu arruntetara egokitutako ekonomia- eta lanbide-garapenarekin lotutakoak ere.

Izan ere, LMEaren datuek erakusten dute sendotzen ari dela joera historikoa, hau da, 2007tik aurrera enplegu-eskatzaileen aurreikuspenak murrizteko joera dago. Horrela, beraz, lan bila ari diren, kudeaketak egin dituzten eta lanerako prest daudenen artean, 2005-2006 aldian % 32,8tik % 44,3ra gehitu da kalifikazioarekin bat datozen diru-sarreren eskaria, adierazlea berriz ere % 34,8ra iritsi da 2007an, eta berriro % 30,1era jaitsi da 2009an. Espero baino lanbide-kategoria txikiagoa

onartuko ez luketen pertsonen artean, % 23,7tik % 32,9ra igo da proportzioa 2005-2006 aldian, % 26,1era jaitsi da 2007an, % 24,6ra 2009an eta % 15,6ra 2010ean. Lanaldi partzial batean hastea onartuko ez luketenen artean, azkenik, 2005-2006 aldian % 22tik % 32,1era igo ondoren, zifrak % 25,2ra jaitsi dira 2007an, % 23,1era 2009an eta % 16,1era 2010ean. Bizilekua aldatzeko aukerari emandako ezezkoak soilik egin du gora, 2010ean % 66,2 baita, eta 2009an, berriz, % 56,6 zen. Kopuru hori 2007ko % 71,8ko zifrak soilik gainditzen du, eta, era berean, 2005eko % 61,1a eta 2006ko % 62,6a baino handiagoa da.

Aztertutako bilakaeran, oro har, 2006-2010 aldian aurreikuspenak beherantz egokitu behar izan direla ikusi dugu, eta hori zentzu hertsian langabe direnen ezaugarria ere bada. Horrela, bada, langabeen % 17,2k gaur egun espero du diru-sarrerak kalifikazioaren parekoak izatea, eta 2006an % 37,5 ziren; % 14,4k ez luke onartuko kalifikazioari dagokion kategoria baino beheragoko lanposturik (2006an % 24,5); azkenik, % 14,8k ez luke onartuko lanaldi partzialeko lanposturik, eta 2006an % 25,4 ziren. Zifrarik txikienak dira 2005az geroztik. Bizilekuz aldatzeari uko egingo lioketenen proportzioari dagokionez, 2005eko % 63,5etik 2006ko % 64,7ra eta 2007ko % 75,8ra igo ondoren, proportzio hori 2009an % 59,8ra murriztu zen, eta 2010ean % 67,6ra igo da, kopuru hori, beraz, 2007an soilik gainditu zen.

**Lan bila dabilen, kudeaketak egin dituen eta lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria, jarduerarekiko erlazioaren eta hainbat baldintza onartzeko prest egotearen arabera. 2010**

(% bertikalak)

| Baldintzak | Landuna | Langabea | Ez-aktiboa | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Baldintza guztiak onartuko lituzke | 28,7 | 25,3 | 7,1 | 25,7 |
| Ez lituzke baldintza guztiak onartuko | 71,3 | 74,7 | 92,9 | 74,3 |
| Onartu gabeko baldintzak: (Baldintzaren bat onartzen ez duen biztanleria) | | | | |
| Etxebizitzaz aldatzea | 83,2 | 90,5 | 74,3 | 89,1 |
| Kalifikazioari dagozkionak baino diru-sarrera txikiagoak | 33,6 | 23,1 | 36,6 | 25,1 |
| Espero zena baino beheragoko kategoria | 29,1 | 19,3 | 24,5 | 21,0 |
| Lanaldi partziala | 30,0 | 19,8 | 30,0 | 21,6 |
| Onartu gabeko baldintzak: (Guztizko biztanleria erreferentziazko taldean) | | | | |
| Etxebizitzaz aldatzea | 59,3 | 67,6 | 69,0 | 66,2 |
| Kalifikazioari dagozkionak baino diru-sarrera txikiagoak | 23,9 | 17,2 | 34,0 | 18,6 |
| Espero zena baino kategoria txikiagoa | 20,8 | 14,4 | 22,8 | 15,6 |
| Lanaldi partziala | 21,3 | 14,8 | 27,9 | 16,1 |

**Lan bila dabilen, kudeaketak egiten dituen eta lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria: Lan batean hasteko onartu ez diren baldintzak. 2001-2010 aldia**

(taldearen %-a)

| Baldintzak | 2001 | 2003 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Baldintzaren bat | 75,0 | 75,5 | 79,2 | 85,5 | 72,2 | 74,3 |
| Etxebizitzaz aldatzea | 57,1 | 59,8 | 61,1 | 71,8 | 56,6 | 66,2 |
| Kalifikazioari dagozkionak baino diru-sarrera txikiagoak | 33,9 | 31,1 | 32,8 | 34,8 | 30,1 | 18,6 |
| Espero zena baino beheragoko kategoria | 26,7 | 25,1 | 23,7 | 26,1 | 24,6 | 15,6 |
| Lanaldi partziala | 21,5 | 19,9 | 22,0 | 25,2 | 23,1 | 16,1 |

Eskualdeen araberako datuek ez dute erakusten alde handirik dagoenik, baina xehetasun batzuk aipa daitezke. Ildo horretatik, etxebizitzaz aldatzeko aukera gutxien onartzen dutenak Donostialdean eta Tolosa-Goierrin daude, baina kalifikazioari dagozkionak baino diru-sarrera txikiagoak edo espero zena baino kategoria txikiagoa onartzen ez duten pertsonen kopurua alderatzen badugu kopuru hori handiagoa da Aiaraldean, Ezkerraldean, Bizkaia-Kostan eta Durangaldean. Aiaraldea eta Ezkerraldea ere nabarmentzen dira, eskualde horietan ere lanaldi partzialeko lanarekiko errefus-maila erlatiboa handiagoa delako, Gasteizen errefus-maila erlatibo handiagoa (EAEko zifrekin alderatuta) lortutako lanbide-kalifikazioaren esparruan espero zitezkeen diru-sarrerak baino diru-sarrera txikiagoak dituen lan bat okupatzera mugatzen da.

**Lan bila dabilen, kudeaketak egin dituen eta lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria: Baldintza batzuk onartzeko prestasuna, eskualdearen arabera. 2010**

(taldearen %-a)

| Eskualdea | Baldintzaren bat | Etxebizitzaz aldatzea | Kalifikazioari dagozkionak baino diru-sarrera txikiagoak | Espero zena baino beheragoko kategoria | Lanaldi partziala |
|---|---|---|---|---|---|
| Gasteiz | 70,7 | 61,4 | 23,4 | 12,0 | 16,8 |
| Aiaraldea | 74,4 | 62,7 | 27,6 | 20,2 | 20,2 |
| Eskuinaldea | 74,7 | 64,7 | 15,9 | 16,2 | 10,9 |
| Bilbo | 72,4 | 66,1 | 14,1 | 16,4 | 14,6 |
| Ezkerraldea | 77,2 | 67,3 | 25,7 | 20,9 | 19,8 |
| Bizkaia-Kosta | 66,7 | 54,5 | 23,8 | 17,0 | 15,9 |
| Durangaldea | 76,8 | 69,4 | 27,3 | 18,8 | 15,1 |
| Donostialdea | 79,4 | 71,9 | 12,7 | 13,3 | 17,7 |
| Tolosa-Goierri | 73,2 | 73,2 | 5,5 | 5,5 | 4,3 |
| Debagoiena | 64,9 | 64,9 | 14,3 | 14,3 | 5,7 |
| Debabarrena | 63,4 | 59,2 | 4,2 | 4,2 | 15,5 |
| Guztira | 74,3 | 66,2 | 18,6 | 15,6 | 16,1 |

49.Beste lan baten bila dabiltzan eta lan hori lortzeko kudeaketak egin dituzten pertsonek izan dituzten muga nagusiak aztertzen baditugu, egiazta dezakegu pertsona horien % 92,6k ikusi duela eragozpen objektiboren bat lana lortzeko 2010ean; proportzio hori nabarmen igo da 2009ko % 86,5arekin eta 2001eko nahiz 2003ko % 83,5arekin alderatuta (urte horietan ere langabeziaren eragina oso handia izan zen). Problematikak intzidentzia nahiko antzekoa du kontuan hartutako talde guztietan, nahiz eta zertxobait handiagoa izan langabeen eta ez-aktiboen artean (% 92,9 eta % 95, eta langabeen artean, aldiz, % 90,7).

Arazo nagusiak kalifikazioari buruzko alderdiei dagozkienak dira, ikasketa-mailari, hizkuntzak jakiteari eta lan-esperientziari lotuta. Kolektiboaren % 70,2k adierazi du muga mota hori; zifra horrek nabarmen egin du gora 2007ko % 59,8arekin eta 2009ko % 61,7arekin alderatzen badugu, eta hamarkadako mailarik handiena lortu du. Eragina handiagoa izan da enplegu bila dabiltzan landunen artean (% 71,4 landun horien artean, % 70,4 langabeen artean, eta % 62,3 biztanleria ez-aktiboaren artean).

Kalifikazioarekin lotutako muga espezifikoak aintzat hartuta, enplegu-eskatzaileen % 40,7k aipatu du 2010ean heziketa-maila, eta proportzio hori % 38,9 da behar besteko lan-esperientziarik ez izateari dagokionez (% 28,3 2009an) eta % 26,1 hizkuntzak jakiteari dagokionez (% 25,9 2009an). Era berean, hamarkada honetako mailarik handienak dira kasu guztietan.

Ikasketekin eta lan-esperientziarekin lotutako problematiken taldetik oso urrun azaltzen da adina. Arazo hori lan bila dabiltzanen % 34k aipatu du, eta hamarkada honetako mailarik handiena da hori, 2009ko % 17,9aren gainetik dagoena; azken urte horretan adierazleak behera egiten zuen etengabeko aldia sendotu egin zen, 2002an eta 2003an lortutako % 25,5etik % 26,5era bitarteko zifrekin alderatuta. Adinaren faktorea landunen eta langabeen % 34-35 inguruk aipatu dute, ez-aktiboen % 23,3ko zifraren gainetik.

Adinari lotutako mugek sexuarekin edo familia-kargak izatearekin lotutako zailtasunek baino intzidentzia handiagoa dute orain ere. Zailtasun horiek kudeaketak egin dituzten enplegu-eskatzaileen kolektiboaren % 17,9k aipatu ditu. Sexua, berez, aztertutakoen % 4,9k soilik adierazi du muga dela, eta familia-kargak izateak, aldiz, garrantzi handiagoa du, aztertutakoen % 13,5 baitago egoera horretan 2010ean. 2007ko % 19,5era iristen ez bada ere, muga mota horien inpaktu orokorra ere igo egin da 2009ko % 14,2arekin alderatzen badugu, eta 2001eko nahiz 2003ko % 14-15eko zifrak baino handiagoa da. Sexuarekin eta generoarekin lotutako problematika horiek modu desberdinean eragin dio biztanleria ez-aktiboari: % 41,9; landunen eta langabeen artean, aldiz, % 14,7 eta % 17,4, hurrenez hurren.

2009an bezalaxe, sexuari edo familia-kargei lotutako mugek mugikortasun geografikoarekin lotutakoek baino eragin zertxobait txikiagoa dute. Gai hori lan bila dabiltzan eta kudeaketak egin dituzten pertsonen % 18k aipatu du, baina taldeen artean ez dago barneko aldaketa handirik

(gehienekoa langabeei dagokie, % 18,4rekin). Beste adierazle batzuetan bezala, hamarkada honetako mailarik handiena da kasu honetan ere.

Jatorri geografikoa, bestalde, aztertutako pertsonen % 7,2k aipatu du, 2001-2003 aldiko % 2,5-3ko zifrekin, 2005-2006 aldiko % 4aren ingurukoekin eta 2007-2009 aldiko % 5,8tik % 6,3ra bitarteko zifrekin alderatuta etengabeko aurrerakuntzan.

Orain arte ikusitakoarekin kontrajarririk, 2010ean sendotu egin da soldata-helburuen garrantziaren galera lana lortzeko prozesuko muga garrantzitsu gisa. Beste enplegu bat lortzeko zailtasuna faktore horrekin lotzen duen biztanleriaren indarra % 9,9ra murriztu da 2010ean, eta modu jarraituan erori da azken urte hauetan 2006ko % 19,3ko gehienekotik (% 16,2 2007an eta % 12,2 2009an). Beherakada hori kontraste handia da 2003-2006 aldian ikusten den hazkundearekin, 2003an % 8,3ko gutxienekotik abiatuta.

Proportzioa azkenean % 2,7ra iristen da arazo fisikoak izateari dagokionez (hamarkada honetan ikusitako zifren ildo bereko erregistroa).

Aztertutako mugak eskualdearen arabera aztertu ondoren, ikusi dugu muga batzuen diferentzia-inpaktua dagoela lurraldearen arabera. Azpimarratu beharreko alderdi nagusiak honako hauek dira:

* Esperientziarekin eta kalifikazioarekin lotutako arazoek eragin erlatibo handiagoa dute Bizkaiko eskualdeetan eta Deba ibaiaren haranekoetan. Ikasketa-mailaren eragina nabarmena da Ezkerraldean, Durangaldean eta Debagoienan, eta lan-esperientziak baino garrantzi handiagoa du Eskuinaldean ere, baina Bilbon, Bizkaia-Kostan eta Debabarrenan garrantzi handiagoa du lan-esperientziak. Aztertutako pertsonen % 40k baino gehiagok aipatu dute, bestalde, hizkuntzak jakitea enplegua lortzeko faktore mugatzaile gisa Eskuinaldean eta Debagoienan, eta % 20 gainditzen da Ezkerraldean, Durangaldean eta Debabarrenan.

* Adinarekin lotutako arazoak lan bila dabiltzan eta kudeaketak egin dituzten pertsonen % 30ek baino gehiagok aipatu ditu Bilboko eremuko hiru eskualdeetan eta Debabarrenan, eta % 40tik gorako zifrak daude Donostialdean, Tolosa-Goierrin eta Debagoienan.

* Sexuarekin eta familia-kargekin lotutako mugak lan bila dabiltzan eta kudeaketak egin dituzten pertsonen % 20-25ek aipatu dituzte Eskuinaldean, Bilbon eta Durangaldean, eta % 36,1era iristen dira Tolosa-Goierrin. Sexuaren problematika espezifikoak maila esanguratsuak lortu ditu, aztertutako pertsonen % 8,4-11,2k aipatzen baitu Eskuinaldean, Bizkaia-Kostan, Debagoienan eta Debabarrenan.

* Mugikortasun geografikoarekin lotutako problematikak banatu samar daude, baina % 23ko mailak gainditzen dituzte, edo maila horietara hurbiltzen dira Eskuinaldean eta Ezkerraldean.

* Soldata-helburuekin lotutako mugen eraginak aztertutako kolektiboaren % 15 gainditzen du Eskuinaldean, Bizkaia-Kostan eta Deba ibaiaren haraneko bi eskualdeetan.

* Azkenik, ikusten da jatorrizko herrialdearekin eta muga fisikoekin lotutako mugen eraginaren intzidentzia diferentzial bat dagoela. Muga fisikoak aztertutako pertsonen % 5en baino gehiagoren ezaugarri dira Bizkaia-Kostan, Debagoienan eta Debabarrenan, % 3,5etik hurbil edo hortik behera dauden zifrekin gainerako eskualdeetan; aitzitik, jatorrizko herrialdearekin lotutako mugak (eskualde gehienetan biztanleriaren % 4 baino gutxiago hartzen ditu eraginpean) lan bila dabilen eta kudeaketak egin dituen kolektiboaren % 11-13ren ezaugarria da Gasteizen, Eskuinaldean, Bilbon eta Bizkaia-Kostan.

**Lan bila dabilen eta kudeaketak egin dituen 16-64 urteko biztanleria, jarduerarekiko erlazioaren eta lana lortzeko mugen arabera. 2010**
(taldearen %-a)

| Mugak | Landuna | Langabea | Ez-aktiboa | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Ikasketa-maila | 37,5 | 42,0 | 29,4 | 40,7 |
| Hizkuntzak | 21,8 | 27,4 | 19,8 | 26,1 |
| Lan-esperientzia | 43,3 | 37,6 | 43,8 | 38,9 |
| **Kalifikazioa/Esperientzia** | **71,4** | **70,4** | **62,3** | **70,2** |
| Familia-kargak | 10,6 | 13,2 | 31,2 | 13,5 |
| Sexua | 4,1 | 4,7 | 13,3 | 4,9 |
| **Sexua/familia-kargak** | **14,7** | **17,4** | **41,9** | **17,9** |
| Soldata-helburuak | 11,8 | 9,7 | 6,0 | 9,9 |
| Mugikortasun geografikorako ezintasuna | 17,3 | 18,4 | 14,3 | 18,0 |
| Adina | 35,4 | 34,3 | 23,3 | 34,0 |
| Jatorrizko herrialdea | 9,1 | 6,9 | 5,4 | 7,2 |
| Muga fisikoa | 2,2 | 2,5 | 7,3 | 2,7 |
| **Mugaren bat** | **90,7** | **92,9** | **95,0** | **92,6** |

**Lan bila dabilen eta kudeaketak egin dituen 16-64 urteko biztanleria, lana lortzeko mugen arabera**
**2001-2010 aldia**
(taldearen %-a)

| Mugak | 2001 | 2003 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Ikasketa-maila | 26,8 | 27,8 | 33,0 | 27,7 | 32,6 | 40,7 |
| Hizkuntzak | 24,8 | 18,9 | 24,5 | 22,2 | 25,9 | 26,1 |
| Lan-esperientzia | 37,1 | 38,2 | 38,0 | 32,3 | 28,3 | 38,9 |
| **Kalifikazioa/Esperientzia** | **63,4** | **61,4** | **67,1** | **59,8** | **61,7** | **70,2** |
| Familia-kargak | 9,8 | 6,6 | 12,6 | 16,4 | 11,5 | 13,5 |
| Sexua | 5,5 | 7,8 | 5,8 | 4,2 | 3,0 | 4,9 |
| **Sexua/familia-kargak** | **14,7** | **14,0** | **17,6** | **19,5** | **14,2** | **17,9** |
| Soldata-helburuak | 11,4 | 8,3 | 15,0 | 16,2 | 12,2 | 9,9 |
| Mugikortasun geografikorako ezintasuna | 13,9 | 11,0 | 14,9 | 13,8 | 16,9 | 18,0 |
| Adina | 18,5 | 26,5 | 20,6 | 21,8 | 17,9 | 34,0 |
| Jatorrizko herrialdea | 2,7 | 2,6 | 3,8 | 5,8 | 6,3 | 7,2 |
| Muga fisikoa | 2,3 | 3,2 | 2,5 | 2,8 | 2,4 | 2,7 |
| **Mugaren bat** | **83,5** | **83,5** | **93,0** | **87,0** | **86,5** | **92,6** |

**Lan bila dabilen eta kudeaketak egin dituen 16-64 urteko biztanleria, lana lortzeko izandako mugen eta eskualdearen arabera. 2010**

(taldearen %-a)

| Mugak | Gasteiz | Aiaraldea | Eskuinaldea | Bilbo | Ezkerraldea | Bizkaia-Kosta | Durangaldea | Donos-tialdea | Tolosa-Goierri | Deba-goiena | Deba-barrena | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ikasketa-maila | 14,7 | 21,3 | 46,6 | 44,9 | 52,6 | 42,2 | 59,2 | 37,3 | 47,7 | 64,0 | 39,4 | 40,7 |
| Hizkuntzak | 15,5 | 20,7 | 41,6 | 28,5 | 33,9 | 18,8 | 30,3 | 19,5 | 16,0 | 49,5 | 30,7 | 26,1 |
| Lan-esperientzia | 18,3 | 16,8 | 39,5 | 47,6 | 45,4 | 56,3 | 40,5 | 33,9 | 40,9 | 44,3 | 57,6 | 38,9 |
| **Kalifikazioa/Esperientzia** | **43,9** | **50,4** | **78,0** | **77,9** | **81,4** | **75,9** | **81,8** | **65,0** | **70,2** | **86,5** | **77,6** | **70,2** |
| Familia-kargak | 8,1 | 12,8 | 14,8 | 19,6 | 11,4 | 9,6 | 17,5 | 11,9 | 31,0 | 8,7 | 4,2 | 13,5 |
| Sexua | 1,2 | 2,3 | 10,2 | 5,9 | 5,3 | 8,4 | 2,6 | 3,3 | 5,1 | 9,5 | 11,2 | 4,9 |
| **Sexua/familia-kargak** | **9,2** | **15,1** | **24,3** | **24,6** | **16,7** | **15,7** | **20,1** | **14,9** | **36,1** | **18,3** | **14,0** | **17,9** |
| Soldata-helburuak | 10,1 | 7,1 | 15,7 | 4,5 | 13,5 | 21,6 | 16,0 | 5,2 | 1,1 | 17,5 | 17,8 | 9,9 |
| Mugikortasun geografikorako ezintasuna | 12,5 | 14,2 | 28,4 | 15,5 | 23,0 | 12,9 | 20,8 | 17,2 | 21,7 | 13,8 | 14,5 | 18,0 |
| Adina | 21,7 | 16,4 | 31,1 | 31,8 | 36,6 | 27,7 | 27,0 | 42,8 | 68,3 | 47,9 | 35,1 | 34,0 |
| Jatorrizko herrialdea | 13,0 | 3,1 | 12,2 | 11,3 | 3,9 | 11,0 | 3,5 | 2,0 | ,0 | 4,0 | 2,3 | 7,2 |
| Muga fisikoa | 3,7 | 3,1 | 1,6 | 2,4 | 1,8 | 6,0 | ,0 | 2,7 | ,0 | 8,4 | 6,7 | 2,7 |
| **Mugaren bat** | **83,9** | **81,3** | **97,3** | **98,0** | **95,9** | **95,5** | **93,9** | **88,6** | **97,5** | **91,4** | **84,9** | **92,6** |

Kalifikazioaren edo esperientziaren arazoen barne-azterketak agerian utzi du arazoaren edukia aldatu egiten dela lortutako ikasketa-mailaren arabera. Ildo horretatik, ikasketa-maila txikiarekin loturiko problematikaren kasuan, egiaztatu dugu arazo horren eraginpeko gehienak lanbide-arloko edo unibertsitateko ikasketarik ez duten taldeetakoak direla (guztizkoaren % 61,1). Aldiz, hizkuntzekin edo behar besteko lan-esperientziarik ez izatearekin loturiko arazoei dagokienez, lanbide-arloko edo hirugarren mailako ikasketak dituztenek aipatu dituzte gehienbat (% 56,5 eta % 53,4, hurrenez hurren).

Datuak termino erlatibotan dagozkion erreferentzia-taldeen barruan aztertzen baditugu, egiaztatzen da ikasketa-mailaren problematikak modu bereizgarrian hartzen duela eraginpean hasierako prestakuntza-maila txikiagoa duen biztanleria, eta problematika hori indartu egiten da, gainera, krisi-zirkunstantzia berrietan. Ildo horretan, lehen mailako ikasketak dituzten edo ikasketarik ez duten langabeen % 53,3k nabarmentzen ditu ikasketa-mailari loturiko mugak, eta proportzio horrek gora egiten du, 2007an 32,5era iritsi ondoren (2009an % 50,9ra iritsi zen). Bilakaera antzekoa da lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonei dagokienez. Kasu horretan, 2007an % 28,7an kokatu ondoren, adierazleak gora egin du 2009an % 37,1era iritsi arte, eta 2010ean lortu du gehienekoa: % 48.

Adierazlearen susperraldia ikusten da, halaber, 2009tik 2010era bitarte kalifikazio handiena duten kolektiboetan, nahiz eta kasu honetan 2007-2009 aldian murrizketa izan ondoren. Lanbide-ikasketak dituzten pertsonen artean, 2007an ia etengabe % 33,3ra igo ondoren, ikasketa-mailaren problematika aipatzen duten pertsonen proportzioa % 26,2ra jaitsi da 2009an, eta berriz ere gora egin du 2010ean, % 36,7ko gehienekoa lortuz. Joera antzekoa izan da hirugarren mailako ikasketak dituzten pertsonen kasuan, nahiz eta jaisteko prozesuari hasiera eman zaion 2006an. Hortaz, adierazlea % 18,7tik % 16ra jaitsi da 2006-2009 aldian, baina % 23,6ko gehienekora igo da, halaber, 2010ean.

Lan-esperientziaren arazoa aztertzean, egiaztatzen da laneratzeko mugek oro har goranzko joera hartu dutela, langabeen ikasketa-maila hobetzen den neurrian. Arazo horrek beste lan bat bilatzen ari diren unibertsitateko tituludunen % 43,1 eta lanbide-arloko bigarren mailako ikasketak dituztenen % 38,2 hartzen ditu eraginpean, baina lehen mailako ikasketak edo beheragokoak dituztenetan % 31,5era jaitsi da. Joera horren salbuespen bakarra bigarren mailako lanbidekoak ez diren ikasketak egiten dituztenena da; horien arteko % 45,1ek nabarmendu du lana lortzeko muga gisa lan-esperientziarik ez izatea.

Lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonak dira, hain zuzen ere, esperientziarik ezaren problematika gehien pairatzen dutenak krisi-zirkunstantzia berrietan. Horrela, bada, 2009-2010 aldian eten egiten da epe ertaineko beheranzko joera lan-esperientziarik ez izatearekin lotutako problematiken adierazlean, 2005etik aurrera kolektibo horren ezaugarri zen adierazlean, alegia. Hortaz, 2011n 33,5etik abiatuta igo ondoren, ikusten zen jaitsiera izan zela

2005eko % 45,3tik 2009ko % 28,5era. 2010eko % 43,1eko zifrekin 2005eko mailetara itzuli dira, baina langabeziaren eragina handiagoa den testuinguruan.

Lan-esperientziaren eraginak 2009-2010 aldian izandako goranzko joera beste ikasketa-maila guztietan ere ikusten den ezaugarria da. Ikasketarik gabeko edo lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen kasuan, adierazlea 2007ko % 21,4tik 2010eko % 31,5era igo da. Adierazle hori, ordea, % 32,9tik % 27,6ra jaitsi zen 2007-2009 aldian bigarren mailako lanbide-ikasketak zituzten pertsonen kasuan, eta % 38,4tik % 35,2ra hirugarren mailako ikasketak dituzten pertsonen kasuan, baina maila horiek 2009-2010 aldian % 38,2tik % 43,1era igo dira, hurrenez hurren.

Aurreko urteetan ez bezala, hizkuntzak jakitearekin lotutako problematiken eraginak ere goranzko joera izan du, ikasketa-mailarekin batera, gehieneko zifrak (% 30,5) lortu baitira unibertsitateko ikasketak dituzten pertsonen kasuan, baina zifra horiek % 27,3ra jaisten dira lanbide-ikasketak dituzten pertsonen kasuan eta % 21,4ra lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen kasuan, lehen mailako ikasketak edo hortik beherakoak dituen biztanleriari dagokion % 24,8tik zertxobait beherago kasu horretan. Azken bilakaerak erakutsi du hizkuntzekin lotutako problematika areagotu egin dela unibertsitateko biztanleriaren artean, kasu horretan adierazlea % 25,9tik % 30,5era igaro baita 2009-2010 aldian, alderdi horren garrantzi erlatiboa aldi honetan bestelako ikasketa-kolektiboetan egonkortzen edo galtzen ari den testuinguruan..

**Lan bila dabilen, kudeaketak egin dituen eta kalifikazioari/esperientziari loturiko arazoak izan dituela adierazi duen 16-64 urteko biztanleria, muga motaren eta ikasketa-mailaren arabera**

(% bertikalak eta erreferentzia-biztanleriaren gaineko %)

| Muga mota eta ikasketa-maila | | % ber. | erreferentziazko biztanleriaren %-a (1) |
|---|---|---|---|
| **Ikasketa-maila** | Lehen mailakoak | 37,1 | 53,3 |
| | Bigarren mailakoak | 24,1 | 48,0 |
| | Lanbide-ikasketak | 25,6 | 36,7 |
| | Unibertsitate-ikasketak | 13,3 | 23,6 |
| | Guztira | 100 | 40,7 |
| **Hizkuntza-maila** | Lehen mailakoak | 26,9 | 24,8 |
| | Bigarren mailakoak | 16,7 | 21,4 |
| | Lanbide-ikasketak | 29,6 | 27,3 |
| | Unibertsitate-ikasketak | 26,8 | 30,5 |
| | Guztira | 100 | 26,1 |
| **Lan-esperientzia** | Lehen mailakoak | 22,9 | 31,5 |
| | Bigarren mailakoak | 23,7 | 45,1 |
| | Lanbide-ikasketak | 27,9 | 38,2 |
| | Unibertsitate-ikasketak | 25,5 | 43,1 |
| | Guztira | 100 | 38,9 |
| **Kalifikazioa/esperientzia** | Lehen mailakoak | 29,2 | 72,5 |
| | Bigarren mailakoak | 21,4 | 73,7 |
| | Lanbide-ikasketak | 27,4 | 67,9 |
| | Unibertsitate-ikasketak | 22,0 | 67,3 |
| | Guztira | 100 | 70,2 |

(1) Lan bila dabilen eta kudeaketak egin dituen ikasketa-maila bakoitzeko biztanleriaren %-a

Sexuarekin eta familia-kargekin loturiko eragozpenek gehienbat emakumeak hartzen dituzte eraginpean oraindik ere. Sexuarekin loturiko lanerako mugak izan dituzten kasuen % 84,6, eta familia-kargekin zerikusia dutenen % 63,3 lan bila dabiltzan eta kudeaketak egin dituzten emakumeei dagokie. Dena den, gorakada nabarmena ikus daiteke azken urteetan gizonek familia-kargei loturiko problematiketan duten egitekoari dagokionez (2007an horrelako arazoak zituzten guztizkoaren % 16,5etik 2010eko % 36,7ra, % 6,3tik % 9,2rako hazkundera lotuta kolektibo horretan arazo horrek eraginpean harturiko gizonen guztizko proportzioan). 2009tik 2010era bitarte sexuarekin hertsiki lotutako problematiken intzidentzia ere igo egin da gizonen artean (% 0,4tik % 1,4ra).

Eraginpeko biztanleria gutxiengoa da kasu guztietan, baina daturik deigarriena lan bila dabiltzan eta kudeaketak egin dituzten emakumeen artean familia-kargek duten eragina da orain ere: emakume horien % 18,5ek gaur egun adierazi du familia-kargen arazoa muga dela lan berria lortzeko. 2007ko % 23,9arekiko beheranzko joera garbian bada ere, eta ezin ahaztuko dugu urte horrek enplegu-eskatzaileen zifren funtsezko murrizketa izan zuela ezaugarritzat, 2010eko adierazleak 2009ko % 16,9ko zifra ez ezik 2005eko eta 2006ko mailak ere gainditu ditu (% 17,9 eta 15,6 bi urte horietan); era berean, 2003. urtean ikusitako % 9,1eko gutxienekoa eta 2001eko % 13,2a ere gainditzen ditu. 2009-2010 aldian ere gora egin du (% 6,2tik % 9ra) generoa edo sexua beste okupazio bat lortzeko elementu mugatzailetzat hartzen duten emakumeen proportzioa. 2003ko % 12,8tik eta 2005eko % 10,5etik beherago badago ere, 2010eko adierazlea 2001ean ikusitako mailetatik hurbil dago (% 8,8 urte hartan).

**Lan bila dabilen, kudeaketak egin dituen eta generoari eta familia-kargei loturiko arazoak izan dituela adierazi duen 16-64 urteko biztanleria, muga motaren eta sexuaren arabera**

(% bertikalak eta erreferentzia-biztanleriaren gaineko %)

| **Muga mota eta sexua** | | % ber. | Erreferentziazko biztanleriaren %-a (1) |
|---|---|---|---|
| **Sexua** | Gizonak | 15,4 | 1,4 |
| | Emakumeak | 84,6 | 9,0 |
| | Guztira | 100 | 4,9 |
| **Familia-kargak** | Gizonak | 36,7 | 9,2 |
| | Emakumeak | 63,3 | 18,5 |
| | Guztira | 100 | 13,5 |
| **Bata edo bestea** | Gizonak | 31,8 | 10,6 |
| | Emakumeak | 68,2 | 26,6 |
| | Guztira | 100 | 17,9 |

(1) Lan bila dabilen eta kudeaketak egin dituen talde bakoitzeko biztanleriaren %-a

Oro har, lan bila dabiltzan eta beste okupazio bat lortzeko kudeaketak egin dituzten emakumeen % 26,6k sexuari edo familia-kargak izateari loturiko lanerako muga motaren bat planteatu du 2010ean, gizonen kasuan ikusitako % 10,6aren gainetik argi eta garbi. 2009ko datuekin alderatuta (% 7,4 urte hartan), problematika horren intzidentzia ere gizonen artean igo egin dela ikusten dugun arren, emakumeen kasuan, 2010eko zifrek nabarmen egin dute gora, adierazlea 2009ko zifrak (% 22,4) nahiz langabeziaren intzidentzia handia den beste aldi batzuetan ikusitako zifrak baino gorago dago, 2001-2003 aldiko zifrak 19,4tik % 21,4ra bitartekoak izan baitira. Aitzitik, 2005eko % 26,7ra hurbiltzen dira, baina 2007ko % 29tik behera geratzen dira.

Lan bila dabiltzan eta lana bilatzeko kudeaketak egin dituzten emakumeen kolektiboari dagokionez, 12 urtera bitarteko adingabeak etxekoen unitatean izatea funtsezkoa da oraindik ere. Sexuarekin eta familia-kargekin lotutako enplegurako mugak nabarmentzen dituzten emakumeen proportzioa batez bestekoaren azpitik dago 2010ean adin horretako seme-alabak ez dituztenen artean, ezkonduta dauden edo ez alde batera utzita (% 26,1 eta % 12,9, hurrenez hurren). Aitzitik, adierazitako mugek beren kargura seme-alabak dituzten emakume ezkonduen % 59,2 hartzen dute eraginpean, eta egoera horretan dauden ezkongabeen % 49.

12 urtetik beherako seme edo alabaren bat edukitzea, hortaz, funtsezko elementua da emakumeen artean sexuarekin eta familia-kargekin loturiko mugen eragina neurtzeko garaian. Baina ezkonduta egoteak ere zailtasunak ekartzen ditu familia eta enplegua uztartzeko garaian. Horrela, genero-mugen intzidentzia askoz ere handiagoa da emakume ezkonduen artean, eta bereziki 12 urteko semerik edo alabarik ez badute (% 26,1; ezkongabeen artean, aldiz, % 12; % 59,2 batetik eta % 49 bestetik horrelako adingabeak daudenean). Langabezia-maila handiko aldiak aintzat hartzen baditugu, ikus daiteke aintzat hartutako problematikaren garrantziak gora egin duela semerik edo alabarik ez duten emakume ezkondu mota horren kasuan: sexuaren edo familia-kargen faktorearen eragina dela medio enplegua lortzeko mugen adierazlea 2001-2003 aldiko % 15etik hurbil dauden zifretatik 2009ko % 18,6ra eta 2010eko % 26,1era igotzen da.

Bestalde, 2009an bezala, 12 urtetik beherako seme edo alaba bat baino gehiago izatearen ondorioz desberdintasun handi batzuk daude aintzat hartutako problematiken intzidentziari dagokionez. Ildo horretan, eragin bereizgarri nabarmena ikusten da 2 seme edo alaba edo gehiago dauden kasuetako sexuarengatiko edo familia-kargengatiko mugen intzidentzian emakume ezkonduen kasuan (% 73; seme edo alaba bat bakarrik baldin badago, berriz, % 48). Errealitate hori sexuak edo familia-kargek duten goranzko garrantziarekin lotzen da bi seme edo alaba edo gehiago izatea lana lortzeko muga baita emakume mota horrentzat. 2001ean % 52,9ko zifrak zeuden, baina 2009an eta 2010ean 61,8ra eta % 73ra iritsi ziren, hurrenez hurren. Emakume ezkongabeen kasuan, ordea, ia ez dago alderik seme-alaba kopuruaren arabera (% 48,5 seme edo alaba bat dutenen kasuan, eta % 49,7 bi seme edo alaba edo gehiago dutenen kasuan).

**Lan bila dabiltzan, kudeaketak egin dituzten eta generoari edo familia-kargak izateari loturiko arazoak izan dituztela adierazi duten 16-64 urteko emakumeak, egoera zibilaren eta 12 urte bitarteko seme-alaba kopuruaren arabera 2010**

(% bertikalak eta erreferentzia-biztanleriaren gaineko %)

| **Egoera zibilaren eta seme-alaba kopuruaren araberako egoera** | % ber. | Erreferentziazko biztanleriaren %-a (1) |
|---|---|---|
| Seme-alabarik gabeko emakume ezkonduak | 19,9 | 26,1 |
| Seme-alabarik gabeko emakume ezkongabeak | 26,4 | 12,9 |
| Seme-alabadun emakume ezkonduak | 39,1 | 59,2 |
| *Seme edo alaba bat* | *17,6* | *48,0* |
| *2 seme edo alaba edo gehiago* | *21,6* | *73,0* |
| Seme-alabadun emakume ezkongabeak | 14,5 | 49,0 |
| *Seme edo alaba bat* | *9,2* | *48,5* |
| *2 seme edo alaba edo gehiago* | *5,4* | *49,7* |
| Guztira | 100 | 26,6 |

(1) Lan bila dabilen eta kudeaketak egin dituen talde bakoitzeko biztanleriaren %-a

**Lan bila dabiltzan eta kudeaketak egin dituzten 16-64 urteko emakumeak. 2001-2010 aldia**

Lan bat lortzeko sexuarekin edo familia-kargekin lotutako arazoak dituela adierazi dutenen ehunekoaren bilakaera, egora zibilaren edo seme-alaba kopuruaren arabera

| **Egoera zibilaren eta seme-alaba kopuruaren araberako egoera** | 2001 | 2003 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Seme-alabarik gabeko emakume ezkonduak | 15,2 | 14,6 | 26,6 | 19,8 | 18,6 | 26,1 |
| Seme-alabarik gabeko emakume ezkongabeak | 12,1 | 17,4 | 13,7 | 10,9 | 10,8 | 12,9 |
| Seme-alabadun emakume ezkonduak | 53,8 | 51,8 | 53,5 | 62,4 | 52,3 | 59,2 |
| *Seme edo alaba bat* | *54,4* | *46,5* | *54,1* | *64,4* | *46,9* | *48,0* |
| *2 seme edo alaba edo gehiago* | *52,9* | *64,5* | *52,8* | *58,5* | *61,8* | *73,0* |
| Seme-alabadun emakume ezkongabeak | 39,8 | 39,5 | 52,0 | 49,9 | 38,2 | 49,0 |
| *Seme edo alaba bat* | *40,5* | *39,1* | *53,7* | *50,1* | *32,5* | *48,5* |
| *2 seme edo alaba edo gehiago* | *37,3* | *43,9* | *45,7* | *49,6* | *50,2* | *49,7* |
| Guztira | 21,1 | 21,4 | 26,7 | 29,0 | 22,4 | 26,6 |

Adinari dagokionez, enplegurako muga gisa, ikusten da eragozpen hori izan dutela adierazten duten enplegu-eskatzaileen % 64,3k 40 urte edo gehiago dituela, baina gehienbat 40-59 urtekoetan metatzen da arazo hori. Izan ere, adin-tarte horretan handiagoa da adinaren arazoa izan dutela esan dutenen kopurua lan bila dabiltzanen artean. 25-34 urteko pertsonen artean % 13,6tik % 15,3ra bitarteko kopuruak nabarmentzen du gai hori, eta kopurua % 18ra igotzen da 35-39 urtekoetan, baina proportzioa % 39,2ra iristen da 40-44 urtekoen taldean. 45 urtetik gorakoetan, adina eragozpen bihurtzen da lana lortzeko, eta lan berria bilatzen ari diren eta kudeaketak egiten ari diren gehienei eragiten die arazo horrek.

Nolanahi ere, 2010eko datu adierazgarri bat da 25 urtetik beherako pertsonen % 30etik % 35era bitarteko kopuruak nabarmentzen duela enplegurako alderdi mugatzaile hori; esan behar dugu, bestalde, kopuru hori izugarri igo dela 2009ko % 7,6-8,1 mailak aintzat hartzen baditugu. Enplegua lortzeko muga gisa adinak duen garrantzia adin guztietan igotzen da 2009-2010 aldian, 2007-2009 aldian atzemandako jaitsierarekin kontrastean, baina 25 urtetik beherako pertsona horiengan sumatzen da gehien ikusitako aldaketa, 20 urtetik beherako pertsonen artean 28 puntuko igoerak baitaude (% 7,6tik % 35,5era) eta 22,4 puntukoak 20-24 urtekoen artean (% 8,1etik % 30,5era). Alderdi horren igoerak ere eragin diferentziala du, ordea, 50-59 urtekoen artean, % 51,9tik % 73,2ra igotzen baita 50-54 urtekoen artean eta % 69,4tik % 87,2ra 55-59 urtekoen artan. Hala eta guztiz ere, deigarriena da (adinaren muga aipatzen duten pertsonen artean) 35 urtetik beherakoen kolektiboaren garrantzia 2009ko % 14,6tik % 2010eko % 27,7ra igo dela.

**Lan bila dabilen, kudeaketak egin dituen eta adinari loturiko arazoak izan dituela adierazi duen 16-64 urteko biztanleria, adinaren arabera. 2010**

(% bertikalak eta erreferentzia-biztanleriaren gaineko %)

| **Adina** | % ber. | erreferentziazko biztanleriaren %-a (1) |
|---|---|---|
| 16-19 | 2,3 | 35,5 |
| 20-24 | 11,1 | 30,5 |
| 25-29 | 8,3 | 15,3 |
| 30-34 | 6,0 | 13,6 |
| 35-39 | 8,0 | 18,0 |
| 40-44 | 15,0 | 39,2 |
| 45-49 | 14,9 | 54,4 |
| 50-54 | 16,9 | 73,2 |
| 55-59 | 12,7 | 87,2 |
| 60-64 | 4,8 | 94,0 |
| Guztira | 100 | 34,0 |

(1) Lan bila dabilen eta kudeaketak egin dituen talde bakoitzeko biztanleriaren %-a

**Lan bila dabilen eta kudeaketak egin dituen 16-64 urteko biztanleria**

Lana lortzeari begira, adinarekin lotutako azaroak dituela adierazi dutenen ehunekoaren bilakaera, adinaren arabera

| Adina | 2001 | 2003 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 16-19 | 13,1 | 10,0 | 23,4 | 21,6 | 7,6 | 35,5 |
| 20-24 | 2,5 | 13,4 | 7,6 | 8,0 | 8,1 | 30,5 |
| 25-29 | 3,0 | 11,0 | 4,2 | 2,8 | 3,3 | 15,3 |
| 30-34 | 10,6 | 12,3 | 8,0 | 5,5 | 3,3 | 13,6 |
| 35-39 | 19,8 | 29,6 | 20,6 | 17,5 | 11,4 | 18,0 |
| 40-44 | 36,1 | 51,4 | 29,2 | 45,5 | 27,5 | 39,2 |
| 45-49 | 60,0 | 63,6 | 55,0 | 56,1 | 42,6 | 54,4 |
| 50-54 | 72,5 | 82,0 | 73,2 | 77,3 | 51,9 | 73,2 |
| 55-59 | 80,2 | 91,9 | 86,3 | 74,7 | 69,4 | 87,2 |
| 60-64 | 95,7 | 23,5 | 69,3 | 79,3 | 82,9 | 94,0 |
| Guztira | 18,5 | 26,5 | 20,6 | 21,8 | 17,9 | 34,0 |

Nazionalitatearen araberako jatorriaren eragin mugatzaileari dagokionez, egiaztatzen da faktore horri loturiko laneratze-problematiken % 82,1 Europar Batasunetik kanpotik etorritako pertsonek aipatzen dutela. Beste % 9a Europar Batasuneko beste estatu batzuetako pertsonei dagokie, eta gainerako % 8,9a espainiar nazionalitateko pertsonak dira.

Lan bila dabiltzan, lana lortzeko kudeaketak egin dituzten eta Europar Batasuneko Estaturen batekoak ez direnen % 50,8k aipatu du jatorriarekin loturiko arazoren bat izan duela lan-munduan sartzeko. 2001-2005 aldiko % 52tik % 60ra bitarteko zifretatik 2007ko % 35,7ra jaitsi ondoren, 2007-2009 aldian adierazleak lehen aldiz egin du gora, 2009ko zifra % 43,3 baita. Arestian aipatutako % 50,8raino (2010. urtea) igotzen jarraitzen du, baina maila 2001-2003 aldiko puntuetatik ia 10 puntu beherago dago.

Jatorriaren problematika ere nabarmena da EBko herrialdeetatik etorritako atzerriko nazionalitatea duten pertsonen artean, horietatik % 37,4k aipatu baitu enplegurako alderdi mugatzaile hori. 2005eko % 38,8a gainditzen ez bada ere, ikusten da igoera nabarmena dela 2009ko % 31,6arekin alderatuta.

Bestalde, Estatuko herritartasuna duten pertsonen tasa % 0,7 baino ez da.

**Lan bila dabilen, kudeaketak egin dituen eta jatorrizko herrialdearekin loturiko arazoak izan dituela adierazi duen 16-64 urteko biztanleria, nazionalitatearen arabera**

(% bertikalak eta erreferentzia-biztanleriaren gaineko %)

| **Nazionalitatea** | % ber. | Erreferentziazko biztanleriaren %-a (1) |
|---|---|---|
| Espainiakoa | 8,9 | ,7 |
| EBko beste herrialderen batekoa | 9,0 | 37,4 |
| EBkoa ez den beste herrialderen batekoa | 82,1 | 50,8 |
| Guztira | 100 | 7,2 |

(1) Lan bila dabilen eta kudeaketak egin dituen talde bakoitzeko biztanleriaren %-a

**Lan bila dabilen eta kudeaketak egin dituen 16-64 urteko biztanleria**

Lana lortzeari begira, jatorrizko herrialdearekin lotutako azaroak dituela adierazi dutenen ehunekoaren bilakaera, nazionalitatearen arabera

| Nazionalitatea | 2001 | 2003 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Espainiakoa | 1,1 | ,8 | ,9 | ,7 | ,3 | ,7 |
| EBko beste herrialderen batekoa | 14,7 | 67,3 | 9,9 | 38,8 | 31,6 | 37,4 |
| EBkoa ez den beste herrialderen batekoa | 57,9 | 59,3 | 51,9 | 35,7 | 43,3 | 50,8 |
| Guztira | 2,7 | 2,6 | 3,8 | 5,8 | 6,3 | 7,2 |

## 8. Atzerritarrak

Zaila da Euskadin bizi diren 16-64 urteko atzerritarren jarraipena behar bezala egitea bereziki kolektibo horretara bideratuta ez dauden estatistika-eragiketetan. Izan ere, bizilekuan mugikortasun handia du biztanleria-talde horrek, eta oso zaila izaten da erregistro administratiboen bidez (esaterako, Erroldaren bidez) azterketak egitea; horretaz gain, batzuetan egoera instituzionalean daudenen edo pasadizokoen kolektiboaren berezko ezaugarriak ere hartzen ditu talde horrek. Bestalde, herritartasun berria nahiko erraz lortzen dute sarritan, bai ezkonduta, bai naturalizazio-prozesuen bidez. Arrazoi horiek guztiak aintzat hartuta, EAEko 16-64 urteko atzerritarrei buruz LMEan aurkeztu diren zenbatekoak kontu handiz aztertu beharrekoak dira. Alabaina, atzerritarren kolektiboa garrantzitsua denez, egoki iruditu zaigu gizarte-talde horren ezaugarriei buruzko hurbilketa laburra egitea.

50.Krisiaren aurrean hasieran eman zen erantzunetako bat izan zen 2007-2009 aldian igo egin zela jarduerarako joera talde guztietan, nazionalitatearekiko erlazioari dagokionez, indar berezia duena atzerritarren artean. Bertako biztanleriak goranzko ildoari eutsi dio 2009-2010 aldian, baina ikusi da, ordea, beheranzko joera bat dagoela atzerritarren artean. Emaitza da 2010ean EBtik kanpoko herrialdeetatik etorritako atzerritarren jarduera-tasa bertako biztanleriaren tasaren antzekoa izan dela (% 71,6 eta % 71,7, hurrenez hurren), eta EBko herrialdea ez den beste herrialde batzuetan jatorria duen biztanleriari dagokion tasa baino ez dago gainerako tasen gainetik (% 83,5). Horrek ekarriko du, neurri batean, 2007an ikusitako oreka-egoerara itzultzea; nolanahi ere, aldi horretako jarduera-tasekin alderatzen badugu, ikus dezakegu tasa horiek 1,4 puntu igo direla Estatuko herritartasuna duen biztanleriaren eta EBtik kanpoko herrialdeetatik etorritako biztanleriaren kasuan; horretaz gain, EBko beste Estatu batzuetatik etorritako biztanleriaren aldeko jardueraren diferentziala areagotu egin da. 2009ko 86,5etik jaitsi bada ere, kolektibo horren jarduera-tasa 2007ko tasa (% 72,1) baino 11,4 puntu handiagoa izan da 2010ean.

Biztanleria aktiboaren bilakaeraren testuinguru horretan, krisiarekin lotutako langabeziaren igoeraren inpaktua orokorrean handiagoa da atzerritarren artean, EBtik kanpoko herrialdeetatik etorritakoen artean behintzat. Kasu horretan, langabezia-tasa 2007an % 8,8 izatetik 2010ean % 26,3 izatera igaro da, 17,4 puntuko igoerarekin. Igoera hori 7,7 puntukoa da EBko beste herrialde batzuetan jatorria duten pertsonen artean, 2007an % 8,1eko maila izatetik (gainerako atzerritarren mailatik hurbil, beraz) 2010ean % 15,8ko maila izatera igaro baita. Bertako biztanleriaren langabezia-tasa, bestalde, 6,3 puntu igo da, 2007an % 2,9 izatetik 2010ean % 9,2 izatera igaro baita. Tasak goranzko joera izan du bertako biztanleriaren artean, 2009tik 2010era bitarte % 7,8tik % 9,2ra igo baita, baina langabezia egonkortu egin da atzerritarren artean. % 15,8ko langabezia-tasari eutsi zaio EBko beste herrialde batzuetan jatorria duten pertsonen artean, baina tasa hori zertxobait jaitsi da (% 27tik % 26,3ra) EBtik kanpoko herrialdeetatik etorritako pertsonen kasuan.

Atzerritarren langabezia-tasak egonkorrak izatea, ordea, 2009-2010 aldiko jarduera-zifrek beheranzko joera izatearen ondorioa da neurri batean, 16-64 urteko biztanleriaren okupazio-koefizienteek behera egin baitute. EBtik kanpoko beste herrialde batzuetatik etorritako atzerritarren kasuan, jaitsiera hori 2007ko okupazio-koefizienteak baino handiagoak diren koefizienteekin bateragarria da (% 70,3 eta % 66,3, hurrenez hurren, 2009an % 72,8ra iritsi ondoren). EBko beste herrialde batzuetatik etorritako atzerritarrei dagokienez, koefizienteak modu jarraituan eta nabarmen jaitsi dira, ordea, 2007an % 64 izatetik 2009an % 54,1 eta 2010ean % 52,8 izatera igaro baitira. Maila txikiagoan bada ere, okupazio-koefizienteen murrizketak eragiten du bertako biztanleriarengan ere, 2007ko % 68,2ko zifrak 2009an % 65,6ra eta 2010ean % 65,1era jaitsi baitira. 2007an atzerritar mota desberdinena baino handiagoa izanik, bertako biztanleriaren okupazio-koefizientea, 2009an gertatzen zen bezala, EBko herrialdeetan jatorria duen biztanleriari dagokion koefizientea baino txikiagoa izan da.

Gogoratu behar da EBtik kanpoko herrialdeetatik etorritako atzerritarren kasuan, okupazio-mailen joera negatiboa 2007-2009 aldiko krisia iritsi baino lehen hasi zela, 2006an % 67,2ko koefizientea baitzegoen. 2006-2010 aldian, beraz, okupazioaren 14,4 puntu galdu dira aintzat hartutako atzerritarren taldean. Nolabait ere, talde horren okupazioaren bilakaera negatiboaren jatorria 2005-2006 aldiari ere lotu ahal zaio. Ildo horretan, kolektiboaren okupazio-koefizientearen egonkortzea ezaugarri duen aldia dugu hori, hiru hamarren eskaseko hazkundearekin, bertako herritarren arteko 1,5 puntuko eta EBko beste herrialde batzuetatik datozenen arteko 4,8ko gorakadarekin kontrastean.

EBtik kanpoko herrialde batzuetatik datorren biztanleriaren kasuan okupazioak duen bilakaera negatiboa hobeto kontrasta daiteke EAEren batez besteko zifretatik bereizten duen okupazio-diferentzialaren bilakaera kontuan hartzean. Horrela, egiazta daitekeenez, 2005-2006 aldian, azterturiko biztanleria 2005ean EAEkoa baino 0,7 puntu handiagoa zen okupazio-koefizientea izatetik 2006an 0,4 puntu txikiagoa den zifra izatera igaro zen. EAEren batez besteko koefizientearekiko tartea 4,1 puntu handiagoa izan zen 2007an, 11,2 puntura iritsi zen 2009an, eta gehieneko 11,8 puntura 2010ean. EBtik kanpoko biztanleriaren okupazioaren krisialdiaren jatorria, beraz, 2007-2009 aldiko krisialdia baino askoz ere lehenagokoa da, 2009an ikusitako aldeen garrantzia zehazten duena krisialdi hori bada ere.

Aurkezturiko datuek ez dute esan nahi, alabaina, Euskadin 2007-2010 aldian okupazioan izandako beherakada absolutua atzerritarrei lotzen zaienik. Etorkinen gorakada-testuinguru batean, baita haien jarduerarako joeraren gorakada-testuinguru batean ere, kolektiboaren zati baten okupazio-koefizienteen beherakada bat bateragarria izan daiteke etorkin landunen gorakada absolutuarekin; fenomeno hori EAEn ikusten da aldi horretan, nahiz eta okupazioa egonkorra izan 2009-2010 aldian. Atzerritarren okupazio-kopurua, beraz, 2007ko okupazio-zifra baino % 14,9 handiagoa izan da 2010ean.

**16-64 urteko biztanleriaren oinarrizko okupazio-adierazleak, nazionalitatearen arabera**

**2005-2010 aldia**

(%-tan)

| | **Jarduera-tasa** | | | |
|---|---|---|---|---|
| Nazionalitatea | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
| Espainiakoa | 69,4 | 70,3 | 71,2 | 71,7 |
| EBko beste herr. batekoa | 81,6 | 72,1 | 86,5 | 83,5 |
| Beste bat | 75,9 | 70,2 | 74,1 | 71,6 |
| Guztira | 69,6 | 70,3 | 71,5 | 71,8 |
| | **Langabezia-tasa** | | | |
| Nazionalitatea | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
| Espainiakoa | 4,7 | 2,9 | 7,8 | 9,2 |
| EBko beste herr. batekoa | 13,9 | 8,1 | 15,8 | 15,8 |
| Beste bat | 11,9 | 8,8 | 27,0 | 26,3 |
| Guztira | 4,9 | 3,1 | 8,7 | 10,0 |
| | **Okupazio-koefizientea** | | | |
| Nazionalitatea | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
| Espainiakoa | 66,1 | 68,2 | 65,6 | 65,1 |
| EBko beste herr. batekoa | 70,2 | 66,3 | 72,8 | 70,3 |
| Beste bat | 66,9 | 64,0 | 54,1 | 52,8 |
| Guztira | 66,1 | 68,1 | 65,2 | 64,6 |

51.Atzerritarren prekarietate diferentzial handiena, bertako biztanleriaren langabezia-tasak baino tasa handiagoen eraginpean dagoena, ikus daiteke beste adierazle batzuei dagokienez ere, bereziki EBtik kanpoko beste herrialde batzuetatik etorritako biztanleriaren kasuan. Honako bi alderdi hauek nabarmendu daitezke:

* Okupazio jarraitua izateko aukera gutxiago: % 35,7 EBtik kanpoko herrialdeetako biztanleriaren kasuan; % 55,9, aldiz, EBko herrialdeetatik etorritakoetan eta % 58,4 bertako biztanleriaren kasuan.

* Lanerako prest dagoen 16-64 urte biztanleriaren proportzioa askoz handiagoa da: % 34,4 EBtik kanpoko herrialdeetako biztanleriaren kasuan; % 17,5, aldiz, EBko beste Estatu batzuetatik etorritakoetan eta % 10,7 bertako biztanleriaren kasuan. Zifra horiek, beren norabideari eta esanahiari dagokionez, bat datoz neurri handi batean lan bila dabilen eta azken lau aste hauetan kudeaketak egin dituen biztanleriaren proportzioari buruzko zifrekin: % 26,1; erreferentziazko taldeetako 16-64 urteko biztanleriaren % 16,5 eta % 8,3, hurrenez hurren.

Ikusitako egoeraren zati garrantzitsu bat lan-baimena lortzeak askotan dakarren eragozpenarekin lotzen da. Ildo horretan, egiaztatu da 16-64 urteko atzerritarren % 17,1ek ez duela lan-baimenik, proportzio hori, ordea, % 20,1 da EBtik kanpoko herrialdeetatik etorritakoen kasuan. Bestalde,

proportzioa handiagoa da langabeen artean (26,5; gaur egun modu irregularrean lanean ari den biztanleriaren kasuan, berriz, % 14,2).

**16-64 urteko biztanleriaren bestelako okupazio-adierazleak, nazionalitatearen arabera**
**2005-2010 aldia**
**(%-tan)**

| | **Okupazio jarraitua duen biztanleriaren %-a** | | | |
|---|---|---|---|---|
| Nazionalitatea | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
| Espainiakoa | 58,1 | 61,5 | 60,1 | 58,4 |
| EBko b. herr. batek. | 56,6 | 46,9 | 54,1 | 55,9 |
| Beste bat | 40,5 | 45,2 | 41,9 | 35,7 |
| Guztira | 57,8 | 60,9 | 59,4 | 57,5 |
| | **Prestasun-tasa: Lanerako prest dagoen biztanleriaren %-a** | | | |
| Nazionalitatea | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
| Espainiakoa | 7,8 | 4,4 | 9,2 | 10,7 |
| EBko b. herr. batek. | 18,2 | 10,2 | 20,0 | 17,5 |
| Beste bat | 21,4 | 21,7 | 32,0 | 34,4 |
| Guztira | 8,1 | 5,0 | 10,2 | 11,7 |
| | **Lan bila dabilen eta kudeaketak egin dituen biztanleriaren %-a** | | | |
| Nazionalitatea | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
| Espainiakoa | 5,4 | 3,5 | 8,4 | 8,3 |
| EBko b. herr. batek. | 13,5 | 8,6 | 17,4 | 16,5 |
| Beste bat | 16,1 | 16,2 | 30,2 | 26,1 |
| Guztira | 5,6 | 3,9 | 9,4 | 9,1 |

**Lanerako baimenik ez duen 16-64 urteko biztanleria atzerritar aktiboa, jarduerarekiko erlazioaren eta nazionalitatearen arabera. 2010**
**%**

| | Jarduerarekiko erlazioa | | |
|---|---|---|---|
| Nazionalitatea | Landuna | Langabea | Guztira |
| EBko beste herrialderen batekoa | 2,4 | 26,8 | 6,3 |
| EBkoa ez den beste herrialderen batekoa | 17,9 | 26,5 | 20,1 |
| Guztira | 14,2 | 26,5 | 17,1 |

Atzerritarrak desabantaila-egoeran daudela erakusten duen beste eremu bat da aldi baterako kontratazio-egoerek edo kontraturik gabeko egoerek soldatapeko 16-64 urteko biztanleriaren artean duten garrantzia. Bertako biztanleriaren artean % 20,2 kasu daude; aitzitik, proportzio hori % 44 da

EBko herrialdeetan jatorria duten atzerritarren artean, eta % 53 EBtik kanpoko herrialdeetatik etorritakoen kasuan.

Kontraturik gabeko egoeren inpaktuak argiago bereizten ditu EBtik kanpoko herrialdeetatik etorritako pertsonak eta EBko herrialderen bateko nazionalitatea dutenak. Hortaz, kontraturik gabeko soldatapeko okupazioaren garrantzia % 3tik beherakoa da EBko herrialde bateko nazionalen artean, Europako erkidego politikoari atxikita ez dauden herrialdeetatik etorritako immigrazio atzerritarraren artean ikusitako % 16,9arekin alderatuta.

Nolanahi ere, 2009-2010 aldian, orokorrean, ikusten den goranzko joera gorabehera, talde guztietan azaltzen den alderdi positibo bat da kontratu mugagaberik gabeko pertsonen proportzioa txikiagoa izan dela 2010ean 2007an (krisialdia hasi baino lehen) baino.

**16-64 urteko soldatapeko landunak, nazionalitatearen eta kontratu motaren arabera. 2010**

(% bertikalak)

| Mota | Espainiakoa | EBko beste herrialderen batekoa | EBkoa ez den beste herrialderen batekoa | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Mugagabea | 79,8 | 56,0 | 47,0 | 78,4 |
| Aldi baterakoa | 18,6 | 41,2 | 36,0 | 19,4 |
| Kontraturik gabe | 1,6 | 2,8 | 16,9 | 2,1 |

**Kontratu mugagaberik gabeko 16-64 urteko soldatapeko landunen proportzioa, nazionalitatearen arabera 2005-2010 aldia**

(%-tan)

| Urtea | Espainiakoa | EBko beste herrialderen batekoa | EBkoa ez den beste herrialderen batekoa |
|---|---|---|---|
| 2005 | 25,3 | 37,8 | 56,2 |
| 2007 | 24,1 | 48,5 | 60,5 |
| 2009 | 17,6 | 41,6 | 47,7 |
| 2010 | 20,2 | 44,0 | 53,0 |

Kontratu bat lortzeko aukera garrantzi handiko elementua da, eta ikusten da egiazko erlazioa dagoela lana bilatzeko ikuspegiarekin gaur egungo landunen artean. Zifrak % 3 ingurukoak dira EBko herrialderen bateko bertako biztanleriaren artean, eta, gainera, beheranzko joera du epe ertainean; aitzitik, EBtik kanpoko herrialderen batetik etorritako biztanleriaren % 19,4 beste lan baten bila dabil. Zifra hori etengabe ari da igotzen kolektibo horretan 2005eko % 12,9tik abiatuta.

**Lan bila dabiltzan 16-64 urteko landunak, nazionalitatearen arabera. 2010**

(Lan bila dabiltzanen %-a)

| Urtea | Espainiakoa | EBko beste herrialderen batekoa | EBkoa ez den beste herrialderen batekoa |
|---|---|---|---|
| 2005 | 4,3 | 4,8 | 12,9 |
| 2007 | 2,5 | 6,9 | 16,8 |
| 2009 | 4,0 | 3,8 | 18,1 |
| 2010 | 3,4 | 3,1 | 19,4 |

52.Langabe atzerritarren (biztanleria aktibo guztiaren % 24) ezaugarri batzuk zehatzago aztertzen baditugu, nabarmendu dezakegu gizonen langabezia nagusitzen dela argi eta garbi. Gizonek atzerritar jatorriko pertsonen langabeziari egiten dioten ekarpena, 2006an % 56,9 zena, % 63,5era igo zen 2009an, eta % 65,4ra 2010ean. Gogoratu behar da zifra hori % 22,1 baino ez zela 2007an.

Deskribatutako egoerak erakusten du langabezia-tasen goranzko joera handia izan dela atzerriko gizonen artean krisialdian. Langabezia-tasa 2005eko % 15,2tik 2006ko % 9ra eta 2007ko % 3,8ra jaitsi ondoren, krisialdiaren ondorioz % 27,9ra igo da gizonen kolektibo horretan 2009. urtean, eta % 29,6ra 2010ean. Beraz, kolektibo horren langabezia-tasa Estatuko gizonena baino 20,4 puntu handiagoa da (% 9,2).

Goranzko joera garbia dagoela ikusten den arren, langabezia-tasaren bilakaera hobea izan da atzerriko emakumeen kasuan. 2005etik 2006ra bitarte % 9,2tik % 7,2ra jaitsi ondoren, langabezia-tasa % 13,8ra igo zen 2007. urtean, eta gehieneko % 20ra 2009an. 2010ean, berriz, % 17,7ra jaitsi da, urte horretako gizonen langabezia-tasa baino 11,8 puntu beherago. Bilakaera hori langabeziaren dinamikaren alderdi positibo gutxietako bat da EAEn 2009-2010 aldian; nolanahi ere, atzerriko emakumeen langabezia-tasa Estatuko nazionalitatea duten emakumeena baino askoz ere handiagoa izan da (% 9,3).

Azken urte hauetan langabeziak izandako goranzko joeraren ondorioz, 15-18 puntuko igoera izan da adin-talde guztietan, nahiz eta langabeziaren hainbat hazkunde-denbora dauden ikusi. 25 urtetik beherakoen kasuan, hazkunde handiena 2006tik 2007ra bitarteko aldian ikusi da, eta % 14,7tik % 26ra igaro da aldi horretan. Tasa hori % 23,5era jaitsi da 2009an, baina 2010ean goranzko joera hartu du eta % 30,1era iritsi da (langabezia-mailarik handiena atzerritarren artean).

25 urtetik gorako pertsonen kasuan, 2007an % 5etik hurbileko edo hortik beherako gutxieneko mailak lortu ondoren, langabezia-tasen hazkunde handiena 2007-2009 biurtekoari dagokio. Tasa % 30,6tik % 23,9ra jaitsi da 2009-2010 aldian 25-34 urtekoen artean, baina 2010. urtearen amaieran % 21,1 izan da 35-44 urtekoen artean, eta % 35,3 45 urtekoko edo gehiagoko pertsonen artean.

Datu azpimarragarri bat da egiaztatzea atzerriko langabeen % 87,2k 25 urte edo gehiago dituela, eta kasuen % 67 25-44 urtekoetan biltzen dela; aitzitik, % 20,2 45 urtetik gorakoetan eta % 12,8 25 urtetik beherakoetan.

Nabarmendu behar den beste alderdi bat, bertako biztanleriarekin alderatuta, honako hau da: atzerritarren kaltetan dagoen langabezia-diferentzialak igotzeko joera du adinak gora egiten duen neurrian. Ildo horretan, 25 urtetik beherako biztanlerian 4,6 puntura baino ez da iritsi (% 30,1; bertako biztanleriaren kasuan, berriz, % 25,5), nahiz eta errealitate hori adin horietan biztanleria mota orotan dauden langabezia-tasa handiekin lotzen den neurri handi batean. Aldeak 12 puntu ingurukoak dira 25-44 urtekoetan (25-34 urtekoetan % 23,9 eta % 11,2, hurrenez hurren, eta 35-44 urtekoetan % 21,1 eta % 8,9, hurrenez hurren). Gehieneko 19,1 puntura iritsi dira 45 urtekoen eta hortik gorakoen kasuan. Bertako biztanleriaren artean langabezia-tasa % 5etik hurbil dago adin horietan (% 6,2), baina oso maila altuak ikus daitezke atzerriko biztanleriaren artean (% 25,3).

**16-64 urteko atzerritar langabeak, sexuaren eta adinaren arabera. 2010**

(% bertikalak eta langabezia-tasa)

| Sexua eta adina | % bertikalak | Langabezia-tasa |
|---|---|---|
| Gizonak | 65,4 | 29,6 |
| Emakumeak | 34,6 | 17,7 |
| 16-24 urte | 12,8 | 30,1 |
| 25-34 urte | 41,9 | 23,9 |
| 35-44 urte | 25,2 | 21,1 |
| 45 urte eta gehiago | 20,2 | 25,3 |
| Guztira | 100 | 24,0 |

**16-64 urteko atzerritar langabeen langabezia-tasa, sexuaren eta adinaren arabera**

**2005-2010 aldia**

(%-tan)

| Sexua eta adina | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|
| Gizonak | 15,2 | 3,8 | 27,9 | 29,6 |
| Emakumeak | 9,2 | 13,8 | 20,0 | 17,7 |
| 16-24 urte | 14,7 | 26,0 | 23,5 | 30,1 |
| 25-34 urte | 9,3 | 7,4 | 30,6 | 23,9 |
| 35-44 urte | 15,1 | 4,5 | 17,8 | 21,1 |
| 45 urte eta gehiago | 15,2 | 7,3 | 21,2 | 25,3 |
| Guztira | 12,3 | 8,7 | 24,4 | 24,0 |

Langabeziaren barne-ezaugarriei dagokienez, esan behar da lan-esperientziarik gabeko atzerritar langabeen proportzioa % 12,1 izan dela 2010ean, 2009ko % 7,7aren gainetik. 2009an bezala, adierazlea biztanleria orokorrean dagoena baino askoz ere handiagoa izan da (% 5,3).

Bestalde, iraupen luzeko langabeziaren eraginari dagokionez, 2005-2006 aldian % 25,4tik % 20,8ra jaitsi ondoren —bi kasuetan ere, urte haietako EAEko batez bestekoen azpiko zifrak—, 2009an % 30era igo zen, eta 2010ean % 58ra. Adierazle horrek bertako biztanleriari dagokion % 51 gainditzen du.

2007-2009 aldian % 13-14 inguru egon ondoren (bi urte horietan 2005eko % 7,5aren gainetik), iraupen luzeko langabeziak ere (bi urte horietan baino handiagoa) gora egin du 2010ean, langabe atzerritarren kasuan % 28,1era iritsi baita. Adierazle horren bilakaera bereziki negatiboa da atzerriko etorkinen kolektiboarentzat. 2005-2007 aldian bertako biztanleriari baino gutxiago eragin dio arazoak, eta adierazlea 2009an orekatu egin da 2010ean, errealitate negatiboena erakusteko. Lan bila bi urte baino gehiago daramatzaten langabe atzerritarren proportzioak bertako biztanleriaren % 22,6a gainditu du azken urte horretan.

**16-64 urteko langabe atzerritarrei lotutako beste hainbat adierazle**
**2005-2010 aldia**
(%-tan)

| Adierazlea | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|
| Lan-esperientziarik gabeko langabezia | 7,3 | 22,3 | 7,7 | 12,1 |
| Iraupen luzeko langabezia (> urte 1) | 25,4 | 46,8 | 30,0 | 58,0 |
| Oso iraupen luzeko langab. (> 2 urte) | 7,5 | 13,8 | 13,0 | 28,1 |

53.Azkenik, hurbilketaren lagin-mugekin lotutako derrigorrezko ñabardurekin, atzerritarren langabezia-mailei eta okupazio-koefizienteei dagokienez eskualdearen arabera dauden aldeak aztertu ditugu. Alde horiek kasu batzuetan esanguratsu samarrak dira, eta honako egoera hauek nabarmendu daitezke:

* 16-64 urteko atzerritarren okupazio-koefizienteak alderatzen baditugu, ikus dezakegu handiagoak direla (% 65etik hurbil edo hortik gora dauden zifrak lortu dira) Aiaraldean, Eskuinaldean, Bizkaia-Kostan, Tolosa-Goierrin eta Debagoienan. Errealitate horrekin batera, langabezia-tasak % 10etik hurbil edo hortik behera daude Aiaraldean eta Debagoienan, baina % 17,3tik % 18,8ra bitartekoak dira Eskuinaldean, Bizkaia-Kostan eta Tolosa-Goierrin.

* Okupazioaren adierazlea txiki samarra da atzerritarren artean, % 55,9tik % 58,8ra bitarteko zifrekin, Ezkerraldean, Durangaldean eta Donostialdean. Langabezia-tasak, ordea, egoera

onenean dagoen taldeko tasetatik hurbil daude azken bi eskualde horietan (% 14,7 Durangaldean eta % 17,4 Donostialdean), eta Ezkerraldean soilik gainditzen dute % 20ko zifra (% 23,3).

* Azkenik, okupazio-koefizienteak % 55etik behera daude Bilbon (% 53,1), Debabarrenan (% 51,4) eta, batez ere, Gasteizen, eskualde hori baino ez baitago 16-64 urteko landun atzerritarren % 50etik behera (% 47,9). Debabarrenan, jarduerarako joera txikiena duen eskualdean, jarduerarako joera egoera onenean dauden eskualdeetako langabezia-tasak daude (% 16,4); Bilbon eta Gasteizen, berriz, atzerritar aktiboen % 30etik gora langabezian dago. % 32,9rekin, gehienekoa Arabako hiriburuari dagokio.

Bilboren eta Gasteizen egoera kezkagarria da, zalantzarik gabe, ikusitako adierazleak bat baitatoz 16-64 urteko EAEko atzerritarrak biltzen diren eremu nagusiekin. Ildo horretan, biztanleria horren guztizkoaren % 43,9 aipatutako bi eremu geografiko horietan bizi da.

**16-64 urteko atzerritarren langabezia-tasa eta okupazio-koefizientea, eskualdearen arabera**
**2005-2010 aldia**
(%-tan)

| Eskualdea | Langabezia-tasa | | | | Okupazio-koefizientea | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
| Gasteiz | 9,6 | 4,2 | 35,1 | 32,9 | 74,5 | 71,8 | 50,6 | 47,9 |
| Aiaraldea | 18,5 | 1,6 | 9,4 | 10,3 | 53,0 | 78,9 | 45,7 | 68,6 |
| Eskuinaldea | 5,4 | 7,0 | 10,8 | 18,7 | 77,6 | 78,2 | 62,6 | 63,2 |
| Bilbo | 15,0 | 13,1 | 24,1 | 30,4 | 63,1 | 46,9 | 53,9 | 53,1 |
| Ezkerraldea | 24,1 | 22,4 | 36,0 | 23,3 | 46,3 | 48,7 | 49,1 | 57,6 |
| Bizkaia-Kosta | 10,0 | 5,2 | 18,6 | 17,3 | 66,8 | 76,8 | 63,0 | 65,1 |
| Durangaldea | 16,7 | 3,7 | 16,6 | 14,7 | 61,9 | 68,8 | 48,9 | 55,9 |
| Donostialdea | 12,7 | 5,4 | 19,6 | 17,4 | 71,9 | 71,5 | 68,4 | 58,8 |
| Tolosa-Goierri | 3,8 | 12,7 | 19,2 | 18,8 | 78,8 | 69,6 | 71,2 | 66,2 |
| Debagoiena | 17,1 | 8,5 | 19,7 | ,0 | 69,7 | 71,3 | 80,3 | 78,2 |
| Debabarrena | ,0 | 7,3 | 8,3 | 16,4 | 64,3 | 78,8 | 69,0 | 51,4 |
| Guztira | 12,3 | 8,7 | 24,4 | 24,0 | 67,5 | 64,5 | 57,9 | 56,1 |

**Eskualdeen, azpieskualdeen eta udalerrien araberako datuak**

## 16-64 urteko landunen bilakaera. 2005-2010 aldia

| Eskualdea eta azpieskualdea | | Datu absolutuak | | | | Hazkundearen %-a | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | 2009/ 2010 | 2010/ 2007 |
| **Gasteiz** | Arabako Haranak | 2.314 | 2.508 | 2.715 | 2.594 | -4,4 | 3,4 |
| | Lautadako gainerakoa | 6.113 | 7.458 | 7.231 | 7.167 | -0,9 | -3,9 |
| | Vitoria-Gasteiz | 109.652 | 108.290 | 107.169 | 105.701 | -1,4 | -2,4 |
| | Arabako Mendialdea | 1.420 | 1.428 | 1.527 | 1.607 | 5,2 | 12,6 |
| | Errioxa | 4.265 | 4.941 | 5.357 | 5.051 | -5,7 | 2,2 |
| | **Guztira** | **123.764** | **124.625** | **123.998** | **122.121** | **-1,5** | **-2,0** |
| **Aiaraldea** | Gorbeialdea | 3.760 | 4.139 | 4.069 | 4.093 | 0,6 | -1,1 |
| | Arabako Kantaurialdeko gainerakoa | 6.294 | 7.575 | 7.341 | 7.533 | 2,6 | -0,6 |
| | Laudio | 8.869 | 8.230 | 7.699 | 8.033 | 4,3 | -2,4 |
| | **Guztira** | **18.923** | **19.944** | **19.109** | **19.658** | **2,9** | **-1,4** |
| **Eskuinaldea** | Eskuinaldeko gainerakoa | 11.268 | 12.168 | 11.674 | 12.525 | 7,3 | 2,9 |
| | Getxo | 36.010 | 35.668 | 35.339 | 33.799 | -4,4 | -5,2 |
| | Leioa | 13.907 | 13.992 | 12.975 | 13.356 | 2,9 | -4,5 |
| | Erandio | 10.103 | 10.798 | 10.733 | 10.150 | -5,4 | -6,0 |
| | **Guztira** | **71.288** | **72.626** | **70.721** | **69.829** | **-1,3** | **-3,9** |
| **Bilbo** | Bilbo | 144.541 | 150.399 | 149.887 | 145.485 | -2,9 | -3,3 |
| | **Guztira** | **144.541** | **150.399** | **149.887** | **145.485** | **-2,9** | **-3,3** |
| **Ezkerraldea** | Ezkerraldeko gainerakoa | 26.973 | 28.319 | 29.427 | 28.523 | -3,1 | 0,7 |
| | Barakaldo | 39.180 | 41.502 | 42.094 | 42.693 | 1,4 | 2,9 |
| | Basauri | 20.828 | 20.576 | 18.567 | 17.948 | -3,3 | -12,8 |
| | Galdakao | 13.992 | 14.441 | 13.909 | 14.041 | 0,9 | -2,8 |
| | Portugalete | 20.610 | 20.991 | 19.918 | 19.792 | -0,6 | -5,7 |
| | Santurtzi | 19.272 | 19.323 | 19.655 | 19.876 | 1,1 | 2,9 |
| | Sestao | 13.932 | 12.222 | 12.128 | 12.363 | 1,9 | 1,2 |
| | Enkarterri | 12.264 | 13.557 | 12.982 | 12.965 | -0,1 | -4,4 |
| | **Guztira** | **167.050** | **170.931** | **168.679** | **168.199** | **-0,3** | **-1,6** |
| **Bizkaia-Kosta** | Gernika-Bermeo | 19.251 | 18.838 | 17.437 | 17.746 | 1,8 | -5,8 |
| | Markina-Ondarroa | 11.341 | 11.758 | 11.067 | 11.044 | -0,2 | -6,1 |
| | Plentzia-Mungia | 20.200 | 24.182 | 25.417 | 24.054 | -5,4 | -0,5 |
| | **Guztira** | **50.792** | **54.778** | **53.921** | **52.845** | **-2,0** | **-3,5** |
| **Durangaldea** | Arratia-Nerbioi | 9.159 | 10.660 | 10.042 | 9.824 | -2,2 | -7,8 |
| | Durangaldeko gainerakoa | 30.330 | 31.588 | 30.254 | 30.968 | 2,4 | -2,0 |
| | Durango | 11.752 | 12.965 | 11.508 | 11.923 | 3,6 | -8,0 |
| | **Guztira** | **51.241** | **55.213** | **51.804** | **52.715** | **1,8** | **-4,5** |
| **Donostialdea** | Hondarribia | 7.348 | 8.063 | 7.113 | 6.883 | -3,2 | -14,6 |
| | Irun | 24.973 | 27.632 | 27.637 | 27.064 | -2,1 | -2,1 |
| | Donostialdeko gainerakoa | 46.555 | 47.869 | 44.820 | 44.271 | -1,2 | -7,5 |
| | Errenteria | 18.465 | 17.141 | 17.313 | 17.489 | 1,0 | 2,0 |
| | Donostia | 83.865 | 81.660 | 82.375 | 78.113 | -5,2 | -4,3 |
| | Urola-Kostako gainerakoa | 22.582 | 24.351 | 21.011 | 22.518 | 7,2 | -7,5 |
| | Zarautz | 10.455 | 10.358 | 10.252 | 9.854 | -3,9 | -4,9 |
| | **Guztira** | **214.242** | **217.074** | **210.520** | **206.193** | **-2,1** | **-5,0** |
| **Tolosa-Goierri** | Goierri | 29.837 | 29.742 | 26.888 | 28.836 | 7,2 | -3,0 |
| | Tolosaldea | 22.775 | 22.408 | 22.054 | 21.296 | -3,4 | -5,0 |
| | **Guztira** | **52.612** | **52.150** | **48.942** | **50.133** | **2,4** | **-3,9** |
| **Debagoiena** | Debagoieneko gainerakoa | 18.812 | 19.025 | 18.364 | 18.426 | 0,3 | -3,1 |
| | Arrasate | 11.706 | 10.234 | 9.034 | 9.754 | 8,0 | -4,7 |
| | **Guztira** | **30.518** | **29.259** | **27.398** | **28.180** | **2,9** | **-3,7** |
| **Debabarrena** | Debabarreneko gainerakoa | 11.520 | 13.128 | 11.385 | 11.309 | -0,7 | -13,9 |
| | Eibar | 11.688 | 10.830 | 10.895 | 11.034 | 1,3 | 1,9 |
| | **Guztira** | **23.209** | **23.958** | **22.280** | **22.342** | **0,3** | **-6,7** |
| **EAE** | **GUZTIRA** | **948.180** | **970.957** | **947.259** | **937.701** | **-1,0** | **-3,4** |

## 16-64 urteko langabeen bilakaera. 2005-2010 aldia

| Eskualdea eta azpieskualdea | | Datu absolutuak | | | | Hazkundearen %-a | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | 2009/ 2010 | 2010/ 2007 |
| **Gasteiz** | Arabako Haranak | 42 | 24 | 293 | 339 | 15,8 | 1.329,9 |
| | Lautadako gainerakoa | 111 | 159 | 406 | 720 | 77,6 | 352,5 |
| | Vitoria-Gasteiz | 2.755 | 2.358 | 13.822 | 13.565 | -1,9 | 475,4 |
| | Arabako Mendialdea | 23 | 52 | 147 | 94 | -36,1 | 82,0 |
| | Errioxa | 102 | 81 | 416 | 409 | -1,6 | 404,7 |
| | **Guztira** | **3.033** | **2.673** | **15.084** | **15.128** | **0,3** | **465,9** |
| **Aiaraldea** | Gorbeialdea | 47 | 53 | 110 | 186 | 68,8 | 252,5 |
| | Arabako Kantaurialdeko gainerakoa | 158 | 134 | 654 | 548 | -16,3 | 309,1 |
| | Laudio | 461 | 140 | 552 | 639 | 15,7 | 355,6 |
| | **Guztira** | **667** | **327** | **1.316** | **1.372** | **4,2** | **320,0** |
| **Eskuinaldea** | Eskuinaldeko gainerakoa | 351 | 669 | 1.097 | 1.125 | 2,6 | 68,2 |
| | Getxo | 2.544 | 1.246 | 2.215 | 3.592 | 62,2 | 188,4 |
| | Leioa | 1.129 | 890 | 947 | 1.349 | 42,4 | 51,6 |
| | Erandio | 801 | 382 | 563 | 1.808 | 221,1 | 373,9 |
| | **Guztira** | **4.825** | **3.186** | **4.822** | **7.874** | **63,3** | **147,1** |
| **Bilbo** | Bilbo | 11.217 | 7.687 | 15.686 | 20.169 | 28,6 | 162,4 |
| | **Guztira** | **11.217** | **7.687** | **15.686** | **20.169** | **28,6** | **162,4** |
| **Ezkerraldea** | Ezkerraldeko gainerakoa | 2.291 | 1.008 | 2.785 | 3.291 | 18,2 | 226,4 |
| | Barakaldo | 2.461 | 1.335 | 7.222 | 5.113 | -29,2 | 282,9 |
| | Basauri | 1.306 | 596 | 1.405 | 2.076 | 47,8 | 248,5 |
| | Galdakao | 952 | 474 | 1.091 | 977 | -10,4 | 106,4 |
| | Portugalete | 1.028 | 1.039 | 2.115 | 2.890 | 36,6 | 178,0 |
| | Santurtzi | 2.658 | 1.006 | 2.812 | 3.349 | 19,1 | 233,0 |
| | Sestao | 1.638 | 915 | 1.343 | 1.624 | 20,9 | 77,5 |
| | Enkarterri | 754 | 294 | 1.277 | 1.491 | 16,7 | 407,6 |
| | **Guztira** | **13.088** | **6.666** | **20.051** | **20.810** | **3,8** | **212,2** |
| **Bizkaia-Kosta** | Gernika-Bermeo | 708 | 647 | 2.143 | 1.995 | -6,9 | 208,1 |
| | Markina-Ondarroa | 624 | 133 | 1.053 | 898 | -14,7 | 574,3 |
| | Plentzia-Mungia | 1.864 | 904 | 1.370 | 2.055 | 50,0 | 127,3 |
| | **Guztira** | **3.197** | **1.685** | **4.567** | **4.948** | **8,4** | **193,7** |
| **Durangaldea** | Arratia-Nerbioi | 547 | 145 | 1.189 | 707 | -40,5 | 386,8 |
| | Durangaldeko gainerakoa | 1.237 | 719 | 2.869 | 2.785 | -2,9 | 287,5 |
| | Durango | 590 | 211 | 1.016 | 906 | -10,9 | 329,1 |
| | **Guztira** | **2.374** | **1.075** | **5.074** | **4.398** | **-13,3** | **309,1** |
| **Donostialdea** | Hondarribia | 226 | 97 | 419 | 665 | 58,6 | 586,7 |
| | Irun | 1.276 | 892 | 2.432 | 2.764 | 13,7 | 209,9 |
| | Donostialdeko gainerakoa | 1.510 | 1.518 | 4.402 | 5.479 | 24,5 | 260,9 |
| | Errenteria | 935 | 215 | 824 | 878 | 6,6 | 307,8 |
| | Donostia | 2.699 | 2.991 | 7.139 | 10.388 | 45,5 | 247,3 |
| | Urola-Kostako gainerakoa | 1.053 | 385 | 995 | 1.260 | 26,7 | 227,0 |
| | Zarautz | 439 | 126 | 791 | 902 | 14,0 | 617,8 |
| | **Guztira** | **8.137** | **6.225** | **17.002** | **22.336** | **31,4** | **258,8** |
| **Tolosa-Goierri** | Goierri | 707 | 676 | 2.375 | 2.459 | 3,5 | 263,8 |
| | Tolosaldea | 568 | 180 | 547 | 848 | 55,0 | 371,4 |
| | **Guztira** | **1.275** | **856** | **2.921** | **3.306** | **13,2** | **286,4** |
| **Debagoiena** | Debagoieneko gainerakoa | 262 | 164 | 1.022 | 791 | -22,6 | 382,4 |
| | Arrasate | 375 | 251 | 580 | 980 | 69,1 | 290,8 |
| | **Guztira** | **637** | **415** | **1.601** | **1.771** | **10,6** | **327,0** |
| **Debabarrena** | Debabarreneko gainerakoa | 359 | 379 | 999 | 1.377 | 37,8 | 263,1 |
| | Eibar | 292 | 225 | 1.276 | 609 | -52,3 | 170,1 |
| | **Guztira** | **651** | **605** | **2.275** | **1.986** | **-12,7** | **228,5** |
| **EAE** | **GUZTIRA** | **49.100** | **31.400** | **90.400** | **104.100** | **15,2** | **231,5** |

**16-64 urteko biztanleria aktiboaren bilakaera. 2005-2010 aldia**

| Eskualdea eta azpieskualdea | | Datu absolutuak | | | | Hazkundearen %-a | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | 2009/ 2010 | 2010/ 2007 |
| **Gasteiz** | Arabako Haranak | 2.356 | 2.532 | 3.008 | 2.933 | -2,5 | 15,8 |
| | Lautadako gainerakoa | 6.224 | 7.617 | 7.636 | 7.887 | 3,3 | 3,5 |
| | Vitoria-Gasteiz | 112.407 | 110.648 | 120.991 | 119.267 | -1,4 | 7,8 |
| | Arabako Mendialdea | 1.444 | 1.479 | 1.674 | 1.701 | 1,6 | 15,0 |
| | Errioxa | 4.367 | 5.022 | 5.772 | 5.460 | -5,4 | 8,7 |
| | **Guztira** | **126.798** | **127.298** | **139.082** | **137.248** | **-1,3** | **7,8** |
| **Aiaraldea** | Gorbeialdea | 3.807 | 4.192 | 4.179 | 4.278 | 2,4 | 2,1 |
| | Arabako Kantaurialdeko | 6.452 | 7.709 | 7.995 | 8.080 | 1,1 | 4,8 |
| | Laudio | 9.330 | 8.371 | 8.252 | 8.672 | 5,1 | 3,6 |
| | **Guztira** | **19.590** | **20.271** | **20.426** | **21.031** | **3,0** | **3,7** |
| **Eskuinaldea** | Eskuinaldeko gainerakoa | 11.618 | 12.837 | 12.771 | 13.650 | 6,9 | 6,3 |
| | Getxo | 38.554 | 36.914 | 37.554 | 37.391 | -0,4 | 1,3 |
| | Leioa | 15.036 | 14.882 | 13.922 | 14.705 | 5,6 | -1,2 |
| | Erandio | 10.904 | 11.180 | 11.296 | 11.958 | 5,9 | 7,0 |
| | **Guztira** | **76.113** | **75.813** | **75.543** | **77.703** | **2,9** | **2,5** |
| **Bilbo** | Bilbo | 155.757 | 158.086 | 165.573 | 165.654 | 0,0 | 4,8 |
| | **Guztira** | **155.757** | **158.086** | **165.573** | **165.654** | **0,0** | **4,8** |
| **Ezkerraldea** | Ezkerraldeko gainerakoa | 29.263 | 29.328 | 32.211 | 31.814 | -1,2 | 8,5 |
| | Barakaldo | 41.641 | 42.837 | 49.317 | 47.805 | -3,1 | 11,6 |
| | Basauri | 22.134 | 21.172 | 19.972 | 20.024 | 0,3 | -5,4 |
| | Galdakao | 14.944 | 14.915 | 15.000 | 15.018 | 0,1 | 0,7 |
| | Portugalete | 21.638 | 22.030 | 22.033 | 22.682 | 2,9 | 3,0 |
| | Santurtzi | 21.930 | 20.329 | 22.467 | 23.225 | 3,4 | 14,2 |
| | Sestao | 15.569 | 13.137 | 13.471 | 13.986 | 3,8 | 6,5 |
| | Enkarterri | 13.018 | 13.851 | 14.259 | 14.456 | 1,4 | 4,4 |
| | **Guztira** | **180.138** | **177.597** | **188.730** | **189.010** | **0,1** | **6,4** |
| **Bizkaia-Kosta** | Gernika-Bermeo | 19.959 | 19.485 | 19.581 | 19.741 | 0,8 | 1,3 |
| | Markina-Ondarroa | 11.966 | 11.891 | 12.120 | 11.943 | -1,5 | 0,4 |
| | Plentzia-Mungia | 22.064 | 25.086 | 26.788 | 26.109 | -2,5 | 4,1 |
| | **Guztira** | **53.989** | **56.463** | **58.488** | **57.793** | **-1,2** | **2,4** |
| **Durangaldea** | Arratia-Nerbioi | 9.706 | 10.805 | 11.231 | 10.531 | -6,2 | -2,5 |
| | Durangaldeko gainerakoa | 31.568 | 32.306 | 33.123 | 33.753 | 1,9 | 4,5 |
| | Durango | 12.342 | 13.176 | 12.524 | 12.829 | 2,4 | -2,6 |
| | **Guztira** | **53.615** | **56.288** | **56.878** | **57.113** | **0,4** | **1,5** |
| **Donostialdea** | Hondarribia | 7.573 | 8.160 | 7.532 | 7.548 | 0,2 | -7,5 |
| | Irun | 26.249 | 28.524 | 30.069 | 29.828 | -0,8 | 4,6 |
| | Donostialdeko gainerakoa | 48.065 | 49.387 | 49.222 | 49.750 | 1,1 | 0,7 |
| | Errenteria | 19.400 | 17.356 | 18.137 | 18.368 | 1,3 | 5,8 |
| | Donostia | 86.564 | 84.652 | 89.514 | 88.501 | -1,1 | 4,5 |
| | Urola-Kostako gainerakoa | 23.634 | 24.737 | 22.005 | 23.778 | 8,1 | -3,9 |
| | Zarautz | 10.895 | 10.484 | 11.044 | 10.756 | -2,6 | 2,6 |
| | **Guztira** | **222.380** | **223.299** | **227.522** | **228.529** | **0,4** | **2,3** |
| **Tolosa-Goierri** | Goierri | 30.544 | 30.418 | 29.263 | 31.295 | 6,9 | 2,9 |
| | Tolosaldea | 23.344 | 22.588 | 22.600 | 22.144 | -2,0 | -2,0 |
| | **Guztira** | **53.887** | **53.006** | **51.863** | **53.439** | **3,0** | **0,8** |
| **Debagoiena** | Debagoieneko gainerakoa | 19.074 | 19.189 | 19.386 | 19.217 | -0,9 | 0,1 |
| | Arrasate | 12.081 | 10.485 | 9.614 | 10.734 | 11,7 | 2,4 |
| | **Guztira** | **31.155** | **29.674** | **28.999** | **29.951** | **3,3** | **0,9** |
| **Debabarrena** | Debabarreneko gainerakoa | 11.879 | 13.507 | 12.384 | 12.686 | 2,4 | -6,1 |
| | Eibar | 11.980 | 11.056 | 12.171 | 11.643 | -4,3 | 5,3 |
| | **Guztira** | **23.859** | **24.563** | **24.555** | **24.329** | **-0,9** | **-1,0** |
| **EAE** | **GUZTIRA** | **997.280** | **1.002.357** | **1.037.659** | **1.041.801** | **0,4** | **3,9** |

**16-64 urteko biztanleria ez-aktiboaren bilakaera. 2005-2010 aldia**

| Eskualdea eta azpieskualdea | | Datu absolutuak 2005 | 2007 | 2009 | 2010 | Hazkundearen %-a 2009/ 2010 | 2010/ 2007 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Gasteiz** | Arabako Haranak | 812 | 1.064 | 791 | 909 | 14,9 | -14,5 |
| | Lautadako gainerakoa | 2.428 | 2.281 | 2.747 | 2.541 | -7,5 | 11,4 |
| | Vitoria-Gasteiz | 45.558 | 46.763 | 44.614 | 46.764 | 4,8 | 0,0 |
| | Arabako Mendialdea | 574 | 524 | 422 | 416 | -1,4 | -20,7 |
| | Errioxa | 2.185 | 2.123 | 1.772 | 2.075 | 17,1 | -2,2 |
| | **Guztira** | **51.558** | **52.755** | **50.346** | **52.705** | **4,7** | **-0,1** |
| **Aiaraldea** | Gorbeialdea | 1.050 | 1.152 | 1.408 | 1.344 | -4,5 | 16,7 |
| | Arabako Kantaurialdeko gainerakoa | 3.317 | 2.693 | 2.908 | 2.861 | -1,6 | 6,2 |
| | Laudio | 4.560 | 3.976 | 4.657 | 4.324 | -7,2 | 8,7 |
| | **Guztira** | **8.927** | **7.822** | **8.974** | **8.530** | **-4,9** | **9,0** |
| **Eskuinaldea** | Eskuinaldeko gainerakoa | 4.268 | 4.154 | 4.435 | 3.637 | -18,0 | -12,4 |
| | Getxo | 19.182 | 18.872 | 18.922 | 19.169 | 1,3 | 1,6 |
| | Leioa | 5.790 | 5.816 | 7.159 | 6.248 | -12,7 | 7,4 |
| | Erandio | 5.250 | 5.569 | 5.641 | 4.969 | -11,9 | -10,8 |
| | **Guztira** | **34.490** | **34.411** | **36.157** | **34.024** | **-5,9** | **-1,1** |
| **Bilbo** | Bilbo | 77.692 | 71.847 | 67.250 | 67.964 | 1,1 | -5,4 |
| | **Guztira** | **77.692** | **71.847** | **67.250** | **67.964** | **1,1** | **-5,4** |
| **Ezkerraldea** | Ezkerraldeko gainerakoa | 12.993 | 14.424 | 12.173 | 12.483 | 2,6 | -13,5 |
| | Barakaldo | 22.773 | 21.936 | 16.359 | 17.757 | 8,5 | -19,1 |
| | Basauri | 9.694 | 8.080 | 9.696 | 9.659 | -0,4 | 19,6 |
| | Galdakao | 6.048 | 5.404 | 5.605 | 5.606 | 0,0 | 3,7 |
| | Portugalete | 14.050 | 10.321 | 10.825 | 10.186 | -5,9 | -1,3 |
| | Santurtzi | 10.876 | 11.536 | 9.515 | 8.908 | -6,4 | -22,8 |
| | Sestao | 6.121 | 6.364 | 6.353 | 5.907 | -7,0 | -7,2 |
| | Enkarterri | 6.644 | 6.442 | 6.360 | 6.005 | -5,6 | -6,8 |
| | **Guztira** | **89.199** | **84.507** | **76.885** | **76.511** | **-0,5** | **-9,5** |
| **Bizkaia-Kosta** | Gernika-Bermeo | 9.207 | 10.121 | 10.396 | 10.274 | -1,2 | 1,5 |
| | Markina-Ondarroa | 5.428 | 5.169 | 5.175 | 5.337 | 3,1 | 3,3 |
| | Plentzia-Mungia | 9.496 | 9.876 | 8.612 | 9.277 | 7,7 | -6,1 |
| | **Guztira** | **24.131** | **25.166** | **24.184** | **24.889** | **2,9** | **-1,1** |
| **Durangaldea** | Arratia-Nerbioi | 4.394 | 4.083 | 3.970 | 4.534 | 14,2 | 11,0 |
| | Durangaldeko gainerakoa | 14.631 | 13.439 | 13.479 | 12.688 | -5,9 | -5,6 |
| | Durango | 4.725 | 5.720 | 6.717 | 6.245 | -7,0 | 9,2 |
| | **Guztira** | **23.751** | **23.242** | **24.167** | **23.468** | **-2,9** | **1,0** |
| **Donostialdea** | Hondarribia | 2.958 | 2.640 | 3.350 | 3.229 | -3,6 | 22,3 |
| | Irun | 12.497 | 11.921 | 10.604 | 10.710 | 1,0 | -10,2 |
| | Donostialdeko gainerakoa | 18.214 | 16.708 | 17.585 | 16.974 | -3,5 | 1,6 |
| | Errenteria | 7.579 | 7.911 | 7.460 | 7.177 | -3,8 | -9,3 |
| | Donostia | 32.961 | 33.794 | 30.097 | 30.525 | 1,4 | -9,7 |
| | Urola-Kostako gainerakoa | 6.697 | 6.334 | 9.597 | 7.602 | -20,8 | 20,0 |
| | Zarautz | 3.484 | 4.205 | 3.803 | 4.055 | 6,6 | -3,6 |
| | **Guztira** | **84.390** | **83.513** | **82.497** | **80.272** | **-2,7** | **-3,9** |
| **Tolosa-Goierri** | Goierri | 11.993 | 11.517 | 13.165 | 11.001 | -16,4 | -4,5 |
| | Tolosaldea | 6.595 | 7.321 | 7.535 | 7.856 | 4,3 | 7,3 |
| | **Guztira** | **18.587** | **18.839** | **20.700** | **18.858** | **-8,9** | **0,1** |
| **Debagoiena** | Debagoieneko gainerakoa | 7.262 | 6.722 | 6.875 | 6.925 | 0,7 | 3,0 |
| | Arrasate | 3.925 | 4.130 | 5.229 | 4.102 | -21,6 | -0,7 |
| | **Guztira** | **11.187** | **10.852** | **12.104** | **11.027** | **-8,9** | **1,6** |
| **Debabarrena** | Debabarreneko gainerakoa | 5.624 | 4.213 | 5.490 | 5.069 | -7,7 | 20,3 |
| | Eibar | 6.788 | 6.437 | 5.529 | 6.009 | 8,7 | -6,7 |
| | **Guztira** | **12.412** | **10.649** | **11.019** | **11.077** | **0,5** | **4,0** |
| **EAE** | **GUZTIRA** | **436.324** | **423.602** | **414.282** | **409.324** | **-1,2** | **-3,4** |

**16-64 urteko biztanleriaren okupazio-koefizienteen bilakaera**
**2005-2010 aldia**

| Eskualdea eta azpieskualdea | | Koefizienteak %-tan | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
| **Gasteiz** | Arabako Haranak | 73,1 | 69,8 | 71,5 | 67,5 |
| | Lautadako gainerakoa | 70,6 | 75,4 | 69,6 | 68,7 |
| | Vitoria-Gasteiz | 69,4 | 68,8 | 64,7 | 63,7 |
| | Arabako Mendialdea | 70,4 | 71,3 | 72,9 | 75,9 |
| | Errioxa | 65,1 | 69,2 | 71,0 | 67,0 |
| | **Guztira** | **69,4** | **69,2** | **65,5** | **64,3** |
| **Aiaraldea** | Gorbeialdea | 77,4 | 77,5 | 72,8 | 72,8 |
| | Arabako Kantaurialdeko gainerakoa | 64,4 | 72,8 | 67,3 | 68,8 |
| | Laudio | 63,9 | 66,7 | 59,6 | 61,8 |
| | **Guztira** | **66,4** | **71,0** | **65,0** | **66,5** |
| **Eskuinaldea** | Eskuinaldeko gainerakoa | 70,9 | 71,6 | 67,8 | 72,5 |
| | Getxo | 62,4 | 63,9 | 62,6 | 59,8 |
| | Leioa | 66,8 | 67,6 | 61,5 | 63,7 |
| | Erandio | 62,5 | 64,5 | 63,4 | 60,0 |
| | **Guztira** | **64,5** | **65,9** | **63,3** | **62,5** |
| **Bilbo** | Bilbo | 61,9 | 65,4 | 64,4 | 62,3 |
| | **Guztira** | **61,9** | **65,4** | **64,4** | **62,3** |
| **Ezkerraldea** | Ezkerraldeko gainerakoa | 63,8 | 64,7 | 66,3 | 64,4 |
| | Barakaldo | 60,8 | 64,1 | 64,1 | 65,1 |
| | Basauri | 65,4 | 70,3 | 62,6 | 60,5 |
| | Galdakao | 66,7 | 71,1 | 67,5 | 68,1 |
| | Portugalete | 57,8 | 64,9 | 60,6 | 60,2 |
| | Santurtzi | 58,7 | 60,6 | 61,5 | 61,9 |
| | Sestao | 64,2 | 62,7 | 61,2 | 62,1 |
| | Enkarterri | 62,4 | 66,8 | 63,0 | 63,4 |
| | **Guztira** | **62,0** | **65,2** | **63,5** | **63,3** |
| **Bizkaia-Kosta** | Gernika-Bermeo | 66,0 | 63,6 | 58,2 | 59,1 |
| | Markina-Ondarroa | 65,2 | 68,9 | 64,0 | 63,9 |
| | Plentzia-Mungia | 64,0 | 69,2 | 71,8 | 68,0 |
| | **Guztira** | **65,0** | **67,1** | **65,2** | **63,9** |
| **Durangaldea** | Arratia-Nerbioi | 65,0 | 71,6 | 66,1 | 65,2 |
| | Durangaldeko gainerakoa | 65,7 | 69,1 | 64,9 | 66,7 |
| | Durango | 68,9 | 68,6 | 59,8 | 62,5 |
| | **Guztira** | **66,2** | **69,4** | **63,9** | **65,4** |
| **Donostialdea** | Hondarribia | 69,8 | 74,7 | 65,4 | 63,9 |
| | Irun | 64,5 | 68,3 | 67,9 | 66,8 |
| | Donostialdeko gainerakoa | 70,2 | 72,4 | 67,1 | 66,3 |
| | Errenteria | 68,4 | 67,8 | 67,6 | 68,5 |
| | Donostia | 70,2 | 68,9 | 68,9 | 65,6 |
| | Urola-Kostako gainerakoa | 74,5 | 78,4 | 66,5 | 71,8 |
| | Zarautz | 72,7 | 70,5 | 69,1 | 66,5 |
| | **Guztira** | **69,8** | **70,8** | **67,9** | **66,8** |
| **Tolosa-Goierri** | Goierri | 70,1 | 70,9 | 63,4 | 68,2 |
| | Tolosaldea | 76,1 | 74,9 | 73,2 | 71,0 |
| | **Guztira** | **72,6** | **72,6** | **67,4** | **69,3** |
| **Debagoiena** | Debagoieneko gainerakoa | 71,4 | 73,4 | 69,9 | 70,5 |
| | Arrasate | 73,1 | 70,0 | 60,9 | 65,7 |
| | **Guztira** | **72,1** | **72,2** | **66,7** | **68,8** |
| **Debabarrena** | Debabarreneko gainerakoa | 65,8 | 74,1 | 63,7 | 63,7 |
| | Eibar | 62,3 | 61,9 | 61,6 | 62,5 |
| | **Guztira** | **64,0** | **68,0** | **62,6** | **63,1** |
| **EAE** | **GUZTIRA** | **66,1** | **68,1** | **65,2** | **64,6** |

**16-64 urteko biztanleriaren langabezia-koefizienteen bilakaera**
**2005-2010 aldia**

| | | Koefizienteak %-tan | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Eskualdea eta azpieskualdea** | | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
| **Gasteiz** | Arabako Haranak | 1,3 | ,7 | 7,7 | 8,8 |
| | Lautadako gainerakoa | 1,3 | 1,6 | 3,9 | 6,9 |
| | Vitoria-Gasteiz | 1,7 | 1,5 | 8,3 | 8,2 |
| | Arabako Mendialdea | 1,2 | 2,6 | 7,0 | 4,4 |
| | Errioxa | 1,5 | 1,1 | 5,5 | 5,4 |
| | **Guztira** | **1,7** | **1,5** | **8,0** | **8,0** |
| **Aiaraldea** | Gorbeialdea | 1,0 | 1,0 | 2,0 | 3,3 |
| | Arabako Kantaurialdeko gainerakoa | 1,6 | 1,3 | 6,0 | 5,0 |
| | Laudio | 3,3 | 1,1 | 4,3 | 4,9 |
| | **Guztira** | **2,3** | **1,2** | **4,5** | **4,6** |
| **Eskuinaldea** | Eskuinaldeko gainerakoa | 2,2 | 3,9 | 6,4 | 6,5 |
| | Getxo | 4,4 | 2,2 | 3,9 | 6,4 |
| | Leioa | 5,4 | 4,3 | 4,5 | 6,4 |
| | Erandio | 5,0 | 2,3 | 3,3 | 10,7 |
| | **Guztira** | **4,4** | **2,9** | **4,3** | **7,0** |
| **Bilbo** | Bilbo | 4,8 | 3,3 | 6,7 | 8,6 |
| | **Guztira** | **4,8** | **3,3** | **6,7** | **8,6** |
| **Ezkerraldea** | Ezkerraldeko gainerakoa | 5,4 | 2,3 | 6,3 | 7,4 |
| | Barakaldo | 3,8 | 2,1 | 11,0 | 7,8 |
| | Basauri | 4,1 | 2,0 | 4,7 | 7,0 |
| | Galdakao | 4,5 | 2,3 | 5,3 | 4,7 |
| | Portugalete | 2,9 | 3,2 | 6,4 | 8,8 |
| | Santurtzi | 8,1 | 3,2 | 8,8 | 10,4 |
| | Sestao | 7,6 | 4,7 | 6,8 | 8,2 |
| | Enkarterri | 3,8 | 1,4 | 6,2 | 7,3 |
| | **Guztira** | **4,9** | **2,5** | **7,5** | **7,8** |
| **Bizkaia-Kosta** | Gernika-Bermeo | 2,4 | 2,2 | 7,2 | 6,6 |
| | Markina-Ondarroa | 3,6 | 0,8 | 6,1 | 5,2 |
| | Plentzia-Mungia | 5,9 | 2,6 | 3,9 | 5,8 |
| | **Guztira** | **4,1** | **2,1** | **5,5** | **6,0** |
| **Durangaldea** | Arratia-Nerbioi | 3,9 | 1,0 | 7,8 | 4,7 |
| | Durangaldeko gainerakoa | 2,7 | 1,6 | 6,2 | 6,0 |
| | Durango | 3,5 | 1,1 | 5,3 | 4,7 |
| | **Guztira** | **3,1** | **1,4** | **6,3** | **5,5** |
| **Donostialdea** | Hondarribia | 2,1 | 0,9 | 3,9 | 6,2 |
| | Irun | 3,3 | 2,2 | 6,0 | 6,8 |
| | Donostialdeko gainerakoa | 2,3 | 2,3 | 6,6 | 8,2 |
| | Errenteria | 3,5 | 0,9 | 3,2 | 3,4 |
| | Donostia | 2,3 | 2,5 | 6,0 | 8,7 |
| | Urola-Kostako gainerakoa | 3,5 | 1,2 | 3,1 | 4,0 |
| | Zarautz | 3,1 | 0,9 | 5,3 | 6,1 |
| | **Guztira** | **2,7** | **2,0** | **5,5** | **7,2** |
| **Tolosa-Goierri** | Goierri | 1,7 | 1,6 | 5,6 | 5,8 |
| | Tolosaldea | 1,9 | 0,6 | 1,8 | 2,8 |
| | **Guztira** | **1,8** | **1,2** | **4,0** | **4,6** |
| **Debagoiena** | Debagoieneko gainerakoa | 1,0 | 0,6 | 3,9 | 3,0 |
| | Arrasate | 2,3 | 1,7 | 3,9 | 6,6 |
| | **Guztira** | **1,5** | **1,0** | **3,9** | **4,3** |
| **Debabarrena** | Debabarreneko gainerakoa | 2,0 | 2,1 | 5,6 | 7,8 |
| | Eibar | 1,6 | 1,3 | 7,2 | 3,4 |
| | **Guztira** | **1,8** | **1,7** | **6,4** | **5,6** |
| **EAE** | **GUZTIRA** | **3,4** | **2,2** | **6,2** | **7,2** |

**16-64 urteko biztanleriaren langabezia-tasen bilakaera**
**2005-2010 aldia**

| Eskualdea eta azpieskualdea | | Tasak %-tan | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 2005 | 2007 | 2009 | 2010 |
| **Gasteiz** | Arabako Haranak | 1,8 | ,9 | 9,7 | 11,6 |
| | Lautadako gainerakoa | 1,8 | 2,1 | 5,3 | 9,1 |
| | Vitoria-Gasteiz | 2,5 | 2,1 | 11,4 | 11,4 |
| | Arabako Mendialdea | 1,6 | 3,5 | 8,8 | 5,5 |
| | Errioxa | 2,3 | 1,6 | 7,2 | 7,5 |
| | **Guztira** | **2,4** | **2,1** | **10,8** | **11,0** |
| **Aiaraldea** | Gorbeialdea | 1,2 | 1,3 | 2,6 | 4,3 |
| | Arabako Kantaurialdeko gainerakoa | 2,5 | 1,7 | 8,2 | 6,8 |
| | Laudio | 4,9 | 1,7 | 6,7 | 7,4 |
| | **Guztira** | **3,4** | **1,6** | **6,4** | **6,5** |
| **Eskuinaldea** | Eskuinaldeko gainerakoa | 3,0 | 5,2 | 8,6 | 8,2 |
| | Getxo | 6,6 | 3,4 | 5,9 | 9,6 |
| | Leioa | 7,5 | 6,0 | 6,8 | 9,2 |
| | Erandio | 7,3 | 3,4 | 5,0 | 15,1 |
| | **Guztira** | **6,3** | **4,2** | **6,4** | **10,1** |
| **Bilbao** | Bilbao | 7,2 | 4,9 | 9,5 | 12,2 |
| | **Guztira** | **7,2** | **4,9** | **9,5** | **12,2** |
| **Ezkerraldea** | Ezkerraldeko gainerakoa | 7,8 | 3,4 | 8,6 | 10,3 |
| | Barakaldo | 5,9 | 3,1 | 14,6 | 10,7 |
| | Basauri | 5,9 | 2,8 | 7,0 | 10,4 |
| | Galdakao | 6,4 | 3,2 | 7,3 | 6,5 |
| | Portugalete | 4,8 | 4,7 | 9,6 | 12,7 |
| | Santurtzi | 12,1 | 4,9 | 12,5 | 14,4 |
| | Sestao | 10,5 | 7,0 | 10,0 | 11,6 |
| | Enkarterri | 5,8 | 2,1 | 9,0 | 10,3 |
| | **Guztira** | **7,3** | **3,8** | **10,6** | **11,0** |
| **Bizkaia-Kosta** | Gernika-Bermeo | 3,5 | 3,3 | 10,9 | 10,1 |
| | Markina-Ondarroa | 5,2 | 1,1 | 8,7 | 7,5 |
| | Plentzia-Mungia | 8,4 | 3,6 | 5,1 | 7,9 |
| | **Guztira** | **5,9** | **3,0** | **7,8** | **8,6** |
| **Durangaldea** | Arratia-Nerbioi | 5,6 | 1,3 | 10,6 | 6,7 |
| | Durangaldeko gainerakoa | 3,9 | 2,2 | 8,7 | 8,3 |
| | Durango | 4,8 | 1,6 | 8,1 | 7,1 |
| | **Guztira** | **4,4** | **1,9** | **8,9** | **7,7** |
| **Donostialdea** | Hondarribia | 3,0 | 1,2 | 5,6 | 8,8 |
| | Irun | 4,9 | 3,1 | 8,1 | 9,3 |
| | Donostialdeko gainerakoa | 3,1 | 3,1 | 8,9 | 11,0 |
| | Errenteria | 4,8 | 1,2 | 4,5 | 4,8 |
| | Donostia | 3,1 | 3,5 | 8,0 | 11,7 |
| | Urola-Kostako gainerakoa | 4,5 | 1,6 | 4,5 | 5,3 |
| | Zarautz | 4,0 | 1,2 | 7,2 | 8,4 |
| | **Guztira** | **3,7** | **2,8** | **7,5** | **9,8** |
| **Tolosa-Goierri** | Goierri | 2,3 | 2,2 | 8,1 | 7,9 |
| | Tolosaldea | 2,4 | 0,8 | 2,4 | 3,8 |
| | **Guztira** | **2,4** | **1,6** | **5,6** | **6,2** |
| **Debagoiena** | Debagoieneko gainerakoa | 1,4 | 0,9 | 5,3 | 4,1 |
| | Arrasate | 3,1 | 2,4 | 6,0 | 9,1 |
| | **Guztira** | **2,0** | **1,4** | **5,5** | **5,9** |
| **Debabarrena** | Debabarreneko gainerakoa | 3,0 | 2,8 | 8,1 | 10,9 |
| | Eibar | 2,4 | 2,0 | 10,5 | 5,2 |
| | **Guztira** | **2,7** | **2,5** | **9,3** | **8,2** |
| **EAE** | **GUZTIRA** | **4,9** | **3,1** | **8,7** | **10,0** |

## ERANSKINA

## Lan Merkatuaren Erroldaren ezaugarri orokorrak

Lan Merkatuaren Errolda (LME) Euskal Estatistika Planaren barnean hartuta dagoen eragiketa da, eta estatistika hori, egungo formatuarekin, 1993az geroztik urtero egiten da (1996., 2000., 2004. eta 2008. urteetan izan ezik). Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak du eragiketaren ardura, Euskal Estatistika Erakundearekin (Eustat) koordinatuta.

Oro har, LMEak bi helburu nagusi planteatzen ditu:

a) Lehenik eta behin, lehentasuna emango zaio lurralde historikoa baino txikiagoak diren lurralde-eremuetan lan-merkatuaren azterketaren erreferentzia eratzeari, eta adierazitako lurralde-eremuak enplegu-eskualdeak edo -arroak dira.

b) Bigarrenik, eta osagarri gisa, lan-merkatuari erantsi zaizkienei buruzko datuak emateaz gain, lurralde-eremuetako sektoreen, gizartearen eta lanbidearen egiturari buruzko hurbilketa egitea. Jarduerari, okupazioari edo langabeziari buruzko eragiketetan ohikoak diren estatistika-akatsen mailak baino txikiagoak diren mailek eusten diote (BAI edo BJA) hurbilketa horri.

Adierazitako helburuetatik abiatuta, urteak joan eta urteak etorri, LMEaren planteamendu metodologikoak aldatu egin dira —interesak eta aurrekontuen ahalbideak bat eginda—.

Hasiera batean errolda erreal gisa planteatu zen eta 1986an Euskal Autonomia Erkidegoan zeuden etxebizitza guztiak ekortu ziren. Aurrekontuaren aldetik, erroldaren eragiketari eutsi ezin zitzaionez, eta errolda horrek egiaz funtzionaltasunik ez zuela egiaztatu zenez, 1989an hasierako metodologia berriz aztertu zen. Aldaketa nagusia izan zen lagin motako hurbilketaren aldeko apustua egitea.

Orduan, Sailaren eta Eskualdeetako Enplegu eta Trebakuntza Batzordeen finantza-laguntza izanik, 1989ko Lan Merkatuaren Erroldaren eragiketa abian jarri zen 43.000 etxebizitzako laginarekin, aipatutako Batzordeei dagozkien 32 eskualdeetan banatuta. Hurbilketa horri esker, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi ziren 150.000 pertsona inguruii buruzko datuak jaso ahal izan ziren.

1989ko eragiketari ekiteko garaian ikusi zen LME eta BJA (Biztanleria Jardueraren Arabera) inkesta koordinatu egin behar zirela nahitaez. Hortaz, LME galdesorta BJAn zeuden oinarrizko galderetara egokitzea erabaki zen. Nolanahi ere, galdera guztiak jarri ordez, EUSTATek prestatutako bertsio erraztua —landunak eta langabeak sailkatzen dituena— erabili zen.

Aurrekontuen inguruan izandako zailtasunek irauten zutenez, eta Eskualdeetako Batzordeak modu formalean desagertu zirenez, 1993ko eragiketari begira, eragiketaren edukia berriz ere aztertu zen. Eragiketaren lagin-izaera dela egiaztatu ondoren, lagina 12.000 etxebizitzatara murriztu zen. Orain, etxebizitza horiek hamaika enplegu-eskualdetan edo -arroatan banatuta daude.

Bestalde, homogeneizatzeko ahaleginak egin arren, egiaztatu zen LMEak ematen zituen zenbatekoak eta BJAk ematen zituenak oso desberdinak zirela, batez ere langabeei eta landunei buruzko datuak. Horren ondorioz, Eustatek kudeatutako eragiketarekin ahalik eta koordinazio handiena izateko modua aurkitzea erabaki zen. Hori horrela izanik, BJAren galdesorta oinarrizko galdesortatzat hartzea erabaki zen, eta LMEaren zifra handiak Eustaten estatistika-eragiketa horren zifretara egokitu ziren. Printzipio horietan oinarrituta, 1993tik 1995era bitarte EUSTATek laugarren hiruhilekoan BJAren bitartez egindako inkestarekin modu koordinatuan garatu zen LME. Koordinazio-prozesuari esker, aldi horretako BJAren galdesortak LME laginaren zati gisa erabili ahal izan ziren.

1997tik aurrera, LMEaren lagin-maila zabaltzea erabaki zen, EUSTATeko eskualde guztietan eta EAEko udalerri handietan jarduerari, okupazioari eta langabeziari buruzko oinarrizko informazioa eskuratu ahal izateko, eta ez soilik LMEaren 11 enplegu-eskualde eta -arroa handietan. Aurrekontu-zailtasunen ondorioz 1993ko hasierako planteamenduetara murriztu behar izan zen lagin-maila.

Azken batean, bilakaera horren ondorioz, eta izenak bestelakorik adierazten badu ere, gaur egun LME lagin-eragiketa da. Euskal Autonomia Erkidegoko 12.000 familia-etxebizitza ditu helburu, eta datu-bilketa etxebizitza bakoitzean bizi diren 15 urtetik gorako guztien arabera aplikatuko da urte bakoitzeko azken hiruhilekoan. Dena den, 2005. urteaz geroztik, LMEak berezko laginarekin soilik eragiten du, urteko laugarren hiruhilekoaren BJA laginaren zatia gehitzeari uko eginez. Eustatek BJA galdesorta sinplifikatu zuen, baina LMEak BJAren jatorrizko galdesortaren oinarrizko egiturari eutsi zionez, orain zailagoa da laginak bat egiteko prozesua. Jasotzaile-sistema bikoitza behar izango zen eta horrek izugarri eragotziko luke LMEaren emaitzen aurkezpena, ezinbestean modu integratuan aurkeztu behar baitira.

Hala ere, LMEan nabarmentzeko modukoa da oraindik ere BJA galdesorta (Eustat-ek diseinatutakoa) erabiltzen dela, funtsean. Horregatik, esan daiteke eragiketa BJAren jarraipena eta osagarria dela eskualde osoko, eta, kasu batzuetan, udaleko datuak lortzeko. Izan ere, aldagai handiei dagokienez, LMEaren emaitzak urte bakoitzeko laugarren hiruhilekoan BJAri dagozkion datuetara egokitzen dira, bi azterketa-modu horien artean kontraesanik izan ez dadin. Dena den, galdesortaren edukia arian-arian zabaldu egin dela aipatu behar dugu, informazio berria lortzeko eskaerak gero eta gehiago baitziren, eta eragiketa urtero egiten dela aintzat hartuta. Horrela, bada, eta funtsean BJA galdesorta oinarri hartuta, LME galdesortan galdera osagarriak ere badira, eragiketan jasotako informazioaren edukia aberastearren.

LMEaren bereizgarri den jatorrizko BJA galdesorta zabaltzeari prozesu bat gehitu behar zaio; hain zuzen ere, Eustatek garatutako sinplifikazio-prozesua, jatorrizko BJA galdesortaren diseinuari dagokionez. Horrek ondorio garrantzitsua eragin du LMEan. Urteak joan, urtean etorri, LME galdesortan item berriak sartu dira, jatorrizko BJA galdesortan ez daudenak, eta horrekin batera, galdesorta horren oinarrizko egiturari eutsi zaio orain, eragiketari eduki berria ematearren. Horrela, bada, LME lan-merkatuari buruzko eragiketa bat da, eta BJAren bidez lor zitekeena baino informazio askoz ere zabalagoa lortzeko aukera ematen du. Baina ekarpen osagarri hori ez da egiten BJAren jarraitutasun-ikuspegitik begiratuta; LME eragiketa urte bakoitzeko azken hiruhilekoan soilik egiten da oraindik ere.

BJA bezalaxe, LMEak taula moduan ere funtzionatzen du. Hortaz, eragiketaren oinarrizko beste erabilera bat da gure autonomia-erkidegoan bizi den 16 urtetik gorako biztanleriari eragiten dioten aldaketei buruzko luzaroko informazioa ematea.

Modu orokorrean azaldu dugun prozedura metodologikoa bat dator LME eragiketarekin lortu nahi ziren helburuekin. Ildo berari jarraiki, LMEaren oinarrizko helburua ez da BJAk lortzen dituen datuetatik aldentzen den datu-iturria ematea, baizik eta jarduerari, okupazioari eta langabeziari buruzko oinarrizko aldagaien gaineko eskualde-arloko hurbilketa finkatzea, eta ez bakarrik lurralde-arlokoa edo Euskal Autonomia Erkidego osoaren arlokoa. Bigarren mailako helburu gisa, LME lagin handiagoan oinarritzen denez, zenbait kolektibori dagokienez (esate baterako, langabeen kolektiboa bera), BJArena baino esplotazio-aukera handiagoa emateko aukera du. BJA galdesorta sinplifikatzeko prozesuaren testuinguruan, LMEari esker, gainera, Eustaten estatistika-eragiketak ematen duena baino informazio zabalagoa lortzeko aukera dugu gaur egun.

Azkenik, honako hau adierazi behar da: BJAn langabeen taldea definitzeko Eurostaten araudiak hartu ostean, 2001. urteaz geroztik Eustat/BJA metodologia berria erabiltzen da jardueraren araberako kategoriak mugatzeko. Distortsioak saihestearren, egoera guztien —batez ere, langabeziarekin eta jarduerarik ezarekin loturikoak— bilakaeraren azterketa egiteko garaian, hasierako BJA metodologiari dagozkion bilakaera-datuak eskaini izan ditu LMEak 2003. urteko eragiketara arte, luzaroko azterketan datuak modu koherentean interpretatzea erraztuz. 2005etik aurrera ez dago metodologia zaharrari dagokion daturik; horren ondorioz, zenbait alderditan datuak interpretatzeko eta egokitzeko arazoak izan daitezke. Irizpide orokor gisa, txosten honetan aurkezten diren datuak 1999ra bitarte jatorrizko metodoari dagozkio, eta 2001eko eta ondorengo zifrek egindako metodologia-aldaketa berriak erakusten dituzte.

## Erabili diren enplegu-eskualdeak eta -arroak

1997. urteaz geroztik, EUSTATeko eskualde guztiei eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri handiei buruzko informazioa ematen du LMEak. Nolanahi ere, azken lurralde-eremu horietan jarduerari, okupazioari eta langabeziari buruz erantsi direnak soilik daude eskuragarri.

Komenigarria da datuei buruzko egitura-azterketa egitea LMEan erabili ohi diren 11 enplegu-eskualde eta -arroa handiei dagokienez; honako hauek dira eskualde eta arroa horiek:

1. ESKUALDEA. GASTEIZ

EUSTATek honako eskualde hauek sartzen ditu: Arabako Lautada, Arabako Mendialdea, Arabako Haranak eta Arabako Errioxa.

LMEari dagokionez, eskualde hori bost azpieskualdetan banatzen da, eta EUSTATen arabera honako eskualde hauek dira: Arabako Mendialdea, Arabako Haranak, eta Arabako Errioxa, baita EUSTATen araberako Arabako Lautada eskualdea ere. Azken eskualde hori LMEaren arabera bi azpieskualdetan banatzen da: Gasteiz udalerria eta Arabako Lautadako gainerakoa.

2. ESKUALDEA. AIARALDEA

EUSTATek honako eskualde hauek sartzen ditu: Arabako Kantaurialdea eta Gorbeialdea.

LMEari dagokionez, eskualde hori hiru azpieskualdetan banatzen da, eta honako hauek dira: EUSTATen araberako Gorbeialdea eta Arabako Kantaurialdea. Azken eskualde hori LMEaren arabera bi azpieskualdetan banatzen da: Laudio udalerria eta Arabako Kantaurialdearen gainerakoa.

3. ESKUALDEA. ESKUINALDEA

EUSTATen arabera, Bilbo Handiari loturiko Eskuinaldea barnean hartzen du.

LMEari dagokionez, eskualde hori lau azpieskualdetan banatzen da: Getxo, Leioa eta Erandio, baita Bilboko iparraldean dauden gainerako udalerriak ere, Txorierrikoak barnean hartuta.

4. ESKUALDEA. BILBO

Bilboko udalerria hartzen du barnean.

5. ESKUALDEA. EZKERRALDEA

EUSTATen arabera Bilbo Handiari lotuta dagoen Ezkerraldea eskualdeari eragiten dio, baita Enkarterri eskualdeari ere.

LMEari dagokionez, eskualde hori zortzi azpieskualdetan banatzen da: Barakaldo, Basauri, Galdakao, Portugalete, Santurtzi eta Sestao, baita EUSTATen araberako Enkarterri eta Txorierriko hegoaldean edo Ezkerraldean bertan dauden Bilbo Handiaren gainerako udalerriak ere.

6. ESKUALDEA. BIZKAIA-KOSTA

EUSTATen arabera honako eskualde hauek sartzen dira: Plentzia-Mungia, Gernika-Bermeo eta Markina-Ondarroa.

LMEari dagokionez, eskualde hori hiru azpieskualdetan banatzen da eta azpieskualde horiek EUSTATen araberako eskualdeak dira.

7. ESKUALDEA. DURANGALDEA

EUSTATen arabera honako eskualde hauek sartzen dira: Durangaldea eta Arratia-Nerbioi.

LMEari dagokionez, eskualde hori hiru azpieskualdetan banatzen da, eta EUSTATen arabera eskualdeak dira, Durango izan ezik; udalerri hori bereizita aztertzen baita.

8. ESKUALDEA. DONOSTIALDEA

EUSTATen arabera honako eskualde hauek sartzen dira: Urola-Kosta, Donostia, Donostialdea eta Bidasoa Beherea.

LMEari dagokionez, eskualde hori zazpi azpieskualdetan banatzen da, eta honako udalerri hauek hartzen ditu barnean: Hondarribia, Irun, Donostia, Errenteria eta Zarautz, EUSTATen arabera Donostialdeko gainerako udalerriak, eta Urola-Kostako EUSTATen araberako gainerako udalerriak.

9. ESKUALDEA. TOLOSA-GOIERRI

EUSTATen arabera honako eskualde hauek sartzen dira: Tolosaldea eta Goierri.

LMEari dagokionez, eskualde hori bi azpieskualdetan banatzen da eta EUSTATen araberako eskualdeak dira.

10. ESKUALDEA. DEBAGOIENA

EUSTATen arabera Debagoiena eskualdea sartzen da.

LMEari dagokionez, Arrasateko udalerria ez dago eskualdearen gainerakoaren barnean hartuta.

11. ESKUALDEA. DEBABARRENA

EUSTATen arabera Debabarrena sartzen da.

LMEari dagokionez, Eibar udalerria ez dago eskualdearen gainerakoan barne hartuta.

Aurkeztu ditugun eskualdeak bat datoz Eustaten eskualde-hurbilketa historikoarekin, eta 1993. urteaz geroztik ez da aldaketarik egin eskualdeen antolaketan.

# AURKIBIDEA


0. Emaitza nagusien laburpena 3

1. Biztanleria aktiboa 13

2. Langabeak 23

   2.1. Datu orokorrak 23
   2.2. Langabezian emandako denbora eta enpleguan izandako esperientzia 32

3. Biztanleria landuna 37

   3.1. Datu orokorrak 37

   3.2. Datuak jarduera motaren arabera 49

   3.3. Datuak lanbidearen eta lanbide-egoeraren arabera 63

      3.3.1. Lanbidea 63
      3.3.2. Lanbide-egoera 71
         3.3.2.1. Soldatapekoen berariazko datuak 77

   3.4. Okupazioaren beste alderdi batzuk 85

      3.4.1. Egungo okupazioan emandako denbora eta okupazioa lortzeko bideak 85
      3.4.2. Beste enplegu bat bilatzea eta enplegu-aniztasuna 86
      3.4.3. Lanak eragindako diru-sarrera garbiak 88

4. Biztanleria ez-aktiboari buruzko alderdi batzuk 93

   4.1. Etsia hartutako biztanleria ez-aktiboa 93

   4.2. Lanerako prest dagoen biztanleria ez-aktiboa 93

5. Lan-merkatuan lanerako prest dagoen biztanleria 97

6. Azken urtean enpleguarekin izandako harremana 105

7. Lana bilatzeko neurriak. 111

8. Atzerritarrak 133

Eskualdeen, azpieskualdeen eta udalerrien araberako datuak 143

Lan Merkatuaren Erroldaren ezaugarri orokorrak 151

Erabili diren enplegu-eskualdeak eta –arroak 155